

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXXI (2. aldia)
(1986, 2)

31
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Maketazio eta orrazketak: R. B.
Fotokonposaketa: Rali

Elkar, E. Koop. grafikagintza
Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

©Euskaltzaindia
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. 0210-1564
Euskera

ISBN. 85479

Legetzko Gordailua: BI 211-87

AURKIBIDEA

P. XARRITTONEN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

<i>Fr. Luis Villasante, Euskaltzainburua: P. CHARRITTON JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	265
<i>Léon Darraidou, Hazparneko Auzapez-ordaina: P. XARRITTON-en EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	271
<i>P. Xarritton: P. XARRITTON-en EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i>	275
<i>J. L. Davant: P. XARRITTON-en EUSKALTZAINDIAN SARTZEA</i> ...	287

LEF JARDUNALDIAK

<i>Fr. L. Villasante, Euskaltzainburua: LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO IV. JARDUNALDIAK</i>	297
<i>J. A. Aduriz: LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO IV. JARDUNALDIAK. L.E.F.</i>	301

EUSKAL AZENTU ETA EBAKERAZ II. JARDUNALDIAK

EUSKAL AZENTU ETA EBAKERARI BURUZKO JARDUNALDIEN BATZORDENOAREN BILERA DONOSTIAKO ORDEZKARITZAN	307
<i>Fr. L. Villasante, Euskaltzainburua: EUSKAL AZENTU ETA EBAKERAZ II. JARDUNALDIAK</i>	311
<i>Francesc Valverdú: SOBRE EL ESTANDARD ORAL CATALAN: EL MODELO DE LENGUA EN TV3</i>	317
• Datos lingüísticos	317
• Datos demográficos	318
• El catalán en los medios de comunicación de masas	318
• La cuestión del estándar	319
• Elocución y ortología	321
• Criterios sobre la elocución en TV3	322
• Las voces	323

• El control de las voces en TV3	324
• Conclusiones	325

<i>M. L. Oñederra</i> : HIZKUNTZEN FONOLOGIA	327
--	-----

<i>P. Altuna</i> : AZPEITIKO EUSKAL EBAKERAZ	333
--	-----

<i>Txillardegí</i> : PROPOSAMEN BAT AZENTUARI BURUZ	341
---	-----

• Azentuaren arazoa gaur	341
--------------------------------	-----

• Oinarri seguru batzu	342
------------------------------	-----

• Azentudun silaba ezkerretatik kondatu behar	342
---	-----

• Markarik gabeko unitateen azentuaketa	343
---	-----

• Izenen deklinabidea	343
-----------------------------	-----

• Aditz izenkien azentuaketa	344
------------------------------------	-----

• Pluralaren azentu-aldaketaren mugak	345
---	-----

• Hitz markatuen arazoa	347
-------------------------------	-----

• Azken ohar bat	348
------------------------	-----

<i>J. Basterretxea</i> , "Oskillaso": EUSKAL AZENTOA	349
--	-----

<i>A. Irigoien</i> : HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOA, KONTZIENTZIA LINGUISTIKOA ETA EUSKAL EBAKERAK	351
--	-----

<i>J. M. Etxebarria Ayesta</i> : KONTSONANTE MULTZOEN AHOZKERA ..	361
---	-----

• Leherkari gorrak	361
--------------------------	-----

• Frikari-xistukariak	365
-----------------------------	-----

• Afrikariak	368
--------------------	-----

• Sudurkariak	369
---------------------	-----

• Albokariak	369
--------------------	-----

• Kontsonante bikoitzak	370
-------------------------------	-----

• Idazkera $\neq$ ahozkera	371
----------------------------------	-----

ATLASGINTZA

<i>J. M. Etxebarria</i> : EUSKAL HERRIKO ATLAS LINGUISTIKOAREN HISTORIRAKO	375
--	-----

<i>G. Aurrekoetxea</i> : EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA (EHHA): INKESTA METODOLOGIA ETA EZEKO DATUAK	413
--	-----

<i>I. Ibarra - X. Videgain</i> : ATLAS LINGUISTIKOA ETA INFORMATIKA...	425
--	-----

FELIX LANDABURU MADARIA (1886-1918)

<i>J. A. Arana Martija</i> : FELIX LANDABURU MADARIA	437
--	-----

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKAL AZENTU ETA EBAKERAZ II. JARDUNALDIAK. Adierazpena	441
--	-----

EUSKALTZAINDIARI PROPOSAMENA	443
------------------------------------	-----

EUSKALTZAINDIARI	449
------------------------	-----

A LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA ..	450
--	-----

GURE AKADEMIAREN AKADEMITASUNAZ	451
---------------------------------------	-----

BATZAR AGIRIAK (1986, I, II, III, IV, V eta VI)	463
---	-----

EXCMO. SR. PRESIDENTE DE LA JUNTA ELECTORAL CENTRAL ..	489
--	-----

MEMORANDUM DE LA AUDIENCIA CONCEDIDA POR EL EXCE- LENTISIMO SR. SECRETARIO DE UNIVERSIDADES E INVE- STIGACION	491
---	-----

HERRI-IZENEI BURUZKO ADIERAZPENAK

MUNITIBAR	497
BARAKALDO	498
UGAO/MIRABALLES	501

BATZAR TXOSTENAK

<i>J. A. Arana Martija</i> : BETOLAZAREN "DOCTRINA CHRISTIANA"...	505
<i>M. Zalbide</i> : HIZTEGIGINTZA-BATZORDEA: 1986.rako EKINTZA PLANA	527
<i>K. Mitxelena</i> : ERATORBIDEA ETA DEKLINABIDEA	535
<i>A. Irigoien</i> : BIZIDUN ZENTZUZKO IZEN SINTAGMAK ETA-KO GE- NITIBO NOMINALIZATZAILEA	543
<i>L. R. Glz. de Viñaspre</i> : "EZKONDU" HITZAREN ETIMOLOGIAZ ...	545
<i>Paki Arregi</i> : UME ERDELDUNEN EUSKARAREN INGURUAN	553

BERRIAK

<i>J. A. Arana Martija</i> : AMERIKETAKO ESTATU BATUETARA BIDAIA ..	573
<i>J. A. Arana Martija</i> : LONDRESERA BIDAIA	579
<i>J. San Martin</i> : JULIO CARO BAROJA, REAL ACADEMIA ESPAÑO- LA-ko SARRERA HITZALDIA	581
<i>E. Knörr</i> : "ONOMASTICON VASCONIAE" SORTAREN LEHEN LIBU- RUAREN AURKEZPENA IRUNEAN	583
<i>Fr. L. Villasante, Euskaltzainburua</i> : "EUSKALTZAINDIAREN X. BIL- TZARRA" ETA "MAILEGUZKO HITZ BERRIEI BURUZ EUSKAL- TZAINDIAREN ERABAKIAK" LIBURUEN AURKEZPENA	585
<i>J. San Martin</i> : T. ETXEBARRIAREN "FLEXIONES VERBALES Y LEXI- CON DEL EUSKERA DIALECTAL DE EIBAR" LIBURUAREN AURKEZPENA	591
1986. URTEAN EUSKALTZAINDIKO BATZARRETARA JOAN ZIREN EUSKALTZAIN OSOAK	595
1986. URTEAN EUSKALTZAINDIKO BATZARRETARA EZIN ETO- RRIA ADIERAZI ZUTEN EUSKALTZAIN OSOAK	595
1986. URTEAN EUSKALTZAINDIKO BATZARRETARA JOAN ZIREN EUSKALTZAIN URGAZLEEN ZERRENDA	596

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

EGOITZA / SEDE	599
"AZKUE BIBLIOTEKA"	599

GORDAILUA / ALMACEN	599
ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES	599
EUSKALTZAINBURUGOA / CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS	600
EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN BI URTETARAKO ORGANI- GRAMA	601
EUSKALTZAIN OSOAK / ACADEMICOS DE NUMERO	605
EUSKALTZAIN OHOREZKOAK / ACADEMICOS DE HONOR	607
EUSKALTZAIN URGAZLEAK / ACADEMICOS CORRESPONDIENTES	609
Aurkibidea 1986	615

P. XARRITTONEN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Hazparne, 1986-VI-28

P. CHARRITTON JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

(Hazparne-n, 1986, Ekainak 28)

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Hazparneko jaun auzapez agurgarria eta hazpandar entzuleak!

Euskaltzainkideak, eta hainbeste tokitarik etorri zareten jaun-andreak!

Agur bero bat denoi!

Piarres Charritton jauna, Hazparneko semea, Euskararen Akademian hartua izanen da gaur.

Ez da lehenbizikoa, noski. Esan nahi dut orain baino lehen ere eman izan diola Hazparnek bere semeetarik Euskaltzaindiari. Pierre Brous-sain, jaun mediku eta Hazparneko auzapez izan zena, Euskaltzaindiaren menbro edo “académicien” izan zen Akademiaren sortzetik beretik. Eta 1977an beste hazpandar bat, Jean Hiriart Urruty jauna gure Akademian hartua izan zen hemen Hazparnen egindako bilkura batean.

Hazparne herri suhar eta azkarra, euskararen literaturan ezin ahan-tzia dela, orok dakite. Ez naiz, bada hasiko herri honek eman izan dituen idazle, koblakari, kazetolari eta abarren izenak eta lanak kontatzen, guztion gogoan baitaude.

Ene hitz motz hauetan puntu xoil bati lotuko natzaio: Zein da gure Akademiak existitzeko duen arrazoin gorena edo azkena? Galde honi ihardestera zuzenduak izanen dira ene hitzak. Eta galde horri ihardeste-ko, hain zuzen, axaleko dirudien xehetasun batek emanen dit elapide.

Gure Akademia honek ohitura du, euskaltzain edo “académicien” berri bat hartzen duenean, hartze hori euskaltzain berriaren sorlekuan berean ospatzea. Zergatik hori? Segur aski, herritarren begitan gure min-tzairaren alderakotzat estimua, ospea eta itzala pitz dadin amoreagatik. Eta horrek badu bere funtsa. Ez ote da egia hizkuntza batek gizarteko “prestige” edo ohorea galtzen duenean, mintzatzaileek berek, goizago edo beranduago, mintzaira hura gutietsi, mesprezatu eta azkenean arbuia-

tu egiten dutela? Bai. Herriaren aurrean prestijioa galdu duen mintzaira galbidean sartua da. Euskarak ere atzeraka edo gibelerat egin baldin badu anitz tokitan, prestijio galtze hori aurkitzen dugu ia beti gibelamenduaren erroan eta iturburuan.

Euskarak, eskolatik, irakaskuntzatik, administrazioetik eta ohore zer-bait duten egitekoetarik kanpoan egonik, maila-galtze bat jasaiten du euskaldunen beren begitan, eta hau ez da mintzaira hori bertan behera uzteko lehen urratsa baizik. Euskaltzaindiak nahi du, bada, honelako paradak baliatu euskararen balioa, estimua eta itzala herriaren aitzinean sustatzeko.

Akademia honek Euskaltzaindia du bere deitura, erran nahi baita, euskararen arta izateko jarriarik den batasuna. Batasun honetan sarturik diren jaunak Euskal Herriko eskualde guztietakoak dira. Beraz, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Zuberoa, Nafarroa Behere eta Lapurdiko jaunez osatua da Euskaltzaindia, mintzaira honen goiti-beheitiak orotasunean har ditzan amoreagatik.

Euskara atxiki, landu, sustatu: hau da Euskaltzaindiaren xede edo helburua. Ongi dakigu zeinen gaitz den helburu hauek erdiestea. Bai. Ongixko dakigu euskara mintzaira ttipia dela eta mehatxatua dagoela, zeren eta bi hizkuntza boteretsuk lurra ebatsi baitiote. Halarik ere, euskararen salbamenduko obra handi hau ez dugu uste ipuinen munduko obra dela. Egin daitekeen gauza dela, uste dugu, alegia, baldinkizun batzuk betetzekotan, beti ere. Lehena eta beharrena, euskaldun herriak berak zinetan eta benetan hori nahi dezala eta horretan berma dadila. Eta bigarrena, mintzaira nimiño bati gaurko mendean irauteko behar diren bideak ez dakizkiola herts, adibidez, eskola eta hizkuntzen hedamenerako gaur diren entzun eta ikusizko tresna horiek.

Zergatik du Euskaltzaindiak euskararen arrangura hau? Zergatik nahi du mintzaira hau bizirik atera eta iraunarazi? Arrazoiak nabariak dira eta nornahik pisa eta aintzat har ditzakeen modukoak. Euskal Herri honen mintzaira baita, herri honen ondarea baita, gure nortasunaren sostengu eta miraila, alegia.

Kulturaren aldetik hizkuntza honek gaur lortu duen arrakasta ere gogora dezagun. Jaun jakintsu eta hizkuntzalariak ohartuak dira euskararen berezitasunaz, eta mintzaira honek kulturarentzat duen aparteko balioaz. Frogatutzat daukate euskara dela alde hauetan bizirik gelditu zen hizkuntza bakarra, duela hiruzpalau mila urte, indoeuroparrak beren mintzairakin etorri eta hemen lehendanik ziren gainerako hizkuntzak oro suntsitu zirenean. Beraz, aitzinagoko hizkuntzetatik hondar edo testigu bakarra dela, gure euskara. Eta geroago, Erromatar Inperioan berriz ere Europako alde honetan latinak beste hizkuntza guztiak ito zituenean,

euskarak bakarrik iraun zuen. Galtze handia izango litzateke, bada, munduko kulturarentzat Europako lehen hizkuntzen lekuko hau gal baledi.

Eta kasu honi. Euskaltzaindiak nahi du euskararen aldeko bere lana egin politikazko borroka eta nahasteak alde bat utzirik, eta hori arrazoi simple bategatik: euskara guztiona baita, herri baten ondarea baita, eta orduan ez dugu nahi euskara politikazko aukera edo hauta berezi bati estekatua egon dadin.

Euskaltzaindiaren lanez xeheki mintzatzeko ez da hau une egokia. Baina laburzki emanez, esanen dut Gramatika eta Hiztegia daudela gure lan denak nolazpait bilduak. Gramatika bat nahi eta behar dugu —eta horretan gara— tokian tokiko euskararen ñabarduren gainetik egonen dena eta Euskal Herriaren hedadura guztirako izanen dena, euskaldun guztien artean lokarri izateko balioko duena, alegia, euskalki bereziei zor zaien errespetua atxikiz beti ere. Hiztegia ere orokorra, duela larogoi urte Azkuek burutu zuenaren segida. Bi obra handi hauek gaur-egun oso aitzinatuak ditu Euskaltzaindiak.

Eta bada beste lan bat ere guretzat munta berezia duena, hots, behialako idazlarien liburuak berriz agertzea, zeren eta horiek baitira euskararen iturriak eta horiek behar baititugu ezagutu eta eskuztatu gure mintzaira etengabe eraberritzeko edo errumes eta elbarri bihurtzetik begiratzeko. Eta esan behar dut horien artean guretzat aparteko modu batean aipagarri eta maitagarri direla Lapurdiko idazlari zaharrak: Beraskoitzeko Leizarraga, Axular, Sarako Etxeberri, Lavieuxville, Haraneder, Baratzia, Duhalde, Duvoisin eta beste anitz, euskararen literatur tradizioan ildo guztiz nabaria utzi dutenak.

Zeregin guzti hauek aitzinatzeko Euskaltzaindia bera bakarrik ez litzateke gai izango, baina gaur zorionean baditu lankide eta lagunak, guztiz ere Unibertsitateko munduan.

Ez dut aipu bat egin gabe utzi nahi Atlasaren obra handia. Gaskoi-
nek aspaldi egina dute beren mintzairaren Atlasa; guk, aldiz, oraino egin gabe dugu euskararena. Atseginekin esan nezake, ordea, obra hau ere beregain hartua duela Euskaltzaindiak eta gaur martxan dela. Zenbait urteren buruan bukatua izanen dela uste dugu.

Hitzen eskasiari nola aurpegi eman? Horra euskarak gaur duen istilu larri bat. Gaurko sujetak tratatzeko tresna zalui eta trebe izan dadin, euskarak behar du bere hiztegia aberastu. Nola, ordea? Hor da maileguen bidea, baina euskarak badu beste biderik ere hitz berriak sortzeko, hala nola, konposizioa eta deribazioa. Alor honetan egin beharko denaz kezkatua da Euskaltzaindia.

Euskaltzaindiak badaki, noski, berak bakarrik ez duela itsas zabal hori neurtzen ahal eta guztion lana izango dela hau, baina uste du hala

ere arau gidari batzu eta erizpide batzu finkatzea berari dagokiola, hitz berrien sorketa batasun baten barnean gerta dadin. Hain zuzen, honera, Hazparnera, etorri baino lehen, bi egunez Belokeko Abatetxean bildurik egon da Euskaltzaindia auzi hau istudiatzen. Eta gerora ere bilkura gehiago egin beharko ditu gai hauetaz.

* * *

Baina gatozen harira, gaurko ospakizunera.

P. Charritton jauna Euskaltzaindian hartzen dugu gaur. Hazparneko seme hau P. Lafitte jaun zenaren ondokoa da gure batasunean. Guztiok dakigu zer eta zenbat egin zuen Lafitte jaunak euskararen alde. Badu euskaltzain berriak nori so egin. Haren urratsei jarraikiz, berak ere uzta ederra ekar diezaiola euskarari. Hauxe opa diot egun.



P. Xarritton Euskaltzaindian sartzea: Fr. Luis Villasante Euskaltzainburuak Piarres Charritton euskaltzain berriari ematen dio euskaltzain domina J. Pinatel, Hazparneko auzapezaren aintzinean.

Beste hazpandar baten —P. Broussain jaunaren— letrak ikertzen eta argitaratzeko prestatzen ari dela Charritton jauna badakit. Mende honen hastapenean bi euskaltzale handik —Broussain eta Azkue— elkarri eskutitz-andana egin zioten. Horietan ikusten da zer arrangura zuten jaun ospetsu horiek euskararen etorkizunaz, eta euskara salbatzeko egin behar litekeenaz solastatzen ari dira letra horietan. Akademia bat muntatu behar dela euskararen arazoak gidatuko dituen, hori da jaun horiek aho batez diotena. Horretaz gainera, euskara-molde bat bateratua euskaldun guztien artean lokarri izateko balio lezakeena, moldatu. Baita euskarak duen hitz berrien premiaz ere mintzo dira. Hitz batean esanik, euskara mende berrian tresna zalui izan dadin egin behar denaz kezkatu daude.

Ni nago zerbitzu ederra egingo diola Charritton jaunak euskal istudioen historiari Broussain eta Azkueren arteko letra horiek argitaratzeaz. Etchepare jaun medikuak kazetetan argitara zituen artikulua ere, liburutik bilduak, berriz argitaratzen ari zaigu Charritton jauna. Ikusten duzue-nez, ez da jaun hau esku hutsik Euskaltzaindira heldu.

Eta beste gabe, orain segituan euskaltzain berria Euskaltzaindian sartzeko ohikuneari hasiera emango zaio.

Idazkari jaunak irakur beza Barne-Erregeletako 45. artikulua.

P. XARRITTON-en EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Hazparne, 1986-VI-28

Léon DARRAIDOU, Hazparneko auzapez-ordainaren mintzaldia

Jaun merak galdaturik eta, P. Charritton, zure nahiari ihardesteko zonbait hitz erranen ditut, Herriko kontseilari gisa, euskaraz, nahiz bertze auzapez-ordainak ni bezen gai izanen ziren zuen aintzinean agertzeko.

Eta lehenik gure agurrak eta ongi-ethorri beroena Hazparneko Herriko etxean, P. Charritton gure herritarraren zuen batasun agurgarrian sartzeko egun huntan.

Neurtzen dut zer irriskua hartzen dutan Euskaltzaindiko kideen aintzinean euskaraz mintzatuz, baina Hazparnen gisa izanen ote zena erdara baizik entzutea Herri-gizonen ganik. Bertzalde, ari gira batzu eta bertzeak, eskuin eta ezker, gure euskara ez dugula galtzerat utzi behar eta gure indar guziak egin behar ditugula haren begiratzeko. Funtsezkoak izaitzekotz, balia gaiten beraz, parada dugunaz geroz, goraki erakusteko euskara ere gure hizkuntza dela eta gain gainetik hari atxikiak girela.

Ez ditut zure idatz-egintzak aipatuko, ene ondotik jinen direnek eginen baitute nik baino hobeki. Gaur Euskaltzaindian sartzen balin bazira ez da, alabainan, arrazoinik gabe, eskuak hutsik, erraiteko maneran. Haur haurretik euskara mintzatu duzu eta geroztik erabili zure bizian eta zure liburuak irakutzearekin edo zure mintzaldiak entzutearekin, berehala ageri da euskara izan dela zure lehen mintzaira eta euskaraz ari dela zure izpiritua lanean, euskaraz idazten duzularik edo mintzo zirelarik. Eta hortako dira zure izkirioak eta eleak aise heldu, ura lurretik sortzen den bezala: garbi, arin errex eta beraz laket eta eder.

Bainan ez duzu zure bizia idazten pasatu eta haste-hastetik erakusterrat eman duzu herri baten kultura ez dela bakarrik liburuetan edo hizkuntzan finkatzen, baina ere bizi-bideak eta ekonomia sustatuz. Gose den edo lanik gabe den gizonak ez du kulturaz edo philosophiaz axola handirik. Eta bertzalde herria husten balin bada, norat ari da haren kultura?

Iduritzen zaut horiek denak gogoan zinituela Hazparden hasi zinelarik, karrika gain hartan, ikastetxe berri batzuen altxatzen, Euskal-Herriko gazteen geroari buruz eskolatzeko, bai laborantzako, bai teknikako gauzetan.

Ekonomiaz griñatuz, biharko lan bideen apailatzean parte hartuz, bazinakien denbora berean kultura ere zinueta sustatzen eta zerbitzatzten. Ohargarria segur bi sail neke horien eremaiteko kalipua ukan duen gizona.

Erran behar da, hastean bederen, ukan zinituela zombait traba. Bainan hain zinen atrebitua nun denak bultzatu baitzinituen.

Bai arrazoin zuen Misionestegiko apez xahar batek zutaz ziolarik: "Jainkoak bertze zerbait egin balu, buldozer bat izanen zen!" Gauzak pixka bat bortxatuz, bistan da zombait kontrario sustatzen direla eta, nahi-ta-ez, gibel-oldar batzu kausatzen. Bainan ez ote da hori aintzin-bidari guzien zortea, artaldearen aintzinean eta ez gibeletik ibiltzen diren gizonena? Ez du sekulan nehork denen ara eginen eta guk ere, hautesiek, hörtarik zerbait badakigu. Batzuetan, bozka horietan, ez ote duguia 50 %-eko marra hori zombait gradoz baizik gainditzen? Eta oraino kontent!

Dena den, hasi lana bururatu zinuen eta bazterrak ere ixildu. Orain gutiz gehienek, ez erraiteko denek, aitortzen dute lan ederra egin duzula. Duela zombait urte frogatu ditugu zure obraren ondorioak, Leroy-Somer Hazparnerat jin zelarik. Formazione berezi baten beharra baitzuten lehen langileek, Kolejioko erakasleek eta usina hortako kudeatzaileek eskuz-esku, Saint-Joseph ikastegian eman zioten. Gauza bera gertatu da bertze lantegi batzuentzat ere. Eta berriki oraino: jakin duzue, behar nada, ola berri baten mentura badugula, "aéronautique" horri buruz ariko dena. Horren buruzagiak nun izan dira Herriko-etxetik landa? Teknikako ikastegian, xede berekin.

Gisa berean Laborantzako Ikastegiak ari du emeki-emeki gure eskualdeko laborantza aldatzen, gazteri ekarriz oraiko munduari joan zaizkon ezagutzak eta laneko molde berriak.

Horra beraz zuk erein haziaren lehen fruituak. Hori nahi nuen, hautetsi gisa, garbiki ta goraki erran, ezen Hazparden baitakigu denek zer lan zaila den gaur, herri batean, eskualde batean, biziaren zaintzea.

Eta erraiten dut, ez batere gauzen zuzentzeko, urak bide egin baitu geroztik, bainan zuri P. Charritton eskerrak bihurtzeko ukan duzun bertutearentzat eta aldean zinituen lagun guziekin utzi daukuzun obra ederrarentzat.

Kultura, ekonomia, Euskal-Herriko bizia ditutzu zerbitzatu eta zerbitzatzten. Agian zure etsenplua segitua izanen da.

Gure aldetik, Hazparden, bi sail horietan egin ahalak egiten ditugu, ez balin badira ere beti gure indarrak ondorio onez pagatuak, partikulazki lan-bide berrien xekatzeko hontan. Bat xutik ezar eta bertzeak lurrerat, hori da zorigaitzez oraiko planta. Baina ez gira lotsatzen eta esperantza dugu jinen dela Hazpardenentzat eta Euskal-Herriarentzat, aro berri bat.

Kulturaz ere griñatzen gira, ikastolak lagunduz bertze eskolak bezala eta Eihartzeko Kultur-etxean edo bertzalde lanean ari diren euskal talde guziak sustatuz.

Baina kultura ez da bakarrik Euskaltzaindian, etxe berezi horietan eta eskoletan kokatu behar, kulturak bizi behar du egun guzietan eta denetan: etxean, lan-tokian, karrikan, plazan. Bertzela laster bilakatuko da erakus-toki edo “musée” horietan den gauza bat: ikustea balio duen gauza bat segur, arradoa baina hila.

Bai, gure kulturaren bizirik atxikitzea, denen lana izan behar da: zuena, gurea, euskaldun bakotxarena. Sail hontan bederen, denek edozoin alderdikoak izan gaitezten, elgarri esku eman bagineza gure eztabada guziak ixilduz!

Bururatu behar dut galde bat eginez: huts andana bat egin baititut segur, hitz eskasez, edo hauk elgarri ezin josiz eta gehiago dena batere ohartu gabe, otoi denak ahantz eta gaizki erran guziak barka.

Berriz ere goresmenak zuri, P. Charritton, egungo izendatze hunentzat, egin dituzun lanentzat eta zure Euskaltzaindiko lagunekin eginen dituzunentzat.

Orai arte bi Hazparden jarri dira merezitu edo irabazi duzun alki hontan: P. BROUSSAIN eta Jean HIRIART-URRUTY. Hirugarrena zira beraz. Agian ez azkena!

Eta —baina badea erraitearen beharrik?— baita aski jende epel, herabe eta ezazol denak berdindu nahi dituen mundu huntan, zu bederen, Jauna eta adixkidea, Jainkoaz, ez zaitela kanbia!

P. XARRITTON-EN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Hazparne, 1986-VI-28

Piarres Xarritton-en mintzaldia

Jaun andreak,
Herritar eta adiskideak,
Ene haurride eta etxeko maiteak,
Eta zuek Piarres Broussain, Georges Lacombe eta Piarres Laffiten
alkia hartzera deitu nauzuen Euskaltzain ohoragarriak,
agur eta esker mila zuei.

Baxenabarreko pestaberrietan gazteriaren aitzindaria badoakio meza hasterakoan Jaun ertorari sankristiara bila, eta erraiten dio: "Jauna, aitzinekoen urratsari jarraikitzeke heldu gatzazkizu laguntzera..."

Ez dut erraite beharrik gure gaurko bilkurak ez duela gure herrieta-ko pestaberrien osperik, bizkitartean ni ere, aitzinekoen urratsari jarraikitzeke, jin natzaizue, jaun andreak, sorterriko udaletxe honetan Euskaltzaindian sartzeara egitera.

Hemen berean alabainan, duela 65 urte, 1921 eko martxoaren 8 an, urrats bera egin zuen Georges Lacombe irakasle jakintsuak, Piarres Broussain Hazparneko auzapez eta kontseilari general zenaren alxia hartu zuelarik, Azkue, Altube, Landerretxe, Lhande, Olabide, Daranatz, Elizalde, Léon, Belaustegigoitia, Saint-Pierre, Gerger Upsalako Privat-Docent irakaslea eta Broussain-en alarguna, besteak beste, zituela lekuko (1).

Geroztikago, nihaur itsasoz haraindian nindagoela, jakin nuen Jean Hiriart-Urruty adiskideak bere sartzeara —edo agertzea— egin zuela Herriko plaza gainean (1977-III-27) (2).

Hona beraz gaurregun ene aldi: Hau da nere eginkizuna, zuei, jaun euskaltzainak, milesker erran ondoan eta orai berean bihotz-bihotzez eskerrak bihurtzen dizkizuet nere aitzineko eta aitzindari izan dudana

(1) *Euskera*, 1922/2, 17-18. orr.

(2) *Euskera*, 1977/2, 323-360. orr.

Piarres Lafitte zena gogoratzea. Gero azkenik eta laburzki erranen dizuet nola nahi nuken zuen artean eta zuekin irauli beharko dugun alorra irauli, edo "irauli" hitz horrek norbait gutartean asalda baleza, erranen dugu, "Ehulategi"ko seme naizen bezala, "eho" behar dugun oihala ehun.

Piarres Lafitte, hemen bilduak garen guziek, guti-aski, ezagutu dugu. Haren biziak eta obraz, orenak eta orenak mintzatzeko doi bagenuke. Nahiz baden jada asko erranik eta idatzirik, badut uste oraino ere asko aipatuko dutela Lafitte zena batzuek eta bestek. Funtsean ohartuak zarete, ni bezala, eztabaidak sortzen ari zaizkigula haren inguruan. Bainan ez gaitzala horrek kexa! Beihalako Suhuskundarrak zioen bezala: "onean edo txarrean, gizonak behar dik aipatua izan!..." Gehiago oraino, erran nezake Piarres Lafittek berak, gain hartatik irri politik egiten dukeela, ezpaina azpilduz eta begi xokoa izurkatuz, sortzen ari diren eztabaiden hotsak entzunez. Beude halere gaurkotz eztabaida horiek ixilik! Utz ditzagun behin bazter gure irakaslearen ideia nagusiak eta pentsabideak, eta konda dezagun ahal bezain lañoki nola Piarres Lafittek erakutsi zigun ainitzi Euskal Herriaren ezagutzen eta maitatzen.

Herria ezagutzeko eta maitatzeko asko bide badagoela ez da dudarik, kantu ala dantza, josteta ala kirola, ikusgarri ala ikustaldi, bada orotarik: Oroitzen naiz 1942 an, Miarritzen "Oldarra" taldea sortu zuen Janpiarre Urrikarriet, aldudar apez gazte goizegi itzaliak, erraiten zidala: "Entzunak Charritton, Mao Xinatarrak erraiten dik —nork bada orduan bazekien bazenetz ere Mao Xinatarrik? —Maok— beraz erraiten dik, Zango puntetatik sartzen dela Iraultza".

Aitor dut bada Lafittek ez zidala abertzaletasuna irakatsi ez zango puntetatik ez dantza jauzi bidez: Nintzen eskoil honek ez niokeen ekairik emanen horretarako. Kantu bidez eta ikusgarri bidez ninduen menturaz bildu: Hortxe ikusten dudak eskolakidea oroit daiteke nola Uztaritzeko ikastegian, pesta egun batez Lafittek emanerazi zigun, pastorala moduan, "Kalahorra" izeneko Erromatarren eta Baskoindarren arteko gerla. Bada-kit ontsa behar izan nuela orduan, besoa altxatuz oihu egin, gora-gora eta denen irringarri: "Arrotzik ez da Euskal Herrian sartuko!".

Ixtorio honekin sartzen gara, nere ustez, Herriaren ezagutzeko eta maitatzeko gure irakasleak eskaintzen zigun lehen bidean, hots Historiaren bidean.

Ez dut ezen ahanzten nere euskal lanak, historia lanak izan zirela: Xabier Gasteiz izenpean, argitaratu nuen 1943 an, "Eskualdunak", lehen liburua (3) eta gero 1946 an, nere izen-deiturekin, "Euskal Herriko erlijioren historia laburra" (4).

(3) Ch. Gazteiz, "Eskualdunak", Baiona Aintzina, 1943.

(4) P. Charritton, "Petite histoire religieuse du Pays Basque", Bayonne, 1946.

Lehen liburuxkaren aintzin-solasean, nere irakasle ohia honelaxe mintzo zitzaidan:

“Zure liburu hau eskaini dautazu, enekin ikasi duzulakoan Euskal Herriaren ezagutzen eta maitatzen.

“Hala da, aspaldi honetan zerbait egiterat entseiatzen naiz, ala mihiz ala lumaz, euskaldun gazteria argitu eta berotu beharrez. Noizetik noizerat gazte bat edo beste, urrundik bederen, jarraiki nahi zaitalarik, oi ene loria, ez dutala halere arras alfer-lan egin!

“Zu adiskidea, ez zatzaizkit bakarrik jarraiki, bainan aitzindu: “Zaharra hurri, gazteak kurri!” errana baita füntsean, ez nitzazu batere aiherr. Bestenaz ere, aita-semez diotena ez ote dugu irakasle-ikaslez errepikatzen ahal: “semea gorago, aita hantuago”. Emazu beraz beretik, egitzu herriaren onetan eta ohoretan, lan eder nasaiak...” (5).

Barkatuko ahal didazue, adiskide onak, hitz horien errepikatzea, Lafittek hain ongi ezagutzen zuen Platon-en “Oturuntza”ko pasarte baten oihartzuna kausitzen baitiet: “Gizon orok, dio Filosofo handiak, adinera heltzearekin, ume ederrak egitea amensten du, gorputzez ez bada arimaz... berez hilkor den izaite bat hilezkor eta nolazpait Jainkozko izaiten baita horrela...” (6).

Horiek hola ta horien gaitik, handik laster Lafittek berak Euskaltzaindiko urgazlen lerroan sar-erazi ninduen, 1950 eko urriaren 27 an. Eta nolako lerroan! Hor baitziren Zaitegi eta Narbaitz, Léon Léon eta Domingo Soubelet bi hazpandarrak, aita Chabagno, Arotzarena eta Eppherre apezak, Juan Thamas, Blas Fagoaga eta Karl Bouda alemana, guziak beste munduan gure zain daudenak eta gero gelditzen garen bakarretarik, Paul Guilsou adixkidea, hain aspaldian Parisen deserriratu eta oroz gainetik, beren “euskaltzain oso”tasunak “hilezkor” edo —Krutvighek dioen bezala— “athanatoi” egin dituen Antonio Labayen eta Koldo Mitxelena “maisua” (7).

Bainan menturaren menturan egon beharrak ziren gaur arte, Lafitten ustetan egitekoak nituen historia “lan eder nasaiak”. Alta bada...

Badakizue denek zenbat maite zuen Piarres Lafittek historia: Oroit apezgai zelarik, Matalas Ziberotar apez borrokariaren kondera aurkeztu zuela 1924 eko Euskalzaleen Biltzarraren sarietara (8). Geroztik Uztartizera etorri zelarik Euskal Herriko historia hasi zuen argitaratzen “Eskual-

(5) Ch. Gazteiz, op. cit., 1. orr.

(6) Platon, “Oturuntza”: Diotime-ren hitzaldian, 206. c.

(7) **Euskera**, 1937-1953/2-14-15. orr.

(8) P. Charritton, “J. Etchepare mirikuaren idazlanak I”, Elkar, 1984, 102. orr.

duna” astekarian —ez ordea bururatu— eta ber denboran historia hura eskaintzen zien bere ikasle, gramatikarekin aldizkatuz eta euskal kantuekin aberastuz.

Nihaurk ere ordukotz etxen eta eskolan bildua nuen historiaren ganako zaletasun berezi bat: Napoleon handiaren (?) balentriez ari zelarik gure errienta, gogoratzen zitzaidan haren gerlatik besomotz etorri-ta, auzoko umei irakurtzen irakasten hasi zitekeela etxeko selauruan, aitasoren osaba zaharra. 1870 eko gerla aipatzean eskolan, oroitzen nintzen ez zutela entrabaleko zafraldia bildu soldado frantsesek, gure aitasok ikasi kantu honekin abiatuak zirelarik surat: “Nous irons tous à Berlin casser la gueule, casser la gueule à ces sales Prussiens!”. Eta azkenekotz 14 eko “gerla handi”, “gerla izigarri” hartaz banuen ere nahiko xehetasun: Ez ote zuen osaba Léon-ek bizia han galdu eta aitaren beste anaia Battittak osasuna han andeatu? Aita bera aldiz preso egonik, min handirik gabe atera zen Jainkoari esker.

Bainan herriko edozein etxetan bezala, gure etxen ere —nola erran?— “historia handi” ala “historia handios”, “historia ofizial” ala “eskolako historia”, “urruneko historia” edo Battitta Larzabal adiskideak dioen bezala, “kanpotik sartu historia” horren hotsak ozen baziren ere, eskoletako programan sartzen ez zen beste “historia ixil” baten, herriko historiaren seinaleak eta markak aurkitzen genituen bestalde.

Hala nola entzuna genion amari, bera sortu baino leheneko denboretan, Hauste egunez, Hazparneko elizan gertatu zela Karlista soldado batallun bat, elizako hautsen hartzera etorria. Eta gu asmaketan zer ote ziren Kàrlista historio horiek!...

Segur usu ikusten genuen aitaren lehengusu, Durquet apeza, 14 eko gerlan aitzindari aipatua izana eta “Bitoria” egunean Baionako karriketan frantses soldadoen buru ibilia, bainan bagenekien ere, aita berak salatutik, haren gazte lagun hoberena Erratzu alde horretan “desertaturik” bizi zela. Zer eta zenbat ote ziren “desertur” horiek ari ginen gure buruari galdezka...

Bazen bestalde gure etxen kantu liburu bat, neguko arrats luzetan amak eskutan hartzen zuena. Nahiz Hazparne bere herrian nehor gutik aipatzen zuen, haren egilea Jose Mendiague, Montevideo-n bizi zen orduan oraino. Liburu hori, “Zazpiak Bat” izenekoa, Buenos-Aires-etan argitaratua zen 1900 ean (9). Liburu hori nola jina zen gure etxera, ez nakike: Baziren bai Ehulateiko bi seme, Mendiague-kin betantsu 1870 irian, ehulegoak leher egin zuelarik hemen gaindi, Montevideo-rat joan zirenak, bainan ez zuten sekulan berririk igorri. Menturaz 14 eko gerla

(9) “Zazpiak Bat”, “Eskualdun Kantuak”, Buenos Aires, 1900.

aintzin, soldadogotik ekarria zuen, osaba Xalbat arotzak. Dena den, aitor dizuet liburu hori izan dela ene gogo-bihotzen su pizle, edo —“ordena-zaintzale” batek horrela nahiago badu— ene izpirituairen nahasle.

Geroztik ere beste asko liburu eskutan erabili dut eta maitatu, hala nola Mgr Diharce Eztiteiko osaba xaharraren liburutegi aberatsaren hondarkinetarik bereizi, Martin Landarretche-n “Aphurka”, Louis Lande-ren “Basques et Navarrais”, Pierre Lhande-ren “L’émigration basque” edo izeba Maienak irakurtzen zigun aita Lapitz-en “Bi saindu eskualdunen bizia”, bai eta ere Alfredo Otheguy nafartar eskolakide zenak, Auritzetik Hazparnerat ekarri zidan “Sabin Euskalduna”. Bizkitartean ene euskal lehiaren abiadura, Mendiague-ren liburutik dator.

Kantu liburu horretan nituen aurkitzen Napoleon “Handiaren” (?) tropek gure herrietan egin zituzten desmasia izigarrien berriak, Martin Bidartekoak pertsutan ezarririk. Hor ere Hazparneko Katxo famatuak kantaturik joan den mende hastapeneko jende xehe gosearen arregurak!

“Lehen Enperadore

“Orai Luis Errege

“Jende xehearentzat berdintsu dire” (10).

Hor berean azkenekotz Euskal Herriaren libertatearen, jabetasunaren eta batasunaren alde Ameriketatik Mendiaguek ontzen zituen kantu kartsuak; hala nola Guillaume Casenave hazpandar tenor famatuak hain maite zuen hau:

“Lapurdi eta Baxenabarre, Ziberoa eta Nafarra,
Gipuzko herri eta Bizkaia, zazpigarrena Araba,
Guziek elgar atxik dezagun niholere ahal bada...

Nahiz Frantzian ala Espainian joan den denbora handian,
Gure mintzaia nahiz galarazi ari dirade lanian
Ama utzi-ta, amaizuna har gerta laiteke orduian,
Geldi gaitezen gure amarekin, hoberik ez da munduian.

Euskal Herriak eman izan ‘tu biziki gizon handiak,
Bihotzez noble, burua gora, nehoren beldur gabiak,
Beti oihuka “libro edo hil” hauk diŕa gure legiak...

eta oraino gaurkotasun harrigarria darion pertsu hau:

Ez deia bada dolu-ingarri holako arraza galtzia,
Lehen gureak ziraden lurrak bertzen eskutan uztia?
Bakoitza bere lurren nagusi jartzen ari da jendia,
Ez dugu behar galdu esperantza, jin daite gure aldia” (11).

(10) Ibid., 53. orr.

(11) Ibid., 5-8. orr.

Horra beraz zer jakinaren gainean nentorkion entzutera gure Uztari-tzeko irakasleari, gure Herriko historiaren gorabeherak eta harat-hunatak zehazten zizkigularik. Ontsa oroit naiz ahoa xabalik banengokiola, haur haurretik, elizan beretter nintzelarik, ikusia nuen harrixurizko lauzan, Verus lehen hazpandar ezagunak idatziak zituen latinezko pertsuak itzul-tzen zizkigularik:

“Flamen item duumvir, quaestor, pagique magister Verus...
Pro novem optinuit populis se
Jungere Gallos” (12).

Eta kasu! erran niezaieke gaurko hazpandar gaztei, gaur eliza gibe-lean den harri horren beraren ikustera ereman banitza, Lafitte-k erraiten zigun bezala “sejungere” hori bi zatitan hartu behar dugun ala dena batean, zeren ez baitugu bestenaz ongi ulertuko nola gure bederatz-iherriak orduko “galli”, “gaulois” haien ganik bereiztea ardietsi zuen Verus, gure abertzaleen zinezko aintzindari lehenak.

Geroxago Lafitten oharrak biribildu berri nituelarik, Baionako Semi-narioan, Dubarat kalonje zenaren liburutegian, izan nuen Oihenart-en “Notitia”, Campion-en “Euskariana”, Haristoy eta Daranatz-en lanak, aurkitzeko eta irakurtzeko zoriona. Ez ziren baitezpada gure programetan sartzen, baina egundainotik banuen, iphularrak utziz, hesien artetik edo gainetik, haizu ez duten alorrean sartzeko behi ñapur bizi-tuen zerbait itxura. Hortako zidan erraiten aspaldian Ossiniry Ziberotar irakasle xahar-rak: “Charritton, vous serez toujours un irrégulier”.

Dena dela bide luze horren ondotik, nihaurek azkenean nere irakas-le ohiari eskaini nizkion historia lan apurrak egin ondoan, hain gogoko nuen lanetik baztertu nintzen —hezgaitza izana gatik hezia bait ninduke-ten— buruzagiek manaturik, ororen buru historia-ri beste hegala batetik lotzeko.

Historia ezen ez da bakarrik atzoko historia, bestek, gure aitzinekoek erabili urratsen, gogoeten ta sentimenduen haria, bilakaera ta kondaira, hori guzia nahi bezain onuragarri eta eragingarri izanik ere guretzat, Historia da ere guk guhaurek eta egunero daramagun gure gaurko bizi pertsonala.

Bizitze pertsonala diogularik ez dugun erran nahi bizitze pribatua edo indibiduala, bakoitzak bere xokoan, xiloan edo uhartean, Robinson iduri, mundutik aparte, leramaken bizia, baina bai Lafittek idazten zuen bezala, gure “adinkide, herrikide, bizikide” (13) direnen belaunaldiarekin, multxoan eta betantsu, alhor berean erro sustraiak eginez, elgar zurkaiz-

(12) Lauburu, “Histoire et Civilisation Basques”, Bayonne, 1979, 207. orr.

(13) Egan, 1955, 5-6. 9. orr.

tuz eta elgar haziz, bai eta ere, aitor dezagun, elgar poxelatuz eta elgar trabatuz batzutan, bizi dugun bizia.

Nork ez daki gutartean bizi behar edo bizi nahi horrek elgarretarik berexten eta urruntzen dituela odol bereko, etxe bereko hurbilenak, adixkide minenak? Gertatu zaigu horrelakorik gure Uztaritzeko irakasle ohiarekin.

1950 ez geroz Lafitte jaun apeza ari zitzaigula bere ikasleekin, bere euskal astekariarekin, bere euskaltzain lagunekin gure Euskal Herri xoko honen historia oratzen bere aldetik, ni haren ikasle ohia, banindabilan jauzi ta punpeka Hazparnetik Maulera, handik Parisera ta gero Baionara ta berriz Hazparnera —ordurarte beti buruzagien erranetik, bainan geroztik haien baimenarekin bakarrik— Parise ta Baiona ta Montreale-n gaindi; ta azkenik Gasteizeko teologo handiak zioen bezala, “gizon orok baitu munduan zehar nonnahi ibiltzeko ta kokatzeko eskubidea”, nehoren baimenik gabe, hamar urte honetan Baionan kokaturik.

Gure azken 30 urte honetako historiaren xehetasunetan sartu gabe, nahi nituzke halere oraino bizpahiru pundu aipatu:

Erran ditudan itzulietan hartu behar izan ditudan ofizio mota guzien ondotik, haurzain ta serora omonier, administrari ta oski-saltzale, irakaslegoa —ene funtsezko ofizioa sekulan osoki bazter utzi gabe— Herrirat itzuli naizelarik beraz, orai hamar urte, Gure Herri honen historiak aspaldian igurikatzen genuen bihurgunea hartzera zihoanean, ez dezaket ahantz zuek Euskaltzain adiskidek, ogibide bat eskaini didazuela, Lafitte maitearen ondoan eta UZEI-ko lankideen aldean. Ez nagoke egun batzuei ta beste, zuen ikustatearentzat milesker erran gabe.

Bigarren ohar bat egin dut egun hauetan: duela zenbait urte, orduan nihaurk beste egitekorik izanez, aski bastan utzi nituen “Egan” aldizkari aberatsaren zenbaki aberatsak, xehekiago irakurri baititut; Mirande eta Aresti, Erdozaintzi ta Gandiaga, hots gure literatura berriaren lehen idazki literarioak bagenituela hor ohartu naiz, bai ta ere gure kritikaren eta filosofiaren lehen lerroak. Nahiz ez zitzaizkien gehiegi gogoko Luis Mitxelena jaunari, Orixe xaharraren eta Joseba Intxausti gaztearen arteko elkarrizketa edo eztabaidak, “Izakia, Izatea eta Izana”-ren gain, “Ez zuelakotz, gaiaren aldetik, tutik ere ulertzen haien auziaz”, bere hitzaldi ederra bururatzean eskatzen zien —eta zigun— otoi utz genezan filosofia piska bat bazter, jakintza oinarri sendo batzu, gure kultura eskas honetan, finkatu arte: “Eliguke batere kalterik egingo, nere ustez, lehen filosofia-ren gailur agorrak piska batez utziko bagenitu, zioen Mitxelenak, beheraxagoko lurrak, haritzak, pagoak eta nolanahiko landareak ekar ditzaketanak, zertxobait lantzeko (14).

(14) *Egan*, 1960, 3-6, 134. orr.

Baina puntu honetan ez dezakegu errazki onar ikuspegi hori. Iduritzen zaigu gutarik bakoitza, adin batetara helduz geroz, hots bere historia propiaren zati on bat iraganez geroz, bere historia horren filosofia egitera naturalki ekarria dela. Badira zenbait gutartean, beren biziaren ausnarketa zail horri lotu baino nahiago baitute, oroimenezko edo irudimenezko literaturaren hedoietan barna, xoriak edo umeak bezala, hegaldaka ihesegin. Orduan dituzte ere holakoek argitaratzen beren “oroitzapen” eta “memoriak”, beren buruak xuritu beharrez —“pro domo” zioten naski erromatarrek— maizenik idatziak.

Badira ere besteak, bizi izan duten historiari, berek ikusi dutenak irakatsiaz baliatuz, eman diezaioketen zuhurtzia muina erautsi nahi diotenak. Horientzat erraiten zuketen “Zahar hitz, zuhur hitz” gure aintzinekoek, eta gaur ere ezagutzen ditugu filosofo berri zenbait, filosofiaren historiak bezala arduratzen baitira historiaren filosofiaz.

Eta Mitxelenak eta Orixek eta Joseba Intxaustik ziharduten “Egan”-en zenbaki bertsuetan, hain zuzen, 1960 eko urtetan eta berak beren 60 urtei buruz zihoazela, gure Piarres Lafitte eta Jokin Zañitzi solastatzen ziren filosofoen antzera, “Berritasunaz” eta “Belaunaldiaz” edo “Gizamendeaz”.



P. Xarritton eta haren alaba Naiara.

Historia-ren hirugarren ikuspegi batean sartzen garela hemen ezin uka. Besteak bezain garrantzitsua hau ere, iraganak baitu alabainan argitzen eta gutienez baldintzatzen oraina, bai eta bideratzen nolazpait geroa. Funtsean “gutarik bakoitza, gure bilakaera gara, dio Raymond Aron-ek, gizadia bere historia den bezala”. Horra zergatik, Lafitte eta Zaitegi-ren arabera, belaunaldi batek 25 urteko epea betetzen, baitu, nahi nenkieken azken belaunaldi honek ekarri berritasunei, behako bat eman.

1925 irian Baionako “Le Courier” egunkarian artikulua sail bat xoragarria agertu zen: “Hasparren, La ville en puberté”. Egilea hazpandar bat zen edo hobeki erran, zenbait harrituko bada ere, hazpandar-espainol bat, Valladolid-en sortua zenaz gain, eta gehiago dena hazpandarrek beren karrika bat eskaini diote, Hazparnen bekan egiten den gauza eta iduriz bakarrik kanpotik jin herritarrentzat, Jammes eta Lissar eta Guichenné eta Fontan, bainan ez Elhuyar, ez Broussain, ez Kaskoina, ez Mathieu ez Diharce ez Hiriart-Urruty; dena den Dibildos-ek badu Hazparnen bere karrika eta segur hartze zuen, gutik ohoratu baitute beren herria nola gizon horrek. Bainan ez dugu berriz hemen hasiko haren lana, gure gizamendea konparatuz duela 25 urtekoarekin eta daigun 25 urtekoarekin (15).

So bat bakarrik egitea aski zaigu azken 25 urte honetan Hazparneko herriak jasan dituen aldaketa harrigarriei, bizipidearen aldetik: Ene sorterrira jin nintzelarik, duela 25 urte, baziren oraino 14 lantegitan 14000 bat oski-egile. Non dira orduko zapatainak? Geroztik nola ez dira aldatu bai kirola ta abusagailuak, bai bizitegiak, bai komunikabideak? Nork zuen orduan aipu piszinarik, tenis-ik edo judorik? Telebista eta rugbia doi-doia abiatuak ziren eta pentsu dut gure kartieretan egin dela aintzinean zen etxe xahar bezenbat etxe berri, orduz geroz.

Horiek oro ikusi-ta, bihotz-erraietan daukadan galde bat heldu zait mihira: Berriketa eder horiek guziak direla-ta, gure Hazparne hau izanen ote da bihar —ez dut erranen lehengo Hazparne; ez nahi ere— bainan bai Euskal Herriko Hazparne? Ezen uste dut, eta badakit orai, Euskal Herria ez dagola bihar hiltzekotan, itotzera ari zaizkion eskuineko ta ezkerreko, barneko ta kanpoko, iparreko eta hegoko etsai guzien gatik. Baina gure Hazparne? Atzo edo herenegun oraino, beste Maule, Donapaupe, Donibane-Garazi eta Donibane-Ziburu ez bezala, osoki Euskaldun geneukan. Gaur aldiz, gure izen ederra bera, Araban ala Bizkaian ala Nafarroan bezala, gure Lapurdi honetan erabiltzen genuena (16), Urtsu-ko mendiaren edo

(15) E. Dibildos, “Hasparren, la ville en puberté”, *Le Courier de Bayonne*, Sept. 1925.

(16) Asparren-en izena izaitze aurkitzen dugu bai Nafarroan bai Araban bai eta Bizkaian, gure Lapurdi honetan bezala.

Aitza-ren barrenean edo oinetan geundela adierazten zuena bazterturik, ez dakit nongo haritzen erdian ezarri nahi diguten eta “*cité des chênes*” hemendik, “*cité des chênes*” handik, nardatzen gaituzte. Badut beldurra laster “*La Chesnaie*” edo “*Le Chesnoy*”n biziko garen; non ez gaituzten, lehengo Larousse-k zioen bezala, “*Hasparrendais*”-ren artean ehorzten, beste zenbait “*Cibouriens*” edo “*Urcuitois*” egiten diren bezala, aintzinean “*Ziburutar*” eta “*Urketar*” soil, sortuak zirenak.

Bizkitartean gure herriko eliza ala plaza, eskola ala karrika ala etxe xoko gordeenetan gure euskara haizkatua delarik, beste alde batetik, emeki emeki, ikastola gela berriak ari dira populkatzen eta euskal irratitelebistak ere beren mutturra agertzen. Tipi eta guti direla nahi dut, bainan hastapenak beti hala izan dira, xuhur eta umil, eta bos-pa-sei urteko gure seme alaben ondoan sumatzen dugun euskal udaberriaren abiadura horrek, gure eskualde honetan ere, gogoratzen dit Mikel Zarate Bizkaitar lagun on zenaren hau:

“Hasiak egina dirudi,
Eginak urregorri,
Geroko geroaren geroak sortuko ahal ditu ni lako zoroak,
Bat bi hiru eta lau,
Geroko geroaren geroak erranen du” (17).

Eta orai azkenean itzultzen garela gure Euskaltzaindiaren sailera eta Piarres Lafitte maitearen oroitzapenera, saiatuko gara gure irakasle zena bezala “gure asaba zaharren baratzea” zaintzera eta lantzera.

Lehenik, eta bat, ez nuke ahortzi nahi 24 euskaltzainetatik bat bakarrik naizela, bainan ene ahaleen arabera lan egin behar dudala. Piarres Lafittek hain maite zuen Euskal Literaturaren historiaren sailari jarraikiz, nahi nituzke Jean Hiriart-Urruty adiskideak bezala (18), Hazparne alde honetako pertsulari ta idazle zenbaiten berri ta lanak bildu ta argitaratu: Gogoan ditut Mendiaguetarrak, Larralde-Bordaxuri-tarrak, Debrua-tarrak, Katxo ta Xetre, Xuberri ta Petti, bai eta ere aita Ducq eta Hiriart-Urruty Manex, Léon Léon eta Domingo Soubelet, Piarres Duhour eta andere Elissagaray. Ez ditut bada aipatzen ez lehen, gain horretan, misionesteian, freretan edo kolejioan egonak: Arbelbide, Apesteguy eta Saint-Pierre, Innocentius eta Juvénal anaiak, ez behere honetan erreitor edo bikario izanak: Zalduby, Zaldunbide, Mirande, Larzabal edo Larre, are gutiago oraino, Hazparden bertan edo inguruetan dauden euskal idazle gazteak; Jean Louis Davant erdi hazpandartuari hurbil dabilta alabaina, Lucien Etchezaharreta eta Beñat Oyarzabal, Txomin Heguy eta

(17) Mikel Zarate, “Ipuin antzeko alegi mingotsak”, Labayru, 1984, 202-203. orr.

(18) J. Hiriart-Urruty, *Euskera*, 1977/2, 327 orr.

Jean Louis Caussade, eta uste ez den xokotik aterako diren biharko idazle ta ikerle berri gazteak.

Bigarrenekorik, nere irakasle lanak gogoratzen dit, Euskal Unibertsitateko gazteentzat itzulpen sail bat sortu behar genukeela, berenaz grekoz, latinez, ingelesez, alemanez edo frantsesez diren obra nagusi zenbait euskaraz eskura ditzaten gure gaztek.

Azkenekotz, Euskaltzaindiari berari buruz, uste dut guziek ahalak oro eginen ditugula hasteko sortzaileen xedei jarraikitzeke, eta aintzineko egitura edo egikera zerbait berritu eta / edo hobetu behar balitz, luza gabe egiteko, beti aintzina eta gora joan dadin gure karrosa, aska zaharkituetan “hikatu” gabe, Beskoitzen dioten bezala.

Agian Iparralde honetan ere Euskaltzaindiak hedatuko du, oraino xuhurregi duen itzala!

P. XARRITTON-en EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Hazparne, 1986-VI-28

Jean Louis Davant

Euskaltzain berriari erantzuna.

Bigarren aldia da Hazpandar bat Euskaltzaindian errezebitzen dutala, Euskaltzain guzien izenean, haren aitatxi edo gozaita bezala mintzatuz. Ohore handia, naizen Xuberotar xume ta buruz arinarentzat.

Herri guti da, ipar aldean, Hazparnekoaren omena ta fama duenik. Eta ez dira nor nahi Euskaltzaindian sartzea merexitu duten bi Hazpandarrak. Bata Jean *HIRIART-URRUTY*, bikario jenerala eta orokorra, duela bederatzi urte sartua. Bestea Pierre *CHARRITTON*, Ehulateiko semea, egun errezebitzen duguna, Pierre *LAFITTE* zenaren ondoko.

Ikaslea ez da erakaslea baino gehiago, dio Ebanjelioak. Baina bestalde dio azkena lehen izanen dela, lehena berriz azken. Hala gertatzen da egun, ezen Charritton-en ikasle izana naiz Mauleko kolejoan. Eskualzaleen-Biltzarreko zein-gehiagoketan parte hartzera lehiatu ninduen eta horrela nintzan euskaraz idazten hasi. Gero segitu nuen “Gazte” agerkarian, hau baitzen “Euskaldun Gazteriaren” hilabetekaria, *IDIEDER* zenak sortua eta Pierre Charritton-ek arrapiztua.

CHARRITTON-EN LAN ZENBAIT

Beste mereximendurik badu segur Pierre Charritton-ek euskalzale bezala. Hartako da hemen egun, Euskaltzain oso alkira gomitatua. Ez noa mereximendu horien guzien aipatzera, luzeegi bailitake. Bere mintzaldia historiaz egin baitu, sail horretan mugatu dut ihardespena. Lau liburu idatziak baditu historiaz edo historiari lotuak:

1-Lehena “*ESKUALDUNAK*” izenekoa, gaztaroko lana, “Xabier Gazteiz” izenpetua: Euskal-Herriko historia laburra, euskaraz (1943). Horretan hasi nintzan gure historiaren ezagutzen. Irakurketa horrek gero lehia-

tu ninduen liburuxka baten idaztera, har gatik erdaraz, historia bat bagenuela jakinarazteko.

2-Bigarrena: “*PETITE HISTOIRE RELIGIEUSE DU PAYS BASQUE*”.

3-Hirugarrena: “*LE DROIT DES PEUPLES A LEUR IDENTITE*”, Kebektiar baten aintzin-solasarekin, Kebek-en agertua 1979-an, eskualde horretan egona baita Charritton.

4-Laugarrena: “*PIERRE BROUSSAIN, sa contribution aux études basques*”, C.N.R.S. delakoaren laguntzaz agertua 1985-ean.

Idazteaz besterik egin du Charritton-ek: oraiko historian parte hartu du bere egintzez, bereziki Hazparnen bi ikastetxe eraikiz: bata industria-ko ikastegia, “LEEP Saint-Joseph” deitua, bestea laborantzakoa, “Ecole d’Agriculture du Pays Basque” izenekoa.

Gisa guzietz du oraiko historian parte hartu, salbu alor batean, eta hau da politika. Alta bada, azken puntu horretan zer ez zaio prestatu, bereziki Enbataren sortzeaz eta Hazparnen sartzaz! Baina lekuko naiz hor oker eta makur dabilala jendea. Enbatak Hazparnen egin dituenetaz hobendun bat baldin bada hemen, ni naiz, eta “bekatu” horretaz urriki-rik ez dut.

Segurki, abertzalea dugu Pierre Charritton, Enbata sortu baino biziki lehen hala zen. Bere ideiak ez ditu sekulan gorde. Baina gutienetik erran daitekeena da ez dela politika gizon bat.

Kultura gizona da Pierre Charritton eta sail horretan ditu, ene ustez, emaitza hoberenak oraiko historian.

KULTURA ETA HISTORIA

Artetik aitor dezagun historiaren lili baldin bada kultura, haren sortzaile dela ber denboran. Kulturen edergailu bat baizik ez dute ikusten batzuek, eta bereziki gure hautetsi handiek. Hori baizik ez balitz ez balitz ere, ez litaike gauza huti, ezen lore zenbaiten beharra badu segur biziak, berenaz ez baita beti hainen alegera ez goxoa, ez ederra.

Baina beste zerbait ere da kultura, harek gaitu gizon eta emazte egiten, ezen kabalatik zerk gaitu berezten? Hitzak eta eskuak. Hitzekin pentsatzen dugu eta jakinarazten. Haiek manatua dugu eskuez obratzen. Hori da kultura, ene ustez, eta hola baldin bada, historiaren eragile da, ezen loreak hazia dakar, bai eta fruitua.

Hain da gauza nabaria non, ekonomia lagundu nahi den lekuan, eskola bat emaiten den lehenik, Hazparnen egin zen bezala. Ez dira guti, ez eta txarrak, teknika ikasgiaren emaitzez baliatu diren lantegiak, ez eta laborantza eskolako jakintzari esker hobeki bizi diren etxaldeak.

Merezi ez duen mespretxua jasaiten du kulturak, bereziki euskal kulturak. Batzuetan entzuten dira zentzu gabekeriak, hala nola: ekonomia gaizki doalarik, kultura geroko utzi behar dela. Horrek iduri du petik-gora batean autoaren arintzeko, moturraren kentzea!

GURE HISTORIA

Itzul gaitezen historiara, nahiz ez dugun osoki bazter utzi gure solasetan. Esoperen mihia bezala, gauzarik hoberena eta gaiztoena da historia. Batzuen ustez, gizarte ta sozietateko gertakari guzien gakoa eta giltza. Besteen ustez aldiz, saltsa guzietako xali mesfidagarria.

Gure historia, besteek dute idatzi luzazegi. Gutaz edo gutartean ari izan dira, baina erdal idazkietarik.

Euskaraz idazten, berant hasi omen gara Euskaldunak: halere 441 urte baditu Bernat Etxeparekoaren liburu famatu harek (1545). Luther-en Biblia bezain zaharra da (1534). Beraz Alemanena bezain goizik hasia da gure literatura, eta ez biziki Frantsesena baino berantago.

Har gatik euskal idazkiez ez dute kondu atxikitzen erdaldunek, ez izkirio zeharrez, ez berriez. Beraz gure historia ez dezakete axaetik baizik hunki, mamia bazter utziz.

* * *

Segurki, euskal historiazale zenbait ukan dugu ipar aldean ere, hala nola Arnault d'*OIHENART*, mauletar abokatua, *HARISTOY* apezka, Jean de *JAURGAIN* Ozaztarra... Baina hiru ainarek ez dezakete primadera bat egin.

Oro har erran dezakegu protohistorian dagoela oraino Euskal-Herriko historia, ipar aldean bederen, beraz prehistoriatik ateratzen ari dela: zinezko euskal historia, euskaraz egin eta bizi izan den historia, berriki baita ikertzen hasia.

* * *

Idazten hasi dugun historia hori, zinez okerra ta makurra dela diote arrotzek. Are makurrakoa da haiek gutaz izkiriatu dutena, ez baitezakegu nahiz ere hain makurrik asma. Aipa dezagun huts horietarik zenbait:

— Iberoak zirela gure arbasoak

— Akitanian hego aldetik sartu zirela Baskoiak

— Orreagako guduka, giristino eta mahometanoen artekoa izan zela, edo Frantses eta Espainolen artekoa.

- Nafarroako erresuma Henri IV.ren denboran zela sortu
- Euskaldungoarekin ez zutela deus ikustekorik Karlistadek
- 36-eko gudariak, espainiar errepublikazaleak zirela soilki
- eta abar luze bat...

IPUINAK BAZTERTUZ

Bai, Euskaldunek idatz dezakegun historia, zuzenagoa date nahit-ez, gure mamitik jalgiko baita ura iturritik bezala. Halere aitor dezagun ipuinez itoa dela gure historia. Ipuin horietarik askatu eta libratu behar dugu beraz. Hala nola:

- Kantabris-mua, Oihenartek salatua
- Erromanoen denboran gure gain egon ginelako ustekeria
- Demokrazia perfekt batean bizi zirela gure arbasoak
- Karlismuan ez zegoela euskalzaletasuna baizik
- eta beste abar luze bat...

Ipuin horiek fede onez hartu ditugu aintzinekoetarik. Denbora batez itsutu gaituzte. Oraino ere, gehiegi trabatzen gaituzte. Beraz urratu behar ditugu, horien azpitik egiazko erroen aurkitzeko.

Lan horretan ez gaude bi eskuak hutsik, euskal historiazaleak baditu-gu orain ipar aldean ere, ofizioakoak edo ofiziale bezala jokatzan direnak, behar den denbora hartuz:

— Pierre *NARBAITZ* zenaren obrak hor ditugu gure hastapenetaz eta Nafarroako erresumaz

- Eugène *GOYHENETCHE*-renak
- Manex *GOYHENETCHE*-renak
- Lauburu-koenak... *TOBIE*, *BLOT*, *GAUDEUL*-enak...
- Maulen Pierre de *SOUHY*-ren artxibak...

* * *

Bainan historiazaleak ez garenok ere gure harria ekar dezakegu. Historia handia bazter utzirik, historia ttipia iker dirogu, hala nola paper zaharrak miatuz herriko-etxean edo notarioan. Historia ttipian baitaude handiaren erroak.

Bide hoberenatarik izan daiteke literaturaren ikertzea. Etsenplutzat hor dugu *HARITSCHELHAR* jaunak *ETXAHUN* Barkoxekoaz egin zuen lana. Miaketa horretan bilatu du zer izan zen Barkoxen Etxahunen bizia. Eta Etxahun beraren kantu batek erakusten digu zein ziren iragan mendeen gure herrietako ofizioak, geroztik galdu direnak.

Hor ikusten da gure gizarte zaharra ez zela soilki baserritarra edo laboraria, maiz erraiten den bezala. Zer nahi lan mota bazela gure kanpainetan, behere horretako lantegi handiak sortu aintzin. Eta gureak hil dituzte azken horiek.

* * *

Badakigu ipar aldea ez dela dena, hego aldea baino ttipiagoa dela gainera, eta han beste gisa batera egin dela bilakaera. Baina hemen gaude gu ere, bestaldeko haurrideak bezain euskaldunak, eta ez dugu ahaztekoa historian barna bete dugun lekua:

— Hala nola Baskoniako Dukerriaren denboran, ipar aldetik zela Euskaldunen indarra, bizpahiru mendez segurik,

— Euskal literaturaren hastapenetan, eta gero ere luzaz, Lapurdi zela nagusi eta erakasle, Sarako eskolarekin bereziki.

Lehengo indar hori goraiatzaren zaigu hego aldean, bainan ez ote da oraikoaren kaltetan? Orain ere badaude ipar aldean idazle trebeak, hala nola Baionako bi eskoletan:

— Bata *HERRIA* astekariaren inguruan ikusten dut, horri lotuz arras horretakoa ez den Charritton,

— Bestea, gazte batzuen eskuetan, *MAIATZ* aldizkaria, idazle berrien alor aberatsa.

* * *

Gizakia, zerk ote du aintzina bultzatzen? Misteriozko arrazoinetan ez dut sineste handirik. Biga ikusten ditut, oso ximpleak:

— Alde batetik bizi nahia, beharra, apetitua, anbizioa, hots gosea edo ezin asea,

— Bestetik demografia: jendetza hedatzen eta nasaitzen den arau, problema handiak sortzen dira. Baina dinamika berri bat ere agertzen da. Bizia da azkartzen, non ez duen soberak itotzen, Bazkoko uhartean gertatu omen zen bezala.

Baina bizi soberak baino segurrago, eskasak du hiltzen. Zeinek du geroa bere: xahartzen ari den gure gizarte aberatsak, ala gazte sobera duen hirugarren mundu pobreak?

GAURKOA

Munduko xilkoia ez da orain Parise, Madrile (Erroma edo Vienne, Londres edo Berlin, Moscou edo New-York). Munduko xilkoia gaur *MEXIKO* da. Ez bakarrik “mundialari” esker, baina jendetzaren kopuruaz eta gaztetasunaz, bai eta bere zorrez. Horien ez ordaintzea aski luke, ta porrota genuke mendebal guzian.

Beraz iduri luke azkenean gazteen eta pobreen eskuetan dagoela historia. Pobreak baditugu hemen ere, segurki: gure gizartean ba ote da lanik gabe egoitea baino zorte gogorragorik?

Baina beste nonbait dago pobreen indarra. Txortaka sartzen zaigu inmigranteen arartez. Indar hori nahi lukete batzuek kanpora haizatu (eta han zanpatu?). Ahal dea? Behar dea?

Ene ustez, inmigranteen beharra badu Europa xaharrak, haurren egiteko, erretreten ordaintzeko... Lehen Erromak bezala, “Barbaroen” odol gaztea beretu behar du, nolabait biziaren atxikitzeko.

Bere inmigranteak baditu Euskal-Herriak ere, ez beti pobreak, ez beti gazteak, ipar aldean segurik. Nola horiek euskaldunduko ditugu? Euskaldungoaren errespetura bederen, nola ekar ditirogu? Lehenik behar genuke geronek euskaldungoa tinko atxiki, hortako tresna egokiak eskuratuz.

Munduko herritar bilakatu gara. Nola izan ber denboran mundutiar eta euskaldun? Hara altxatu behar dugun desafioa!

BIHARKOA

Arrazoinekin erran daiteke oraindino historiari beti nagusitu zaiola, azken batean, geografia edo lurra. Bainan orain, ez ote gara lurrari nagusitzen ari, lurra deseginez?

Gerlarik aipatu gabe ere, denek gogoan dugu Tchernobyl. Bestalde badakigu Holandako erresuman, eremuaren bostetarik bat makadamaren eta betoinaren azpian dagoela.

Gure herrian berean ikusten ditugu hego aldetik eginak izan diren demasiak eta makurrak. Ipar aldean hobeki gaude alde horretarik, mementoan, industria eta jende gutiago delakoz ere. Bainan ez luke jende gabeko lur bilakatu behar ipar aldeak, lan eskasez.

* * *

Nolako problema latzak dituen oraiko munduak! Zer date biharko historia? Ez dakit nork zion erdaraz holako zerbait: Comment prédire

l'avenir? Il est déjà bien difficile de prédire la passé! Edo, euskaraz emanik: Geroa nola iragar? Jada hain da neke iraganaren iragartzea!

Historiaren norabidea ez da beti mementoan uste dena. Adibidez, duela bi mende, Frantziako iraultzaileek uste zuten Erromako Errepublikak berpizten zutela. Besterik erakutsi du ondoko mendeak, kapitalismuarekin.

Halaber duela mende erdi bat, Errusiako iraultzaile askok uste zuen Frantziako iraultza zuela berpizten, edo Pariseko Komuna. Baina beste zerbait zuten sortu.

Beraz oraiko ekintzek, obrek eta zalapartek zer arraultze mota errun dezaketen bihar, nork ote daki? Historia hoztera utzi behar da puska bat, ontsa iker eta jujatzeko. Argazkiak egiten ditu kazetariak. Horiek gero mia ditiro historiazaleak.

BURURATZEKO

Amesten duit, *RABELAIS* idazle handiak behin asmatu zuenaren infrentzuz, gesaltzen direla lehengoen hitz hormatuak, karroinduak, izoztuak. Eta bereziki barne honetan, gure aintzinekoek hemen berean erran zituzten eleak entzuten ditugula.

Gainera, leihotik sar laitezke Beñat *MARDO* Barkoxtarraren bertsuak, Augustin *CHAHO*-k baitio hogeitaz liburuk ez zutela edenen haren obra nasaia, noiz nahi bertsutu hasten baitzen aho-mihiz gure barkoxtar jostun, tailurra.

Zoritxarrez mañetofonorik ez zen denbora haietan, eta Mardo-ren obra guzitik, hiru kantu baizik ez dugu. Horra hor Euskal-Herriko historiaren zati batzu, sekulan ezagutuko ez ditugunak, salbu behar bada beste mundu batean... Bainan orduan, bururatua dateke historia, gurea segurik.

Goresmen eta milesker zuti, Pierre *CHARRITTON*, egin dituzun lan guzientzat. Segur gara bide beretik segituko duzula, bai Euskaltzaindian, bai edonon. Agian luzaz, Jainkoak nahi badu, edo historiak!

LEF JARDUNALDIAK

LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO IV. JARDUNALDIAK

Hitz-elkarketari buruz lehenak
(Beloken, 1986, Ekainak 26-27)

Fr. L. Villasante

Hasierako hitzak

Belokeko Aita Abade eta euskaltzain maite Iratzeder
Euskaltzainkideak

Jardunaldiotara etorri zareten guztiok:

Agur bero bat denoi!

Oker egiteko beldur handi gabe esan daiteke, ene ustez, euskara, autonomiaren ondorioz, egoera edo aro berri batean sartu dela. Eta hortik supituki —eta zorionean— gure mintzairari istilu eta katramila berriak heldu zaizkio. Ofizialtasun maila eskuratu duen puntutik, euskarari hiztegi arazo larriak azaldu zaizkio.

Euskaraz tradizionalki erabili izan den hitz-multzo edo ondare hori behar bezain bestekoa zen eta euskaraz adierazten ziren premia eta zereginetarako egokitua. Baina orain bat-batean euskarak sarrera izan du administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan; gizartea bera neurri handi batean hiritartu egin da eta mende berriko kultur giroan bizi da. Orduan ez da mirakuilu euskarak hitz eskasia handi batekin topo egin badu.

Itsaso neurgea, ikaragarri zabala dugu hemen begien aurrean.

Zein da Euskaltzaindiaren egitekoa arazo honetan? Euskaltzaindiak ez du uste gaur behar diren hitz guztiak sortzea berari dagokionik edo hainbeste alorretako izenak euskaraz nola esan behar diren berak dekretuz eta bana-banaka erabaki dezakeenik. Akademiak badaki berak bakarrik ezin dituela inolaz ere eremu larri horiek inguratu. Gainera, horretarako behar liratekeen ezagupen eta jakitateak gure ahalbideen gainetik daude.

Lan hau guztiona da, hots, herri osoarena, eta edozein modutan ere, bere denbora galdegiten du.

Baina hori esan eta, honako hau ere gaineratu behar dela uste dut: Euskaltzaindiak baduela hemen zeregin bat, bere-berea duena, hots, erizpideak finkatu eta nolazpait batu, obra handi hau batasun baten barnean egin dadin. Bestela, arau gidari batzuen faltaz, nahaspila ikaragarria sor daiteke, eta hori euskararentzat kaltegarri eta are hiltzaile ere gerta daiteke. Pentsatu besterik ez dago zer izango litzatekeen gauza bat bera izendatzeko zortzi-hamar hitz kurritzen badute edo, hitzak berberak izanik ere, idatzera eta forma desberdinetan idatziko balira.

Hau da, bada, kontua: hitz berrien premian dagoela egun euskara. Eta behar dituen hitzok nondik eta nola izango ditu? Horretarako hiru bide aitortzen dizkiote gure gramatikalariek euskarari: Lehena, hitzak mailegatu, esan nahi baita, kanpotik etxeratu. Bigarrena, hitz-elkarketa edo konposizioaren bidez hitz berriak sortu. Hirugarrena, eratorbide edo deribazioaren bidez —aurrizki eta atzizki bidez, alegia— hitz berriak eratu. Laugarren bat ere oraindik aipa daiteke: semantikaren alorrean hitzaren adiera batetik beste adiera berri batera luzapen bat edo lerradura edo irristadura egitea. Ez dut uste euskarari ate hauetarik batño ere hertsiki behar zaionik. Noiz baliatu bata eta noiz bestea kasu konkretuetan, hori ezin daiteke aldezturik erabaki. Gure plangintzan laugarren bidea, semantikarena, oraingoz kanpoan uzten dugu, baina ez galazten dugulako, noski.

Azken urteotan Euskaltzaindia aurrenengo bidez arduratu izan da, eta ateraberritu ditu arau edo erabaki batzu mailegatuko diren hitz horien itxura, hasiera, bukaera eta ortografia esleitu. Ikus *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren Erabakiak*, 1986. Erabaki horiek prestakuntzagarai bat izan zuten; hots, bi Jardunaldi egin ziren, txostenak aginduz, eztabaidatuz, eta elkar hizketa eginez, gaia bera aztertzeke eta eritziak ahalaz hurbiltzeke.

“Lexikologi Erizpideak Finkatzeko IV. Jardunaldiak”: hala deitu izan ditugu gaur eta bihar hemen Beloken izango diren hauek. Zergatik laugarrenak? Hiztegitzako arlo honetan beste hiru jadanik eginak direlako, noski. Lehenbizikoak bezala kontatzen ditugu Hondarribian 1981eko Abenduan euskal hiztegien mailak eta motak bereizteke egin ziren haiek. Bilera horien ondorioz Adierazpen bat eman zuen Euskaltzaindiak. Ikus *Euskera* (1982), 263-271.

Bigarren eta Hirugarren Jardunaldiak artez eta espresuki Maileguzko hitz berriei buruz Uztaritzeko Landagoienek 1983. urtean egin ziren; Urtarrilean bigarrenak, eta Azaroan hirugarrenak. Ikus *Euskera* (1983), 527-528; (1984), 393-394. Horien ondoren ere Euskaltzaindiak hartako

Adierazpena eman zuen, hainbat lasterren zenbait erabaki edo arau gidari agertuko zituela esanez. Ikus **Euskera** (1984), 261.

Orduan emandako hitza betez, hurrengo bi urteetan mailegu berriei buruzko zortzi erabaki hartu ditu Euskaltzaindiak eta aitzin honetan aipatu dudan liburuxka hori agertu ere bai. Honekin bukatutzat ematen du, oraingoz behintzat, maileguzko hitz berriei buruz berak beregain hartu duen zeregina.

1985eko Martxoan Lekarotzen Barne-Jardunaldiak egin ziren, eta han, Euskaltzaindiaren eskariz, Mikel Zalbidek hiztegitzinta arloko lan-plangintza orokor bat eskaini zuen. Eta Maiatzeko 30ean Bilbon egindako batzarrean lan-plangintza hura bera, baina xehekiago, azaltzen digu berriz ere Zalbidek. Donostian egindako Urriko batzarrean, berriz, Miren Azkaratek, Euskaltzaindiaren eskariz, txostena ekarri zuen: "Euskal konposizioaren inguruan". Abenduko batzarrean ere, eta Euskaltzaindiaren eskariz, Miren Azkarate eta Pello Salabururen artean egindako txostena irakurri zen (berriz ere konposizioaren inguruan).

Aurre-lan guzti horiek kontutan hartuz, 1986ko Urtarrilean Bilbon egindako batzarrean M. Azkarate eta M. Zalbidek urte honetarako ekin-tza-plana aurkezten dute, hitz elkarketa edo konposizioaren gai hau proposatuz. Plan honi lehen-onarpenera Urtarrilean bertan ematen zaio. Eta Otsaileko batzarrean, Donostian, birrespenera eman eta lantaldea aukeratzten da.

Hauek izan dira orain arte egin diren urratsak. Gaur, berriz, Euskaltzaindiak izendatu duen lantaldea abian jartzen da.

Sail ongi mugatu eta berri-berria du lantaldeak aztergaitzat: hitz elkarketa edo konposizioa, lehenago maileguena izan genuen bezala.

Galde daiteke agian ea hitz elkarketa eta eratorbidea ez ote diren azpi-azpian, erro-erroan eta funtsean gauza bat bera, eta ea ez ote litzatekeen hobe biak batera aztertzea. Baina, alde batetik, hitz elkarketa eta eratorbidearen arteko mugak aski garbi daudela uste dut, eta, bestetik, dena batera aztertu nahiko bagenu, zabalaren zabalaz inguratzen zaila den itsasoan ibiliko ginateke. Hobe dugu, beraz, epeka eta zatika joatea. Horrela, gainera, hitz elkarketari zor zaion bezalako garrantzia, astia eta denbora eskaintzeko parada izango dugu. Bestela, dena batera hartuz, alegia, nekez izango genukeena.

Eta bego hau garbi: lantalde honen helburua edo xedea ez da erabakiak hartzea, gaia bera istudiatzea eta sakontzea baizik. Beste hitzez esanik, gaia heltasunera etor dadin laguntzea eta bere egunean aurreasmo batzu Euskaltzaindiari eskaintzea; honek ikusiko du gero zer egin. Euskaltzaindiak, alegia, bere egunean, hala baderitzo, batzarrean erabakiak hartuko ditu.

Inoiz entzun izan diot Zalbideri Iparralde eta Nafarroako literatura idatziak enplegu aski murrizta egin duela, bai hitz elkarketaz eta bai eratorbidez; horretan askoz joriagoak direla Bizkai eta Gipuzkoako literaturak. Zernahi gisaz, euskaldun arrunta, bai han eta bai hemen, egunero hizketan etengabe ari da bi bide horietara jotzen, eta beroietaz baliatzen da hitz berriak sortzeko eta esan behar duena era laburrago eta adierazkorrago batean adierazteko.

Baina gaur agian euskararen bi baliakizun hauek atrofia baten mehatxupean aurkitzen dira. Askori gaur, euskara pixka bat kanpotik ezagutuaren, beronen etxebarnean bizi ez direlako edo etxearen giltzaz jabetu ez direlako, baliakizun horietara jotzeko sena edo erosotasuna falta zaie. Orduan zer gertatzen da? Maileguetara ia beti jotzen dela. Eta Euskaltzaindiak maileguen bide hau hertsu gabe, noski, beste biak ere aitzinatu eta bultzatu nahi ditu. Baina horretarako bideok zer-nolakoak diren, zer-nolako legeak dituzten etab. arakatu behar da.

Etapari berri batean sartzen gara, bada. Promesaz eta zoramenaz beterik den etapa batean. Hor ditugu, iturri eta mugari antzo, Azkuek bere Morfologian utzi zizkigun azterketa eta bildumak. Sinesturik nago Jardunaldi hauek, eta bai etorkizunean hauen segida bezala egingo direnak ere, ondorioitsuak izango direla eta euskararentzat probetxu handitakoak.

Eskerrak ematen dizkiot bihotz-bihotzez Belokeko komentuari, eta bereziki Aita Iratzeder euskaltzain eta Belokeko mitradun Abadeari, bilkura hauek hemen egiteko eman dizkigun erraztasunengatik.

Eta, beste gabe, hitza pasatzen diot Zalbideri, zeinek beregain hartu baitu lantaldearen eta lan egiteko moldearen gidaritza. Eskerrak baita berari ere, Euskaltzaindiari ematen dion laguntasun paregabe honengatik.

LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO IV. JARDUNALDIAK. LEF

Beloke, 1986-VI-26/27

Jose Antonio Aduriz

Idazkaria

Bilera-Akta

Belokeko Abatetxean, 1986ko Ekainaren 26-27etan LEF Taldeko Osoko taldea elkartu da lehen aldiz, Luis Villasante euskaltzainburuaren lehendakaritza-pean; hor bildu dira: A. Irigoien, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi euskaltzainak, eta J. A. Aduriz, R. Badiola, M. Ensunza, J. M. Larrarte, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. K. Odriozola, L. Otaegi, Tx. Peillen, A. Sagarna, T. Uribe-etxebarria eta M. Zalbide. Beren ezin-etorria adierazi dute P. Altuna, M. Azkarate, P. Goenaga, F. Krutwig eta B. Oiharzabal-ek.

1. Luis Villasante euskaltzainburuak bere agurra eta ongietorria egin die bildutakoei, eta, Jardunaldion lehen-orainak zirriborratu ondoren, hitz argitan bildu du Euskaltzaindiak talde honengandik espero duena: autonomiak eta euskaren ofizializazioak nabarmenerazi dituzten premietan, bada euskal lexikoaren arlokorik ere. Batean nahiz bestean sumatzen den hitz-eskasiaren aurrean Euskaltzaindiari dagokion egitekoa ez dela hitzak sortzea eta horiei buruzko banakako erabakiak hartzea, esan du, baizik erizpide orokorrak batu eta finkatzea, jokabide desberdin eta kontrajarrien arriskua saihestu ahal izateko; eta, Jardunaldion egitekoa mugatuz, aztergaia eta helburuak zehaztu ditu: hitz-elkarketa landuko da hemen, denbora mugatu batez, eta, beraz, ez erabakiak hartzeko, aurre-asmoak aurkeztu, eztabaidatu eta ikertzeko baino. Egin eta egingo den lana bero eskertuz, Mikel Zalbideri egin dio leku, Hiztegi-Batzordearen Idazkari eta LEF talde eragilearen behin-behineko buruari, jadanik prestatuak diren lanen berri eman dezan.

2. Mikel Zalbidek, Osoko taldearen aztergai izango diren bi txostenak aurkeztu aurretik, Euskaltzaindiak hiztegi-lanetan duen plangintzaren bi alderdi nagusiak agertu ditu: alderdi lexikografikoa (*Orotariko Euskal Hiztegia* burutzen ari dena) eta alderdi lexikologikoa: maileguak zein itxuratan hartu behar diren aztertu eta erabakia du dagoeneko Euskaltzaindiak; altxor zaharreko ondasunaren formei dagokienean, berriz, aztertzeak ditu, besteak beste, hitz-elkarketa, eratorpena eta semantika dela medio gertatzen diren aldaketak.

Epe zehatzago eta hurbilagoetara mugatuz, 1986-1990 bitartera, hitz-elkarketa aztertzeo asmoa dago, Osoko talde honen egitekoa burutzekoa, alegia. Egiteko honen helburu praktikoa azpimarratu du: taxonomia ahalik eta zehatzena eskaini beharko da, batetik, eta ondorio morfofonologiko eta grafikoak argitu, bestetik.

Plangintza hori gauzatzeko begiz jo den lan-taldea aurkeztu du gero Mikelek: arduraduna, talde eragilea eta Osoko taldea. Orain arte egindakoa aipatu ondoren, Euskaltzaindiak ezarritako eginkizunak gogoratu ditu: talde bakoitzaren bilera-erritmoak eta landu nahiz landuerazi behar diren txostenak.

Idazkari-moderatzaileak izendatu dira (J. A. Aduriz eta A. Sagarna, hurrenez hurren), eta terminologi auzi batzu argitu.

3. *Hitz-elkarketa lantzeko erizpideak* izeneko txostena irakurri eta azaldu du Mikel Zalbidek: helburu praktikoa begien bistatik galdu behar ez den arren —edo, hobeto agian, galdu behar ez delakoxe—, arazo teorikorik ez da faltako azterlan hauetan. Adibidez, terminologia bera ez dago inondik ere bateratua: konposatu-mota batzu izendatzeko forma bera darabiltenean denek edo gehiensek, forma horixe eutsiko zaio; besteetan, berriz, motari dagokion adibide batez izendatuko da, bestetako jokabideei jarraiki. Muga-kontuak ere ez dira beti argiak, eratorpena bait dago albo batean eta bestean sintaxia; zabal jokatu da hemen, dudazko kasuak ere barne hartuz, kentzekoak kenduz joatea errazago eta erosoago delakoan. Hirugarren zailtasun teoriko bat, definizioek sortuko dute; zailtasunarekin ez ezik, ezinarekin ere topo egingo litzateke, baldin horiek zorrotz zehaztera joko balitz. Baina gutxienezko erizpide batzu ezinbestekoak dira, sailkapenen bat egingo bada; horrela, kontutan izan beharko dira “hitz-andana ihar-tuak”, eta sakonkiago aztertu beharko dira “hedabide sintagmatiko biziak”; edo, hitz-elkarketa direla esatea eztabaidagarria izan arren, besteen segidan lantzea proposatzen den sinbolismo fonetikoz nahiz hots-uztarduraz eraturiko kateak.

Gutxienezko erizpide horiek errespetatuz egina dago konposatu-moten sailkapena eskaintzen duen bigarren txostena. Bigarren txosten honen egitura bera eta barne-sailak eztabaidatzeko *lan-prozedura* aurkeztu zaio Osoko taldeari, mota bakoitzaren barruan puntuok lant daitezen: berrelkarketa posibleak, morfofonologiazko fenomeno eta arauak, emankortasuna, azentuazio-intonazioak, idatz arauak.

Elkarrizketa luzea izan da ondoren taldekideen artean: txostenean ageri den izendapen-aniztasuna aipatu da (“hitz-elkarte”/“hitz-elkartze”, “hitz-elkarketa”), zenbait osagairen (-*dun*, -*gin*/-*gile*; *tele*-, *ez*-, etab.) balio-hedadurak eztabaidatu dira, hitz-elkarketaren eta eratorpenaren ondoan hirugarren kategoria bat (parasufixuak) bereiz aztertzea proposatu da, etab. Eztabaida antzuetan erortzeko arriskutik begiratzeko, arratsaldeko saioan 2. txostenari heltzea erabaki da, zerrenda ikusi ahala eztabaidatuz puntu bakoitza.

4. *Hitz elkartuen sailkapena* deritzan bigarren txostena lantzeari ekin dio taldeak bazkalondoko saioan. Aurre-lan bezala aurkeztu du Mikel Zalbide txostengileak: Euskaltzainburuarekiko elkarrizketan, gai konkreituak proposa zitzala eskatu zion honek, abenduko Jardunaldietarako. Xede horretarako baliagarri izango direlakoan, eta, erizpideen txostenean agertuen arabera, 18 ataletan banatu ditu konposatu-motak, eta atal bakoitza hainbat azpiataletan; hauetako bakoitza, berriz, adibide ugariz hornitu du: XVI. mendeaz geroko produkzio idatzian jasotako 60 bat mila fitxatetik aukeratutako adibideez.

Lehen 4 atalen azalpen xehearen ondoren, eztabaida-elkarriketaren txanda iritsi da. Sailkapenari berari dagozkio egindako ohar batzu: azpiatalak bereizteko, erizpide morfologikoen ondoan semantikoak ere sartu izana batzutan (ekin-tza/iharduna, adib.) kritikatu da; edo egitura sintaktikoetatik oso gertu dauden egiturak jasoz, zerrenda puztu izana; edo elkarketa soil bezala azter daitezkeen egitura batzu berrelkarketa bezala aurkeztea. Txostengileak ere seinالات duen kategori banaketa zenbaiten irristakortasunaz ere mintzatu dira taldean, ez bait da beti nabaria, adib., forma bat izen ala adjektibo den, edo izen ala adverbio den. Oharrrik gehienak, dena dela, puntu konkretuagoen inguruan egin dira: *-ain*, *-gailu*, *-zur*, *-larri*, *-kalte*, *-hurran*, *-bila*, *-zale* edo *ezin*- osagaiei dagokien lekuaz eta banaketaz edo “sendagile” eta “osagile” bezalakoez sortzen dituzten desorekez.

Egin diren oharrak jasoko direla aginduz, hurrengo atalen azalpena egin du Mikelek, kasurik eztabaidagarrienak seinالاتuz eta 18. ataleko adibideak —“hitz-andana ihartuak” eta semantikazko higaduraz sortuak— falta direla aitortuz, ez bait du horretarako astirik izan.

Luze-zabal ihardun da taldea izendapenetan ageri diren baliapide ugarietz: “praenomen”, gentilizio, errotulazio, exozentriko anatomiko, etab. Horien eta aposizioen inguruko eraikuntza gero eta ugariagoen gaineko eztabaiden ondoan, hainbat ohar puntualago egin da *zulo*, *xorta*, *-ez(a)*, *-eskas*, *-aire*, *-antxa*, *aurre-*, *atze-*, *alde-*, *-kente* eta beste osagaiez. Kritika eta ohar eta iradokizun guztiok kontutan izango ditu talde eragileak, ondoko lana bideratzerakoan.

5. Ekainaren 27 goiza (bezperako aztergaiei eskainitako lehen parte baten ondotik) hurrengo *Jardunaldietako gaien zehazpena* egiten eman du taldeak. Horretarako prozedura markatu du lehenik, nondik has eta nola ihardun erabakiz. Lehenetsunak seinالاتzeko erabil daitezkeen erizpideak ikusi dira, batetik: atalik “erraz”enetatik abiatu, landuenetatik, ondorioetan eztabaida gutxien sortuko luke-tenetatik, multzo mugatuenetatik..., ala atal guztiei batera zein nahas heldu? Hurrengo Jardunaldietarako *corpus* mugatueneoak behintzat lantzea erabaki da, atal “zail” edo “zabal”agoren bat edo beste ere tartekatuz, horiek landuko ditue-nik aurkitzen den heinean.

Puntu bakoitza lantzeko metodologia onartu da ondoren, erizpideen txostenean markatzen den lan-prozeduraren haritik eta Euskaltzaindiak dagoeneko erabakirik dituenak kontutan hartu eta zehaztu/osatzeko eskariarekin.

Bertotik lant daitezkeen atalak eta horiek aztertuko dituzten txostengileak aukeratu dira ondoren:

- 8. atala lantzen hasiko dira M. Ensunza eta A. Sagarna.
- 9. atala ikertzen hasiko da J. K. Odriozola, zientzi euskarari ageri diren egiturak jasoz.
- 10. ataleko zenbait materiale bilduko duela agindu du J. L. Lizundiak, errotulazio-kontutan lanean ari diren bi batzordeekiko harremanetan.
- 13. atala osatzeko zerrendak eskainiko ditu J. San Martinek.
- 14. atala lantzea, X. Kintanari eskatuko zaio.
- 15. atala aztertuko duenik ez da finkatu.

- 16. ataleko hainbat baliapide bilduko ditu L. M. Mujikak.
- 17. atala A. Irigoienek eta J. M. Satrustegik landuko dute.

Osoko taldeko kide guztiak ez bait dira Jardunaldi hauetan bildu, talde eragilearen esku geratu da langaien eta txostengileen zerrrenda hau osatu eta zehaztea, gai bakoitzari buruzko bi txosten egin daitezzen.

Txosten konkretu-puntual horien ondoan, M. Zalbidek eskaini dituen sailkapena eta erizpideak aztertu eta kritikatu ditu T. Uribe-etxebarriak. J. M. Larreak, bere aldetik, Gramatika-Batzordearen lanekiko lotura eta interferentziak zainduko ditu.

Abenduko Jardunaldietan aurkeztuko diren aztergai eta txostenak, azaroaren 28rako jakin eraziko dizkio talde eragileak Euskaltzaindiaren idazkaritzari. Horien lehen idazketa, berriz, azaroaren 18rako eginga eta talde eragilearen eskuetan egongo da, honek taldekideen artean azaroaren 28rako banatu ahal izateko, eta abenduaren 22-23etan egingo diren 2. Jardunaldien aurretik ezagut ditzaten denek.

Txostenen neurriak, azkenik, Euskaltzaindian ohizkoak diren “txosten” (30-40 min.) eta “komunikazio” (15-20 min.) kontzeptuen arabera erabakiko ditu talde eragileak.

6. Osoko taldearen lehen bilera honen azken eginkizuna, 1987ko ihardunbi-dearen lehen zirriborroa egitea izan da: bi bilera egingo ditu Osoko taldeak urte horretan zehar, eta hamabi, talde eragileak. Urtea amaitzearekin batera, bere ondorio-proposamenak bukaturik edukiko lituzke talde honek, eta Euskaltzaindiaren eskuetan utziak, horrela bere eginkizuna burutuko lukeelarik.

Euskaltzainburuaren hitzalditxo batekin amaitu dira Belokeko Jardunaldiok. Probetxuzko eta atseginak izan direla, esan du, bilerok: eta itxaropentsu dela taldeak ekarriko dituen emaitzez. Bereziki eskertu ditu Mikel Zalbidek aurkeztutako txostenak eta Xabier Iratzeder euskaltzainak eskainitako harrera ona eta laguntza estimagarriak.

**EUSKAL AZENTU ETA
EBAKERAZ II.JARDUNALDIAK**

EUSKAL AZENTU ETA EBAKERARI BURUZKO JARDUNALDIEN BATZORDEÑOAREN BILERA DONOSTIAKO ORDEZKARITZAN (1986-II-19)

Bilduak: L. Mitxelena, P. Altuna, J. San Martin eta J.L. Lizundia.

—Lehendabizi, Bilbon egindako Urtarrileko hileroko batzarrean erabakitako puntu batzu azaldu dira. Horren ildotik hiru txosten programatzea erabaki da 30-40 minututakoak, ondoren, galde-erantzun edo elkarriketak izanik. Txosten bat Mitxelenaren kontu izango litzateke, beste bat Txillardegiren kontu eta hirugarren bat, euskal entonazioaz, Karmele Rotaetxeri eskainiko zaio. Mitxelenaren ustez, Patxi Altunak berak ere, agian, txosten bat egin dezakeela uste du Mitxelenak. Patxik, ordea, komunikazio bat erantzun dio. Alfonso Irigoienek ere gai honetaz asko dakiela esan du. Lurdes Oñaederrari ere komunikazio bat eskatzea aipatu da. Erronkariko azentuaz ere, Artola delako batek lan egin du, horretaz ere komunikazio bat ez legoke gaizki. Juan Antonio Letamendiak ere komunikazio bat egin dezakeela aipatu da, zeren eta Hondarribiko euskarari buruz tesia prestatzen hasia baita aspaldi. Belloc-eko Aita Lertxundiren lan bat ere aipatu da, Azkoitian ere honetaz eman zen, eta bestalde, IKER 2an lan bat egina du titulu honekin: “Le traitement rythmique des mots dans le chant en navarro-labourdin non-accentué d’aujourd’hui”. Komunikazio informatibo gisakoak ere interesgarritzat jotzen dira, hala nola, Atlasgintzan dihardutenak. Bestalde, Manu Etxebarriak eta Mikel Kaltzakortak informatibo ildo horretako komunikazio bat eman dezakete, irakaskuntza eta ebakerari buruz zertan ari diren edo zertan hasteko diren edo hasiak diren azpimarratuz edo zehaztuz.

—Lizundiak aipatu du nola E. Knörr eta Rikardo Badiola eta hirurak egon ziren TV-3 Frances Vallverduarekin. Hau baita hango aholkularitzako “Cap de Serveis” delakoa. Berak zioenez, ez dago katalanean standar oralik, baina ba dira, bere hitzak errepikatuz “varias formas legítimas pero genuinas” katalanaren ebakeran. Bere ustez, bere hitzekin jarraiturik “quisiéramos que se oigan más locutores de diversas procedencias del catalán, pero soy purista con los acentos de influencia castellana o francesa”. Vallverdu hau txosten bat egiteko prest agertu zen Jardunaldi hauetan, bere esperientzia agertuz. Interesgarritzat jotzen da.

—Grabazio azalpenak eramango lukete bigarren egun gehiena, nahiz eta zenbait komunikazio, batez ere, informatiboak ere, lehendabiziko egunetik bigarrenera

pasatuz, tarteen edo ordutegiaren arabera. Bost bloke bana daitezke grabazio azalpen hauetan:

1. Oratoria/hitzaldietakoa.
2. Testu irakurketa, Axular adibidez.
3. Vienako grabaketena.
4. Komunikabideetakoa, irrati, telebistetakoa alegia.
5. Kontalariena.

Elkarriketa eta bertsolaritza oraingoan ez sartzea uste da. Lehen blokean, *hitzaldietan*, Martzel Andrinua, Pedro Pujana, Felipe Yurramendi, Martin Iturbe, Jose M.^a Aranalde, Iñaki Beristain, Eugenio Agirretxe, Piarres Charriton, Hiriart-Urruty eta T. Uthurry aipatu dira. Hauekin harremanetan jartzea, hartuko duten Euskaltzainburuaren gutunaz gainera, honela egingo da: Martzel Andrinua, Pedro Pujana eta Iñaki Beristain, J.L. Lizundiaren kontu. Felipe Yurramendi, gaur goizean, Altunak eta Lizundiak esan duetenez baiezkua eman du. Martin Iturbe, Jose M.^a Aranalde eta Eugenio Agirretxeri, Juan San Martin esatekotan gelditu da. Charritoni adieraziko zaio, Hiriart-Urruty batzarrera agertzen ez bada, berari esateko eta baita ere Uthurryri. “Baserri” ere aipatu da hizlarien artean.

Legebiltzarreko, alegia, Euskal Parlamentuko zenbait zati ere hartzekotan gelditu gara. Adibidez Gurutz Ansoa, Martin Auzmendi eta beste parlamentari euskaldunena, J.L. Lizundia arduratuko da. Andre Luberriaga Azkaingo auzapez eta departamentuko kontseilaria ere aipatu da, hizlari ona baita.

Irakurketa sailerako, Luis Villasante, Xabier Kintana, Patxi Altuna, Rafael Artola, Jean Haritschelhar, Jean Louis Davant, Roger Idiart, Pello Salaburu eta Patxi Uribarren aipatu dira. Patxi Altunak Axularren pasarte bat proposatu du, xingurriena.

– Vienako grabaketena Jose M.^a Etxebarriari aukeraketa bat egiteko. Mitxelenak aipatu duenez, Karl Boudak ere grabaketaren batzu egin zituen, Jose Antonio Aranari eskatuko zaio Jon Bilbaoren bibliografian begira dezan.

– Laugarren blokea, komunikabideetakoa izango litzateke, irrati, telebistetakoa. Grabaketa horiek gaurko saioetatik hartu beharko dira. Horretaz, Jose M.^a Iriondori eta Jose Ramon Belokiri idatzi zaie. Lizundiak aipatu du Iraolagoitiarekin egotea ere interesgarri litzatekeela Bizkaiko irrati batekoa hartzeko. Era berean, Baionako Etxezaharretari ere idatzi zaio.

– *Kontalarien* artean, Teri Ibarrola aipatu da, berak aspaldian disko bat atera bai zuen. Aita Zavalari ere eskatuko zaio kontalariekin baliaturik zenbait liburu argitaratu bai ditu, hala nola, Alkain eta Zapiainenak. Bestalde, Jose M.^a Satrustegiri ere, Lukas Zufiaurreri hartutako zenbait grabaketa ere, sail honetan sartzeko eskatuko zaizkio.

– Mitxelena eta Txillardegik gai bera errepika ez dezaten, jakin beharko litzateke Txilladegik zertaz emango lukeen txostena, adibidez: zer den azentua, indarra, luzaera, doinua, eta abar.

EUTGn bildu gara, P. Altuna, J. San Martin eta J.L. Lizundia, Mitxelenarekin dugun bilera pixka bat prestatzeko eta nolabait plangintzaren urrats batzuk aztertzeko.

Hiru txosten eta zenbait komunikazio ikusten dira lehen sailkapen batetan. Ondoren grabazio azalpenetan beste bloke edo azpisail hauek: Oratoria hitzaldiak, irakurraldiak, Vienako grabaketarenak, komunikabideetakoak eta kontalarie-nak. Felipe Yurramendi deitu dugu eta prest dago klaseko hitzaldi gisa 5 minu-tutako grabaketa egiteko. Jose M.^a Etxebarria ere deitu dugu, Vienan egon bait zen, eta hango grabaketatik, Trebischek egin zuen mende honen hasierako graba-ketatik aukeraketa edo selekzio bat egiteko. Ez da izan, baina P. Altunak hitz egingo du berarekin, mandatua utzi bait dio.

Deklamazio alderdiari begira M.^a Dolores Agirreri idatzi zaio. Juan San Martin gelditu da berarekin izatekotan.

Bazkal ostean Txillardegirekin izan gara, P. Altuna, J. San Martin eta J.L. Lizun-dia. Ados dago berak txostena gai horretaz egiteko. Gero aipatu dira zenbait izen: esatebaterako, Lurdes Otaegirena ETB-koa eta hau deitzea pentsatu da; Pilar Etxebarria ere aipatu du Txillardegik, Zaldibikoa, lanen bat egiten ari baita, eta Aita Alustiza ere komentatu da kontalari bezala, lanak eginak bait ditu. Beraz, esan genezake aurre-programa bat aski ongi burutu dugula. Hiru txosten nagusie-kin, beste zenbait txosten komunikazio gisako laguntzaileekin, komunikazio infor-matibo gisakoekin eta grabazio azalpenekin.

Ondorio gisa sar daiteke hau Txillardegirena baino aurrerago eta baita ere azkenik esan behar da hiru egunetakoa izango litzatekela. Erabaki edo konklusioetarako igande goiza, hots, Ekainaren 1a.

EUSKAL AZENTU ETA EBAKERAZ ILJARDUNALDIAK

Durango, 1986, Maiatzak 30-31

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hasierako hitzak

Ander Salaberria, Durangoko Alkate jauna.

Euskaltzainkideak.

Jardunaldiotan parte hartzen duzuen txostengile, hizlari, kontalari, irakurle etab.

Jaun-Andreak:

Aurrenengo gauza, eskerrak bihotz-bihotzez Durangoko Uriari eta Uriko Alkate jaun Ander Salaberriari Euskaltzaindiaren izenean. Eskerrak Durangon egun hauetan egoteko aukera honengatik.

Aurten ospatzen da Durangoko euskal jaien mendeurrena, eta gertakari hori gogoratzeko egingo diren ekintzen artean, Euskaltzaindiari ere zerbait antola zezan eskatu zitzaion.

Euskaltzaindiak pozik hartu zuen gomita. Bazuen arrazoi bat baino gehiago Durangon agertzeko. Bat, noski, guretzat oso barrenkorra. Durangoko euskal jai haietan Aristides de Artíñano jaunak “Proyecto, bases y reglamento de una academia de la lengua e historia euskara” izeneko lan bat aurkeztu zuen. Urteak igaroko ziren oraindik —32 urte— Euskaltzaindia sortu arte, baina orduan lau haizetara botatako haziak denborakin bere uza ekarriko du. Agerian da Euskaltzaindiak ezin zezakeela berari hain hurbildik ukitzen dion urte-muga hau pasatzen utzi Durangon zerbait antolatu gabe.

Orain ehun urteko *Euskal-Erria* aldizkaria begiratzen baduzue, jai haietako sariketan parte hartutako euskaltzale askoren izenak aurkituko dituzue: Aita Arana, Ramon Artola, Felipe de Arrese y Beitia, Arturo Campión, Marcelino Soroa, Victoriano Iraola, Antonio Arguinzoniz, Pedro M.^a Merladet, Jose M.^a de Ampuero, etab. Andra Mariaren elizan, berriz, Aita Daniel Baertel Miota, Arantzazuko fraide, predikari ospetsu eta

Durangoko semea zenak egin zuen predikua lehenengo egunean. Eta bigarrenean Aita Pio Mortara juduak, euskaraz honek ere. Mortararen historia ezaguna da. Ume ttipi eta hiltzeko zorian zela, haurtzainak gurasoen isilik bataiatu egin zuen; gero, berriaz, sendatu zela ikusirik, kristau heziera izan zezan, haurzainak umea hartu eta Aita Sainduak orduan zituen lurraldeetara ihes egin zuen. Europako Kantzileria guztiak protestaka hasi ziren, baina Pio IX.ak —orain ez luke egingo—, esan zuen: “Ume hau Elizaren semea da eta Elizak babestu egingo du”. Denboraz Laterandar sartu zen Aita Mortara eta Oñatin hainbeste urte egin zituen, eta bai euskaraz ondo ikasi ere. Gaur kale bat du Oñatin.

Euskal-Erria aldizkariaren tomo horretan bertan dator Sabino Aranaren artikulu bat Aristides de Artiñanok aurkeztutako “Proyecto de Academia” delakoari buruz (ikus XV, p. 361). Esan beharrik ez dago: asmoa txalotzen du eta erabat beronen alde agertzen da.

Eta bada beste arrazoi bat Euskaltzaindiak Durangora etorri nahi izateko: hemen edo hemendik hurbil dela Euskal Telebista. Gaur denok dakigu irratiei eta Telebistari esker, euskara mintzatuaren —hots, belarriz jasoaren— zabalkunderako bide berriak eta eraginkorrak azaldu direla. Hori —Aita Kardaberazen hitzak errepikatuz— euskeraren berri onen artean sailkatu behar dela ez du inork ukatuko. Halaz guztiz, hau ere esan behar da: egoera berriak istilu eta buru-hauste berriak sortu dizkigula.

Idatzizko zereginetarako euskara-mota bat standard edo batu antzekoa moldatzen zenbait urrats egin dira, baina euskara mintzatuaren ez dugu beste hainbeste egin. Eta urratsak eman ahal izateko beharko liratekeen ikerketak, neurri handi batean egin gabe daude oraindik. Ez dut esan nahi ezer egin ez denik. Hemen berton ditugu egun hauetan ikertzaile batzu. Hala ere, usteak eta iritziak ugari direla, bai, badakit, baina oinak finkatzeko behar den lur sendorik ez dakit dagoen. Edozein modutan ere, lur sendo horren bila gabiltza. Horra zergatik gai hau hartu den hemen Durangon aztertzeko, hots, euskal ebakera, eta bereziki azen-tua eta doinua.

* * *

Ondo gogoan dut Suzuko Tamura japoniar emakumeari Leioan Euskalarien Jardunaldietan entzun niona.

Guti gorabehera hau zioen: Euskaraz ikasteko ematen diren ikasaldietan, denbora asko ematen zaio, adibidez, aditzari: “Aditza, beti Aditza”. Euskara nola ahoskatu behar den, ordea, ez da irakasten. Badirudi hori gauza ezaguna dela; eta ez da. Gero zer gertatzen da? Iparraldeko euskaldunek euskara frantsesa bezala ahoskatzen dutela, eta Hegoaldekoek espainola bezala. Ez ote du euskarak ebakera modu bat bere-berea? Zergatik ez da irakasten?

Honetan Suzuko Tamurak arrazoia zuela uste dut. Askotan atzerritarrek begi zolia izaten dute etxekoek ikusten ez ditugun hutsei ohartzeko.

Euskaldunak banakatuak gaude bi kulturetan. Iparraldekoek, alegia, frantsesaren eragina eta hemengoek gaztelaniarena jasaitea, normala da. Hori alde batetik; eta bestetik, eskualdeak mendez-mende bata bestetik bereiziak edo har-eman gutirekin egon direlako, desberdintasunak gure artean izugarri ugaltu dira —ahoskatze eremuko desberdintasunez ari naiz—. Eta guzti honi ez zaio kasu handiegirik eman.

Gure egunotan, gainera —eta honek arazoaren premia larritu baino ez du egin— gertakari berri baten aitzinean gaude. Euskaldun berriaren gertakariaren aurrean.

Euskaldun berria indar bat eta esperantzarako bide bat da euskarentzat, nola ez! Baina maizenik zer gertatzen da? Euskara liburutik ikasi duelako, euskal ebakera inork irakatsi ez diolako eta hizkuntz komunitatearen galtzarrean bizi ez delako, erdal azentu, doinu edo ebakeraz ahoskatzen duela euskara.

Ohartzen naiz hau esatean, kontradizio batean erortzen naizela. Arestian esan dut, Suzuko Tamurari jarraikiz, hemengo euskaldunek gaztelaniaren antzera ahoskatzen dutela euskara, eta orain diot euskaldun berrien akatsa dela hori. Zertan gara? Baina agian ez dago halako kontradizio handirik. Euskaldun jatorrak, nahiz eta erdal kulturaren eragina jasan, badu oraindik bereizgarriak aski bere azentuan, doinuaren etab. Eta euskaldun berriaren ebakera entzuten duen bezain laster, euskaldun zaharrak zerbait arrotz, txokagarri, berea ez den zerbait nabaitzen du.

Eta gerta daiteke —eta inoiz gertatu dela uste dut— komunikabideetan barrena horrelako doinu eta azentu bitxi-arrotzak entzutean, batek baino gehiagok eredutzat hartu baititu. Kutsadura hau zabalduko balitz, pentsatu behar dugu nolako ondorioak ekarriko lituzkeen.

Hau izan da Jardunaldiontzat azentu eta doinuaren gaia aukeratzeko arrazoia.

Euskaltzaindira behin baino gehiagotan heldu dira eskeak puntu hauei buruz arau batzu edo erabaki batzu har ditzan. Ikus *Euskera* (1982), 251. Eta hain zuzen, eske horiei men eginez, Jardunaldi batzu azentuari buruz, konkretuki Azkoitian, egin ziren. Gotzon Aurrekoetxeak eman zuen horien berri laburra. Ikus *Euskera* (1982), 685.

Baina, jakina, Euskaltzaindiak ezin atera ditzake mahukatik erabakiak. Hemen ere balio du Axular-enak: “gogan behartu naiz eta beldurtu etziren bideak asko segur eta garbi” (Ax 6). Beste hitzez esanik, gaia bera berde dago. Gure artean ikerketak egin dituztenak hemen geurekin ditu-

gu egun hauetan. Elkar hizketa eginez eta elkarri entzunez, gaia bera zoritzeko zerbait egingo ahal da Jardunaldiotan!

* * *

Jardunaldi hauei bi titulu jarri dizkiegu: bat orokorra edo jenerala: *Euskal Ebakera*. Eta beste bat zehatzagoa: *Azentua eta Doinua*. Zehazpen honen arabera, hau da jomuga: bi gauza hauek —azentua eta doinu— zer diren ezagutu, nola erabiltzen diren aztertu eta nola erabili behar liratekeen argitu.

Hor duzue programa.

Ikus dezakezuenez, teori-alderdia eta pratika-alderdia nolazpait elkartuak eta aintzat hartuak izan dira. Badira, alde batetik, txostenak eta komunikazioak; eta, bestetik, grabaketen entzute-ikerketak: hemen oratoriaziak, ipuin-kontaerak eta irakurketa-puskak euskalki guztietako hizlari, kontalari eta irakurleek eskainiak, entzun eta aztertuko ditugu. Agian horrek asko lagunduko digu eremu honetako euskal bereizgarri nagusiez kontura gaitezen.

Kataluñan esatera noan honako hau gertatzen dela entzun dut. Han ere katalan hizkuntzaren barruan azentu bat baino gehiago omen dago. Zer egiten dute orduan? Oraingo, behintzat, bertako diren azentu guztiak jatortzat hartu: ez, ordea, beste hizkuntza batetik hartuak direnak. Hurrengo urrats bat izango litzateke ahozko katalanaren standard bat finkatzera heltzea. Agian gu ere horrelako zerbait egin beharrean gara, baina katalanak baino astiroago joanez, zeren desberdintasunak gure artean handiagoak baitira eta azterketetan atzeratuago baikaude. Euskararen Atlasa atera dadinean, horrek ere argi handia egotziko du, nik uste, baina katalanek eginik duten hori guk oraindik ez dugu.

Euskalkien multzutasunak ez du euskarak duen bere baitako batasuna estaltzen eta ez desegiten, nahiz eta batasun horren ikusbidea pixka bat eragozten duen. Euskara batua bera da agerbiderik asko euskara hizkuntza bat eta bakarra dela frogatzeko, eta beste desberdintasunok muin bakar horretatik ilkitako aldaerak besterik ez direla ohartzeko. Azentu eta doinu kontuan ez ote da beste horrenbeste gertatuko? Esan nahi dut: Azentu eta doinu kontuan ere euskarak ez ote du izango hor, sakonean edo erraietan, bat, funtsezkoa, bere-berea duena, eta gaurko azentu eta doinu ugariak ez ote dira denak hortik erakarriak izango, eta guztion muin horren antz zerbait ez ote dute gordeko? Galde honi, jakina, ikerketen emaitzek soilki eman diezaiokete erantzuna.

Izango al dute Jardunaldi hauek ondoriorik gerorako? Erabakirik hartuko ote da? Ez dakit. Beharko da ikusi gauzak nola doazen. Agian ez da guti izango maila apaleko ondorio edo erabaki xume batzuetara iristen

bagara. Adibidez: ebakeran gertatzen diren okerrik handienak edo nabarmenenak salatu.

Beharbada, beste sail askotan gertatzen den bezala, hemen ere bereizi beharko litzateke lagun arteko hizkeran euskaldunak komunzki erabili ohi duen azentu eta doinua, eta beste hizkuntz-mailetan erabiltzen duena, adibidez, hitzaldietan, ipuin-kontaketetan, irakurketetan, azalpen luze bat egiterakoan, etab. Guk, bestea utzi gabe, aparteko modu batez oratoria, irakurketa eta kontaketa sailak aztertu nahi ditugu. Hain zuzen, horregatik Jardunaldi hauetan toki aparta eman zaio grabaketen entzute-ikerketari. Eta grabaketa horietan eskaintzen zaiguna sail horretako puskak dira: oratoria, kontakizun, irakurketa, etab., euskalki guztietako hizlari, kontalari eta irakurleak kontutan hartuz.

Amaitzean eskerrak eman beste lanik ez zait gelditzen: eskerrak antolatzaileei, txostengileei, grabaketak bidali dizkigutenei, Jardunaldiotan modu batera nahiz bestera parte hartzera etorritako guztiei, eta aparteko modu batez Durangoko uriari eta uriko Alkate jaunari.

SOBRE EL ESTANDAR ORAL CATALAN: EL MODELO DE LENGUA EN TV3

Durango, 1986-V-31

Francesc Valverdú

En mi calidad de asesor lingüístico de la Dirección de TV3, se me ha encargado, para estas Jornadas de Durango, una exposición sobre la problemática del estándar oral catalán y más concretamente sobre el modelo de lengua utilizado en Televisió de Catalunya, TV3. Se tratará tan sólo de una aproximación al tema, pues dada su complejidad muchos extremos deberían ser convenientemente desarrollados. Por otra parte, algunas de las opiniones expresadas son personales y no son necesariamente compartidas por todos los profesionales de la lengua que trabajan en este centro.

I

Antes de entrar propiamente en materia quisiera aportar unos datos sobre el marco sociolingüístico catalán, que, no por conocidos muchos de ellos, deben obviarse.

A) Datos lingüísticos

El catalán, como se sabe, es una lengua neolatina, y su aprendizaje resulta fácil para los hispanófonos y francófonos, es decir, para los habitantes de España y de Francia, entre cuyos Estados se encuentran repartidas actualmente las tierras de habla catalana. Esa proximidad lingüística debe tomarse en consideración, sobre todo desde Euskadi, para entender algunas peculiaridades de nuestra situación.

Otro aspecto importante, éste de carácter histórico, es que el catalán fue lengua oficial hasta 1714, y tuvo un desarrollo pleno como lengua nacional hasta el siglo XV. Esta circunstancia histórica pesa en la consciencia colectiva de nuestra nación.

Finalmente, en este apartado hay que señalar el hecho de que el catalán moderno ha experimentado un proceso de *normativización* (= estandarización) completo en el aspecto ortográfico (1913), gramatical (1918) y léxico (1932), lo cual, unido a un notable desarrollo literario y periodístico hasta 1939, ha conformado un estándar escrito estable y aceptado por todos los catalanohablantes.

B) Datos demográficos

Los territorios en que se habla el catalán, recordémoslo, son: Cataluña, País Valenciano (excepto su franja occidental), Islas Baleares, Cataluña Norte (o condado del Rosellón), la franja oriental de Aragón, el principado de Andorra y la ciudad de L'Alguer (Cerdeña). En total, suman aproximadamente unos 10 millones de habitantes.

La inmensa mayoría de estos habitantes entiende el catalán. En cuanto a los catalanohablantes, propiamente dichos, son de un 60 a un 80 % según los territorios, si bien hay que señalar que en algunos municipios de Rosellón, de Cataluña y del País Valenciano son minoría.

Respecto al fenómeno de la difusión del catalán entre la población inmigrada alófona, voy a aportar algunos datos sobre Cataluña, por tratarse del territorio más poblado (6 millones de habitantes) y por ser la zona donde ha habido mayor inmigración. Dentro de Cataluña, las comarcas con mayor número de inmigrados son las que forman la Corporación Metropolitana de Barcelona (unos 3 millones de habitantes). En 1975, en el área metropolitana entendía el catalán un 72 % de la población. En 1981, este porcentaje se había incrementado a un 75,5 %. Y en 1986, se calcula que más del 90 % de los vecinos del área metropolitana entiende el catalán. La razón de este incremento está principalmente en la circunstancia que desde 1978 el catalán es obligatorio en la enseñanza y en la existencia de TV3.

C) El catalán en los medios de comunicación de masas

Como muy bien saben en Euskadi, el franquismo fue implacable en la persecución de las lenguas nacionales de los pueblos de la península. Al morir Franco, no había ni un solo medio de comunicación de masas (MCM) en catalán. Es más: la preocupación del franquismo para impedir la popularización del catalán era tan obsesiva que las retransmisiones deportivas (recuérdese el popular fenómeno del Barça) estuvieron prohibidas hasta 1976.

La presencia del catalán en los MCM ha revolucionado en los últimos diez años. Se distinguen fácilmente dos etapas:

a) *Etapas de la transición (1976-80)*

En cuanto a la prensa escrita, en abril de 1976 aparece el diario "Avui", totalmente redactado en catalán. Más adelante surgen "Punt Diari" y "Regió 7" de ámbito intercomarcal. Exceptuando los rotativos barceloneses (por otra parte, los más difundidos), los diarios del resto de Cataluña incluyen cada vez más artículos y reportajes en catalán. Y en cuanto a la prensa de ámbito comarcal, su catalanización es casi completa.

Respecto a la radio, en diciembre de 1976 se crea Ràdio 4, una emisora de FM de la red de RTVE que utiliza exclusivamente el catalán, incluso en los

noticiarios. Simultáneamente, se organizan programas en catalán en algunas emisoras de OM y sobre todo en las de FM, debido especialmente a la proliferación de emisoras municipales.

En cuanto a la televisión, hay que recordar que ya en la época franquista el Circuito Catalán de TVE emitía algunos programas minoritarios en catalán (así, en 1973, se emitían 4 horas mensuales). Durante la época de la transición el Circuito Catalán de TVE realizó un salto significativo: de 6 horas semanales (1977) pasó a 13 horas y media (1980). Sin embargo, se trataba en general de programas de poca audiencia, por su horario de emisión.

b) *Etapa del desarrollo autonómico*

En la actualidad, la situación de la prensa es estacionaria. Si la “presencia” de prensa en catalán en Barcelona es más satisfactoria que en 1976 ello se debe a que ahora sólo se publican cuatro diarios, no a que se publiquen más diarios en catalán.

El panorama de la radio, en cambio, se ha modificado notablemente desde 1983. Desde entonces emiten exclusivamente en catalán los siguientes centros: Catalunya Ràdio (de la Corporación Catalana de RTV) con una red completa de centros en toda Cataluña; Ràdio Associació de Catalunya (CC/RTV); Ràdio Avui, emisora comercial con una amplia red en Cataluña; Ràdio 4 (área barcelonesa, solamente, aunque emite informativos en catalán en conexión con Ràdio 1, lo que incrementa mucho su audiencia); y la mayor parte de emisoras municipales. El aspecto negativo es que todas estas emisoras son de FM y que en OM la presencia del catalán es muy escasa. Sin embargo, en la actualidad la FM parece cada vez más escuchada: Catalunya Ràdio es ya en la actualidad la 2.^a emisora en FM y la 4.^a en cifras absolutas.

Sin embargo, el cambio fundamental en los MCM se ha producido en la televisión. Desde 1984 TV3 compite con los dos canales de TVE y en la actualidad ha alcanzado una audiencia de 2 millones y medio de espectadores; supera ya el segundo canal (TVE-2) y compite en algunos programas con el primero (TVE-1). Emite (en 1986) alrededor de 62 horas semanales, siempre en catalán; las películas son dobladas o subtitradas.

En cuanto al Circuito Catalán de TVE también ha incrementado su programación en catalán: alcanza unas 33 horas semanales, 8 emitidas por TVE-1 y 25 por TVE-2.

II

1. La cuestión del estándar

El lenguaje estándar es el modelo de lengua culta más general. Funcionalmente, comprende los niveles lingüísticos utilizados en la enseñanza, en los medios de comunicación, en la administración y, en general, en cualquier ámbito

público. No se trata, obviamente, de una *lengua aparte* de la lengua común: es el resultado de una selección de variantes lingüísticas de un idioma, que, por convención social, se consideran las más apropiadas para los niveles formales de comunicación.

Antes, el principal modelo del lenguaje formal era la *lengua literaria*. Es lógico, pues la literatura ha sido hasta época muy reciente el principal (re)productor del estándar. Por otra parte, esa denominación todavía se utiliza —o se utilizaba hasta hace poco— en los países germánicos y eslavos para designar el estándar.

En el caso catalán, por razones históricas y socioculturales peculiares se impone, más que en otras lenguas, la distinción entre *estándar escrito* y *estándar oral*.

a) *El estándar escrito*

El catalán estándar escrito presenta unos altos niveles de homogeneidad: desde 1913 está totalmente fijado en el aspecto *ortográfico*; desde 1932 posee un corpus *léxico* suficientemente amplio, con la aceptación de numerosos dialectalismos, aunque existe un conflicto permanente en cuanto a la incorporación o no de ciertos castellanismos; desde aquella época está fijado también el aspecto *morfológico*, si bien en algunos casos concurren dos o más variantes dialectales; y finalmente está básicamente fijado en el aspecto *sintáctico*, con algunos puntos conflictivos en los cuales los gramáticos no están de acuerdo.

En todo caso, los problemas actuales del estándar escrito no proceden de las variantes dialectales (principalmente morfológicas y léxicas), que son muy pocas, sino de la tensión entre las tendencias puristas y las tendencias antipuristas. La admisión o no en el estándar de castellanismos muy difundidos como “guapo” o “despedir” son un motivo para encarnizadas discusiones entre ambas tendencias, pero sólo afecta a una parte mínima del lenguaje estándar.

b) *El estándar oral*

Aquí la situación es más compleja, hasta el punto de que los sociolingüistas catalanes aún estamos discutiendo sobre si existe o no un estándar oral en catalán. De hecho, los que pretenden *configurar* un estándar oral, porque estiman que no ha existido por imposibilidad (política) de usarlo, y los que pretenden *reajustarlo*, porque consideran que, aun existiendo, el estándar oral no se ha podido practicar debidamente, coinciden en la necesidad de *(re)definirlo*.

Las causas de la presente indefinición del estándar oral catalán son de diversa índole. En primer lugar, el predominio del modelo literario —situación agravada por la represión franquista, que sólo toleró la edición de libros—, lo cual ha dificultado la natural separación entre lo escrito y lo oral. En segundo lugar, la inexistencia de una administración pública que utilizase normalmente el catalán, exceptuando los escasos años de la autonomía republicana. En tercer lugar, la

reciente implantación de los MCM orales en catalán, pues antes de la guerra la radio tuvo un desarrollo incipiente. En cuarto lugar, el hecho de que el teatro catalán no pudo servir de modelo, pues el teatro más popular siempre ha sido muy castellanizado (sobre todo en las obras cómicas). Y finalmente, las diferencias dialectales, que en el nivel oral son más acusadas.

Sobre este último punto, cabe señalar que entre los catalanohablantes siempre existe *intercomprensión*, por más leídos que estén entre sí sus respectivos dialectos. Ahora bien, debe reconocerse que, en principio, entre los dialectos catalanes existen diferencias significativas. Así, por ejemplo, en el vocalismo átono un hablante de Lérida usa cinco vocales (a, e, i, o, u), mientras que uno de Barcelona sólo utiliza tres (ə, i, u). Afortunadamente, la principal división se produce dentro del territorio de Cataluña (catalán oriental y catalán occidental), en el cual la comunidad lingüística siempre se ha sentido sin fisuras. Esto es una gran suerte, ya que ¿cómo pueden justificar los “blaveros” su pretensión de un “valenciano” independiente del catalán si su habla está estrechamente vinculada al catalán occidental? Sólo si existiera una hipotética frontera lingüística entre el catalán oriental y el catalán occidental tendrían justificación sus elucubraciones.

Por los motivos expuestos, y por otros de carácter político, la mayoría de lingüistas y sociolingüistas catalanes preconizan no un modelo ortológico del tipo francés o español, con un dialecto básico para el estándar, sino un modelo del tipo alemán, ruso o italiano, en el cual las características dialectales son más respetadas y por lo tanto concurrentes.

2. Elocución y ortología

Elocución es el arte o el modo de expresarse oralmente; equivale a lo que es la redacción en el lenguaje escrito. *Ortología* es la pronunciación formal (o estándar) de las palabras y la adecuada entonación de las frases; equivale a lo que es la ortografía en el lenguaje escrito.

Existe el tópico de que en estándar oral todo es cuestión de ortología. A menudo se dice: “Con una fonética adecuada y una buena entonación se resuelven todos los problemas de la comunicación oral”. Esta idea se basa en unos supuestos discutibles: que la comunicación oral (TV, radio, cine, teatro...) se produce mayoritariamente apoyada en la lectura; y que la comunicación oral no tiene discrepancias importantes con la comunicación escrita. Ahora bien, ni una ni otra aseveración son totalmente ciertas.

En primer lugar, aunque la comunicación oral de los MCM se apoya muy a menudo en textos escritos (guiones para dramáticos, telefilmes, doblajes, etc.; textos para los noticiarios; apuntes diversos, etc.), no pueden olvidarse las numerosas ocasiones en que no se produce este apoyo (reportajes en directo, entrevistas, improvisaciones ante el público, etc.). Por lo demás, es muy difícil que un locutor tenga un buen nivel ortológico (fonética y entonación), si al mismo tiempo no posee en mayor o menor grado una verdadera “competencia lingüística” (es decir, elocutiva).

En segundo lugar, no es cierto que no existan discrepancias notables entre la comunicación oral y la escrita. El simple hecho físico de que lo escrito se puede releer, mientras que lo oral, si no surge del contacto personal, no puede “reoir-se”, condiciona sus recursos estilísticos respectivos. En general, el escrito utiliza períodos más largos, emplea en mayor grado la coordinación y la subordinación, se despreocupa por la homofonía (fenómeno muy frecuente en catalán), prefiere el orden “lógico” frente al orden “expresivo”, tiene menor necesidad de la redundancia, etc. En definitiva, un *texto* destinado a la comunicación oral no siempre puede tratarse igual, desde el punto de vista de la eficacia comunicativa, que uno destinado a la comunicación escrita.

Centrémonos ahora en la elocución. Según el gran lingüista Joan Coromines, la elocución debe responder a unas condiciones básicas de *congruencia, cuidado y naturalidad*.

En primer término, la elocución debe ser congruente, esto es, *adecuada al registro utilizado*. En efecto, por un lado, debe adecuarse a las características propias del lenguaje oral, a que hemos hecho mención, y por otro lado, debe ser congruente con el registro de contenido o de estilo: no es lo mismo un sainete que un informativo, como no es lo mismo un estilo desenvuelto que un estilo formal. En resumen, debe evitarse la incongruencia en la utilización de los diversos registros.

En segundo término, la elocución debe ser cuidada, esmerada, esto es, *debe realizarse con una cierta tensión* (la articulación algo más tensa que la familiar y los sonidos, distintos) y *requiere atención en el lenguaje* (no sólo en la elección de las palabras, sino en la construcción de las frases). En resumen, debe evitarse el descuido, tanto en la pronunciación, cuanto en la selección de vocabulario o en los usos gramaticales.

Y finalmente, la elocución debe ser natural, espontánea, esto es, *debe producir un efecto de naturalidad en el receptor*. Así, son impropias de la comunicación oral en los MCM las palabras inusuales (el locutor puede vacilar al pronunciarlas y el receptor queda a veces perplejo) y las pronunciaciones más alejadas de los propios hábitos fonéticos, cuando éstos también son aceptables. En resumen, debe evitarse la afectación tanto en el aspecto fonético, cuanto en los aspectos gramaticales y léxicos.

3. Criterios sobre la elocución en TV3

Aunque me referiré sobre todo a TV3, de hecho los criterios que voy a exponer son compartidos por los demás MCM orales en catalán. Ahora bien, en Televisió de Catalunya, por sus mismas posibilidades económicas, se lleva a cabo un tratamiento más riguroso y sistemático sobre los criterios lingüísticos, y por otro lado, debido a su gran difusión, estos criterios resultan más influyentes.

En primer lugar, se exige desde luego una elocución adecuada al medio audiovisual, de acuerdo con las condiciones antes señaladas de congruencia, cuidado y naturalidad.

En segundo lugar, se recomienda un predominio del estándar oral sobre las formas coloquiales. El predominio es absoluto en los programas en que se utilizan registros formales, como informativos, reportajes, documentales, etc. El predominio del estándar es en cambio relativo en los programas en que se alteran los registros formales e informales, como dramáticos, doblajes de películas, etc. Excepcionalmente, puede recurrirse al habla coloquial en pasatiempos, concursos y otros programas de carácter informal.

En tercer lugar, se propugna la alternancia de las distintas pronunciaciones dialectales, siempre que respondan a las exigencias de formalidad y genuidad. Esta práctica es posible en informativos, en reportajes, en entrevistas, etc., pero es de difícil aplicación en dramáticos, en doblajes, etc.

En este punto, se plantea un problema complejo. Por un lado, la realidad sociolingüística ha impuesto el predominio del dialecto central o barcelonés; por ser el de la capital, tiene en general mayor "prestigio" (exceptuando en su variante *xave*, dialecto popular comparable al *cockney* londinense); es el de mayor presencia en el personal de TV3; y es el de mayor peso demográfico. Por otro lado, existe una cierta presencia de locutores de dialecto occidental (presentadores, conductores), a los que a menudo hay que estimular la conservación de su acento, pues espontáneamente tienden a "contaminarse" del acento barcelonés. (La presencia de estos locutores tiene una ventaja suplementaria: en cierto modo, "representan" también el catalán del País Valenciano, por tratarse del mismo grupo dialectal). Finalmente, en cuanto a la presencia de las distintas variedades dialectales en los reportajes o en las corresponsalías, empieza a ser una realidad y en el futuro se incrementará; no debe olvidarse el hecho de que nuestra televisión se capta ya en Baleares y en la mayor parte del País Valenciano.

4. Las voces

Televisió de Catalunya es un medio audiovisual en el cual la comunicación oral es predominante, según venimos diciendo. Esto que parece una obviedad no siempre es bien entendido.

En los inicios de TV3, debido a las condiciones en que se creó (una cierta "precipitación", para ganar el tiempo perdido, y la falta de profesionales de TV con competencia en catalán) se admitieron muchas veces con deficiencias fonéticas. Lo que importa era poner en marcha la emisora y se buscó a los mejores profesionales, los cuales desgraciadamente no estaban siempre muy preparados en catalán.

De inmediato se levantaron protestas. "Existen muchas personas que tienen mejor pronunciación y que dominan el catalán. ¿Por qué no se ha recurrido a ellos?" Las protestas eran justificadas, pero sus razones no siempre respondían a la realidad. Es cierto que existen numerosos profesores de catalán, actores, periodistas, etc., que tienen un buen acento y se expresan en un catalán muy correcto, pero ¿todos ellos sirven para la comunicación oral? Esto ya no está tan claro.

En efecto, una voz *idónea* para los MCM debe reunir los siguientes requisitos: *a) calidad sonora* (impotación, timbre, tono); *b) calidad comunicativa* (debe establecer “contacto” con el receptor); y *c) calidad fonética* (pronunciación y entonación catalanas, en nuestro caso). En otras palabras, la voz debe ser audible, convincente y aceptable por todos.

Es importante tener en cuenta los tres requisitos a la vez, particularmente en las voces en off, pues cuando el presentador “da la cara”, el telespectador le puede tolerar ciertas deficiencias. Por otra parte, en el doblaje, el problema se agrava, ya que la calidad comunicativa aparece desglosada en dos aspectos: buena interpretación (naturalidad) y congruencia con el personaje doblado (credibilidad).

En resumen, el problema de las voces no se puede despachar de una manera simplista. Debe tenerse en cuenta todos los factores que en él concurren. Es más: si a una voz de gran calidad sonora y comunicativa, se le puede permitir un cierto grado de imperfección fonética, raramente una voz de escasa calidad comunicativa podrá servir en un MCM aun poseyendo una excelente calidad fonética.

5. El control de las voces en TV3

En TV3 existe una Comisión de Normalización Lingüística —a la que más adelante nos referiremos— que coordina y supervisa la calidad de la lengua utilizada en el medio. Pero el control inmediato de las voces y los textos se lleva a cabo por unos técnicos lingüistas adscritos a los tres grandes sectores en que está dividida la programación.

En la actualidad la situación de los locutores, en el sentido amplio del término, es la siguiente:

a) *Informativos y deportes*

En el personal de plantilla, podemos distinguir dos grupos: un grupo, numeroso, de buenos profesionales con deficiencias lingüísticas de mayor o menor grado; y otro grupo de profesionales sin deficiencias lingüísticas. Para el primer grupo, se han previsto unos cursos de reciclaje, que están dando buenos frutos; en los casos más graves se recomienda que se reduzca su aparición en pantalla hasta haber logrado un nivel aceptable.

En cuanto al personal de nueva contratación, se exige cada vez más un nivel fonético aceptable y una buena competencia lingüística, pues en la actualidad no se produce ya la situación de emergencia de los inicios de TV3.

b) *Producción propia*

En cuanto a los conductores, los presentadores, etc., que aparecen en la pantalla, en general tienen un nivel fonético aceptable y una competencia lingüis-

tica suficiente. Algunos tienen ciertas deficiencias, que se procuran corregir con cursos de reciclaje o bien con tratamiento personal.

Respecto a los programas contratados por TV3 se han dado instrucciones para un control previo de las voces y de los textos.

c) *Producción ajena*

Los doblajes son realizados por estudios privados a los que TV3 encarga este trabajo. Aunque en general las voces de los dobladores son de buena calidad, sobre todo las de los personajes principales, a veces se han incorporado en el reparto de voces dobladores con deficiencias fonéticas graves. Afortunadamente, esta eventualidad se produce muy de tarde en tarde en la actualidad.

Por otra parte, como el número de voces buenas es bastante reducido, los profesionales del sector han creado una Escuela de Doblaje para promover nuevos dobladores, lo que redundará en una mayor variedad en las voces.

Como ya he dicho antes, en TV3 existe una Comisión de Normalización Lingüística creada en febrero de 1985, que tiene como objetivo principal velar por la calidad de la lengua utilizada en nuestro medio. El presidente de esta Comisión es el director de TV3, quien delega en mi persona las funciones directivas de la misma. Además, la CNL está integrada por el coordinador general —que actúa de secretario— y un coordinador por cada uno de los sectores de la programación que se turna entre los diversos técnicos lingüistas de su departamento.

Los servicios lingüísticos se distribuyen (en 1986) así: 6 técnicos lingüistas para Informativos; 1 para Deportes; 2, más un número variable de colaboradores, para Producción Propia; 9, más algunos colaboradores, para Producción Ajena; 1 para el Departamento Comercial (corrección de la publicidad).

Además existen dos profesores de catalán que realizan los cursos regulares de formación y de reciclaje, así como el tratamiento personal de algunos profesionales.

A todas luces los servicios lingüísticos de TV3 son una “anomalía”. No creo que se encuentre en otra televisión europea un organigrama parecido ni tanto personal en los servicios lingüísticos. Desde luego, dada la situación de la lengua catalana, con un estándar oral poco practicado todavía, esa organización parece necesaria. Piénsese que incluso la BBC tiene problemas en cuanto a la calidad de la lengua utilizada en radio y en televisión.

6. Conclusiones

Con mi anterior exposición no pretendo minimizar los problemas que tiene planteados TV3 respecto al estándar oral. Todavía se producen deficiencias fonéticas y lingüísticas en los programas de Televisió de Catalunya, porque dadas

las condiciones de premura e improvisación en que a menudo se trabaja en un MCM esas eventualidades son difíciles de controlar.

Sin embargo, la organización implantada en TV3 permite asegurar los mecanismos de control y de seguimiento, que garantizan una mejora de calidad en el catalán utilizado: mediante el control previo en los locutores y en los textos; mediante el control operativo, con los mecanismos habituales de asesoramiento; y mediante el seguimiento de programas y de locutores (para detectar las causas de las incorrecciones y para aplicar el tratamiento más eficaz).

En conjunto, quizá no se haya notado todavía una mejora sustancial en la calidad fonética y lingüística de TV3, pero lo cierto es que, de no haberse implantado esa organización, en nuestro centro, al pasar de 40 horas semanales a más de 60, se hubiera producido un cierto desbarajuste.

HIZKUNTZEN FONOLOGIA

Durango, 1986-V-30

Miren Lourdes Oñederra

Hizkuntzen fonologia —hots sistemaren erabilkera bezala ulertuta— bi helburuk azaltzen dute: alde batetik, hitzak osatzen dituzten hotsak garbi entzunerazteak (entzulearen lana errazteak, beraz); bestetik, ebakera errazteak (hizlariaren lana errazteak). Bereizkuntza zahar honi jarraiki bilakabide fonologikoen sailkapenak proposatu izan dira (1). Horretarako, bilakabide fonologiko bakoitza aipatu helburu bietatik zeinek azaltzen duen ikusi behar da. Bilakabide sail bakoitzari izen ugari eman zaio, ez beti erabat sinonimoak, baina ez gara gu hemen izenen azterketetan sartuko.

Entzulearen lana (perzepzioa) errazten dutenak indartze (gazt. *fortalecimiento*, ing. *fortition*), nabarmentze (ing. *foregrounding*) edo disimilazio (*lato sensu*) bilakabideak dira. Hotsen ebakera edo artikulazio lanak errazten dituztenak, berriz, ahultze (gazt. *debilitamiento*, ing. *lenition*), iluntze (ing. *backgrounding*) edo asimilazio (*lato sensu*) bilakabideak dira.

Adibide gisa (inola ere ez, besterik gabe onartu egin behar delako), erreferentziaren bat izan dezagun, Dressler-ek (1985) talde batean eta bestean kokatzen dituen bilakabideak eman daitezke (2):

—*METATESIA*. Hots bat lekuz aldatzen denean, hotsa gorde egiten da. Mogitu ez balitz, suntsitu, asimilatu edo urtu egingo bide zatekeen. Dressler-en (1985) ikuspuntutik, beraz, metatesia indartze edo disimilazio bilakabideetakoa da. Dena dela, berak esaten du “often metathesis results in syllable structures

(1) “This tension between clarity and ease is one of the most obvious, and oldest, explanatory principles in phonology. Modern theories, however, to the extent that they incorporate analogous principles, tend to make them monolithic, like the principle of distinctiveness in structuralism or simplicity in generative phonology”. (Donegan & Stampe 1979: 130).

Katea fonikoan gertatzen den edozein hots aldagetari esaten zaio hemen *bilakabide*, erregelen arteko bereizkuntzetan sartu gabe (sinkronia / diakronia, rule / law, rule / process, e.a.).

(2) Lindner-en artikulazio mogimenduen teorian oinarritzen ditu zailtasun-erraztasun irizpideak. Berez, alemanarentzako teoria da. (Ik. Dressler 1985: 48).

better to *pronounce* and to *perceive*” (3). Helburuen arauera egindako zatiketak askotan ez du balio (aldez aurretik) aldaketa fonologikoak sailkatzeko.

– *DISIMILAZIOA*. Katea fonikoan elkarrengandik hurbil dauden hotsak bereiz eta sendo mantentzeaz gain, gerta zitekeen asimilazioa eragozten du askotan (4).

– *ERANSKETA EDO EPENTESIA*. Hau ere indartze bilakabideen artean sartzen da, silaba egitura gordetzen laguntzen duela aintzakotzat hartuta. Adibidez, euskarak bokala ipini die dardarkariz hasten diren mailegu erromanikoei. Horrela, hitz hasieran euskarak ezaguna ez bide zuen kontsonantea gorde egin da.

Bokalarterko ozen (*sonorant*) eransketak ere hemen sartzen dira (eusk. *mendi-ja* (5), *premiña*, e.a.?).

– *HOTSAK LUZATZEA*. Dударik gabe, hotsak nabarmentzeko bilakabideak dira.

– *HOTS* (h.d., ebakin, segmentu) *BATETIK BI*. Hemen sartzen dira, adib., bokal bakarraren luzatzetik sortutako diptongazioak; frikariak afrikatu bihurtzea (*tensio* > *tentsio*), e.a., Euskarazko noizpaiteko $\tilde{V}$ > Vn ere hauetakoa litzateke, noski.

Silaba egitura (‘hots hurrenkera’ litzateke egokiago ziuraski) alde batera utzita ere, badira hotsak banan bana nabarmentzen (indartzen) dituzten bilakabideak:

– *HOTSAK TINKATZEA*. Bokalak tinkatzeko modu bat aurreratza edo ezpainakaritza (borobiltzea) izan daiteke: $u > \ddot{u}$. Kontsonanteak “kotsonanteago” egiteak ere badu honekin zerikusirik (6), hitzaren indar posizioetan gertatzen da batez ere. Bide honetatik ulertzen da soinu karrankariak (estridenteak)) karrankari ez direnak baino paradigma fonologiko gehiagotan egotea: ebakera-indar haundia goz ahoskatzen dira, nabarmenagoak dira (7).

Ebakera erraztu eta entzulearentzat (h.d. perzepzioaren aldetik) hots katea ilundu (*backgrounding*) egiten duten bilakabideak orain artekoen kontrakoak dira:

– *HOTSAK LABURTZEA*. Adibidez, kontsonante hasperendunek hasperenketa edo aspirazioa galtzea legoke hemen (8); desgeminazioak; bokalak laburtzea, e.a.

(3) Nik azpimarratua. Ik. eusk. *petril* (< *preti*l).

(4) *ea, oa* > *ia, ua*: “prophylaxis against assimilatory contraction to *a*” (Dressler 1985: 46 - Andriotis-engandik jaso, nonbait).

(5) Hau *i* bokala luzatzetik ere sordaitzateke. Azken buruan, *j* ikurraren bidez adierazi dugun horren ondorioak ez dira euskalki guztietan ozen edo sonante izango (cf. *ž, š, y*, e.a.).

(6) Ozen(sonante)-trakakari mailaketan trakakarienetara (herskari ahoskabeetara) hurrentzea, alegia.

(7) Hizkuntzen fonema paradigmatik indartze (*foregrounding* edo disimilazio) bilakabideek osatzen dituzten Dressler-en teorian.

(8) Hurrengo izenburupean ere sar daiteke. Hasperenketa galtzean, batez ere egoera prosodiko ahuletan, kontsonantearen ebakera laburragoa izaten da oro har.

– *HOTSAK AHULTZEA*. Hotsak gältzeraino iritsi daitezke ahultze bilakabideak: fr. $-e > -ə > -\emptyset$, hitz azkenean, adib.; eusk. $d, g > \text{ɖ}, \text{g} > \emptyset$, bokal artean, esate baterako (9).

– *ASIMILAZIOAK*. Inguruko hotsen ezaugarriak kutsatzea ebakera lasaiaren seinaleztat hartzen da. Bi hotsek elkarren antza haunditzen dutenean, hots begida errazago ahoska daiteke, nahiz eta zenbaitetan indar haundiagoz egin behar izan (adibidez, bustidura asimilazioan, eragilea aldatzen den kontsonantea baino gogorragoa izanik, ondorioa indar haundiagoz ahoskatzen den kontsonantea izaten da).

– Urrutitik gertatzen diren asimilazioak: bokal armonia (*mutila > mutile*) eta *Umlaut* ($u-\ddot{u} > \ddot{u}-\ddot{u}$) delakoa dira.

– Katea laburtuz ebakera errazten duten bilakabideen artean urtuketa, kenketa, monoptongaketa, e.a. daude. K. Izagirrek Altsasun jasotako *nipezelaxe, dānopatin*, e.a. formak honelako zenbait bilakabideren ondorio lirateke (berak *–pp–* edo antzekoa entzuten omen zuen. Ik. Izagirre 1967: 67).

Zatiketa korapilatzen dute helburu (ondorio?) biak dauzkaten bilakabideek, h.d., ebakera erraztuz entzulearen lana ziurtatu egiten duten aldaketa fonologikoek. Besteak baino gutxiago izaten dira. Baina orain interesatzen zaiguna ez da sailkapena bera, sailkapena egon daitekeela ikustea baizik.

Hitzari bagazokio, jakina da lehenengo saileko bilakabide edo aldaketa fonologikoak indar egoeretan gertatu ohi direla (silaba hasieran, silaba azentudunetan). Besteak, berriz, egoera ahulagoetan (azentutik urrun dauden silabetan, silaba ixten duten kontsonanteetan). Era berean, eta hemen gehiago interesatzen zaigun alorrera igaroaz, gertatu behar luke disimilazio bilakabideak hizkera geld, zaindu, formalean (edo oso ozen hitzegiten denean) izatea oparoen. Besteak, asimilazio bilakabideak, azkar eta edonola hitz egiten denean, hizkera arduragabe-koan (10) suertatzea emankorrago.

Hemen elementu asko nahasten dira (abiadura, ingurune soziala, erregistro edo hizkera, e.a.). Gehien gehienetan elkarrekin lotuak doaz: azkarrago hitzegiten denean arreta txikiagoz ahoskatzen da, normalean egoerak komunikazioa ziurtatzen duelako, entzulea ezaguna delako, e.a. Orduan katea fonikoa iluntzen, ahultzen duten bilakabideak gerta daitezke eta ebakera erosoagoa da.

Ikusi dugu helburuen arauera egindako sailkapenean, badaudela helburu biak dituzten bilakabideak (gogora metatesiaz esandakoa). Beste batzuetan, ostera, hizkuntza batean ulermena (perzepzioa: hotsen ulermena) ziurtatzen duenak, beste hizkuntza batean ebakera erraz lezake: hizkuntzen erraztasun-zailtasuna neurtzeko hizkuntza bakoitzaren baldintza fonotaktikoak, artikulazio oinarria, e.a. izan behar dira kontuan.

Azkenean azterketa pragmatikoa egiten da. Bestela esan, entzulearen lana erraztea hizkera zainduari badagokio eta ebakera samurtzea hizkera arduragabe-

(9) Ahultzea (*lenition*): Kontsonanteak ozentasun mailaketan “ozenagotu” egiten dira (cf. Dressler 1985: 48-49).

(10) Hizkera *zaindua* / hizkere *arrunta* esango diegu bi hizkere edo erregistroei.

koari, erregistro bakoitzeko aldaketa fonologikoak zein diren ikusten da. Artikulazioaren zailtasun maila neurtu daiteke, dena dela. Hizketarako zailtasuna dutenei buruzko ikerketak nahikoa erakusten du hontaz. Euskaraz horrelako datuak ez dauden bitartean, hizkera edo erregistroei begiratu beharko diegu.

Baina badirudi horrek ere ez duela balio. Lehen gainbegiradan, euskaraz beti erregistro berean hitz egiten dela dirudi. Egia da, neurri haundi batean, euskara hizkera laua dela eta egoera formaletarako erdarara jotzen dela. Hori horrela bada, ez dago zer esanik euskararen ebakera eta erregistroez. Euskaraz ez dago, orduan, aldaketa fonoestilistikorik. Aldaketa fonoestilistikoa izateko, nolabait hautazkoa izan behar du bilakabide batek (X hitza hitzun berak batzuetan X eta bestetan X' ahoska badezake, alegia —erregistro aldaketa markatuz—) (11).

Sakonxeago arakatu ez gero, ordea, badago zerbait. Beti jazotzen den bezala hizkuntza bakarraren azterketaren ondorioak, hizkuntza “guztiez” ateratakoak baino apalagoak izaten dira. Gainera, zintzo jokatzekotan, kodigo barreneko arau ez er esango badugu, dialektu bakoitzean murgildu behar dugu.

Egokien zaizkigun adibideak testuingurutik kanpo erabiltzerik ez dagoenean, zailagoa da bilakabide multzo bi goitik beherainoko mugaz bereiztea. Hizkera bateko bilakabideak bietan agertzen dira maiz aski (12). Sarritan gertatzen dena da, bilakabide bat hizkera arduragabekoan areagotu edo zabaltzea. Zabaltzea ez da beti era berean gauzatzen. Izan daiteke (ik. beheago), hizkera arduragabekoan hizkera zainduan baino hots gehiagok jasatea delako aldaketa. Bestela, hizkera zainduan testuinguru jakin batzuetan gertatzen den aldaketa hizkera arduragabekoan beste inguruneetara zabaltzea (*orain* / *oraingo* / *ora(i)ña* vs. *ora(i)ñ* / *ora(i)ngo* / *ora(i)ña*). Baita ere, hizkera zainduan morfema mugan zehar bakarrik ezartzen den aldaketa, hizkera arruntan edozein lekutan jazotzea (*gorrit'u* / *iturri* vs. *gorrit'u* / *it'urri*), e.a.

Euskaldunen artean oraindik badago besteak baino egoera formalago batzuetan behintzat betidanik euskaraz aritu den jendea. Horiei begiratu behar litzaieke euskara egoera formal berrietara zabaltzean. Lehen apaizarekin hitzegitea izan dena, orain hitzaldi bat edo munduko berriak telebistan ematea izan daiteke.

Har dezagun leku bat eta bilakabide bat. Palatalizazioa edo bustidura (13) dela eta, badago Donostiatik gertuko (Astigarragako) (14) euskaraz zer esanik

(11) Gainerakoak alofono libreak, derrigorrezko bilakabide fonologikoak eta morfologizatu edo lexikalizaturiko aldaketa fonologikoak izan daitezke.

(12) Historian zehar hizkera arduragabekoaren bilakabideak hizkera zaindura heda daitezke *backgrounding* / *foregrounding* binomioa hautsiaz.

(13) *Bustidura* izena perzepzioari dagokio (ik. Straka 1965: 122).

Normalean, fonetika-fonlogian, entzule eta hiztunaren ikuspuntuak batera edo nahastuta erabiltzen ditugu.

(14) Ik. “From automatic assimilation to sound symbolism. A case study of Basque palatalization”. *ASJU* XX.I, 1986. 67-74.

Michelena irakasleari zor diot horretaz erreparatzea. Berak Errenderian gertatzen dena kontatu zidan.

oraingo eztabaida honetarako. Bilakabide bera hizkera arduragabekoan zabalagoa nola den garbi erakusten du.

Asimilazioz gertatzen den palatalizazio edo sabaikaltzea ahultze, iluntze bilakabidea da. Hortaz, hizkera arruntean gertatzen direnetarikoa edo hizkera arruntea oparoagoak direnetarikoa behintzat. Astigarragako euskaraz *i*-ren ondorengo palatalizazioa emankorra da oro har. Ozenen palatalizazioa (*n*, / hotsena, alegia) beti gertatzen da, bertako ebakerak edozein erregistrotan duen baldintza da. Baina hortzetako *t* trabariaren kasua diferentea da: hizkera zainduan *i*-ren ondorengo *t* ez palatalizatzeke joera nabaria da.

Esan daiteke *t*-ren palatalizazioa bilakabide fonoestilistikoa dela. Beste hitzetan esanda, Astigarragako palatalizazio edo sabaikaltze asimilazioa hizkera arduragabekoan ozen (*l*, *n*) eta trabariei (*t*) ezartzen zaiela, baina hizkera zainduan ozenei bakarrik. Honelako palatalizazioa duten beste hizkuntzetan ere hizkera lauetan palatalizazioa oparoagoa izaten da.

Zaila da, noski, azterketa hauek (zein bilakabide edo zein bilakabideren zatiak diren fonoestilistiko) euskara osoaz egitea. Erregistroetan pobre ibiltzea izan daiteke oztopo bat. Horrez gain, leku guztietako euskarak ez dituela bilakabide berak, ezta ere erabilkera fonoestilistiko berak.

Dena dela, ezin gaitezke intuizio hutsez ibili. Esango nuke bi joera ezberdin ari direla nagusitzen euskara (nolabait esateko, "batua") ahoskatu behar dutenen artean (irakasleak, irrati-telebistako hizlariak, e.a.) Batzuetan, jatorragoa delakoan, edo irakurri bezala ahoskatzea bidezko ez delakoan, ezagutzen diren aldaketa fonologiko guztiak sartzen dira. Beste batzuetan kontrakoa egiten da. Beharbada, dotoreagoa delakoan, ahalik eta forma idatzitik gertuen ahoskatzen da. Lehenengo ahoskera egoera formaletan gertatzen da desegoki. Bigarrena, egoera arruntetan, erabat harturik biak desegoki badira ere. Gertatzen diren erduei begiratu beharko litzaike irakurtzen ikasteko. Lehen aurkeztutako palatalizazio bilakabidearen arauera, egokiagoak dira *dit'ut*, *it'uri*, *gorit'u*, e.a. ebakerak telesail batean etxeko sukaldean ari diren bi senideren artean, eguneko berriak ematen ari den hizlariarentzat baino.

Azaldu nahi izan dudana da, kontu hauek konpontzeko, aldaketa fonologikoek euskalkietan zehar duten eta izan duten hedadura neurtzeaz gain (derrigorezkoagoa izango da *maila* forman *mila* forman baino sabaikaltzea), izan dezaketen balio fonoestilistikoa begiratzea ere ez legokeela gaizki.

Gaur egun aldaketa fonologiko guztiek edo gehienek hizkera lauaren kutsua badaukate, ez da batere egokia euskara zaindua egin nahi denean kontuan ez izatea. Ez dago hizkera neutrorik (hiztun abstraktorik ez dagoen bezala). Edo, hizkera neutroa badago, neutroa ez dena -markatua, eguneroko bizitzan gutxien (1%) gertatzen dena—, hizkera zaindua (formala), bereizi egin behar da.

ERREFERENTZIA GISA

DONEGAN, P.J. & D. Stampe (1979) "The study of Natural Phonology" In *Current Approaches to Phonological Theory*. Daniel A. Dinnsen, ed. Bloomington: Indiana University Press. 126-173.

DRESSLER, W. (1985): *Morphonology: the dynamics of derivation*. Ann Arbor: Karoma Press.

IZAGIRRE, K. (1967): "Altsasuko euskeraren gai batzuk". In *A.S.J.U.* I, 45-97.

STRAKA, G. (1965): "Naissance et disparition des consonnes palatales dans l'évolution du latin au français". In *Travaux de Linguistique et de Littérature*. III, I. 117-167.

EUSKARA BATUAREN EBAKERAZKO PROPOSAMENAK:

KINTANA, X. & P. Salaburu (1984): *Euskara Hobe an Hobe*. Bilbao: Argitarapen Zerbitzua. Euskal Herriko Unibertsitatea.

— *Mailegu Hitzak: ebakera eta idazkera*. Donostia: U.Z.E.I. (1982).

TXILLARDEGI (1980): *Euskal Fonologia*. San Sebastián: Ediciones Vascas.

AZPEITIKO EUSKAL EBAKERAZ

Patxi Altuna

1. Euskal azentu delakoaren zer-izanaz edo izatasunaz mintzatu dira eta mintzatuko, dirudienez, bi egunotako txostengileak. Ene lanaren xedea, aldiz, hori baino askozaz apalagoa da: herri jakin bateko, neure sorterriko, ebakeraren zenbait nolakotasunen berri eman nahi dut nik soilik, nolakotasun horien azpiko izatasuna alde batera utzirik. Ni azaleko azentu edo ebakera formari nagokioke, alegia; ikus beza bestek forma horien azpian datzana, izatasuna, azentua den ala zer den.

2. Nere herriko lagun munduan zehar aski ezagun batek, duela 400 urte edo, honela idatzi zuen: "...es prudencia verdadera no fiarse de su propia prudencia, y en especial en las cosas propias, donde no son los hombres comúnmente buenos jueces por la pasión". Ni ere hala-holako iuiea gerta naiteke, ez neure herriko hizkera inongoari grinaz hobesten diodalako, ezpada auzi honetan neroni naizelako neure mintzoaren iuie ez ezik, galdegile eta erantzule. Nik neure baitan neure buruarekin isilik mintzatzean darabildan neure betiko, txikitandikako, euskara baitut aztergai gaur eta hemen, eta ene barneko hizkera hori, neronek bakarrik entzun dezakedan hitzik gabeko —ahoko mihiaren eta eztarriko lokarrien soinu ozenik gabeko, esan nahi dut— solas horren ebakera nolakoa den adierazi nahi baitizuet.

3. Ez zaizkit ezezagun, egia esan, nork bere buruarekiko bakarrikzeta horrek berekin dituen arriskuak. Arrasatetik urrun ez dagoen —Gipuzkoakoa bakarrik aipatzeko, baina hementxe dugu ere gertu asko halako beste bat— etxe ezeroso batera inor estekaturik eraman dezaten arriskuaz gain, nork bere egiazko hizkera endekatu eta ebakitzen ez duena entzutera ere lerra daitekeela badakit. Ez baita beti erraz norberak ahozkatzen dituen hitzen azentua zein silabatan ezartzen duen antzematea, buruan aldeztu aurretik dituen eskemen arabera entzun uste baitezake, nahiz bestela ebaki. Nolanahi ere, nor bere mintzoaren entzule fidagarriagoa delakoan nago kanpoko entzulea den baino, honek ere bere buruko eskemen arabera somatu uste baitu maiz bestela ebaki den hitza. "Quidquid recipitur ad modum recipientis recipitur" esan zuten aspaldixko eskola ospetsu —egungo egunean ez hain ospetsu— bateko Filosofoek.

4. Horrez gain Mitxelena jaunak honela idatzi zuen behiala: "En contra de lo que opinaba N. de Ormaechea, hay que emplear como informadores a personas de cierta cultura, que no sean teóricos del acento. Porque el informador, que debe poseer en lo posible un oído adecuado, tiene que darse cuenta del

porqué de las preguntas, y tiene que emplear una pronunciación cuidada y no demasiado rápida" (1).

5. Ez dakit ez ote nauten Mitxelenaren hitz horiek burutu nahi dudan lanerako erabat txarresten. Gauza bat dakit: ez naizela inola dohai guzi horien jabe eta horrenbestez ene lana ez dela agian oso aintzakotzat hartzekoa izango. Bada hemen bertan, haatik, ene herriko beste lagunik, neronek baino hobeki fede eman dezakeenik, ea nik lan honetan diodana egia den ala ez. Beraz, arriskuak arrisku, ekin nakion neure hizkeraren azentua azaltzeari.

6. Gure arteko azentu ikerlariek bere artean azentuaz bakarrik berezten den zenbait hitz bikote aipatu izan dute orain baino lehen; hala nola *txistua/txistúa*; *héltszea/eltzéa*; *híltzea/iltzéa*; *básua/basúa*; *égia/hegia*; *méndekoa/mendekúa*. Horrelako bikoteen zerrenda luza daiteke, noski: *gáinera/gainéra*; *háiena/aihéna*; *háuenal/auhéna*; *hástea/astéa*; *(t)ártea/artéa*; *értzean* ("dum pareret", erdi aditzetikakoa)/*ertzéan*; beste hau ere bai beharbada, baina ez nago ziur, *lótzean* (*lotu* aditzetikakoa)/*"lozean"* (Oihenartek darabilena, *lo* errotikakoa) (2); *báziren* ("an essent", mendeko perpausekoa)/*baziren* (perpaus nagusikoa); modu berean *étziren/etziren*; *"élisan"* (3) ("ne esset")/*elizan*; *éztene* (< *ez dena*)/*ezténena*; Azpeitiko hizkeran bederen beste hau, *góizero* (*egúnero* bezala)/*goizéu* (< *goizero* < *goizaro*, hots, *goizean goiz*); bai eta bi eratako *alde* hitza dirudiena, azentuari bagagozkio: (*zure*) *áldean*/(*Hori dek*) *aldéa*! (4).

7. Elkarren antzeko edukin fonikoa duten bikote horiek irakurririk pentsa lezake norbaitek horrelakoen artean bakarrik gertatzen dela azentu oposizio hori. Ez eta hurrik eman ere, geroxeago erakutsiko dudana bezala. Horiei loturik, halere, gauza batek harritu izan nau beti: bikote bat izan ezik gainerako guztiak hiru silabatako hitzak dira, hiru baino gehiagokoen artean halakorik gertatzen ez balitz edota axolazko ez balira bezala. Bikote bakar hiru silaba baino gehiagoko hori arestian aipatu dudana *méndekoa/mendekúa* da. Egia da, haatik, Mitxelenak bere *Fonética*-n honela dioela: "Cf. en palabras de cuatro sílabas *eróriyà* 'el caído' como *le(g)ámiyà* 'la levadura', pero *egósiyà* 'el cocido', *etórriyà* 'el venido', etc." (5). Baina batetik *méndekoa* -ko atzizkia duen izena da, *mèndeà* soila bezalaxe "del tipo menos frecuente" deitzen dituenetakoa; bestetik *eróriyà* eta *le(g)ámiyà*, azentuari bagagozkio, lehen aipaturiko hiru silabatako haien kideak dira; hau esan

(1) MITXELENA, Luis: *Fonética Histórica Vasca*, 2. ed., 577 or.

(2) OIHENART, Arnaut: *O^{en} gastaroa neurthizetan*, III. neur., 36, bertsoa:

"Hiri gorpizes
Beti ed' orhizes
Narrain, bait' are lozean"

(3) Ibid., V. neur., 16. bertsoa:

"Bana surequi nahi niquesi
Elisan nehor suhaur besi".

(4) Hitzen azentua seinatzeko arrastoa azentu nagusia ene ustez duen silabaren gainean ezartzen dut. Alegia, Mitxelenaren *txistua* eta ene *txistua* bat dira; halaber haren *txistua* eta ene *txistúa* ere bai.

(5) MITXELENA, Luis: *Fonética Histórica Vasca*, 2. ed., 385. or.

nahi dut, azken hirugarren silaban azentua daramatenak. Ez al da, ordea, azken laugarrenean azentua duen hiru silaba baino gehiagoko hitzik euskaraz?

8. Azpeitiko hizkeran bederen bai. Duela lau urte Euskaltzaindiak Azkoitian egin zuen azentuazko lehen biltzarrean kontu hauek aipatu nituenean, zenbait lagun —diodan argi, ene herriko ez zen zenbait lagun— kontra atera zitzaidan, nik azken laugarren silaban entzun uste nuen azentua haiek azken hirugarrenean entzuten omen zutelako; ez, ordea, nik ebaki hitza haiek bere erara ebaki eta ahozkatzean bakarrik, bai eta nik neronek ebaki eta ahozkatzen nuen neure ebakialdian berean. Alegia, nik —adibide bat ipintzearren— *interesantea* ahozkatu eta haiek ezetz, *interesánte*a, gazteleraz duen sibala berean zuelarik ebakitzen nuela; azken laugarren silaban ez baina azken hirugarrenean, alegia. Ez nintzen orduan eta ez naiz gaur —lotsakizunik handienaz diot— iritzi horretakoa eta ea gaur orduan baino hobeki entzun erazten dizuedan nik neure ustez ebakitzen eta entzuten dudana.

9. Garbi dago, azken aipamenean Mitxelenak erakutsi bezala, *eróriyà* eta *egósiyà* —Erreteriko hizkeran bederen— azentuz desberdin direla. *Eróriyà* horren pareko ditugu ene hizkeran *errúkiya*, *e(g)úzkiya*, *txintxárriya*, *alégiya*, *agériya*, *aitzákiya* eta abar; bai eta *-ki* nahiz *-ti* atzizkia duten *o(d)ólkiya*, *txerrikiya*, *hirú(x)-kiya*, *haundikiya*, *ma(h)ástiya*, *sa(g)ástiya* eta abar ere; bai eta mailegatuak diren *familiya*, *parrókiya*, *relikiya*, *mixériya* eta beste asko ere.

Garbi dago ere horien ondoan baditugula *egósiyà*-k bezala azentua azken bigarren silaban daramatenak, eta askozaz ugariago gainera, Mitxelenak “esque-ma acentual normal” deritzana dutelako; hala nola, *ilargiya*, *egarriya*, *aspaldíya(n)*, *iturriya*, *egokiya*, *uztarriya*, *izerdiya*, *ipurdiya*, *afariya*, *haragiya*, *madariya*, *irudiya*, *gorostiya*, *igeriya*, *ugariya*, *izokiya*, *zaragiya*, *ebakiya*, *hegaziya*, *garestiya*, *mailubiya*, *lokarriya* eta abar luzea, mailegatua dugun *sakristiya* bezalaxe.

10. Azken zerrenda luze hau entzutean entzule batek baino gehiagok —azpeitiarrak ez diren guziak esatera benturako nintzateke— esango dit agian, duela lau urte Azkoitian bezala, ez ditudala nik uste bezala ebaki, hitz emeak bezala alegia, baizik irristakorrak bezala. Alegia, *egókiya*, *egárriya*, *irúdiya*, *ugáriya*, *izérdiya*, *garéstiya* eta abar ebaki ditudala. Ez da egia eta hona zergatik. Bat: lehen aipaturiko “Quidquid recipitur...” hura dela bide, gehienez ere entzuleak hala entzun duelako, ez nik hala ebaki. Bi: Mitxelenak berak *egósiyà* ebakitzen dela Erreterian esan digu eta nik diot Azpeitian ere baietz eta hori bezalaxe horko guziak. Hiru: horiek eme gisa ebakitzen ditugulako, hain zuzen, ebakitzen ere ditugu eme gisa arestian aipatu ditudan zazpi izenondo horietarik erakarrirako aditzok: *egokiya* > *egokitu*; *egarriya* > *egarritu*; *irudiya* > *iruditu*; *ugariya* > *ugaritu*; *izerdiya* > *izerditu*; *garestiya* > *garestitu*. Eta entzuleak oraindik ere esaten badit aditz horiek berak eme gisa ez baizik irristakor gisa ebaki ditudala, alegia *egókitu*, *egárritu*, *irúditu* eta abar, berriz ere erantzun behar diot ezetz, eta hona azken proba garbia. Nik horiek neure herriko hizkeran mailegatua dugun *redemitu* bezalaxe ebakitzen ditut eta garbi-garbi berezten beste honetatik: *errúkitu*. Hau bai dela irristakorra eta hala izan behar ere, aurreko saileko den *errúkiya*-tik bait dator. Beraz, *errúkitu*, baina *egokitu*, *egarritu*, *iruditu* eta abar.

11. Baina bi sail horien ondoan eta horiei azentuan garbiro kontrajarriz baditugu ere azken laugarren silaban azentua daramatenak eta hainbestez azpei-

tiar batek lehengo bi sailetan inola ere ezin sar ditzakeenak; hala nola, *bélarriya*, *éztarriya*, *árpegiya*, *bázkariya*, *gósariya*, *tírtiriya*, *áxeriya*, *átariya*, konposatu diren *báserríya*, *sútegiya* eta gehiegizkotasunaren atzizkia duten *ónegiya*, *txárregiya*, *gáztegiya*, *géhiégiya* eta abar bezalaxe. Badaiteke, ez dut ukatzen, guziok jatorriz konposatuak izatea, *bélarriya* eta *éztarriya* zertaz konposatuak izan daitezkeen nik bederen ez dakidan arren.

12. Azken hitzon azentuaren alde bi froga eman ditzaket. Bat: *bélarriya* ahozkatzen dugulakoxe ebakitzen ere ditugu modu bertsuan *bélarriko mina*, *bélarritakoak* eta *bélarrondokoa*. Bi: bizkaitarrek —bizkaitar askok bederen— posesibo direlako *nere/nire*, *hire*, *gure*, *zure* azentu gabeko edo atono egiten dituzte; guk, aldiz, ia beti *neré etxea*, *hiré anaya*, *guré laguna*, *zuré antza* ahozkatzen, posesibo horiei azken silaban azentua ipinirik. Ia beti, esan dut, ez baitugu beti hala egiten —eta ohar hau Patxi Goenaga adiskide eta herrikideari zor diot—. Noiz ez? Horiei darraikien hitzak azentua lehen silaban daramanean, hain zuzen; orduan guk ere atono gisa ebakitzen ditugu; hala nola, *nere liburua*, *hire áldean*, *gure ápaiza*, *zure gáldera*. Bai eta erakusleen genitiboak ere: *haren lékuan*, *honen tókiyan*; ez, ordea, genitibo pluralak, *zuen*, *hauen*, *haien* alegia, zein beti lehen silaban azentua dutela ebakitzen baititugu.

13. Orain bada, hirugarren saileko horiek, hots, azentua azken laugarren silaban daramatela diodan horiek aurrean posesiboa hartzen badute, posesibo hori azentugabea da eta *nere bélarriya*, *hire éztarriya*, *gure árpegiya* ebakitzen ditugu. Ezin uka, hortaz, lehen silaban dutela azentua nere herriko hizkeran. Honi buruz ohar bat egin behar dut, halere. Azken fenomeno hau berri samarra izan daiteke han bertan, *neré éztarriya*, *hiré lékuan* eta abar esaten entzun baitut zenbait zahar batere zalantzarik gabe eta sintagma bera behin eta birritan errepika arazirik ere.

14. Beraz, orain arte esanak laburki bilduz, hiru eratako azentu lekua duten hitzak berezi behar dira:

---: *ilargiya*, *egarriya*, etab. Mitxelenaren *egósiyá*, *etórriyá*.

---: *errúkiya*, *alégiya*, etab. Mitxelenaren *eróriyá*, *le(g)ámiyá*.

---: *bélarriya*, *éztarriya*, *árpegiya*, etab.

Nik badakit gauzok ez direla horrela toki eta herri guzietan, ez eta hurrik eman ere. Urrunago gabe Azkoitian; han hitz askori lehen silaban azentua ezartzeko jaidura dute eta guk baino askoz eme gutxiago gordetzen. Zumaian ere gauza bera: ia eme guzi horiek irristakor egiten dituzte, azentua lehen silaban dutenak —*bélarriya*, *éztarriya* eta abar— gorderik, ordea. Alegia, Mitxelenaren *egósiyá*-ren parekoak gurean baino askoz urriago dira Azkoitiko eta Zumaiako hizkeran.

15. Natorren orain bigarren puntura. Hau ere azaldu nuen duela lau urte Azkoitiko biltzarrean, baina hitzaldi baten ondoko elkarrizketan, ez idatzia irakurri, eta orduan esana biribildu nahi nuke gaur ahaleginean. Geure hizkeran garbiro berezten ditugu honako biok: batetik, *begi okérra* izen sintagma, bi osagaiek bere azentua dutelarik, eta bestetik *begi-ókerra* izenondo konposatua, hitz bakarra bailitzan —banako bakarra, alegia— azentua ere bakarra duelarik,

nagusia bederen. Guretzat ez dira azentu berekoak, alegia “Bai *begi okér*ra duela horrek!” eta “Bai *begi-ókerra* dela hori!”. Honek, hots izenondo konposatuak, lehen osagaiari, *begi*-ri, bere eskuko hitza denean duen azentua galeraztzen dio atono edo bihurturik, eta azentu bakarra harrerazten azken hirugarren silaban edota, nahiago bada, aitzin hirugarrenean. Bietarik zeinetan gero ikusiko dugu konposatu luzeagoak, sei silabatakoak, aztertzean. Era horretako konposatuak ditugu, besteak beste, *lepo-ókerra*, *hanka-ókerra*, *hanka-lúzea*, *musu-lúzea*, *buru-háundia*, *gibel-háundia*, *begi-bákarra*, *musu-zápala*...

16. Izenez eta izenondoz osaturiko horietan bakarrik ez da gertatzen hori; bestelako hitz konposatu askok ere silaba berean daramate azentua; hala nola *itsas-óntzia*, *belaun-búr*ua, *bainu-ét*xea, *eliz-gí*zona, *esku-gúr*día, *gibel-úr*dina, *itsu-mú*tila, *bide-báz*terra, *basa-gí*zona, *esne-ónt*zia, *txori-kú*mea, *indar-ét*xea, *ume-láp*urra, *itsas-ért*zea, *neska-kós*korra, *ogi-pú*sketa, *begi-zú*loa, *txakur-óp*ila, *mari-mú*tila, *mari-má*traka, *jarri-lé*kua... Hauetan ere lehen osagaia azentuaz gabetzen da eta bigarrenak berez dagokion silabatik aurreragokora eramaten du. Alegia, *ontzia*, *burúa*, *etxéa*, *gíz*óna, *gur*día, *ur*dina, *mut*ila eta gainerako bigarren osagaiak Mitxelenak “esquema acentual normal” deritzana dutenetakoak dira berez eta bereiz harturik, baina konposizio horietan aurreko silabara aldatzen dute azentua. Aipatueta-rik azkena bakarra —*jarri-lékua*— da aldatzen ez duena, *lékua* berez baita “del tipo menos frecuente” deriztenetakoa.

17. Ez dakit, egia esan, zergatik ez den gauza bera gertatzen beste honako hauetan: *eliz-kalea*, *erdi-kalea*, *oiló-lo*kia, *txori-ma*loa eta gehiagotan, hauek lehen osagaiaren bigarren silaban baitaramate azentua. Aitzitik beste batzuetan salbuespenaren arrazoia garbiro ikusi uste dut. Esate baterako, *hégo-aí*zea (baina *ipar-aí*zea), *égizalea* (baina *diruzá*lea, *neskazá*lea), *ápaizgaia* (baina *andrégaia*), *árbolaz-pi*an (baina *etxe-á*zpian), *txistu-jolea* (baina *soinu-jó*lea) eta abar. Arrazoia hau da, ene ustez: lehen silaban azentua duten horiek lehen osagaia “del tipo menos frecuente” direlako horietakoa dute eta konposizioan ere silaba berean gordetzen azentua, aldatu gabe. Halaz ere, baldin bi osagaiak badira era horretakoak, hots azentua berez lehen silaban dutenak, orduan lege orokorra betetzen dute; adibidez, *atze-áur*reak.

18. Orainoko konposatu guzi horiek bost silabatako hitzak dira; har ditzagun, ordea, silaba batez luzeago direnak eta ikus zer gertatzen den. Ene herriko hizkeran honela ebakitzen ditugu ondoko hitzok: *itsu-láp*ikoa, *tonto-láp*ikoa, *soinu-jót*zaila, “*suge-lí*nderie” (guk hala diogu!), *bizi-ál*arguna, *azken-bí*garrena, *konta-kát*ilua, *euri-zá*parrada, *bihotz-ónd*okoa, *begi-ónd*okoa, *eliz-át*ariya... Hemen ere lehen osagaiak bere azentua galdu du eta bigarrenak lehen silabara, hots konposatuaren aitzin hirugarrenera, aldatu, nahiz bigarren osagai horrek berez eta bereiz erabiltzean bestetan daraman. Hemen ere, lehengo *jarri-lékua* hark bezala, batere aldatu gabe eta berez dagokion silaban gordetzen duen bakarra azkenik aipaturiko *eliz-át*aria da, *át*aria ere guretzat “del tipo menos frecuente” dena duten horietakoa baita.

19. Aitzin hirugarren silaban diot behin eta berriro, eta ez —gehienetan hala dirudien arren— azken hirugarrenean, ez eta bigarren osagaiaren lehen silaban. Hau garbi nabari da lehen osagaia bi baino silaba gehiagotakoa duten honako hauetan: *pelotá-partidua*, *ezpatá-dantza*, *ezpatá-belarra*, *aizkorá-(a)pustua*, *lasterká-*

(a)pustua, pelotá-lekua, izkutá-lekua, txirristá-lekua eta abarretan. Hori gainera hiru azkenetan *lékua*, irristakorra, dugularik; halaz ere, aurreko osagaiak ohosten diote azentu nagusia.

20. Garbi dago, beraz, bost baino silaba gehiagotako hitz konposatueta lege hau betetzen dela: aitzin hirugarren silabak hartzen du azentua, ez azken hirugarrenak, ez eta bigarren osagaiaren lehenak. Horrenbestez badirudi lehengo bost silabatako haiei buruz ere baieztza dezakegula gauza bera: azken hirugarrenak ez baizik aitzin hirugarrenak hartzen du, nahiz honelako bostekoetan biak —hots, azken hirugarrena eta aitzin hirugarrena— silaba bera diren.

21. Beste zenbait sintagmatan ere gauza bera gertatzen da. Hauek ez dira hitz konposatuak, noski, baina badute zerbait konposatuek ere dutena; hots, bi osagaien artean nolazpaiteko banakoa osatzea, biak elkarri biziki estu lotzen zaizkiolarik. Eta hala ebakitzen dugu *jaiki órduko*, *esan bézala*, *etorri bezain* (laster), *denborá pasa*, *gaizki ésaka*, *kontu kóntari* eta abar.

22. Pertsona izenak ere azentuzko eskema horretara moldatzen ditugu, nahiz gazteleraz dagokien azentua beste silaba batean gertatu. Hau esan nahi dut: *Mari Angeles*, esate baterako, gazteleraz bezalaxe azentua aitzin hirugarren silaban duelarik ebakitzen dugu, batere bortxarik eragin gabe. Aldiz, gazteleraz *Antonia*, *Ignacia* eta abar ahozkatzen diren arren, euskaraz izen konposatueta silabaz aldatzen diegu azentua eta *Joxepántoni*, *Joxepáinaxi*, *Patxikómari*, *Joxiññixio*, *Iñi-xiómari* eta abar ebakitzen.

23. Toki izenei ere bortxa bera eragiten diegu eta aitzin hirugarren silaban ezartzen azentua, baldin gazteleraz beste batean badute. Alegia, *Benalmádena* gazteleraz bezalaxe ebakitzen dugu eta *Sabiñánigo* ere bai, azentua bere lekuan gordेरik. Aitzitik *Extremádura*, *Guadalájara*, *Txekoslóbakia*, *Torremólinos*, *Portugálete*, *Amorébietá* eta abar ebakitzen ditugu, gazteleraz duten baino silaba bat aurrerago eramanez azentua.

24. Egunoroko kale hizkera arruntean gazteleratik mailegatzen ditugun hitzei ere gauza bera egiten diegu eta *beterinarioa*, *interesantea*, *gobernádorea*, *entrenámentua*, *administrázioa* eta abar ahozkatzen, azentua beti aitzin hirugarren silabak hartzen duelarik, gazteleraz atzizkiak duena lekuz aldaturik.

25. Euskal atzizkiz osaturiko hitzekin gertatzen dena ere agerian ipintzea merezi duela uste dut. Har ditzagun —garri bigarren osagaia dutenak: *pozkarria*, *mingarria* diogu batetik, baina lehen osagaiak bi silaba baditu, *lotsagárria*, *zoragárria*, *maitagárria*, *izugárria*, *nazkagárria* eta abar luzea, lehengoek baino silaba bat aurrerago azentua dutelarik; aldiz hiru baditu, beste bat aurrerago daramagu eta *ikarágárria*, *amorrágárria*, *estimágárria*, *lilurágárria*, *antojágárria* eta abar ebakitzen, azentua beti aitzin hirugarren silaban ezarriarik. Modu berean —*tasun* hartzen badugu: *nortasúna*, *batasúna*, *maitasúna* eta abar batetik; baina *maitetásuna*, *trebetásuna*, *elkartásuna*, *handitásuna*, *larritásuna* eta abar bestetik; eta are *egokí-tasuna*, *euskaldúntasuna*, *eramántasuna*, *zorióntasuna*...

26. Hitza atzetik luzatu beharrean aurretik egiten badugu, gauzak ez dira batere bestela. Euskarak aurrizki gutxitxo duela edonork daki eta adibideak ezin

daitezkeela nahi adina ugari ere bai. Har ditzagun exenplu hauek: *etxerátu*, *oherátu*, *kalerátu* eta gainerako antzekoak bezalaxe *biderátu* esaten dugu; halaz ere *desbiderátu* ebakitzera narama ni noraezean neure herriko euskal azentu senak, eta agian ene herriko ez den beste asko ere bai. Modu berean *egokiya* ebakitzen dugula esan dut goian, baina *desegókiya* baizik ezin nezake nik inola ere ebaki neure herriko azentu legez. *Kontúa* ere ez dut, noski, *púntua* edo *tóntua* bezala ebakitzen; halere *aurrekóntuak* ebakitzen dugula uste dut, nik ez ezik euskaldunik gehienok aspaldiko urteotan.

27. Areago, nik liburuetan ikasi dudan beste euskalkietako zenbait hitz, ene herrian eta are ene euskalkian ezagun ez direnak eta hainbestez azentua zein silabatan daramaten ez dakidanak, halaxe ebakitzera makurrerazten nau ni ezinbestean azentu sen horrek berak. Alegia, Etxepareren hauek nik honela baizik ezin ebaki ditzaket, hark nola ebakitzen zituen ez dakidan arren: *errequérica*, *endelgámenduya*, *haraycinacoric*, *escarniaturic*, *soberátuqui* eta abar. Halaber Leizarragaren beste hauek: *hautenétate*, *desabóatzen*, *maledictione* eta etengabeko beste sorta luzea, nahiz horietako batzuk gazteleraz edo latinez beste silaba batean daramaten azentua.

28. Honenbestez garbi dagoela uste dut ene herriko hizkeran bost edo bost baino silaba gehiagotako hitzetan ezin utz ditzakegula bi lehen silabak baizik azentu gabe eta aitzin hirugarrenak hartu behar duela noraezean azentua, bigarren puntu honen hasieran aipatu ditudan *begi-ókerra*, *buru-háundia* eta gainerako izenondo konposatuak bezalaxe.

29. Hirugarren puntua, azkena eta laburra, nahi nuke hitz gutxitan ukitu. Euskal azentuaren izatasunaz edo zer-izanaz ez naizela mintzatuko esan dut, baina iradokizun txiki bat egin gabe ez nuke lan hau burutu nahi. Altubek euskal azentuaren balio fonologikoa zehaztu nahirik, irakasten digu euskal hitza soilik eta bereiz ebakirik gaztelaniazko silaba bakar eta azentudun multzoaren pareko dela; alegia, *zapal* eta “*va mal*”, *jabetu* eta “*ya ves tú*”, *zagoze* eta “*yo no sé*”, *elizkoi* eta “*yo no soy*” oso antzeko direla.

Inor ez zaio, nik dakidala, puntu honetan inoiz jazarri eta ni ere ez natzaio jazarriko. Badut, ordea, neure mira agertuko arrazoi bategatik. Euskal hitzen azentuaren balio fonologikoa ikertzeko eta gaztelaniazko hitzekin nolako aldea duten ikertzeko, zergatik ez dira hartzen Altuberen bikote horiek elkarren artean duten antza baino askoz handiagoa duten euskal hitz mailegatuak eta hauen kide gaztelaniazkoak eta gero elkarrekin erkatu, ikusteko ea zenbatetaraino duten azentua berdina eta zenbatetaraino desberdina? Alegia, hortxe ditugu euskaraz gaztelaniaz bezalaxe esaten ditugun —esaten diot, ez ebakitzen, hori bailitzateke aztergai, hain zuzen— *makina*, *fabrika*, *bezpera*, *silaba*, *meritu* eta beste irristakor piloa, bai eta, emeak nahiago badira, *itxura*, *seguru*, *labana*, *botika*, *sardina*, *ezpata*, *pertsona*, *azentu* bera eta beste zerrenda luzea. Ala hauek ez dira euskal hitzak? Ala hauek, azentuari dihoakonez, euskal azentuaren sistematik kanpo daude eta ugarte berezia osatzen dute? Ez dut uste.

Har dezagun *sardina*. Nork daki euskal *sardina* ahozkatu dudan ala erdal *sardina*? Eta nork esango euskal *sardina*, azentuari dihoakonez, *berdina*, *burdina*, *urdina* hitzak ez bezalakoa denik?

30. Besterik ez. Azpeitiko euskal azentuaren xinta-minta batzu agertu nahi izan ditut. Ez beza, otoi, inork horregatik pentsa gure azentua inongoa baino hobetzat daukadanik, ez eta gurea nora-nahi heda dadin nahi dudarik. Gehienez ere hauxe nahi nuke: gureak gure herrian aurrera ere iraun lezan, berrikuntzak somatzen baititut azken urteotan; esate baterako, guk, zaharrok, beti *batzokiya* esan dugu jaio ginenetik, eta orain gazteen, eta ez hain gazteen, artean *batzokiya* da zabalduena.

PROPOSAMEN BAT AZENTUARI BURUZ

Durango, 1986-V-30

Txillardegi

0. Azentuaren arazoa gaur

Askotan gauza bera errepikatu izan bada ere, gaur gauza bera aitortu behar dugu hemen: gutxi dakigu euskal azentuaz. Edo, bestela esanda, aztertu egin behar da euskal azentua; eta azkar ibili behar da. Zeren-eta suprasegmentalen alor honetan, gainerako alorretan baino errazago baita gaztelaniaren ereduak, interferentziaz, jatorizat ematea. Geure azentua zertan datzan, are zein silabatan ote dagoen ere, ez dakigularik, lasai-bidetzat har dezakegu askotan erdal moldea onartzea.

Ikertu egin behar da, beraz; eta azkar behar dugu ibili.

Gaur eta biharko elkarrizketa hauek, beraz, pozgarriak dira. Arazoa zertan den jakitetik hasi behar baitugu.

Baina *ahalik eta azkarrenik* eskaini behar da bide bat. Zorionez (ezin gaitezke premia honetaz kexa!) euskal telebista eta euskal irratia hor daude, egunero ari eta ari; zorionez ere, ehunka ikastola, eskola eta ikaslekutan ari da gaur euskara irakasten; gero eta Fakultate gehiagotan hasi da irakaskuntza euskaraz ematen. Eta abar. Eta bazter guztietatik dator galdera bera: nola esan behar dira gauzak? non jarri behar dira azentuak? Eta irakasle jendea gure zai dago.

Arauk eman behar ditugu, beraz. “Hori belarriz eta konturatu gabe ikasiko duzu” esateak ez du funtsik. Euskaltzaindiak, berriro ere, eta ortografiaren edo aditzaren alorretan bezala, arau batzu eman behar ditu.

Beste ohar bat: arazo *sozio-linguistiko* baten aurrean gaude berriz; aditza edo deklinabidea erabakitzerakoan egon ginen bezalaxe. Hizkuntzaren mailako argudioek, hortaz, beren pisua dute; baina herriak *onartu eta erabiliko* duen azentu-eredu bat proposatu behar dugu. Zientziaren aldetik ez zorrotzena eta osoena, beharbada (deklinabidean eta aditzaren jokabidean gauza bera gertatu zitzaigun, jakina denez); baina euskaldun jendearen harrerari ere begiratu behar diogu.

Eta, noski, proposatutako bidea *ez da denen gustokoa* izango; orain arte izan ez den bezala, dena aitortzekotan. Baina, frantsesez esanda: “la solution choisie aura au moins le mérite d'exister”.

1. Oinarri seguru batzu

Erabakizun daukagun arazoa zaila izanik ere, oinarri seguru batzu baditugu:

1. Euskal azentua ez da gaztelaniarena bezain *markatua*. Fonetikoki, beraz, azentua *gutxi* markatzeko eskatu beharko dugu (aspaldikoen “isotonia” famatuak haxe adierazten zuen).

2. Euskal azentuen sailkapena Mitxelenak aspaldian proposatu zuen bidetik egiten badugu, hautakizuna ez da zaila:

a) II eta III moldeek, erdal interferentziaren kutsu nabarmena dute; eta IV moldea, Bortzerrietakoa, I moldearen karikatura bezala da;

b) Gaurko hiltunen demografia kontutan hartuz gero, era berean, oso jende gutxi mintzo da gaur II eta III moldeez.

Mendebaldeko azentu-mota hartu behar genuke, beraz, Euskara Batuaren eredutzat. Nahiz Mendebaldeko “I Molde” horren barruan, azpi-motak eta desberdintasunak ugari izan.

Azterketa zientifikoak eta demografiaren eraginak batera bultzatzen gaituzte oraingoan. Eta hautakizuna garbi agertzen da: Gipuzkoara, eta Bizkaira bereziki, begiratu beharko dugu “corpus”aren normalizazio atal hau erabakitzerakoan.

2. Azentudun silaba ezkerretatik kondatu behar

Gauzak horrela, *azentu-unitatea* zedarritu behar da; eta, beraz, *proklitiko*en eta *enklitiko*en zerrenda eman. Unitatea ezagutuz gero, automatikoki jakingo baitugu azentua non doan.

Hots, zorionez, berehala jar bidé gintezke ados klitiko horien edukinaz; euskalki guztietan zerrenda bertsua gertatzen baita.

2.1. Proklitikoak

Lehenengo multzoa ezaguna da: *ba-*, *ez-* eta *bait-* partikulak; hirurok, jakina adizkien ezkerretan doazelarik. Baldintzazko (baldin) *bá-*, markatua da.

Bigarren multzoa irekia da: *oraintsu arte*, dirudienez, *edozein* silababakar, aditz jokatuaren ezkerretan joanez gero, proklitiko bihurtzen zen. (Egia esan, *ba-* eta *ez-*en kasoa, hau besterik ez da; *bai* eta *ez* abderbioak, bakarrik doazenean, azentudunak baitira).

Lehenengo multzo itxi horretan dauden *hiru elementuak* proklitikotzat hartzea izango litzateke nire proposamena; gainerakoetan bi soluzioak hiltunaren esku utziz.

2.2. Enklitikoak

Deklinabide atzizkiak eta adizki laguntzaileak enklitikotzat hartuko dira; azentua *oihartzunez* baizik ez erantsiz.

-*bat* (ez zenbakaria) bereziki, enklitikotzat hartu behar da; eta, alderantziz, unitate desberdintzat hartu behar da (*t*)*ar* morfema.

3. Markarik gabeko unitateen azentuketa

Azentu-unitatea ezagutuz gero [prokl. + ardatza + enkl.], azentu-eredua hau izango da: [+2, -1]. Alegia: ezkerretatik hasi eta bigarren silaban, azentu nagusia. Eta eskuinaldetik hasi eta lehenengoan (azkeneko silaban, beraz, eskuin alderantziz), oiartzunezko azentua. Eskuinaldeko azken oinak *bi edo hiru* silaba izango ditu. Adibidez:

etzákitè
etzákitelà
etzákitèlakò
etzákitèlakoàn

3.1. Hitz soltetako azentuketa

[+2, -1] eredu horren arauera egingo da:

etzi
atzó
hemén

Borroka latza izango dugu puntu honetan; erdal moldera eginez gero, paroxitonia hautatuko baikenuke: *étzi*, *átzo*, *etab.*, eskuinaldeko silaba irekia denean batez ere.

4. Izenen deklinabidea (eta izenaire guztiena)

Singularrean eta mugagabeen markarik ez unitatean (ardatz gisa dagoen hitza markatua ez delarik), eta [+2, -1] azentuketa:

<i>emákumèà</i>	<i>emákumebàt</i>
<i>emákumèarèn</i>	<i>emákumerik</i>
<i>zuriarentzàt</i>	<i>zurirekìn</i>

Azentu-unitatea, beraz, *bi* silabatakoa denean, *oxitono* agertuko da, gaztelariaren aurka:

latzá
hitzik

*hitzéz
surtán*

eta, hau beti, ardatz doan lexema markatua ez den ber:

*déia
máistra*

Izenordeetan, bereziki, bide bera segituko da:

<i>niré</i>	<i>zuri</i>	<i>harék</i>
<i>nirétzakò</i>	<i>hiré</i>	<i>honékin</i>

Eta bide beretik galdekarietan ere: *norékìn*, etab...

4.1. *Plurala*, berriz, markatua da; eta azentua ezkerretatik hasi eta *lehenengo silabara* pasako da, bizkaierazko erakusleetan ongi agertzen denez:

honék, horrék, harék; baina *háuek, hóriek, háiek*.

Partikulazki, beraz:

zuré emázteà, baina *zúen emázteà*
eta *harèn emázteà*, baina *háien emázteà*.

Plurala, beraz (+1, behera) eskemaren arauera egingo da normalean. (Eta, beraz, hitz markatueta singularra eta plurala ez dira azentuaren bidez bereziko.)

Pluralari dagokion azentu-aldaketa hau, izen *bisilabikoetan eta monosilabikoetan* erabiliko da. Baina *trisilabikoetan*, eta aurreragoetan, azentua ez da mogituko:

itúrrià, itúrriak
itúrriarèn, itúrrien

5. Aditz izenkien azentuketa

Erroaren silaba-egiturak markatzen ditu partizipioa eta aditz-izena. Erro hori silababakarra denean (M + 1) dira ondoriozko formak:

sál; beraz, *sáldu, sáldukò, sáldurik*, etab.

bíl; beraz, *bíldu, bíldukò, bíldurik*, etab.

eta, bide beretik:

sáltze; eta *sáltzeà, sáltzekò, sáltzetik*, etab.

Gainerakoetan, ardatza *markatua ez bada* (adib.: *bázkal*; *bázkaldù, bázkaldukò*, etab.) azentuketa normala:

ikús; *ikúsi, ikúsikò, ikúsirik, ikúsitakoàn*...

harrápa; eta *harrápatù, harrápatukò, harrápurik*, etab...

6. Pluralaren azentu-aldaketaren mugak

Bai teoriaren bidez, bai bizkaiera zaharrean somatzen denez, eta bai zuberearen bidez garbiro ikusten dugunaz, hau dakigu arazo honetaz: azentu-aldaketak ez dituela iristen nominatiboa, eta ez lekutasunezko kasoak:

Mendeb.

malkórrak
málkorrak
málkorrai
málkorren
málkorrentzat
málkorrekin
malkórretan
malkórretako
malkórretatik
malkórretara

Ekiald.

malkórrak
malkorrék
malkorrér
malkorrén
malkorréntzat
malkorrékin
malkórretan
malkórretàko
malkórretàtik
malkórretará

Bokale-elkarketa gertatu ez den kasoetan, bestela esateko, azentu-hausturarik ez da izan pluralean. Zer egin?

Noraino “senditzen” da ñabardura hau Mendebaldeko euskalkietan?

Hizkuntza-arrazoia soilki kontutan hartuz gero, zalantzarik ez legoke: *nominatiboa eta lekutasunezko* kasoetan azentu-aldaketarik gabekó bidea onartu behar litzateke. Eta Batuan, eta pluralari buruz hau genuke (aldamenean Mugagabea ere aurkezten dugularik):

Plurala

malkórrak
málkorrek
málkorrei
málkorren
málkorrentzat
málkorrekin
malkórretan
malkórretako
malkórretatik
malkórretara


Mugagabea

malkór
malkórrèk
malkórri
malkórrèn
malkórrèntzàt
malkórrèkin
malkórrètàn
malkórrètakò
malkórrètàtik
malkórrètará

Eskuin aldeko jaitseran ez-ezik, lekutasunezko kasoetan desberdintasunik ez dago. Eta, bestetik, eman behar litzatekeen erregela zailago da: plural *osoan barrena* azentua ezkerretara joaten dela esan beharrean, *lekutasunezko kasoetan ezetz* erantsi behar genuke.

Puntu hau seriocki eta funski erabaki ahal izateko, Mendebaldeko euskalkietan ikertu behar litzateke plurala. Badirudi, zenbait aztarnaren bidez ikus daitekeenez (Zuberoan bezain osoki ez bada ere), desberdintasun hori bizirik dagoela

bizkaieraz. Eta, beraz, *hobetsi* egin behar litzatekeela teoriaren arauerako azentu-keta hori:



Baina *plural osoan barrena*, analogiaz (+1) azentua duen eredua gaitzetsi gabe. Geroak erranen.

6.1. Silababakarren arazoak

Eman dezagun *latz*. Eta hau, genuke:

lätz	latzá	lätzák
lätzék	lätzák	lätzék
latzí	lätzàri	lätzèi
lätzén	lätzàrèn	lätzèn
lätzéntzàt	lätzàrentzàt	lätzèntzat
lätzékin	lätzàrekin	lätzèkin
lätzétàn	lätzéàn	lätzétan
lätzétakò	lätzékò	lätzétako
lätzétatik	lätzétik	lätzétatik
lätzétarà	lätzérà	lätzétara

Nahasketa egotea ez da harritzekoa (batez ere, gipuzkeraz eta bizkaieraz ergatiboan *e*-rik ez izanik). Nominatibo pluralak eta ergatibo singularrak azentu-keta bera lukete: *lätzák*; baina gainerako kasoetan forma desberdinak genituzke.

Eredu analogikoan, berriz, hau genuke:

lätz	latzá	lätzák
lätzék	lätzák	lätzék

Denak desberdinak, eta gauza bera lekutasunezkoetan. Egiazko eredua, nola-bait esateko, analogiazkoa baino “garbiagoa” da; eta ikasteko errazagoa ere bai.

6.11. Badago beste arazo bat, dena dela: euskalki batzutan hau baitugu: *lätz*, *lätzà*, *lätzák*; etab. Monosilabo guztiak (M + 1) markatuak balira bezala.

Teoriaren mailan balegoke arrazoirik silababakar guztiak (M + 1) hartzeko (eta haxe ere ikerkizun bat izan daiteke: noraino den egia, alegia). Zubereaz (*h*)aiz adizkiarekin gertatu dena (*iz* vs. *hiz*) silababakarren markaren alde mintzo da. Bizkaieraz, ordea, ezer ez da seguruagorik *onék/óne(i)k* bikoiztasuna baino.

Eta, hitz batez, *erregela orokorra* proposa bide dakieke silababakarrei:

hítz, hitzá, hitzák

hítzék, hitzák, hítzek, etab.

6.2. Silababikoetan

Arazo berezirik ez.

Baina berdindu gabeko eskeman hau genuke:

lapúr	lapúrrà	lapúrrak
lapúrrèk	lapúrràk	lapurrek

Eibar-Bergara inguruan aurkitzen diren “bitxikeriek”, hain zuzen (lekutasunezko kasoetan bereziki), ikerketa sakona merezi lukete.

6.3. Trisilabikoetan, eta goragokoetan

Kaso hauetan azentua ez bide da Mendebaldeetan mogitu:

itúrritàn, itúrriàn, itúrrietan

Ez bide da tentazioan erori behar; eta, hitz batez, azentuaren mogimendua *silababakarrentzat eta silababikoentzat* utzi behar dela.

7. Hitz markatuen arazoa

Ekialdeko euskalkietan (−2) da silaba nagusia (paroxitonia, alegia), hitz markatuak (−1) direlarik (oxitonoak). Simetria osoan (+2) da silaba nagusia Mendebaldeko euskalkietan, eta (+1) dira hitz markatuak.

Hitz horiek *hiru* motatakoak dira:

1. (+1) silaban diptongo beheranzkoa duten hitz batzu (ez denak, dirudie-nez; nahiz puntu honek ere ikerketa sakonagoa merezi). Adibidez: *déi*, *káiku*, *éuskara*.

2. (+1) eta (+2) silabetako bokaleak, tinbre berekoak normalean, batu egin direnean: *légusu*, *bázkari*. (Gogoan har *lehengusu* eta *barazkari*).

3. Integratu gabeko mailebu berriak: *árima*, *fábrica*. Hauetan azentua *ez da inoiz* bigarren silabara pasatzen: azentua *aldakaitza* da. Erdal modeloa, beraz, euskal hitz markatuena da; eta anormala, hitz batez, gure hizkuntzan. (Ekialdeko zenbait euskalkitan, berriz ere, enbor nagusitik aldendurik agertzen zaizkigu).

Hitz markatuetan, beraz, bi proposamen egin daitezke:

a) hitz horiek azentu diakritikoz idaztea: *árte* (= edergintza); vs. *arte* (= zuhaitza).

b) hitz horietan azentua ez mogitzea: (+1) beti; *árte*, *ártea*, *ártearèn*, *árteek*, *ártèk*, *árterik*, etab... Baina, jakina: *arté*, *artèà*, *artèarèn*, *árteek*, *artèk*, *artèrik*, etab.

Baina markatuon *zerrenda* eman behar da.

7.1. Hitz markatuen zerrendaren hasera

Puntu honek ere ikerketa behar duelarik, hona hemen segurutzat jo daitezkeen hitz batzu:

<i>Silababakarrak</i>	<i>Bi silabat.</i>	<i>Hiru silabat.</i>
gái	áurre	éuskara
gáu	átze	érdara
gáur	gáuza	bázkari
láu	máisu	átsalde
séi	máistra	báserri
dén	jábe	árima
txár	zénbat	prémia
déi	ásmo	líburu

Badirudi erraz xamar presta zitekeela hitz markaturik seguruenen zerrenda osoa. Nahiz, jakina, beste asko eta asko zalantzan egon; edo, analogiaren poderioz (+2) erregelaren arauera azentutzatu gero eta maizago.

8. Azken ohar bat

Aurrerago ere esana dugunez, azentu nagusia (+2) izango da.

Azentu bigarrenkaria (+3) posizioan baldin badator, bion arteko tartea 1 da (elkarren ondoko silabak dira, hitz batez: *ar-té-àk*, eman dezagun). Kasu horietan, eta pedagogikoki bederen, hau esan daiteke: (+2) *silaba markatzeko*, oihartzunezko silabarena eroriko bada ere.

Hurrengora arte, berriz, tartea 2 edo 3 denean (eman dezagun: *artéarèn*, *artéarekikò*) ahoskatzeko zailtasunik ez dago; eta eutsi egingo zaio.

EUSKAL AZENTOA

Durango, 1986-V-30

Jose Basterretxea

"Oskillaso"

Azentoak bereizten dau plurala singularra ta indefinidotik. Izen pertsonalak eta izen geografikoak eztauke pluralik. Hasi gaitezen ba izen pertsonalak eta geografikoak aztertzen. 1974ko *Fontes Linguae Vasconum*'en, 18gn zenbakian, 364gn orrialdean, izen pertsonalen zerrenda bat dago. Irakurri daigun:

Agapitto

Ageda

Austiñ

...

188 izen pertsonalen zerrenda honetan 64'k hiru silaba baño gehiago dauke, 123 bi edo hiru silabakoak dira, hñonen arte 78 prototonak dira, hau da, lehenengo silaban dauke azentoa, ehuneko 63.

F.L.V.ko esandako zenbakian, 368gn orrialdean hasten da izen geografikoen zerrenda bat. Irakurri daigun:

Abadiano

Abadiño

Acorda

Akorda

Ajanguiz

Aijengiz

...

231 izeneko zerrenda honetan 133 bi edo hiru silabakoak dira. Euren arte 21 bakarrik dira prototonak, ehuneko hamasei baño gitxiago.

Irakurri dotezen berba guztiak dauke lehenengo azentoa lehenengo edo bigarren silaban.

Hiru silaba baño gehiagoko berbak ezin dira izen prototonak. Sustantivo eta adjetiboen arte oso gitxi dira prototonak.

Ikusi daigun oraiñ zelan aldatzen dan azentoa pluralean. (F.L.V., 1975, 21gn zenbakia).

Frase nominalaren pluralaren entonaziñoak hiru zati daukaz: Lehenengoan silaba bat tono normalean, bigarrenean edozeinbeste silaba tono altuan eta hiru-

garrenean silaba bi tonu bajaran. Lehenengo zatian silaba bat, bigarrenean bat gitxienez eta hirugarrenean bi. Pluraleko entonaziño osoa eukiteko berba batek gitxienez lau silaba euki behar dauz. Bi edo hiru silabako berbak eztabe betetan pluraleko entonaziño osoa eta prototonak izan daitez. Silaba biko berbei lehenengo zatia falta jake pluralean, eta baldin prototonak badira singularrean be bai. Hirugarren zatian silaba bakar bat baño eztauke. Singularra ta plurala bardiña da silaba biko berba protonetan. Hiru silabako berbak bitara egin leike plurala: nahiz silaba bat zati bakoitzean, nahiz lehenengo zatian bapez, bigarrenean bat eta hirugarrenean bi. Hiru silabako berba prototonak bardiña dauke singularra ta plurala.

HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOA, KONTZIENTZIA LINGUISTIKOA ETA EUSKAL EBAKERAK

Durango, 1986-V-30

Alfonso Irigoien

Neure komunikazio honetan ez naiz euskal ebakeren arazoa bere luze laburrean, butzu ondar gabea sarturik, ahal denik eta zehaztasun gehien gogora ekartzen dudala ikertzen hasiko, eta batez ere zenbait gogoeta orokor, edozein hiztuni dagozkionak, egingo ditut.

Ez dago dudarik modu batera edo bestera gure hizkuntza normaz arautzea, bat izatera bidean ezar zedin, beharrezko zela egin zenean. Hau orain argi dakus edonork, politikazko bide berriak direla medio euskara modu zabalago batez hedatzeko aukeran aurkitzen baita. Aurrera egiteko, hartu ere era horretako bidea hartu behar zen, aski izango den jakin gabe ere. Ikus dezakegunez komunikabide sozial modernoetan lehen zuen baino askozaz ere sarrera handiagoa du eta etorkizunean gehiago izan dezake.

Normen arautzea, gauza ezaguna denez, alde batetik ortografia mailakoa izan da, oraindik zenbait gora beheratan ohiturak zeharo bateratu ez badira ere, eta bestetik, bereziki berbo batuarena, eta, morfologiari gagozkiola, beharrezko ziren puntu banaka batzurena.

Harrigarriro berboarenak sortu zuen bere momentuan esames gutxien, morfologiako besteekin batera, ene eritzian zailena bazen ere eta edonoiz estropasu gehien eragiten duena euskaldun arrunten artean.

Normalizazioaren bideak, hala ere, zenbait problema berri sortu ditu bazterretan, gure hizkuntzak jasaiten dituen arnas hestuek ez baititu arau bateraturik ezak bakarrik sortzen. Izan ere alboan bi hizkuntza indartsu eta sendo ditugu: gaztelania, alde batetik, eta frantsesa, bestetik, euskaldunik gehienek, denek ez esatearren, eta bereziki gazteenek, gutxienez bata edo bestea dakitela, eta sarri euskara bera baino hobeto. Egoera honi J. M. Sánchez Carrión-ek diglosia glotofagikoa deritza (1).

(1) Ikus "Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística", *Hizkuntza minorizatuaren soziologia*, Donostia 1986, 42 orr. (1984-garren urteko irailean Getxo-n eginiko Hizkuntza minorizatuaren soziologi biltzarreko lanak).

Eta ez naiz euskaldun berriez ari, hori beste kapitulu bat baita, euskaldun zahar deitzen direnez baizik. Eta ez nieke inondik ere meriturik eta baliorik ukatu nahi lehenen aipatu ditudanei.

Gogora ekar dezagun Aulesti herri euskaldun ezaguna, beste batzu ere diren bezala, zeren tradizioz euskaldun direnak zer bidetarik doazen jakitea beharrezko dela uste baitut, gure hizkuntzak, neurri baten bederen, euskaldun berrien laguntzaz eta kemenez aurrera egingo badu ere.

Bertan bizi den laurogei ta biko euskaldun bat gazte denboran Deustu-ra joan omen zen erdaraz ikastera, ezer ez baitzekien, eta egotaldi luzea han egin ondoan ikasi gabe itzuli omen zen etxera, Deustun, zegoen lekuan, euskaraz gehiago entzuten eta egiten baitzuen, erdaraz baino. Dakien gehiena geroago ikasi omen zuen Afrikan soldadu zegoela. Baina, beste alde batetik, hirurogei urte ingurukoek Aulestiko eskolan ikasi dute, eta *los zapatos he compra(d)o* eta antzekoak esateko joera, leku askotan bezala komunztadurarik egin gabe alegia, badute ere, ez dute inolako problemarik edonon erdaraz egiteko. Egungo egunean, gainera, telebistaren irudiak eta boza etxera bertara sartzen dira, eta azkenez, erdarazkoa baino franko beranduago izanarren, euskarazkoa ere heldu da eta eskaratzean bertan entzun daiteke. Gainera euskara eskolan ere sartu da eta guzti honekin egoera berri bat sortu da eta garatzen ari da. Orain ez da etxeko eta herriko euskara bakarrik, zabalagoa baizik. Lehenago goiko mailako hizkuntza gaztelania baino ez zen, orain haren lekua, neurri baten behintzat, euskarak bete lezan nahi litzateke, baina oraingoz diglosia glotofagikoa ez da luzaroan erraz aldatuko Fergusson-ek eginiko definizioaren arauerako diglosia aberasgarri baten mesedetan, Euskal Herrian bertan gizarteko piramidearen gailurra erdaldun hutsez hain ondo horniturik dagoen bitartean.

Honezkero argi dagoke nahi gendukeen diglosia euskara normalizatu eta nazional baten eta hizkeren artekoa dela. Baina horretarako lehenengo behar duguna da euskara normalizatu hori ez bakarrik teorikoa izan dadin, hiztunen artean ondo eta zuzen sustraitua baizik, eta sarri askotan euskaldun arruntak askozaz ere hobeto daki euskaraz, nahiz eta betikoa erabili, batuan ari den hainbatek baino. Eta ez da aski esatea pertsona arruntok kultura gabekoak direla. Enetzat horrek ez du balio, aurrean dugun problemaren funtsa ez baita era bateko edo besteko kultura izatean edo ez izatean aurkitzen, hizkuntza jakitean edo ez jakitean, eta azken finean ondo eta zuzen mintzatzean, baizik.

Etsenplu xume bat ipintzeagatik barka jezadazue esaten baldin badut asteoro asteoro agertzen den *Tele-Deia*-n hurrengo hau irakurtzen dela ateratzen den bakoitzean: *Programaketetan aldakuntzarik balego gure gogoz kanpo lirateke*. Frase hau ez luke inola ere euskaldun lege zaharreko batek esango, zeren *aldakuntzarik* formak, partitiboa izanik, ezin eraman

baitezake komunztadurarako pluralik. Eta halako hutsak nabarmen nabarmen, geroago eta ozenkiago, zabaltzen ari dira lau haizetara oraingo tresna boteretsuei esker, erdaraz gure partitiboaren lekuan plurala ere joan baitaiteke. Azken finean halako euskararen barruko egituraren erdaradago. Eta ez naiz Europako kultura hitzez ari, euskararen beraren egituraz baizik, hau da, sintaxiaz.

Baina hemen ez dut egingo korritzen duten hutsen eta zergatik ez dakigula modan jarri diren bitxikerien katalogoa. Ebakeraz egiten diren jardunaldiok berok ere, azken finean, bizi dugun egoerak sortu dituen gora beheretan dute iturburua. Izan ere orainarte Euskal Herrian, beste edozein hizkuntzatan gertatu den bezala, euskalkietan zehar hainbat ebakera eta azentu izan dira, denak euskaldunak, noski. Horrek, hala ere, ez die inguru hurbileko euskaldunei elkarren artean ulertzeko problemarik sortu, eta bakoitzak berea erabiliarren bestearen kode zerbaitsa desberdina ez da sekula oztopo izan harremanetarako. Eta urrunagokoa izanik ere tratu apur bat izan ondoan adaptazioa egin izan da, zeren denek izan baitute beti euskaldun izatearen kontzientzia linguistikoa eta hizkuntzari buruzko eritzia, sarri askotan guganik urrun ez dabilen linguista bati baino gehiagori falta zaiona, eta izan ere linguista batek ez du nahi ta nahi ez beharrezkoa.

Hortik sortu izan dira orainsurarte lege zaharreko euskaldunen artean alderdi bakoitzean egiten den euskararen gainean korritu izan duten usteak, batzuetan estigmatizazioraino ere heldurik eritzi linguistikootan finkaturikako atitudeen ondorioz, edozein hizkuntzatan gertatu izan den bezala. Eritzi linguistikook batzuetan egiazko egituretan izan dezakete oinarri, baina ehuneko parte handi baten batere motibo gabeko usteetan. Hala ere, esan behar da, berez eritziek, errealtatetik aterak izan edo ez izan, ez dutela atituderik suposatzen, herri etimologia bera ere hala sortu baita (2).

Esaterako, nik neuk entzun izan diet Ubidekoei Arratiako azentu eta ebakera bitxiak mintzatzen, eta, beste alderdi batetik nire izeko batek, Arratiarra izanik, Ubideko berbeta oso ondo ahoskatzen zuen haien artekoren baten fraseren bat edo beste errepikatu behar zuenean edo hala nahi zuenean. Eta, Gipuzkoa aldera iraganik hor dugu Eibartarrei leporatu izan zaien *trigoak maduratzeko denpora preziosoa* eta halako antzekoak, baina Eibartar peto petoak ondo ezagutuz gero halakoak ez dira normalki, ezta hurrik eman ere, erabili izan dituzten eta oraindik bertako euskara egiten dutenek, —bat asteburuetan Aulestira etortzen

(2) Humberto López Morales, *Dialectología y Sociolingüística. Temas puertorriqueños*, Madrid, Miami, Nueva York, San Juan, 1979, "Velarización del *l rri* en el español de Puerto Rico: índices de actitud y creencias", 109 orr. eta hurrengoak.

da—, erabiltzen dituzten fraseak. Eta halako gauzak biltzen eta kontatzen has bagintez akaburik gabekoa litzateke.

Ipin dezadan etsenplutzat, baita ere, niri neuri, lege berriko eritzi eta atitudeen arauera, behin gertatu zitzaidana: Balentin Enbeita-ri Bilbo-n omenaldi bat egin zitzaion Etxenike Gasteizeko Gobernuan Hezkuntza Sailburu zela. Franko hil ondoan, beraz. Egin ziren beste gauza batzuen artean hainbat bertsolari agertu ziren kantatzera, eta Enbeita-k berak nahi izan zuen, lehenagoko denboretan bezala, nik neuk zuzendari egin nezan, puntuak ipini eta abar, naiz eta ni halako zereginetarik aspaldidanik aldendurik gertatu. Izan ere, lehenago ez bezala, hainbat denbora zen hizkuntzari dagozkion beste gai batzuetan osoki murgildurik nenbilela, orain ere nabilen bezala, eta bertsolarien gauzetan gehienez ere epai mahairen baten parte hartu eta bestelako gauzaren bat besterik ez. Eta nola eskariari ukorik ezin egin niezaiokeen, historia oso bat baitzegoen atzetik, han agertu nintzen. Eta ari nintzela ari nintzela halako baten esan nuen: *orain Lazkánòk eta urliak halako eta halako gaiari eutsirik kantatuko dute*. Eta publikoaren artetik hara non boz ozen, ondo entzuteko moduko bat agertzen den: *Lázkanòk!* Eta hala gelditu zen. Baina hurrengo txanda heldu zenean nik: *orain Lázkanòk edo Lazkánòk eta urliak kantatuko dute*, eta inor ez zen gehiago ezer esatera ausartu. Hor duzue batere motibo gabeko eritzia atitude bihurturik. Jakina, hark, bere barruko eritziaren arauera, izen propio horri nik ematen nion azentua ez zela zuzena, berak egiten zuena baino, esan nahi zuen, eta gainera diskriminatzaile bihurtzeko eskubidea zuela, berari hain zoritzarreko Euskal Herri honetan bontzo nagusiaren papera egitea tokatu balitzaio bezala, eta eskomikuak ezker eta eskuin bota.

Baina ikus dezagun zer gertatzen zaion *Lazkano* deiturari. Erraz asma daitekeenez deitura hori toponimiatik heldu da, beste deitura asko eta asko bezala, eta administrazio erdaldunak aspaldiko denboretarik menderik mende *-n-* bokal artekoa izkribaturik gorde du, gure eremuan korritu izan duen erdarari dagokionez, euskaldunen artean ahoskatzetik franko goiz desagerturik egonarren. Izan ere toponimian euskaldunen arteko forma *Lazkàò* da, eta erdaraz *Lazcano*. Bestela galde egiozue *Lazkao-txiki*-ri, eta, oso bide okerretik ez banabil, bazterretan **Lázkaò* entzutea ez da batere erraza, inork esaten baldin badu behintzat.

Gertatzen dena da izkribuz erabili izan den deitura euskal azentu tipo batera moldatu dela euskaldun batzuen artean, eta beste batera beste batzuen artean. Toponimian bertan ere badira aldeak leku batzuetarik besteetara: Aulestin *Íborlà* erizten zaio, ofizialki *Ibarrola* denari, baina Ifarraldean *Ibàrlà*. Beraz, *Íbarrolà*, alde batetik, eta *Ibàrlolà*, bestetik. Erdaraz, ordea, *Ibarróla* esaten da, azken aurrekoan duela azentua, eta agian euskaraz ere bazatekeen parekoren bat. Eta halako beste eredu asko aipa daitezke.

Gure hizkuntzaren izena bera ere ez da azentu bat bakarrez ebakirik erabiltzen. Nik esango nuke Bizkaian askok eta askok *éuskeràz* esaten duela, baina *euskèràz* ere entzuten da, eta inork ez du horregatik jantzirik urratzen, eta, egia esateko, neure etxean bertan semeari *éuskeràz* entzuten diot, Aulesti-ko erara, eta emazteari *euskèràz*, Lekeitio-kora, eta galde egin ez baldin banu ez nintzen erraz konturatuko, hemen esateko moduan behintzat. Nik neuk ere umetan *éuskeràz* ebaki izan dut, eta Adolfo Arejita Deustu-ko irakaslekideari ere, Morga-ko eredia gorderik, ebakera berdinez entzun diot.

Gehiago oraindik, Aulesti-n erdaratik mailegaturiko hitz batzuetan ere, ez guztietan, azentu tipo hori bera gertatzen da, eta hala, *pijamiè* da etxean bertan, Aulesti-ko erara, entzuten dudana, nik neuk, Arratia-ko erara, *pijámeà* esaten badut ere, jatorrizko erdal azentutik gehiegi saihestu gabe. Nire emazteak ere antzera esaten du, baina ez berdin: *pijàmiá*.

Berdintsu gertatzen da semeak *txakúrrek jan dau*, singularrean dioenean, eta *txákurrek jan dabè* pluralean, eta nik *txakurrék yan dau* —eta nahasirik *jan dau*—, singularrean, eta *txakúrrek yan dauriè* —eta nahasirik *jan dabe*—, pluralean, eta emazteak desberdin.

Eta hara non familia osatzen dugun hiru pertsonok egunoroko bertan azentu desberdina erabiltzen dugun ia konturatu gabe eta inolako oztoporik gabe, bakoitza ohiturik baitago bestearena entzuten. Egia esateko, nire emaztearen ama bizi zenean hari bitxia iruditzen zitzaion nire ebakitzeko modua, batez ere *gozoa*, *astoa*, eta halakoak *-oa* amaiera eginik, eta ez *-ua*, entzuterakoan.

Edozein modutan ere esan beharrean aurkitzen naiz bertsolarien txapelketa eta abarretan saiatu nintzen denbora osoan sekula ez zitzaidala Enbeita-ren omenaldikoa bezalakorik gertatu. Alderantziz, Donostian bertan, behin baino sarriago entzun izan nuen jende arruntaren artean euskara garbia egiten nuela, eta hori agian hitzak osorik esaten nituelako izan zitekeen, eta arazo horrezaz inoiz Gabriel Aresti zenarekin ere hitz egin nuen, zeren Bilbo-n entzuten genduen *mordoilo* hitza, bereziki jatorriz erdararekin zer ikusia zuten berbak hitz egiterakoan sartzeagatik esaten zena, purismoaren bidea harturik, ez baitzeturren bat beste kontzeptu ebakieran oinarrituriko honekin (3).

Beste alde batetik euskaldun arrunten artean Enbeita-ren omenaldikoa bezalakoak gertatzea, neurri baten bederen, fenomeno normala da, batez ere insekuritate linguistikoa handitzen hasi denetik hona. Baina

(3) Felipe Lizaso, gerra denboran gudari izan zen errenteriarrekin baizik ez nuen gora beherarik izan, behin bertsolarien azken txapelketa nagusi baten *ailegatu* hitza esan bainuen, euskaldun zahar askok egiten duen moduan, *heldu* edo antzeko “garbi” izenekoan bat hautatu beharrean.

inoiz halako diskriminazio joerak aginte lekuetarik ager daitezke, konturatu gabe dela pentsatu nahi nuke. Baina, edozein modutan ere, iturburuan dagokeen psikologia larri gorritan jartzea komeni litzateke, antzekorik gehiago gerta ez dadin, zeren euskaldun arrunten arteko joerok neurri baten normalak izan badaitezke ere, aginte lekuetakoak, ondo ikerturik eta kalkulaturik egon behar luketenak, ezin barkatuzkoak baitira, erraz behintzat, horretarako baitaude guztion dirutik soldata onak kobratzen.

Aipa dezadan moldezko letretan agerturiko etsenplu bat:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak-k argitara zuen *Euskalkiz euskalki* (4), Rosa Miren Pagola-ren eskuz prestaturiko lanean, bertako *Euskara zerbitzua*-k firmaturiko "Aurkezpena" dator atarikotzat. Honela hasten da hitzaurre hori: "*Lekeitioko euskara ez dago ulertzerik. Zuberoan hobe frantsesez. Baserritarrekin nekeza da hitzegitea. Arrantzaleen hizkera oso berezia da*". Marketing-eko erregelen arauera lehenengo frasea lapidarioa da. Izan ere bizkaitar baten ahotik ez litzateke halakorik erraz aterako, inon hitzak osorik ebakitzekotan Lekeition ebakitzen baitira, eta neurri handi baten hiriko euskara egiten baita, Donostian egiten zen bezala, eta, hori gutxi balitz, Euskaltzaindiaren Bibliotekan gordetzen diren Resurrezio Maria Azkue-ren arriben kartetan argi ikus daiteke diodana. Eta Bonaparte printzeak itsasaldeko solezismoa zeritzana egiten bada ere, hau da, *esan nau, emon nau*, eta horrelakoak, Azkue aspaldi saiatu zen izkribuz bederen hori zuzentzen.

Eta halako gauzak "*oraindik ere euskaldunon artean*" entzun badaitetzke, esaten den bezala, euskaldun horiek ezin izan daitezke gipuzkoar baizik. Eta horrela, esan dezakegu zenbaitentzat Euskadi Gipuzkoan hasten dela eta Gipuzkoan amaitzen (5).

Ezin joan daiteke munduan zehar halako ideia errumes eta eskasak buruan izanik, eta, gainera, funtzionari ahalguztidunen mentalitateaz horniturik, lanari ez dakit zer.

(4) Gasteiz 1984.

(5) Behin Ibon Sarasola-k *Deia*-n, 1977-XI-11-an, artikulua eman zuen argitara "Hiri haundi euskaldun industriatu bat" titulua zeramana, Euskal Herrian hiri nagusi euskaldun baten faltan Gipuzkoa hiri nagusiak bete zezakeela paper hori adierazirik, ia 700.000 biztanletarik "gutxienez 300.000 euskaldun bizi baitira bertan", —ez da esaten horietarik zati on batek Bizkai aldeko hizkerekin zerikusia duten berbakerak darabiltzala—. Nik 1977-XII-28-ko *Deia*-n erantzun nion "*Haste, hastapen, hatsarre, hatse, hasiera, hasera* eta Euskal Herri industriatu berri hori" artikulua bidez. Ez da erraz ulertzen nola Unibertsitate munduan murgildurik dabilen bati burutik iragan ere egin dakioken halako planteamentu kaskarin, lokalista kutsuko eta probintzianorik osatasunaren izenean, zeren Gipuzkoa, bere berdegune eta guzti, hiria baldin balitz Euskal Herria hiri handiagoa bailitzateke, handitasunean Parisen mailara heltzen ez bada ere, eta Gipuzkoako mugetan ez baitira industria eta berdeguneak amaitzen, ezta euskara bera ere, erdarak ere akaburik ez duen modu berebean.

Alabaina, baserritarrekin hitz egitea edo arrantzaleen hizkera ulertzea nekeza izan daiteke batentzat baino gehiagorentzat, batez ere hirikoen artekoa izanez gero, baina hala ere uste dut bereziki komunikabide sozialeko tresnen bidez mintzatzen zaizkigunek, ez bakarrik euskara batuaren normak ondo ezagutu eta jakin behar lituzkete, horrez gainera gauza izan behar lukete edozein baserritar edo arrantzalarekin, edonongoak direla, elkar hizketa bat izateko, eta zertan esanik ez, haiek esaten dutena ulertzeko. Ofizio hori hautatu duenari gutxienez hori eskatu behar zaio, eta halakoak ez du aski euskara batuaren normekin, errealitate soziala askozaz ere aberatsagoa baita.

Ebakera, beste alde batetik, ez dagokio azentuari bakarrik, eta izan ere zenbait gauza modu batera baino gehiagotara ahoskatzen da euskaraz tokian tokian. Batasun bidean abiatzeko ortografia bateratzea izan zen gerra ondoko lehen urratsa, bestea bateratzea ez baita hain erraz, hizkuntzazko ohiturak sakon eta modu iraunkorrean itsatsirik izaten baititugu. Bergara-ko biltzarrean 1978-garren urtean Txillardegi horrezaz mintzatu zen eta neuk ere egin nituen zenbait ohar.

Hori gomutan izanik uste dut egokiena zer bide daramaten eginiko gogoetak dela, eta baterabidean doazenean bultzatu, baina beti ere gauzak gehiegi bortxatu gabe, azken finean etorkizunean hizkuntza erabil dadin neurrian bere bidea egin gabe ezin geldi baitaiteke.

Horrela lehen lehenik, besteetan sartu aurretik, ortografiaren erruz aldatzen ari den ahoskatze bat aipatu behar litzateke. Non nahiko edozein euskaldunek normalki beti esaten izan du eta orain ere esaten du *ezta*, *eztator*, *enaiz*, *enator*, *ezkara*, *ezkatoz*, *eluke*, eta abar, oraingo ortografiaren arauera *ez da*, *ez dator*, *ez naiz*, *ez nator*, *ez gara*, *ez gatoz*, *ez luke*, eta abar, agertzen bada ere izkribuz. Baina jende asko, eta ez beti euskaldun berriak bakarrik, irakurtzerakoan ikusten denaren eraginez bigarren erara ahoskatzera abiatu dago. Eta eskoletan hasirik ahoskatze hori zuzenbidean jarri behar litzatekeela deritzat, eta inoiz aldatu behar ez ziren legeetara erakarri.

Problemarik handiena sortzen duena *jan*, *josi*, *jo*, eta abar, formen ahoskatzea da. Azkue-ren bidetik baturako *yan*, *yosi*, *yo*, eta abar, ahoskatzea litzateke egokiena, goragoko maila baten noski, besteak beste maila baterako arrunt moduan utzirik, oso indar handia baitute Ifarraldetik kanpora, leku batzuetan izan ezik. Zertan esanik ere ez kulturazko zenbait hitzetan, hala nola, *geometria*, *paragoge*, *gimnasia*, eta horrelakoak, grekoz *geōmetria*, *paragōgē*, *gymnasia*, hoberena *ge-* / *-ge* / *gi-* silabak kontsonante oklusiboaren bidez ematea litzatekeela, orain baino lehen Euskaltzaindian bertan esan izan den bezala, goragoko mailarako, jakina.

Badirudi batuan bazterturik gelditu direla *txoriya*, *txorixa*, eta abar, eta *txoria* formak daramala nagusitasuna ahoskatzeko ere. Beraz, hor ez

dugu problemarik. Berdin gertatzen da *-oa / -ua, -ea / -ia* bikoteetan, *-oa* eta *-ea* baitoaz aurrean, hau da, *zoroa, astoa*, eta abar, eta *etxea, gaztea*, eta abar. Ezin egin daiteke dudarik ortografiak berak bultzatu duela hau, baina kasu honetan aukera egiten lagundurik. Hala ere, maila arruntago baten besteak entzutera ere prest egon behar dugu, inor arbuiaitu gabe.

Busti palatalen eremuan ere badira gora beherak. Ez dago dudarik batuan *ekarri ditu*, eta ez *...dittu, erdibitu*, eta ez *erdibittu*, eta abar direla nagusi, *haizea*, eta ez *axea, haitza*, eta ez *atxa*, bezala. Baina ez da berdin gertatzen *mutila, arraina*, eta halakoekin, hor askok *mutilla, arraiña*, eta horrelakoak oso sustraiturik baititu, eta badira gazteagoen artean *mutiya* esatera abiatu direnak ere, gaztelaniaz ere belaunaldi berrietan gure inguruan nagusitzen ari baita, jadanik guztiz nagusitu ez baldin bada. Hobere-na busti palatalak, neurri baten bederen, bakantzearen joera bultzatzea litzateke, eta etorkizunean zer gertatzen den ikusi. Ezaguna da Mikel Zarate zenak esaten zuena: *mutiya* behintzat ahoska ez dadin *mutila* esaten irakatsi behar litzatekeela, Arratia eta Txorierri-n, eta Lapurdi inguruetan, eta abar, egiten den moduan.

Ezin ontzat har daitekeena da, alabaina, *hil zen, esan zuen, hor zegok*, eta halakoak nahi ta nahi ez *hiltzen, esantzuen, hortzegok*, eta abar, afrikariaz ahoskatutik hobestea, fenomeno fonetiko horiek lege nagusi eta absolututzat harturik, historikoki, bereziki hirugarren kasuan, ez baitira nagusi izan, eta geografikoki ere ez baitira. Are gutxiago *Persia*, eta dagokion gentilizioa, *persa*, edota *persiko*, esateko *Pertsia, pertsas, pertsiko*, ahoskatzea, grekoz *pérssa* eta *persikón* erabiltzen baitziren.

Esan dezagun ondorioz ahoskatze bat bakarra eta bera izatea inongo hizkuntzatan inoiz absolutuki lortu ez bada ere, eta bistakoa denez, guk ere sekula lortuko ez badugu ere, bizi sendoaren poderioz hizkuntzak berak sortzen dituen joera bateratzaileak bultzatu behar ditugula eta sakabanatzaileak baztertzen ahalegindu. Bateratzaileen artean bat literaturazko tradizioa da, eta gure artean zaharrena eta bide guztiak beti markatu izan dituen Lapurdikoa da, gure memorio kulturalan ondo finkatua eta ondo ikasi beharrekoa. Hortik aurrera orain sortzen diren joerak zaindu behar ditugu.

Hona aldatzen ditut hemen bertan parte hartzen duen Francesc Vallverdu-k esan berri dituen hitzak, batzarre hauek egin baino lehen gure artean korritu izan baitute: “quisiéramos que se oigan más locutores de diversas procedencias del catalán, pero soy purista con los acentos de influencia castellana o francesa”. Euskaraz ere ebakera eta azentu bat baino gehiago entzutera ohitu behar dugu haiek euskaldunak baldin badira, gaztelaniazko joerazkoa arbuiauturik. Asko entzun balitez elkarren lehian bateratuago bat edo beste nagusitzen joango litzateke.

Eta beste hiztunekiko beti izpiritu liberala, izpiritu liberala, eta izpiritu liberala, zentzu zabalean noski, ez bainaiz alderdi politiko konkreturik defenditzen ari, eta erdaratiko bitxikeriak zuzentzen ahalegindu, baina euskal azentu eta doinuak ontzat hartu inor estigmatizatu gabe.

KONTSONANTE MULTZOEN AHOZKERA

Durango, 1986-V-30

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Hitz egiten dugunean, “Kanpo Sandhi” edo “Grupo Foniko”en bidez egiten dugu, eta era horretara, kontsonanteen elkar-joteak sortzea, guztiz bidezko da, herri-hizkuntzaren eufonia, ekonomia eta artikulazio ohitura bitarteko direlarik.

Izan ere, ez da bat ere erreza “Grupo Foniko” edo osterantzeko kontsonante elkarte batzu ahozkatzea, eta horregatik herriak, berezko fonetika legeak jarraituz, erreztu egin du kontsonanteon ahozkerara.

Hiztun bakoitza aparteko mundu bat da eta beste hiztunekin bateratsu hitz egin arren, beti dira bata bestearengandiko aldakuntzak.

Gainera, hiztun bakoitzarengan ere, bizitzako egoera guztiak ez dira berdinak, eta egoera batean egon edo beste batean egon, “Grupo Foniko” berbera, ez da berdin-berdin ahozkatzen.

Nire aldetik, Zeberioko euskeran aurkitu ditudan “Kontsonante Multzo”en ahozkerara jasoten saiatu naiz, euretariko batzu, aurrerago aipatu ditudan faktoreen arabera, beti berdin ahozkatzen ez direlarik.

Metodologiari dagokionez, era askotara azter daiteke “Kontsonante Multzo”en ahozkerara. Nik jarraitu dudana bidea hau da: Ahots-Moldeari dagokion sailkapena hartu, eta euretariko kontsonante bakoitza, herrian erabilten diren beste, kontsonante posible guztiekin elkar-jo erazi, bananbanan eta alfabetikoki, herriko hiztunengandik jasotako adibideak bitarteko direla.

Argi-bide bezala, komilla artean doan fonologia mailako herri-adibide bakoitzak, literatura mailako bere pare darama gainean, “Kontsonante Multzo”en jatorria ikusi eta ondorioak aterateko.

1. Leherkari gorrak

1.1. “-p” Ez da erreza azken posizioan “p” bat aurkitzea “eup!” edo ez bada.

1.2. “-t + b-” = “-p-”

bat bai
“bapai”.

“-t + d-” = “-t-”

bat dator

“batator”.

“-t + f-” = “-f-”

bat falta da

“bafaltada”.

“-t + g-” = “-k-”

bat gara

“bakara”.

“-t + j-” = “-j-”

nik badaukat Jaungoikoa

“nipadauke jangoikoa”.

“-t + k-” = “-k-”

bat karran doa

“bakarrandoa”.

“-t + l-” = “-l-”

nik badaukat laguna

“nipaukolagune”.

“-t + m-” = “-m-”

emon dot mosua

“emondomosue”.

“-t + n-” = “-n-”

ekarri dot narra

“ekarrionarra”.

“-t + p-” = “-p-”

bat parean dago

“baparean dao”.

“-t + s-” = “-s-”

jan dot sagarra

“yandosagarra”.

“-t + tx-” = “-tx-”

nik badaukat txakurra

“nipaukotxakurre”.

“-t + x-” = “-x-”

nik badaukat xaxarea

“nipaukoxaxarea”.

“-t + y-” = “-tx-”

bat jan dau
“batxandau”.

“-t + z-” = “-z-” (“s” ahozkatzen da)

entzun dot zurea
“entzundosurea”

Ondorioak:

a) “-t” fonemak “b-; g-; y-” jotean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: “-p-; -k-; -tx-” hain zuzen. Fonema berrion izateari buruz, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gorturik.

b) “-t + d-” kasuan, biak ditugu Ahoskune berekoak eta elkar-jotean gorra nagusitzen da.

d) “-t + y-” kasuan, gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, “-t” galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.

Baliteke “-t” hori galdu ez egitea intensitatearen arabera, baina orduan leherkari gorraren eraginezko eten bat sortuko litzateke eta datorren fonema hitz hasieran balego bezala hartu behar da. Dena den, herria beti doa errezeroa eta galtzea da errezeroa.

1.3. “-k + b-” = “-p-”

nik badakit
“nipakit”.

“-k + d-” = “-t-”

geuk dakigu
“gautakiu”.

“-k + f-” = “-f-”

hark falta dau
“afaltadau”.

“-k + g-” = “-k-”

hark garoaz
“akaroas”.

“-k + j-” = “-j-”

hark jentilak
“ajentilek”.

“-k + l-” = “-l-”

neuk lagunduko deutsat
“naulagundukotzet”.

“-k + m-” = “-m-”

hik musean ez dakik
“imusean estakik”.

“-k + n-” = “-n-”

pozik naukazu
“posinaukosu”.

“-k + ñ-” = “-ñ-”

pozik ñabiltzu
“posiñabitzu”.

“-k + p-” = “-p-”

nik polito jan dot
“nipolito yandot”.

“-k + s-” = “-s-”

barruzkiak samur dagoz
“barruskiesamurdaos”.

“-k + t-” = “-t-”

hark taukia darabil
“ataukie darabil”.

“-k + tx-” = “-tx-”

hark txakurra daroa
“atxakurre daro”.

“-k + x-” = “-x-”

hark xaxarea dauka
“axaxarea dauko”.

“-k + y-” = “-tx-”

berak jan dau
“beratxandau”.

“-k + z-” = “-z-” (“s” ahozkatzen da)

pozik zatoz
“posisatos”.

Ondorioak:

a) “-k” fonemak “b-; d-; y-” jotean, fonema berri bat sortzen da bakoi-tzarekin: “-p-; -t-; -tx-” hain zuzen. Fonema berri izatea dela eta, Ahosku-nea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gortutakoa.

b) “-k + g-” kasuan, biak dira Ahoskune berekoak eta elkarjotean gorra nagusitzen da.

d) “-k + y-” kasuan gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, “-t”rekin gertatu den bezalaxe, “-k” galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.

“-k” galdu ez egite bat balitz, “-t” ren arrazoi berberagatik litzateke.

1.4. “-k + ø

a) “-k” plurala zein ergatiboa, azken posizioan agertzen denean bokale berri bat sortzen da, gehienetan “-k” horren aurrekoa lakoa eta era horretara ez da galtzen “-k” hori:

“nik i...”

“onek e...”

“guk u...”

“gixonok o...”.

b) Deklinabideko ablatibo kasuan azkeneko “-k” askotan entzun ere ez da egiten:

‘Bilboti nator’

“soas emeti”

“etorri munati”.

Bokale bat sortuz gero, “-k” hori entzuten da:

“basotik i... sasio dao ugeri”.

2. Frikari-xistukariak

2.1. “-s” fonema ez da oso ugaria azken posizioetan eta gainera ez du ahozkatze arazorik beste kontsonanteekin elkar-jotzean.

2.2. “-z” (“S” bezala ahozkatzen da).

(E)Z “-z + b-” = “-zp-”

ez badator

“espadator”.

“-z + d-” = “-zt-”

ez dator

“estator”.

“-z + g-” = “-zk-”

ez gara
“eskara”.

“-z + l-” = “-l-”

ez leuskio
“elauskio”.

“-z + ll-” = “-ll-”

ez liatak
“ellatak”.

“-z + n-” = “-n-”

ez noa
“enoa”.

“-z + ñ-” = “-ñ-”

ez nioak
“eñoak”.

“-z + s-” = “-s-”

ez sagurik
“esagurik”.

“-z + x-” = “-x-”

ez xaxararik
“exaxararik”.

“-z + y-” = “-tx-”

ez jatok
“etxatok”.

“-z + z-” = “-z-/-tz-”

ez zan etorri
“esan etorri” (gehientsuenok)
“etzan etorri” (adinekoek).

Ondorioak:

Herriko adibideetan ikusi ahal izan dugunez, baditugu fenomeno aipagarri batzuk (E)Z proklitikoaren “-Z” dela eta.

a) Alde batetik goian aipatu dugun “-Z” horrek gortu egin ditu hurrengo “b-; d-; g-; y-” fonemak “-p-; -t-; -k-; -tx-” bihurtuz.

b) “-z + z-” kasuan, gaur egun adinekoren bat ez bada Goi-Hobietakoa egiten dugu Bizkar-Hobietakoa egin beharrean.

d) Beste kasuetan (leherkari gorak ez badira) “-z” galdu egiten da hurrengo datorren fonema nagusituz.

2.3. Orain arte esandakoa egia bada ere, badira gorketarik gertatzen ez diren “Grupo Fonikoak”.

a) ez behar = “esbear” [eʒbéaɾ].

b) ez gauza = “esgausa” [eʒgáʊsa].

d) ez jakin = “esyakin” [ezyákin].

e) ez lan = “eslan” [eʒlán].

f) etab. etab.

Gortu ez egitearen arrazoia zabala litzateke baina hipotesi gisa baino ez bada ere, gorketa gehientsuenak aditz jokatuan gertatu dira eta beste kasuok ez dira erabilera berdinekoak. Eta gainera nere ustez kronologiarekin loturik dago gortzea edo ez gortzea geroago ere ikusiko dugun bezala.

2.4. (—)Z instrumentala hartzen badugu ez dugu gorketarik aurkitzen normalean.

a) berez badabil = “beresbadabil” [bereʒbaðabil].

b) berez dator = “beresdator” [bereʒðátoɾ].

d) berez goaz = “beresgoas” [bereʒgóas].

e) oinez jatok = “oñesyatok” [oɲezyátok].

f) buruz dakit = “burusdakit” [buruʒðákit].

g) Etab. eta...

Dena dela eta kronologia kontutan harturik kasu batzuetan agertzen da gorketa esate baterako “-Z GERO” kasuan:

—joanez gero = “yoaneskero”.

—etorriz gero = “etorri eskero”.

—etab...

Kasu berean eta esakuna eginetan ere agertzen da gorketa hori:

—“arreskero”.

—“oneskero”.

—etab...

3. Afrikariak

3.1. “-tx + b-” = “-sb-”.

apatx barrua
“apasbarrue”.

“-tx + d-” = “-sd-”

apatx dandarra
“apasdandarras”.

“-tx + f-” = “-sf-”

apatx formea
“apasformea”.

“-tx + g-” = “-sg-”

apatx ganea
“apasganea”.

“tx + ...etab. etab...” = “-s + beste kontsonentea.

Ikusten denez, “-tx” afrikaria “-s” frikarira pasatzen da. Hurrengo kontsonantea ozena baldin bada ozendu egiten da, bestela gor jarraitzen du.

3.2. “-tz”.

“-tz + b-” = “-sb-”

gatz bakoa
“gasbakoa”.

“-tz + d-” = “-sd-”

gatz dirua
“gasdirue”.

“-tz + f-” = “-sf-”

gatz faltea
“gasfaltea”.

“-tz + g-” = “-sg-”

gatz garaua
“gasgaraue”.

“-tz + ...etab. etab...” = “-s + hurrengo konts.”.

Kasu honetan ere “-tz” afrikaria “-s” frikarira pasatzen da. Ozen edo gorra izatea jarraian doa kontsonanteak dakarkio.

4. Sudurkariak

“-n + b-” = “-nb-”

zain bako

“sanbako” [sambáko].

“-n + z-” = “-øz-” *

egiten zan

“itesan”.

“-n + m-” = “-m-”

ahal dan moduan

“aldamoduen”.

“-n + n-” = “-n-”

ahal dan naurrian

“aldanaurrien”.

“-nb-” elkartzean eta biak ozenak izan arren, esakuna zahar eginetan bigarrena gortu egiten da:

Zain bedar = “sanpedar” [sampedár].

Agin bide = “aginpide” [agimpíde].

Ezkon barri = “eskonparri” [éskompáfi].

“-n + m-” = “-m-” egitea bidezko da eta “-n + n-” asimilatzea ere bai.

5. Albokariak

“-l + l-” = “-l-”.

mutil luzea

“mutilusea”.

Asimilazio hau kenduz gero ez dago beste problema handirik esakuna egiten bat edo beste ez bada; adibidez:

Ibilbide = “ibilpide”.

6. Dardarkariak

“-r”ren jarraian kontsonante ozen bat baldin badago errez galtzen da dardarkaria:

Behar da = “beada”.

Ur bidea = “ubidea”.

Esakuna eginetan gortzeraino ere heltzen da dardarkariaren hurrengo konsonante ozena:

Burdi bide = “burpide”.

7. Kontsonante bikoitzak

7.1. “-st”.

“-st + b-” = “-sb-”

bost bider
“bosbider”.

“-st + d-” = “-sd-”

bost doaz
“bosdoas”.

“-st + f-” = “-sf-”

bost firu
“bosfiru”.

“-st + g-” = “-sg-”

bost goas
“bosgoas”

“-st + etab. etab...” = “-s + beste kontsonantea.

Kasu honetan leherkari gorra galtzen da eta ozen-gor arazoa hurrengo fonemak eragiten du.

Bizkaieraz, ZER-NORI-NORK aditz-erroa “EUTSI”tik hartzen da eta berez “-ts”z bukatu behar luke baina metatesi bidez “-ST” egiten du.

Dena den, aditz horren lehen pertsonan “-ST” azken posizioa bada, ahozkatu egiten da baina sarritan hobeto ahozkatzeko edo, bokale bat agertzen da azken “-T” horri deusala:

ekarri deust
“ekarrioste”.

7.2. “-RT”.

“-rt + b-” = “-rp-”

bart bai
“barpai”.

“-rt + d-” = “-rt-”

bart danok
“bartanok”.

“-rt + g-” = -rk-”

bart goizetik
“barkoxetik”.

“-rt + ...etab. etab...” = ...

Kasu honetan, “-R” gorde egiten da eta “-T-” fonemak beste kontsonante ezberdinekin jotean aurrean aipatu dudan 1.2. apartaduaren antzera jokatzeko du.

7.3. “-RK”.

“-rk + b-” = “-p-”

inork badaki
“iñopádaki”.

“-rk + d-” = -t-”

nork dauka?
“notauko”?

“-rk + g-” = “-k-”

nork garoaz?
“nokaroas”?

“-rk + ...etab. atab...

Bikote honetan “-R-” galtzen da eta “-K-” fonema beste fonema ezberdinekin elkar jotean aurrerago aipatu dugun 1.3. apartaduko antzera jokatzeko du.

7.4. -LZ > Z.

dabilz > “dabis”
zabilzee > “sabisie”.

...etab. ...etab. ...etab...

8. Idazkera ≠ Ahozkerak

Herrian egin ditudan grabaketetan adinekoak izan dira nire berri-ematzaileak eta argi dago “belarria” dena euren ahozkeraren oinarri.

Baina adinekoak ez direnak eta batez ere gazteak alfabetatzen hasi diren neurrian ahozkerak aldatzen hasi dira idazten den fonema bakoitzari bere hotsa emanez.

Idazten den bezala ahozkatzeak bere arriskuak ditu batez ere Fonetika arloan. Har dezagun adibidez:

Lit. ez dakit
Fonol. “estakit”.
Fonet. [eštákít].

Literaturarako onartu ditugun fonemak idazten diren bezala ahozkatzen badiugu, Fonetika mailan asko aldatzen direla ikus genezake:

Lit. ez dakit.

Fonet. [eʒðakit].

Ikusten dugunez, ahozkera jatorrean edo herrikoian Literatura mailako “-z + d-” Goi-Hobietako Frikari Gorra eta Hortzetako Leherkari Gorra bihurtu dira.

Baina idazten den bezala ahozkatuz gero, “-z” Goi-Hobietako Frikari Ozena da eta “d-” Hortzetako Frikari Ozena.

Beste adibide asko har genitzake jasotako guztiaren arabera, baina ez nuke nahi lan hau amaitu 7.3. apartatuko Ergatiboaren kasua aipatu gabe.

Beste fonema batzu ere bai, baina Ergatiboaren ahozkera ez da bat ere erreza “Grupo Foniko”aren barruan ez bada.

Euskera, atzizkibidezko hizkuntza bat dugunez gero, sarri gertatzen dira ergatibo eta guztizko fonema multzoak.

Herriak ez daki ez gramatikarik ez fonetikarik, baina logika onez bideratu du ergatiboaren ahozkera Ergatiboa bera galdu gabe.

Gaur oster, batez ere gaztetxuak edo ikasten ari direnak herriak galtzen duen fonema gordetzen eta herriak gordetzen duena galtzen hasi dira, baina hori ez da legezko. Konpara ditzagun adibideok:

Herriak: Nork daki hori? = “notaki ori?”.

Gaurkoak! : Nork daki hori? = “nor daki ori?”.

Hiztunon ohitura beti errezero joatea da eta gaurko batzuk errezero jo dute baina oker.

Beste alde batetik, eta hau azento edo entonazioarekin loturik doa, fonema guztiak ahozkatzen hasten bagara, herri-entonazioa aldatzen dugu eta hemen ere herri-bidetik urrundu egiten gara.

Beste hizkuntza batzuetan oso normala da idazkera eta ahozkera bereiztea, frantzea eta ingelesa adibidez.

Euskeraren kasuan, itxaso zabal eta sakon bat dugu ahozkeraren mundu hau, baina nire ustez, ahal den neurrian errespetatu egin beharko litzateke jatorrizko ahozkera, berezko laburketa bidez egin diren Grupo Foniko asko eta asko gogorregi egingo liratekeelako literatura mailan ahozkatzean.

Hizkuntzaren prozesua Psiko-Fisiologikoa da eta bokalekordetan hasi eta ezpainetarainoko guztiak zerikusi handia du gure hizkuntza mintzatuan. Horregatik ba, prozesu honen arabera, herriak bide zati bat behintzat eginik dauka eta bide horretan atzerakada fonetiko bat egiteak, ez ete du mintzaireren bidea okertuko?

Hizkuntza komunikatzeko da eta gehienbat ahoz komunikatzen gara. Horregatik ba, euskera biziak iraungo badu, ahozkoa eta literaturazkoa, biak dira beharrezko bata bestearen osagarri.

ATLASGINTZA

EUSKAL HERRIKO ATLAS LINGUISTIKOAREN HISTORIARAKO

Bilbo, 1986-I-31

Jose M.^a Etxebarria

Sarrera

Atlas linguistikoa aipatzen denean mintzaira apaitzen da gehien baten. Ahozko hizkuntzari buruzko lanak, Atlas linguistikoak tartean direla honela sailkatu daitezke:

1. Bibliografiak.
2. Atlas linguistikoak edo etnolinguistikoak izeneko eta izaneko lanak.
3. Dialektoen sailkapenerako lanak.
4. Lurralde edo eskualde bateko hiztegiak.
5. Herri edo herrialde txiki bateko monografiak.
6. Gaika egindako hiztegiak lurralde baten. Baita hiztegi espezializatuak.
7. Sintaxia.
8. Dialekto baten morfologia.
9. Fonetika.
10. Esparru dialektal baten barruan dauden distantziak.

Hauek denak, soziolinguistika azterketetan sartu gabe.

Atlas linguistikoa dialekto baten azterketa orokor xamarra izaten da aipatu ditudan 10 atal horietatik zerbait barruan daramalako. Iturria mintzatzaileak dira gainera. Salbuespenen bat egon daiteke, baina benetan bakarra atlasen oihan aberatsaren barruan.

Euskerari eta Euskal atlas linguistikoari begiratzen badiegu, hona hemen historia horren pauso batzuk.

I. 1912-1936

- 1) Edozein erakunderen edo persona partikularrén proposamena atlaserako.
- 2) Euskaltzaindiaren beraren proposamenak, atlaserako.

1. Erakunde eta persona partikularren proposamenak

Lehenengo aipamena Euskaltzaindia sortu baino lehenago egiten da. 1912-VI-13an "Cercle d'Etudes Euskariennes" izeneko erakundeak honelako agiri bat egiten du:

"Séance du 13 juin 1912.

Etaient présents Mrs. Broussain, de Urquijo, d'Arcangues, Landerretche, León et Gavel...

Le cercle émet le voeu qu'un atlas linguistique du pays basque soit entrepris" (1).

Baten batzuk konturatu ziran atlas linguistikoaren garrantziaz lehenengoa agertu bezain laister. ALF argitaratu zuten GILLIERON eta EDMONT jaunek 1902-1910era. Euskal Atlas hori lapurteraren eremuan egiteko ziren. Hona hemen horren berri Broussainen eskutitz baten:

"Je ne me dissimule pas que l'Atlas Linguistique du Pays Basque sera un travail formidable. A notre dernière réunion (13 juin 1912) nous avons décidé de nous tenir, pour le moment, à un seul dialecte, le labourdin."

"Urquijo va écrire à Schuchardt, pour lui demander quelques phrases-types, qui serviront à résoudre les principales difficultés dialectales, sous-dialectales, subsous-dialectales, etc." (Fds L.: Lettre de P. BROUSSAIN à G. Lacombe, Juillet (?) (1912) (2).

Atlasaren eremua lapurtera da. Baina nola jasoko zituzten datoak? Hona hemen Broussainek berak jartzen duen adibide bat. Eta honen antzekoak eskatu-ko dizkio Urquijok Schuchardt-i.

"La même lettre contient une petite phrase-type que le président du Cercle a lui-même composée en vue de la préparation d'un atlas linguistique. Ses collègues l'ont adoptée, parce qu'elle réunit des noms qui présentent de nombreuses variantes dans les dialectes orientaux, ainsi que deux séries de flexions verbales, transitif et intransitif. La voici:"

"Votre petit domestique m'est arrivé à 5h de l'après-midi, un panier de poires sur la tête et un autre à la main. Il était un peu fatigué. Je lui ai donné vingt sous".

"Petit", variantes: tsiki, ttiki, ttipi, tsipi.

"domestique", var.: mutil, mitil, sehi, miskandi.

"m'est arrivé", var.: etorri zaut, etorri zait, jin zait, jin zautazu, jin zaitazü, jin zaut.

"à 5 heures", var.: bortz orenetan, bost orenetan.

"après-midi", var.: arratsalde, aratsalde, aatsalde, arrastiri.

(1) RIEV, VIII, 1914-1917, 161.

(2) P. CHARRITTON, *Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques*, 287.

“panier”, var.: otarre, zare.

“poires”, var.: pera, pea, madari, udare.

“sur la tête”, var.: buruan, buruian, burüan, būrian.

“un autre”, var.: bertze bat, beze bat, beste bat.

“à la main”, var.: eskuan, eskuian, esküan, eskian.

“un peu”, var.: piska bat, pitta bat, apur bat, posi bat, amiño bat, amiñi bat.

“il était”, var.: zen, zuzun, züzün.

“fatigué”, var.: unhatua, akituia, akitüa, akitia, nekatua, enheik.

“je les lui ai donnés”, va.: eman diozkat, diotzat, diozkit, daizkot, daizkozut, deitzot.

“vingt”, var.: hogoi, hogei (3).

Aipamena luzea izan da baina egokia, nolako atlasa egin nahi zuten ezagutzeko. Eta garai hartarako ez dago batere gaizki.

1918. Bigarren aipamena ere oraindino Euskaltzaindia sortu aurretik egiten da. Julio de Urquijo jauna da egilea. Primer Congreso de Estudios vascos izan zenekoan, honela idatzi zuen: “La organización de nuestros estudios en la forma que he indicado, contribuiría, a mi juicio, al progreso de la euskarología; pero si las Diputaciones vascas y el país en general desean que esta ciencia se ponga de una vez a la altura de otras ramas, hoy más adelantadas, de la lingüística, debería decidir, lo antes posible, la formación del Atlas Lingüístico del País Vasco. El señor Lacombe y yo comenzamos esta labor, en modesta escala, puesto que sólo comprendía el territorio vasco-francés; pero la guerra vino a interrumpir nuestros trabajos.

El *Atlas Lingüístico* no tiene nada que ver, como a primera vista pudiera creerse, con la *Carte Linguistique* en la que el Príncipe Bonaparte mostró la repartición o distribución de los dialectos y variedades del vascuence. Es un trabajo de muchísima más trascendencia, en el que se consagra un mapa del atlas a cada uno de los vocablos o a cada uno de los hechos lingüísticos que se trata de estudiar, de modo que el lingüista pueda darse cuenta, de un solo golpe de vista, de todas las variantes y matices que, respecto de un punto determinado, presenta el habla de todo el territorio *euskaldun*... Inútil parece insistir en la urgente necesidad de formar el *Atlas Lingüístico del País Vasco*” (4).

2. Euskaltzaindiaren babespean

Euskaltzaindiaren inguruan ahozko euskeraren bilketak 1921ean hasten dira. Azkuek berak bultzatuta sumatu daitekeenetik. Berak bai hiztegian eta bai *Cancionero* lanean, eta baita bere *Morfología Vasca* liburuan metodo hori erabili zuelako. Eta bere metodoa zen ahozko tradizioa eta idazleen tradizioa kontuan hartzea.

(3) P. CHARRITTON, bertan, 250, orril. eta 285.enean, 110. oharra.

(4) *Primer Congreso de Estudios Vascos*, 425-426.

a) Azkuek bada 1921ean Erizkizundi Irukoitza banatzen du hainbat euskaltzain oso eta urgazleren artean (5).

b) Bere erabaki interesgarri bat ere hartzen du Euskaltzaindiak. Norbait dialektologia metodoak ikastera atzerrira bialtzea. Eta ikasleen aukera ontzat emanda, irakaslearena oso egokia zela esan daiteke: J. Judekin ikastera bialtzea erabaki zuten, lehenengo Odón Apraiz, eta gero A. Polikarpo Iraizoz (6).

d) Lan monografiko batzuk ere egiten dituzte Euskaltzaindiko urgazleek. Adibidez G. Bähr-ek eta A. Damaso Intzak egiten dituztenak (7).

1930erarte Atlasa ez da aipatzen, baina euskalkien arloan era desberdinetako lanak aurrera doaz. Gero bide hori utzi egiten da. Ez dakigu zergatik. Euskaltzaindiaren historia on bat behar litzateke hori jakiteko.

Gero gerra dator eta gero gerokoak.

II. 1940-1985

1. Erakunde eta pertsona partikularren proposamenak

1951. Gerra ostean urte honetan berriz agertzen da Atlas Linguistikoa. Mitxelena idatzi zuen zatia irakurriko dut:

“Los días 17 y 18 de diciembre se han celebrado en Madrid, en el Consejo Superior de Investigaciones Científicas, unas reuniones preparatorias para la composición de un Atlas Lingüístico del País Vasco, reuniones que fueron presididas por D. Rafael de Balbín, secretario del Patronato Menéndez Pelayo. Estos trabajos están encuadrados en el marco general del Atlas Lingüístico de la Península Ibérica (ALPI).

En estas reuniones, después de distribuir entre los asistentes la labor de preparación de cuestionario y estudio de los diversos problemas técnicos que entraña el proyecto, se acordó la celebración de nuevas reuniones para el próximo mes de abril, en las que se espera dejar ultimados esos estudios previos. El próximo verano, tras un cursillo que se celebrará en San Sebastián para preparar los equipos de trabajo y unificar sus criterios, se procederá sin más retraso a la realización de labor de campo en el conjunto del país.

Es innecesario insistir acerca de la importancia de este proyecto que, Dios mediante, será una realidad dentro de no mucho tiempo para los estudios relacionados con la lengua vasca y la lingüística en general. Basta decir que desde hace muchísimos años constituye quizá el primer “desideratum” para cuantos se

(5) *Euskera*, IV, 1922, zbkia, 19, 6. Ikus *Iker 3 Erizkizundi irukoitza* A. M.^a Echaidek paratua, Euskaltzaindia, 1984.

(6) *Euskera*, I, 1920, 80 eta IV, 1922, 9; IV, 1922, 12-13, 24, 34, 39. A. Polikarpori buruz, *Euskera*, IV, 1922, 37.

(7) *Euskera*, III, 1922, 2, 65-92 eta 1922, III, 3-42. Bahr-en lana, *Euskera*, 1925, 2-3, 73-114.

interesan por estos problemas. Los Amigos del País han visto con la máxima satisfacción, como es natural, esta feliz iniciativa del Consejo Superior de Investigaciones Científicas y han ofrecido su ayuda total para llevar a buen término esta empresa que llenará una necesidad que venían sintiendo dolorosamente” (8).

Baina badira beste dato batzu ere. M. Agud jaunaren ahotik jaso nituen 1986-I-13an egin genuen elkarrizketa labur baten. Egitasmo horretan parte hartu zutenak hauek izan omen ziran: M. Agud, M. Alvar, Rafael de Balbín, J. J. Beloqui, Juan Gorostiaga, Pedro de Yrizar, Joaquín Mendizábal edo Peñaflorida, J. B. Merino Urrutia, L. Mitxelena, M. Sanchís Guarner, A. Tovar eta F. Yndurain.

Beste datorik ez dugu orain arte, baina eskatu zaie bizi direnei berri gehiago eginkizun honi buruz.

Agud jaunak pasadizo bat ere kontatu zuen. Bera eta Mitxelena jauna joan omen ziren J. M. Albareda-rengana. Jaun hau CSIC-ko zuzendaria zen. Laguntza eskatu zien. Eta hona bere erantzuna: “Cuando hay un pájaro que cante, le damos alpiste”.

Agud-ek ihardetsi zion: “Pues aquí hay unos pájaros que llevan mucho tiempo cantando”. Baina Albaredak ez zuen ezer esan.

Egitasmoaren babeslea ez zen Euskaltzaindia bera, baina baziren Euskaltzaindiko bi eta beste batzu berarekin hartuemanetan zeudenak.

Pertsona partikularrak berriro ere agertzen dira kezkatuta eginkizun honetaz. Eta oraingoan hizkuntzalari bat da eta atla sei buruz zerbait ezagutzen duena, Frantziako eskualdeetako atlas guztiak beragatik hasi zirelako. Albert Dauzat jaunaz ari naiz.

1953an, “L’Europe Linguistique” bere liburuan euskararen atlas aipatzen du. Bere hitzekin esanda “en chantier” dagoela esaten du. Baina hurrengo urtean, 1954an ilunago azaltzen ditu gauzak. Geldituta dagoela adierazten du (9).

1957. Euskaltzaindiaren inguruan dabilen A. Tovar-en eskutitz bat dago atlasari buruz. Baina bere asmoa “Erizkizundi Irukoitzeko” erantzunak beste era batera argitaratzea zen, atlas bat zuzen zuzenean baino. Hona hemen bere eskutitza:

(8) BRSVAP, VII, 1951, 591.

(9) A. DAUZAT, *L’Europe linguistique*, 35. Eta 1954an *Revue Internationale d’Onomastique*, VI, 1954, abenduá, 252. Honela dio aldizkari honek: “M. Dauzat qui n’a pu assister a ces réunions, avait exprimé le desir de voir mettre en chantier l’Atlas linguistique du Pays Basque; l’étude de ce problème a été différée, l’équipement nécessaire à ce travail n’étant pas suffisamment avancé”.

Salamanca, 22 de noviembre de 1957
 Sr. Don J. Bilbao
 Guecho (Vizcaya)

Mi querido amigo:

He recibido su carta del 17 con la sorpresa del cuaderno con materiales para un atlas vasco. Yo creo que sí tiene interés su publicación y yendo a un ritmo no muy rápido, uno o a lo sumo dos cuadernos como el que Vd. me envía al año, podríamos comprometernos sin ayuda ninguna a que los editara la Cátedra Larramendi. Naturalmente que si luego los Amigos del País u otra Entidad nos adquiriera algunos ejemplares, ello simplificaría mucho el aspecto económico de la empresa.

Le devuelvo el cuaderno porque sería preciso que pasara Vd. a máquina con claridad, los cuadros, pues así en la imprenta no podrían hacerlo.

Quedo a la espera de su bibliografía. Creo habríamos de contar, de todas maneras, con Michelena, sobre la publicación del atlas y más utilizando materiales de la Academia Vasca. Espero, pues, sus noticias sobre el asunto.

Como ya le dije no marcharé a América hasta febrero y por consiguiente tenemos tiempo de dejar por lo menos el primer cuaderno en la imprenta.

Atentamente le saluda y se repite suyo affmo.

Firmado: Antonio Tovar

Jon Bilbaok bidaltzen dion aurrenengo orrian jartzen du:

“Materiales para el Atlas lingüístico vasco. Cuestionario llenado en 1922. Erizkizundi Irukoitza (Triple cuestionario).Clave. Copia de las primeras nueve preguntas en pág. 49. No se conservan los cuestionarios de los pueblos que se hallan entre corchetes. La información de estos pueblos se ha tomado de los resúmenes hechos por Nicolás Ormaechea y publicados en la revista *Euskera* de Bilbao.

Jon Bilbao
 Guecho, noviembre de 1957

Hemen ere galdekizuna eta metodoa argi agertzen dira. Bilduta dagoena argitaratu zatika. Baina ez da ezertarako aipatzen galdekizun apropos bat egin behar denik euskararen lurraldeetarako.

1960. eta 1961 J. Allières jaunak *Via Domitia* aldizkarian argitaratzen du *Petit Atlas Linguistique Sacaze* izeneko lana.

J. Allières jaunari buruz ohar batzu beharrezkoak dira. ALG-en lan handia egin zuen eta kaskoineraren aditzei buruzko 5. tomoa berak egin zuen. Bestalde xibereraz mintzatzen da eta begirunez hurbildu zaio euskarari. Azpimarratzekoa dela uste dut hau, badaudelako euskararik jakin gabe euskara mintzatuari buruz-

ko lanetan sartu izan direnak. Eta kartografia euskararentzat erabiltzen duen lehenengoetarikoa da, behintzat atlasen metodoa erabiliz.

Ipui biren itzulpenak Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoako herrietan jasota-koak aztertzen ditu, 1887 Sacaze jaunak bildu zituenak. 83 mapa egin zituen beste hainbeste hitzekin, isoglosak azalduz.

Honela esaten du sarreran: "Nous persistons en effet à penser que notre travail peut être utile. Bien entendu, et nous n'insisterons jamais assez sur ce point, les documents mis à profit ne présentent aucunement, étant donnée la façon dont ils ont été établis et rassemblés, les caractères d'authenticité et de sincérité qu'exige la dialectologie moderne; il n'en reste pas moins qu'une certaine image du domaine dialectal basque français se dégage de ces cartes, et c'est là l'essentiel" (10).

1960. Urte horretan bertan Lovainan eta Bruselassen I. Dialektologia orokorren Kongresoa ospatu zen eta aktetan Mitxelena jaunaren lan bat agertzen da: *La actividad lingüística en el campo vasco*.

Euskal dialektologiaz mintzatu ondoren, honela ari da atlasari buruz:

"Un requisito indispensable y cada vez más urgente para el progreso de nuestros estudios sería un Atlas lingüístico vasco. Sin embargo, esta empresa recomendada desde antiguo y preconizada en distintos congresos no acaba de ponerse en vías de realización. Presenta sin duda dificultades técnicas y económicas, pero éstas están lejos de ser insuperables. Sería muy de desear que de alguna parte saliera por fin el impulso eficaz que lo saque de la actual fase de mero proyecto (11).

Lafon-ek ere txosten bat aurkeztu zuen konparaketa metodoa nola erabili daitekeen euskararen alorrean aztertuz (12).

1964. Berriz Mitxelenaren lan bat dago iltze berdina jotzen. Lana *El Atlas lingüístico vasco* da, eta *Presente y futuro de la lengua española* liburuan agertzen da. 434. orrialdetik 442 orrialderarte Atlasaz ari da. 1951ko egitasmoa zertan gelditu zen aipatzen du eta beste proiektu berri bat hasita dagoena aipatzen du:

"El proyecto del Atlas lingüístico vasco, una vez que se perdió la esperanza de que su elaboración pudiera tener una conexión directa con los trabajos del ALPI, estuvo durante un decenio en una fase de hibernación, sólo interrumpida por expresiones ocasionales de buenos deseos y por comentarios sobre su urgencia.

(10) *Via Domitia*, VII, 1960 eta VIII, 1961. Azken honetan 82. orrialdean dago aipatzen hau. Ikusi *FLV*, IX, 1977, 353 eta hurrengoak.

(11) *Communications et rapports du Premier Congrès International de Dialectologie Général*, 231.

(12) Hor bertan Lafon-ek ere txosten bat aurkeztu zuen, 177-181 orrialdeetan. Konparaketa metodoa nola erabili daitekeen euskal dialektologian eta kaukasoko hizkuntzetan aztertzen du.

Su reactivación reciente se ha debido sobre todo al entusiasmo y al esfuerzo del profesor Arnald Steiger (q.e.p.d.), cuya reciente e inesperada pérdida tantos lamentamos. Una vez más, siguiendo el glorioso ejemplo de Schuchardt, un romanista y más especialmente un hispanista en este caso, no ha podido cerrar los oídos a la premura que exige el estudio cabal de un área lingüística cuyo interés guarda poca relación con su tamaño, aunque la muerte haya venido a truncar lo que debió ser la coronación de una obra copiosa, variada y fecunda.

Lo realizado bajo su dirección, durante el año pasado sobre todo, se ha enderezado a la elaboración de un cuestionario que debía comprender, en principio, unas 2.000 preguntas. En segundo lugar, se trató de determinar, tomando pie naturalmente en las propuestas de Yrizar y los comentarios que despertaron los puntos de encuesta en territorio español.

Quedaba la duda de si en algunos puntos extremos había o no todavía informadores que poseyeran un dominio suficiente de la lengua para ser consultados con provecho. Sobre una parte de estas localidades hay ahora mejor información, gracias a un viaje realizado por la parte meridional de la zona de habla vizcaina por don Alfonso Irigoyen, de la Academia de la Lengua Vasca, y también más tarde para Navarra, como consecuencia de una encuesta realizada por correspondencia por don J. Morales de Rada, cuyos resultados se publicarán en breve”.

Gero metodologiaz ari da luze eta zabal hainbat erizpide emanaz, orain ere balio dutenak eta kontuan hartu ditugunak.

Eta gai horiek aztertu ondoren honela bukatzen du:

“Resumiendo lo dicho, podemos llegar a la conclusión nada optimista, pero razonable, de que el futuro Atlas lingüístico vasco no está aún maduro, ni siquiera como proyecto. En esta misma fase preliminar, quedan todavía demasiadas preguntas pendientes de respuesta, demasiados paréntesis abiertos, demasiados huecos que no se sabe cómo llenar. Todo ello exige una atención sostenida, un estudio minucioso que vaya hasta las mismas raíces de los problemas. Cumplida esta condición, no sería necesario que esta fase preliminar fuera demasiado larga.

Dado el interés que existe en distintas entidades, empezando por el Consejo Superior de Investigaciones Científicas español, por esa empresa, y dada también la clara comprensión de su urgencia, no es la base económica la que había de faltar, puesto que, en caso de necesidad, podría incluso recurrirse, como buenas esperanzas, a la ayuda de particulares. En rigor, además, lo que tiene verdadera prisa es la encuesta misma, y no la publicación de sus resultados. Esta puede esperar más, y, de cualquier modo, una vez recogidos los materiales, no faltarían medios para darlos a la publicidad en forma más o menos lujosa o modesta.

Los verdaderos obstáculos que ha encontrado hasta ahora la empresa son, repitámoslo una vez más, de orden técnico y no de orden económico. Necesitamos tener una idea cumplida de lo que puede ser y de lo que no puede ser ese Atlas antes de lanzarnos al trabajo, y nuestras nociones a este respecto siguen siendo bastante nebulosas en muchos puntos. Por otra parte, debemos saber ya

en principio quién o quiénes podrían encargarse de hacer la encuesta sobre el terreno y cuáles son los requisitos de la preparación que deben adquirir" (13).

1965. Urte honetan atzerritar batek Iruñean berriz aipatzen du Atlas linguistikoaren arazoa. Hizkuntzalari hori J. Allières da, J. Séguyn-ren eskolakoa eta gainera berak ALG-n hainbeste lan egin duena.

Bere lanean, *Suggestions pour l'atlas*, atlaserako metodoak, tresneria, galdekizun desberdinen arazoak eta abar aipatzen ditu. Eta bukaeran erakunde batzue, aipatzen ditu proposamen hauek aurrera eramateko. Honela dio: "Tous ces documents seraient rassemblés et classés en attendant leur dépouillement et leur mise en oeuvre, dans les centres évoqués tout à l'heure. En l'occurrence, nous suggérons tout naturellement le choix de deux institutions parfaitement adéquates: l'Institut Julio de Urquijo de St-Sébastien pour l'Espagne, le Musée Basque de Bayonne pour la France. Leur proximité faciliterait les fréquentes confrontations et consultations mutuelles qui s'imposent si l'on veut assurer l'unité, l'homogénéité totales du travail collectif" (14).

Ongi zekien Allières jaunak bere esperientzitik atlas bat ezin daitekela egin astegioienetan eta magnetofoi bat hartu eta herririk herri ibilita. Urte honetan bertan, A. Etxaidek Naparroan bilketa bat hasi zuen.

Bilketa hori 1965-1966 urteetan egin zuen. "Durante el año 1965 se ha vuelto a plantear el problema de la elaboración del Atlas. Esta vez en el seno de una universidad enclavada en una provincia donde aún hay muchos vascos hablantes: Navarra. Al pensar en los planes de investigación de la Cátedra de Lengua y Cultura Vascas, inmediatamente la urgencia, antes citada, de contar con un Atlas Lingüístico del País Vasco, nos movió a plantearnos el problema de su realización. Y a finales del mismo año, bajo la dirección de E. Michelena, pudimos empezar unas encuestas preliminares en la provincia de Navarra, gracias a las facilidades que para ello obtuvimos de la Institución "Príncipe de Viana".

El objeto principal de estas encuestas preliminares consiste en obtener datos para la selección de las localidades que no se han de fijar para las encuestas definitivas. A lo largo del año 1966 se han llevado a cabo 72 encuestas en otras tantas localidades de Navarra; en algunas de ellas ya solamente quedan uno o dos vascos hablantes, como en Isaba, Oroz-Betelu, Ardaiz o Imbuluzqueta. Puede causar extrañeza el elevado número de encuestas realizadas en un área que no rebasa en mucho los 3.000 km², lo cual supone aproximadamente un 30 % de la extensión provincial. Creo conveniente aclarar que una de las originalidades geográficas del Norte de Navarra consiste en la compartimentación en pequeños valles, perfectamente delimitados desde el punto de vista geográfico-físico, lo cual da lugar a cierto aislamiento entre un valle y otro, aislamiento que se refleja

(13) *Presente y futuro de la lengua española*, I, 435. orrialdean eta 441-442. Hor bertan 436.enean aipamen hau egiten du: "Sería injusto dejar de mencionar aquí que en Francia existe, respecto a la necesidad y a la urgencia del ALV, un interés tan vivo como en España. Por otra parte, la opinión de René Lafon y de Jacques Allières, de la Universidad de Toulouse, para no citar más que dos nombres, habrá de ser muy tenida en cuenta, por su dominio de los aspectos teóricos y prácticos del problema, en todo estudio previo".

(14) Ikusi, *Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas*, 254.

particularmente en la diversificación lingüística. Por lo tanto, unas calas en las hablas de muchas localidades asegura un error mínimo en la elección de los lugares de las encuestas definitivas...

Se han buscado como informadores personas de no menos de 50 años, aunque la mayoría pasan de los 60 y algunos tienen más de 80. Indiferentemente hemos trabajado con hombres y con mujeres...

El cuestionario contiene alrededor de 300 preguntas. Algunas están dirigidas a cuestiones fonéticas: palatalización de consonantes..., alternancia o ausencia de algunas consonantes iniciales..., inflexión de la *a* por influencia de vocales cerradas de la sílaba anterior..., mantenimiento de *n* intervocálica en algunos étimos latinos..., mantenimiento o pérdida de algunas vocales interiores.

A las cuestiones morfológicas y sintácticas también se las dedica una serie de preguntas, que se han formulado en su mayoría no por el método indirecto, sino en castellano para ser traducidas al vasco...

En cuanto al vocabulario, se ha procurado por una parte encontrar testimonio de algunos vocablos ya casi en desuso... Por otra parte comprobar la distribución geográfica de formas distintas, que designan una misma realidad... Y por fin el mantenimiento de algunas distinciones de significado que no siempre se conservan...

Las encuestas han sido grabadas en su totalidad en cintas magnetofónicas, con un aparato UHER 4000 Report S, con micrófono especial M 512 de la misma marca, en una velocidad de 9,5 cm/sec. en cintas BASF de doble pista" (15).

Aipamen hau luzea izan da, baina berri asko eman digu. Eta txosten honi R. Lafon-ek erantsi zion iruzkina oso interesgarria izan zen. "Il y a longtemps, trop longtemps, que l'on parle de l'Atlas linguistique du Pays basque. Il faut se réjouir qu'une jeune chercheur, qui est en l'occurrence une Basquaise d'Espagne, ait présenté des projets et des résultats précis devant une section de géographie linguistique d'un grand congrès international des linguistes. Les bascologues français s'associeront à tout ce que sera fait du côté espagnol. Une collaboration étroite est nécessaire. Il appartient aux jeunes d'accomplir cette tâche" (16).

1974. J. M. Sánchez Carrión jaunak, Txepetx, bere ezizen ezagunarekin, lan bat argitaratzen du 1974ko FLV aldizkarian. Atlasen arazo metodologiko batzu aipatzen ditu eta batez ere lekukoei buruz. Tokian tokiko lekukoetatik kanpo, beste hauek ere proposatzen ditu:

"Los vascos de la diáspora, por utilizar uno de los circunloquios menos dolorosos. Núcleos vascos de París, de Buenos Aires, de Caracas..."

"Los núcleos de migraciones interiores (es decir, la diáspora económica), grupo que no es en absoluto homogéneo, pero cuya situación lingüística, cual-

(15) A. M. ECHAIDE, *Encuestas preliminares para el Atlas lingüístico vasco del País Vasco*, en *Actes du X^e Congrès International des Linguistes*, II, 102-105, passim.

(16) Hor bertan, 106.

quiera que ella sea, puede despejar muchas incógnitas sobre la persistencia de la lengua en medios lingüísticamente hostiles.

Los pastores vascos de Norteamérica, cuya fidelidad lingüística es conocida, pero cuya lengua real es aún un misterio por dilucidar. Uno supone que, ante la necesidad de entenderse entre sí aquellos que hablan dialectos muy diferentes, han debido llegar a cierta forma de "koiné"...

La diáspora interior. Los grupos de refugiados guipuzcoanos, vizcainos, en la Vasconia allende el Bidasoa, de una problemática sociolingüística interesantísima.

La migración intervasca.

En fin, los dialectos sociales, los dialectos de clase dentro de la amplia gama de euskaldunes.

Y las lenguas marginales (pidginizadas) de base vasca desarrolladas entre pescadores, tratantes, etc., en su contacto, repetido pero poco consistente, con gentes de lenguas muy diversas.

El segundo problema atañe tanto a los problemas de la investigación en sí como a la posición personal del investigador. La iniciativa privada vasca no se ha distinguido nunca precisamente por su apoyo a un tipo de empresa económicamente tan poco rentable como ésta. Nada hace suponer que su postura vaya a cambiar en lo sucesivo. Habría que preguntarse si, en lo esencial, nos importa acaso que cambie. Una financiación por la iniciativa privada supone, se quiera o no, una vinculación a la ideología y a los intereses de tal iniciativa. Esta vinculación va en contra no sólo de la libertad del investigador para comprender su objeto, sino que además produce la misma desfiguración del objeto. En nuestro caso particular la lengua, hablada por el pueblo, no puede desarrollarse más que identificándose con el pueblo. De otra parte, en la situación actual, una financiación del pueblo de la investigación lingüística (por más que vaya destinada, como proponemos, a su normalización lingüística) es no sólo una utopía sino, hasta cierto punto, una injusticia. Finalmente, los lazos de entidades protectoras como la Iglesia, como solución general, no son una alternativa en absoluto al proteccionismo interesado de la clase dirigente.

El único camino, que más que camino es una vereda, es la autofinanciación del investigador de su trabajo lingüístico. Es una salida que no tiene mucho de original, pues es la que hasta la fecha se ha venido practicando. Pero proponerla, tan cruda como es, tiene la ventaja de que no tentará con falsos El Dorados a los que de hacerlo sólo sentirían el peso del *d* sanimo y el vacío. La lingüística vasca del futuro (de este inmediato futuro) debe saber que sólo puede construirse sobre esta base, o no se construirá en absoluto. Pero si se construye no estará sometida al peligro de derribarse o corromperse ante las servidumbres de la clase económicamente dirigente".

Baina hauen denen aurretik printzipio bat bezela jarri du: "En el aspecto diacrónico y en el comparativo, el Atlas lingüístico sigue siendo uno de los instrumentos con los que el lingüista debe contar" (17).

(17) Ikusi, *FLV*, VI, 1974, 346-347.

1974. Pedro de Irizar jaunak 1975ko *Euskera*-n argitaratzen du nola dagoen berak 1951ko atlasgintzako asmoen ondoren prestatu zuen aditzen bilketa. Lehenengo *galdeketa* aipatzen du. Eta honi buruz argitaratu zituen lanak sartzen ditu. Gero *lankideak* datoz. “Galdeketa antolatu ondoren bearrezkoa zan, azterketaren onerako, lankide bikainak aukeratzea. *Orain arte* (7-XII-74), 6 euskaltzain osoak eta 18 euskaltzain laguntzaileak lagundu didate lan onetan, baino beste batzuek bere eskuetan dauzkate oraintxe galdeketa”. Gero “arloaren egoera” aipatzen du eta azkenik *arlo osoa: euskalki-itztia*. Eta gero galdekizunean erabiltzen dituen aditz forma guztiak (18).

1977. Urte honetan berriz datorkigu J. Allières beste lantxo batekin: *Petit atlas linguistique basque français “Bourciez”*. Bordeleko unibertsitateko bibliotekak zeuden “Seme galduren” parabolaren euskal itzulpenetatik 20 hitz aukeratu zituen eta mapetan jarri, baina atlasen kartografiarekin (19).

1980. Euskalarien nazioarteko jardunaldietan, J. Allières jaunak txosten bat aurkeztu zuen. *Dialektologia* bere izenburua.

Euskal atlasaren metodo eta helburuei buruz hitz egin ondoren honelako oharra egiten du: “Ce sont les faits de morphologie et de syntaxe qui, bien évidemment, se révèlent le moins propres à la cartographie. Néanmoins, la complexité formelle des premiers ne doit nullement en remettre le principe en question, car il est presque toujours possible d’analyser les formes complexes et cartographier les variations spatiales de chacun des constituants: nous l’avons fait avec un plein succès par le verbe gascon, dans le vol V de L’Atlas Linguistique de la Gascogne. Reste la syntaxe, pour laquelle on peut toujours arriver à cerner l’aire d’un phénomène: présence d’un tour ou d’une opposition ignorés ailleurs... Ce qui est alors ardu, c’est de mener l’enquête!”.

Gero euskal arloan egin diren lanak aipatu ondoren, atlas hori egingo denean nola argitaratu behar den adierazten du jakituri linguistikoaren arabera. “Donc, le devoir des promoteurs de l’Atlas Linguistique Basque, dont la fraction sud et la fraction nord devraient être élaborés en liaison étroite —en attendant que la publication réunisse les deux moitiés d’un pays arbitrairement divisé, et qu’il n’y ait qu’un seul fond de carte, de Mauléon à Bilbao et de Briscous à Pampelune—, serait de concevoir, à côté du questionnaire morphologique et d’un choix lexical permettant d’obtenir les données fondamentales de la phonétique dialectale, une technique, une méthode, un moyen de relever le vocabulaire le plus riche possible”.

Lan horiek beharrezkoak direla esan ondoren eta hortik atera daitezkeen beste frutu batzu aipatu eta gero, honelako oharra egiten du: “Les entreprendre plus tôt serait prématuré: c’est dire l’urgence de nos tâches!” (20).

1981. Berriz Allières jaunaren txosten batek Euskal atlas linguistikoa aipatzen du. Eta bera bizi den alderdian behintzat zerbait badabilela ere adierazten du.

(18) *Euskera*, XX, 1975, 407-446.

(19) *FLV*, IX, 1977, 353-354 eta hurren.

(20) *Euskalarien nazionarteko jardunaldiak*, *Iker* I, 276 eta 278.

Baina interesgarriena, galdek izunerako egiten dituen proposamenak dira. Azpimarratzekoa hau da: “Une enquête ethnographique, avec enregistrements au magnétophone ou au magnétoscope de récits techniques, et relevés de photographies ou de dessins d’objets, devra doubler l’enquête linguistique. Ethnotextes ou textes libres peuvent compléter la récolte, comme aussi —dans la mesure du possible— un essai de traduction d’un même texte: la “Parabole de l’Enfant Prodigue” par exemple comme nous le faisons en domaine occitan (21).

1983 eta 1984an bi argitaratzen dira Atlas linguistiko baten antza dutenak euskararen esparruan. Batek *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* izena ere badu, izana ez duen arren. Bestea “Erizkizundi Irukoitza”, argitalpen egokiago batean Ana Etxaidek prestatuta. Azkuek eta bere laguntzaileek jaso zituzten datoak eta guganaino iritxi direnak daude, batzu galdu zirelako (22).

Atlasen aipamen hauekin batera beste zuzeneko bilketa batzu egiteko proposamenak ere agertzen dira agiri batzuetan eta Euskaltzaindiaren batzarretan. Adibidez Nikolas Alzolak egiten duena “Euskaltzaindiaren artxiburako erretratuak eta manetofono-zintak” bilduz (23).

Edo Satrustegik, “Euskara herrikoiairen magnetofono bilketa” izenburuarekin (24).

Edota “Piarres Charritton laguntzailea magnetofonazko bilketa lanerako Canada-tik Euskal Herrira ekarri behar dela” aipatuz (25).

1985an A. Etxaidek argitaratu zuen beste lan baten, 20 urte lehenago Napa-rron egin zuen bilketaren dato batzu aurkezten ditu.

“Al recibir la invitación de Eusko Ikaskuntza para participar en el homenaje a Angel Irigaray, me ha parecido lo más oportuno presentar algunos de los datos de una encuesta lingüística que realicé en Navarra entre los años 1965 y 1967...

He utilizado un alfabeto fonético que preparé para unas encuestas lingüísticas realizadas para Euskaltzaindia en 1982 con unas rectificaciones introducidas en las III Jornadas de Dialectología en Marquina principalmente por intervención de J. Allières” (26).

2. Euskaltzaindia bera eta Atlasa

2.1. Euskaltzaindiaren agiriak

“Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País’koak laguntza eskatzen digute batzar nagusi bat eratzeko. Gaiaren oinarria euskalkieri buruz izango

(21) *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 107.

(22) *Jakin* 32, 1984, 139-148. *Euskera*, XXIX, 1984, 861-873, RIEV, XXXI, 1986, 147-158. Azkeneko hau lan berdina da.

(23) *Euskera*, XXII, 1977, 347.

(24) *Euskera*, XXII, 1977, 769.

(25) *Euskera*, XXII, 1977, 867.

(26) *Aingeru Irigaray-ri Omenaldia*, 115-116.

litzake, 'Atlas lingüístico' bat gertatzeko bideak jartze alde. Luis Mitxelena euskaltzainak aukeratutako gaia omen da. Laguntzeko gertu gaudela erantzun bekie Irigaray jaunaren bidez" (27).

Hurrengo bileran, 1967-III-25an, gauzak geldi daude. Honela agertzen da Euskaltzaindiko agirian: "Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País'koen batzar nagusiaren buruz, ez da agertu idea berririk iñoren aldetik" (28).

Hurrengoan berriz agertzen da Atlasa.

"R.S.V. Amigos del País'koak eratzekotan dira 'Atlas Lingüístico'ari buruzko billeran zer egin ditzakeanari buruz jardun da. Erderazko testu bat gertatzea pentsatu da, gero Euskaltzaindiak euskalki guzietako laguntzaileak dituaneez, guzien artean kopiak zabaltzeko dei egiñaz bakoitzak bere euskalkira itzuliaz bete dezan. Lafitte jauna gelditu da testua autatzekotan" (29).

Hurrengo hileko batzarrean berriz aipatzen da gai hau eta Lafitte da txostena aurkeztzen duena.

"Lafitte jaunak 'Atlas Lingüístico'rako gertatu duen testoa irakurri du Haritschelhar jaunak, frantsesez eta espainolez, ta ontzat artua izan da. Multikopiaz edo inprentaz kopiak aterata euskaltzainkide guzien artean, eta ortaz lana egin nairik eskatzen dutenen artean zabaltzeko, bakoitzak bere euskalkira itzulia bializ dezan" (30).

1967-VI-30ko batzarrean metodoari buruz hitzegiten da.

"Lafitte jaunak 'Atlas Lingüístico'rako gertatu zuen testua frantsesez eta espainolez multikopiaz aterea dela aditzera eman da. Euskaltzaindikoaren artean zabaldu da, baiña beren euskalkietara itzultzea nai duten guzieri emateko prest gaudela esan da...

'Atlas Lingüístico'a osatzen joateko multikopiaz atera diran orriak zabaltzea Euskaltzaindiko guzieri eskatzen zaie. Itzulpenak bildu ta gero iñork bete gabe gelditu diran euskalkiak osatzea istudiatu bear litzakeala esanaz" (31).

1967-VIII-25ko batzarrean lan egiteko tokia ere erabakitzen da eta arduradun bezela Mitxelena eta Allières aipatzen dira.

"Mitxelena jaunak eskerrak ematen ditu bere osasunaz izan dugun ardura-gaitik. Eta, ondorean, Baionan Allières jaunarekin, dagonillaren 18-an, 'Atlas Lingüístico'ari buruz izan duten biltzarren berri eman du. Lan au aurrera eramateko, Bilbon ordezkari bat eta Donostian beste bat nai lituzke. Bilbon Euskaltzaindiaren etxeko bulegotik eraman genezake, eta, Donostian, Euskaltzaindiak San Telmo'n duen bulegotik (R.S.V. de los Amigos del País'ko zuzendaritzaren gelan). Oien lana izango da errietan ordezkari edo korresponsalak

(27) *Euskera*, XIII, 1968, 329. Agiria, 1967-II-24koa da.

(28) *Euskera*, XIII, 1968, 332.

(29) Bertan, 334-335.

(30) 1967-IV-24ko agiria da eta *Euskera*-n, XIII, 1968, 336an dator.

(31) *Euskera*, XIII, 338-339.

arkitzea eta oien artean Allières jaunak gertatzen dituan galde-erantzun laburrak banandu ta bildu” (32).

1968-I-26ko agirian Euskaltzaindiaren ofizina iriki dela Donostian aipatzen da. Bestalde “Atlas Lingüístico” eta Euskaltzaindiko hiztegiari buruzko lanak ofizina honetatik eramango dira:

“Donostian, Diputazioko “Urkixo Mintegia”n Euskaltzaindiaren ofizina irikia danaren berria eman da, egunero, goizeko, 10-etatik ordu bata arte irikia izango dana. Beraz, Gipuzkoa, ta batez ere Donostia inguruetaoak bertan arkituko dute beren etxea. Bestalde, ofizina onetatik Lafitte ta Allières jaunekin ar-emanen, “Urkixo Mintegia”rekin batera eramango dira ‘Atlas Lingüístico’ eta Euskaltzaindiko iztegiari buruzko lanak. Ofizinako buru bezala izango dira idazkaria, Loidi eta Berrondo jaunak. Santiago San Martín Diputazioneko kultura sailleko buruari eskerrak ematea erabaki da lan gela ori utzi digutelako” (33).

Hurrengo urteko agiri baten beste aipamen bat dago:

“Lafitte jauna mintzo da Atlas Linguistiko laneri buruz, oraino egin dena eta dituzten asmoen berri emanez” (34).

Hurrengo urtean beste aipamen bat dago. Hona hemen aipamen hori:

“San Martín jaunaren idazki bat irakurri da. Bertan aitzen ematen du nola jestio bat egin duan “Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián” delakoaren zuzendaritzakoekin, Mitxelena jauna Atlas Linguistikorako lanetan soilik aritzeko Donostiara ekartzea, aurrezki kutxaren diru babesean. Ontzat hartzen da eta Mitxelena jaunak berak egingo du bere plan bat horretarako. Datorren urtean Bizkaiko Aurrezki Kutxaren urre eztaiak diranetik, kutxa horrek ere zerbait egiteko gertu omen dago. Hori ere kontuan eukiko da” (35).

1970-VII-29ko batzarreko agirian dator hau.

Gero 5 urteko ixilunea dator. Eta 1975an L. Villasante Euskaltzainburuak “Datorren urte bikoari begira” hitzaldian, berriz Atlasa aipatzen du. Bere hitzak hauek dira: “Euskararen Atlas Linguistikoa. Horra beste asmo zahar bat, eta orain ere asmo bezala segitu beharko duena, aurrera eramateko biderik ez dugun bitartean” (36).

Eta ixiluneak berriz irauten du 1980 arte.

2.2. Euskaltzaindiaren agiriak eta Dialektogi Jardunaldiak

2.2.1. Euskaltzaindiaren agiriak

1980. urtean Euskaltzaindiak bere ardura nagusien artean ahozko euskerarena ofizialki berriz hartzen du.

(32) *Euskera*, XIII, 1968, 343.

(33) *Euskera*, XVI, 1971, 164.

(34) *Euskera*, XVI, 1971, 204.

(35) *Euskera*, XVII, 1972, 240.

(36) *Euskera*, XX, 1975, 468.

Urte horretan Beran ospatzen ditu "Dialektologi Bilerak" VII-31 eta VIII-lan. Izen hau ez da nik emana, Villasante berak baino. Eta egoki emana, egin zen lanagatik. Txosten horretan esaten du: "Bilera hauen sorreraz eta helburuaz, Arrasateko Biltzarren ondorio dugu asmo hau ere". Eta gero esaten du: "Oker ez banaiz, Gasteizen, Euskaltzaindiaren zuzendaritza bildu zeneko egun batean, hots, Otsailaren 12an azaldu zen bilera hauen lehen pentsua. Mitxelena jauna izan zen gainera, proposatu zuena" (37).

Gero ahozko euskera aztertu dutenen izen batzuk aipatzen ditu: Bonaparte, Azkue, Barandiaran, Barbier, Mayi Ariztia, A. Intza, Gandiaga eta Kandido Izagirre. Eta magnetofonoia ere bai. Eta hauen denen ondorio bezala lehenagoko "asmo zaharra" berpizten du: "Eta aipatu baizik ez dut egingo, baina hor dago beste asmo zahar bat ere: Euskararen Atlasena. Beti asmo huts izan behar ote du? Ez ote da horretan pentsatzen hasteko garaia?".

Dialektologia ikasaldian ez da egongo segur-aski aukerarik asmo hau bete-betea eta zuzenean estudiatzeko, baina beharbada azkeneko eta urrutiko muga bezala har daiteke. Ez dakit" (38).

Aurreko egunean Mitxelenak txosten bat irakurri du eta txosten horren bigarren atalean honelako zatiak agertzen dira:

— Relación de algunos trabajos para la preparación de un Atlas vasco.

— Forma en que se calcula podría realizarse la encuesta y relación de algunas dificultades con que habrá de enfrentarse. Orden de prioridades. Algunos puntos del proyecto. Eta honen barruan:

1. Organización.
2. Amplitud de la encuesta. Selección de puntos.
3. El cuestionario.
4. Personal.
5. Coste (39).

Bilera honetan lotan zegoen "asmo zaharra" esnatzen hasten da. Eta Agirietan bilatu daiteke horren ondorioa. Hona hemen frogak 1980-X-31ko agirian:

"Dialektologiakoa, J. L. Lizundiak eman du Dialektologiako batzordearen berri. Datorren urteko ikastaroaz mintzatu dira, egunak eta irakasle zenbaiten izenak aipatuz. Harremanetan sartu beharra dago lehenbait-lehen. Azterketa egiteko itaunketak ere gertatzen hasi behar da, eta horretarako batzordeko pare bat lagun arduratuko dira. Laguntzaren bat lortzeko eman diren urratsen berri ere eman da" (40).

Iker Saileko batzordeen artean Dialektologi batzordea agertzen da. Partaideak hauek dira: "F. Ondarra, buru; J. A. Letamendia, idazkari; Eragile: A.

(37) **Euskera**, XXVI, 1981, 130.

(38) **Euskera**, XXVI, 1981, 132.

(39) **Euskera**, XXVI, 1981, 138-145.

(40) **Euskera**, XXVI, 1981, 189.

Irigoyen, K. Rotaetxe, A. M.^a Etxaide; Kontseilariak: J. M.^a Satrustegi, J. M.^a Etxebarria, Ch. Videgain” (41).

Gero “Loiolako jardunen batzar agiria” txostenean dato hau agertzen da: “*Dialektologi*az: Apirilaren 23tik 26ra, bazko astez, Deban egitekoa den ikastaroaren berri eman du, M. M.^a Satrustegik. Hitzartuak diren irakasleen zerrenda eta bakoitzaren gaiak aipatu ditu. Kopuru txikiarentzat izango da eta bertara joango diren espezializatu ez landa, filologiako bosgarren edo laugarren urteko ikasleren batentzat edo beste tokia egon daiteke. Batzordeak erabakiko du, noski, matrikulen arazoa. F. Ondarra izendatu da batzordeburu beste batzarkideak daudenean utziz” (42).

1981-II-27ko agirian ikastaro baten asmoak eta asmoak betetzeko pausoak erabakitzen dira: “*Dialektologi* batzordea ere bildu da goizean euskaltzain osoekin batera. Juan José Mogelen bigarren mendeurrena ospatuz batera, Deban, Apirilaren 23, 24, 25 eta 26an Ana M.^a Etxaidek prestatu duen Ikastaro programa, ikuturren batekin, zehaztu eta onartu da. Ikastaroaren kopurua, matrikula, hutsik eta ostatuarekin eta baita beste zenbait baldintza finkatu dira. Matrikula baiespena erabakitzeko, azpibatzerde bat izendatu da: F. Ondarra, A. Irigoyen, J. A. Letamendia, K. Rotaetxe eta Ana M.^a Etxaidek osotua” (43).

Eta 1981-IV-26ko agirian egin denaren berri laburra jasotzen da: “J. L. Lizundia idazkari-ordeak, eskertzen ditu antolatzen lagundu duten erakunde eta taldeak, batez ere, Udala eta Patronato Ostolazako Kultur Elkarteak. Aipatzen ditu prte hartu duten irakasleen izenak: Joan Veny i Clar, Joaquim Rafel i Fontanals eta Ramon Cerdà i Masso, Barcelonako Unibertsitatekoak.

Jacques Allières, Toulouseko Unibertsitatekoak; Kilburn MacMurrough, amerikar irakaslea; Luis Mitxelena eta Karmele Rotaetxe, Euskal Herriko Unibertsitatekoak eta Ana M.^a Etxaide, Nafarroako Unibertsitatekoak.

Azkenik, L. Villasante jaunak, *Dialektologi* Ikastaroaren amaiera egiten du, adieraziaz nola ostegunetik iganderarte, hogeita hamabi ikasle *Dialektologia* ikerketetarako prestatzen aritu diren aipaturiko irakasleen gidaritzapean. Euskaltzainburuak, azpimarratzen du nola Euskaltzaindia euskalkiekin arduratzen den, horretarako azterketa eta argitalpenak bultzatuz edo Ikastaro honetan bezala ikertzaileei bideak irakatsiz” (44).

Eta horren ondorio bezala lan konkreto bat sortzen da. 1981-V-28ko agiriak adierazten du: “*Dialektologi* batzordearen berri J. A. Letamendia idazkariak ematen du. Iparraldean egin zen inkesten plangintza eta lana berrikusi da. A. Irigoyenek, morfosintasiaren erabili izan duen 86 galderatako galdekizuna jaso da eta J. A. Letamendiak, gorputzaren inguruko 250 hitzen zerrenda ere bai. Inkesta lekuak hautatzeko, Ch. Videgain arduratuko da Iparraldean; A. Ondarra Nafarroa Garaian eta J. M.^a Etxebarria Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan” (45).

(41) Euskera, XXVI, 1981, 764.

(42) Euskera, XXVI, 1981, 776. 1981-I-23/24an Loiolan eginak.

(43) Euskera, XXVI, 1981, 781.

(44) Euskera, XXVI, 1981, 784.

(45) Euskera, XXVI, 1981, 790.

Euskaltzaindiaren agiriak erabaki bat eta ekintza bat sortu dute dialektologia arloan. Eta Berako bilerak ekintza bat sortzen du: Euskaltzaindiaren 1. Dialektologi Ikastaroa, 1981-IV-23-26ra ospatu zen. Irakasleak goragoko agirian agertzen dira.

Jarraitu dezagun Euskaltzaindiaren agiriekin. 1981-X-30ko agirian hau dator: “Dialektologi Batzordea. J. A. Letamendiak eman du batzorde honen berri. Euskalki bakoitzaren eremuan herrien hautaketa eginga da, eredutzat zenbait harturik.

Kontuan izan dira beste bereiztasun batzu ere. Oraikoz lexiko gaiekin hastea errazago ikusi da, gero beste gai batzuekin jarraituko bada ere” (46).

1981-XI-27an beste hau: “Dialektologia. J. A. Letamendiak eman du batzorde honen berri. Giza gorputzari buruz egindako itaunketen zerrendak jaso dira alde batetik, eta premiazkoen ikusten diren liburuen eskuratzea erabaki da beste alde.

Tresnak erosi eta datorren udaldian egingo da lehen bilketa” (47).

1982-II-26an Atlasa zuzenean aipatzen da eta horretarako langile liberatuak ere aipatzen dira:

“Dialektologia. Dialektologiako bilketa lana Atlaserako ere baliagarri izateko eran egin nahi bada, langile liberatuak beharko direla esan du idazkariak.

Donaixtiko bileran erabakitzeke utzi da. Itaunketarako tresnen berri eman da beste alde, eta zerrenda osatu” (48).

Eta agiri hauen ondorioa beste Jardunaldi batzuen antolakizuna Donaixti Ibarren izango da. Agiria 1982-III-26koa da: “Dialektologia. Donaixtin Bazko Zaharrez egitekoa den batzarraren antolakizun lanez mintzatu da J. Haritschelhar. Bertan erabiliko diren Dialektologia gaiak aipatu ditu gero J. A. Letamendiak. Praktikotasunaz kezkatutik, udan egingo den itaunketa dute begien aurrean: tresnen arazo teknikoak, galde-erantzunen egokitasuna, transkribapenak eta abar. Kanpoko irakasle beharrik ez dute ikusten” (49).

1983-IV-28,29an Angostoko Euskaltzaindiaren barne Jardunaldietan dato interesgarri bi agertzen dira. “Atlasa egingo” dutenak aipatzen dira eta “dialektologia batzordea” ere. Eta urte birako eginkizunen egitarau nagusia finkatzeko saioa: “Euskalkiak. Orain arte Dialektologia lanen batzordea zena eta Atlas egingo dutenena elkarrekin doaz”.

“Dialektologia. Euskalkien bilketa-lanari jarraituz, Markina ikusten zen batzorde honen jardunaldiak egiteko toki ona, eta irailaren 22, 23 eta 24 eman ziren egun egokitatzat, ikastaroa hasi aurretik eta oporrak amaituak izan ohi direlarik.

(46) **Euskera**, XXVII, 1982, 280.

(47) **Euskera**, XXVII, 1982, 283.

(48) **Euskera**, XXVII, 1982, 600.

(49) **Euskera**, XXVII, 1982, 602.

Gaiak: a) Euskalkiak eta batua, b) Batzordeak egin duen lanaren balantzea eta azterketa. c) Gerorako programaketa” (50).

Iker Sailaren barruan “Euskalkiak” batzordeak irauten du honelako partaideekin: “F. Ondarra, buru; J. M.^a Etxebarria, idazkari; A. Irigoyen, A. M.^a Etxaide, J. A. Letamendia, Ch. Videgain” (51).

Abiada hartu duen arlo hau aurrera doa. Lekuko hurrengo agiri hauek. 1983-VII-29: “Dialektologia. Datorren udazkenean Markinan egitekoa den batzarreaz aritu da, gehienik, batzordea. Irailaren 23 eta 24 izango dira lan-egunak. Orain arte egindakoen aurkezpena eta metodologia eritziak bateratzea izango da lehenengo gaia. Gerorako plangintza finkatuko da gero, eta bibliografia zehaztu. Broussainen denborako magnetofoi grabapenak badirela Vienan eta kopiak haritzeaz mintzatu dira batzartuak.

Dialektologia lanen ondorenak ateratzeko taldetxo bat izendatu da, Ch. Bidegain, J. M.^a Etxebarria, J. Haritschelhar eta J. Allières barne direla” (52).

Eta 1983-IX-25koa: “Aste honetan Markinan egindako Dialektologiako Barne jardunen berri eman du J. M. Etxebarria, batzorde idazkariak. Orain arte egindako lana ikusi da eta traskribapenaren eredia zehaztu. Euskararen Atlasa egiten joatea da helburu nagusia eta, horretarako azpi-egitura sortu da. Itaulariek ordezkaria izango dute koordinatzaile, batzorde tekniko baten babesean. Batzorde aholkulariak zainduko ditu ikuspuntu nagusiak. Galdekizunen zerrenda lehen-bait-lehen egitea eskatu zaio batzorde teknikoari. Beste lanbide batzutatik aske daudekeen lankideak behar direla, esan da” (53).

Eta berriz agirian ondoren Markinako Dialektologia Jardunaldiak. Eta Jardunaldien frutuak ikusirik, 1984rako Ustaritzerako proposatzen dira IV Dialektologi Jardunaldiak. Eta 1984-IV-27ko agirian honelako berria agertzen da:

“Euskalkiak. J. Haritschelhar-ek esan du, Atlasen batzorde ttipiak ba dituela zenbait gai eskuartean prestaturik. Fonetika gaiak euskalkiz-euskalki, lexikoari buruz erabiliko diren zenbait hitzen bilduma, hala nola aditzena. Joskera lana ere prestatzen ari dira. Laster aholkulariak deituak izango dira batzar batera” (54).

Eta Jardunaldien agiriak 1984-VI-23an honela dio:

“Atzo, ekainak 22, eta gaur goizean, Atlas Linguistikoa delakoaren galdekizunen proposamena finkatzeko, IV.Jardunaldiak burutu dira Landagoienen. Txosten hauek eman dira:

J. M. Etxebarriak sarrera orokorra egin du lehenik, emandako urratsen eta prestatuturiko lanen aipamenarekin.

(50) *Euskera*, XXVIII, 1983, 523-525.

(51) *Euskera*, XXVIII, 1983, 575.

(52) *Euskera*, XXIX, 1984, 282.

(53) *Euskera*, XXIX, 1984, 820.

(54) *Euskera*, XXIX, 1984, 405.

G. Aurrekoetxea. Goizeko hamaikak aldera, fonetika eta fonologia alorretan agertarazi behar diren fenomenoek erabakigaitza aurkeztu du Gotzon Aurrekoetxeak.

Ez ziren helburuak ongi ikusten eta eztabaida luzea sortu da. Jasotako oharrekin aholkulariei beste eredu bat bidaliko zaie oharrak egin ditzaten. Eguerdian amaitu da lehen saioa.

Arratsaldeko ordu bi t'erdietan Morfologiak ekarri duen txostena irakurri du J. M. Etxebarriak. Berrelaborazio baten beharrean gelditu da erabakigaitza.

Ekainak 23, larunbata.

Xarles Bidegain. Lexikoaz aritu da goizeko 9etatik aurrera X. Bidegain eta luzaz eztabaidatu da gaitza, arratsalderako utziz amaiera. Ordu bi t'erdietan eman zaio jarraipena. Bertan zirenek eta aholkulariek jasoko dituzte txostenak eta datorren hilaren 20-rako egin bitzate, idatziz, oharrak.

G. Rebuschi ez da etorri eta joskerari buruz egin duen txostena B. Oihartzabalak irakurri du. Zernahi bada ikerketa honetan. Mardula eta baliosa. Proposamena onartu da.

Atlasgintzaren arazo tekniko, ekonomiko eta azpiegiturazkoek bete dute gero hainbat denbora. A) "Arazo teknikoak". Mapak, esate baterako, garrantzi handia dute honelako lanetan. Hizkuntzarekikoak dira zuzenean lanari dagozkionak. Eredua, neurria eta beste puntu batzu aipatu dira. Mapa lagungarriak ere badaude, bestalde, hala nola herrialdeena, elizbarrutiena, merkatu eta bazkena, besteak beste. Aipamen soilean gelditu da gaurkoa, bere egunean aukera egiteko. B) "Diru arazoak". Datozen lau urteko ekintzen aintzin-asmoak Erakunde ofizialei aurkeztea eskatzen zaigunez, zehaztasun batzu eta, ahal den neurrian, epea ere mugatzea komeni da. Hori dela eta, langile bakoitzaren egoera eta dedikazioa ikusi da. Bulego-langile baten beharra legoke orainok, eta hiruen bat laguntzaile hartu beharko omen dira geroxeago. Galdekizunen zerrenda osotzea da orain lehen helburua. C) "Azpiegitura". Horrelako lanak egin izan dira bazterretan eta haien esperientziak baliatzeko harremanetan sartzeko komenigarri ikusten da. Barcelona, Tolosa Frantziakoa, Estrasburgo eta beste zenbait hiriburutara itzuliren bat egin beharko da. Eskuartean ditugun magnetofoi eta tresnen ardura aipatu da. Atlasean sartzerik izango ez duten hainbat eta hainbat gauza argitaratzeko barne-aldizkari bat sortzea eskatu dute batzorde arduradunek" (55).

Aipamena luzea izan da, baina Euskeraren Atlas linguistikoaren lehenengo pausoa emanda dago.

Gauza bera iragartzen du Haritschelhar jaunak Euskaltzaindiaren batzar irekian. Bere hitzak hauek dira: "Jean Haritschelhar jaunak, joan den egun bietan, ostiralek eta larunbatek, Uztaritzen egin diren IV. Dialektologi Jardunaldiak berri laburra eman du, esanaz, prezkeski Euskal Herriko Atlas Linguistikoari atxikiaz izan direla".

Eta argitaratuta dauden agirien azkena 1984-VII-27koa da: "Dialektologia. Atlasgintzako arduradunen alogera nahiz lan-orduak zehazturik, irailaren hasiera-

(55) Euskera, XXIX, 1984, 806.

tik lotuko direla, esan du Haritschelhar jaunak. Galdekizunen zerrenda burutzea eta inkesta tokien hautapena egitea izango da urte azkenerako amai gogo duten lana.

J.M. Etxebarria mintzatu da gero. Eskuartekoak zertan diren agertu du. Alfabeto fonetikoari buruz iritziak bateratzea eskatu du. Traskribapenetan azen-tua zenbatetaraino kontutan har, izan da gero arazo istilugarriena” (56).

2.2.2. Euskaltzaindiaren dialektologi jardunaldiak

1980tik honantza Euskaltzaindiaren agiriek Dialektologia Jardunaldiak ekarri dituzte. Goazen ba orain Jardunaldien laburpen bat egitera.

Berako agiriak 1980an Debako I Dialektologi Jardunaldiak sortzen ditu. Jardunaldietako programa osoa jarriko dut. Horrela gauzak argiago geldituko dira.

I. DIALEKTOLOGI IKASTAROA

Egitaraua

1981.eko Apirilaren 23tik 26ra.

23, Osteguna

4etan: Arratsaldeko 4etan Fr. Luis Villasante Euskaltzainburuaren Agurra.

4,15etan: Ana M.^a Etxaide, Nafarroako Unibertsitateko irakasleak: dialektologi ikastaroaren eta irakasleen aurkezpena.

5etan: Joan Veny i Clar, Barcelonako Unibertsitateko dialektologia irakasleak “dialektologi inkestari buruzko galdekizun behinenak”.

8etan: Karmele Rotaetxe, euskaltzain urgazle eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak: “atzizkidun hizkuntza baten azterketarako bide bat; morfo-fonologia”, II. taldeari.

24, Ostirala

9,30 : Joaquin Rafel i Fontanals, Barcelonako Unibertsitateko Filologia irakasleak: “fonologi alorrean ikerketa dialektalaren metodologia”.

12etan: Juan Veny jaunak: “lexiko ikuspegiar mapa linguistikoen interpretapena”.

4etan: Joaquin Rafel jaunak: “arlo lexikalen egitura. Galdekizun praktikak”.

(56) *Euskera*, XXIX, 1984, 813-814.

- 6,30etan: Jacques Allières, euskaltzain urgazle eta Toulouseko Unibertsitateko irakasleak: “inkesta teknikak”.
- 8etan: Karmele Rotaetxe andereak: “atzizkidun hizkuntza bat aztertze bide bat: morfo-fonologia”, I. taldeari.
- 8etan: Kilburn MacMurrough jaunak: “palatografia praktikak”.

25, *Larunbata*

- 9etan: Ramon Cerda y Masso, Barcelonako Unibertsitateko irakasleak: “fonetika esperimentalean erabilitako aparagailuen teknika”.
- 11,30etan: Jacques Allières jaunak: “inkesta dialektal bati aplikaturiko morfologi kuestioak” gaia.
- 4etan: Ramón Cerdá jaunak: “arlotxo fonikoan buruturiko inkesten probetxamendu esperimentala”.
- 6etan: Kilburn MacMurrough jaunak: “transkripzio fonetiko eta espektogramen interpretapena”.
- 8etan: Ana M.^a Etxaide andereak: “*Wörter und Sachen* metodoan oinarriturik inkesta dialektal mota bat”.

26, *Igandea*

Zubeltzu zinematokian.

- 10,30etan: Luis Mitxelena, euskaltzain eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak: “euskal dialektologiaren kuestio bereziak eta ikerketa arazoak”.
- 12etan: Juan Jose Mogelen bigarren mendeurreneko ospakizuna: batzar irekia:
1. A. Villasante Euskaltzainburuak, ikastaroaren amaiera.
 2. A. Jose Ignacio Lasa, historiagileak: “Juan Jose Mogelen estudioez zenbait xehetasun berriren albisteak”.
 3. A. Lino Akesolo, euskaltzain urgazleak: “Juan Jose Mogelen euskal lanak” (57).

Gainera argitaratuta dauden txosten bi aipatuko ditut. Bata, Villasanterena eta bestea Mitxelenarena. *Dialektologi Ikastaroa* du izena bata eta *Euskera* 1981, 919-923 orrialdeetan dago. Eta bestea “Sobre las necesidades de una exploración lingüística de Euskal Herria” aldizkari eta tomo berdinean, 873-881 orrialdeetan.

Ikastaro honetarako Euskaltzaindiak egin zuen organigrama tomo berean agertzen da eta hona hemen 917. orrialdean dagoen *Dialektologi Batzordea*:

(57) *Euskaltzaindiaren I. Dialektologi Ikastaroa*. Euskaltzaindiak Deba herriko udalak eta Ostolaza patronatuak argitaratuko orria.

“P. Ondarra, Batzordeburua; J. A. Letamendia, Idazkaria; A. Irigoyen, Eragile; K. Errotaetxe, Eragilea; A. M. Etxaide, Eragilea; J. M. Satrustegi, Kontseilaria; J. M. Etxebarria, Kontseilaria; X. Bidegain, Kontseilaria” (58).

II. DIALEKTOLOGIAZKO JARDUNALDIAK DONAIXTI-IBARREN

Jardunaldi hauen kronika idatzita dago eta Euskaltzaindiak berak onartuta. Orduan horixe izango da iturririk onena eta garbiena, orduko berriak jakiteko. Kronika horretatik hartuko ditut, bada, berri guztiak.

“Nafarroa Behereko Donaixti-Ibarre herri polit eta ñimiñoan Lopez-en omenaldiaren kariatz Euskaltzaindiak antolatuturik Dialektologiako jardunaldiak izan dira 1982.eko Apirilaren 16 eta 17an. Bertara bildu dira Dialektologiako Batzordeak deituriko lankideak eta euskaltzain buruez gainera hainbat euskaltzain oso ere lanerako gogotsu. Hogeita bost lagun batatz-beste.

Gehienak eguerdirako han zirela, arratsaldeko hiruretan ekin zaio lanari. Lehen hitzaldia Allières jaunaren izenean iragarrita bazen ere, honen ezin etorriaz J. Haritschelharrek ireki du bilkura arbelean idatzirik zeuden hitzak errepikatuz; “hunki jin!”.

Laburki, duela zenbait urte Iparraldean egin zituzten dialektologiako entseguen berri eman du Haritschelhar jaunak. Lehenik, hautatu zituzten herrien zerrenda ezagutarazi du, berrogeita hamaika oro har, eta, ondoren, erabili zituzten inkesta mota biak: bata, hiztegiak batipat, gutunez egin —gero Lafitte jaunak zehazkiago azalduko diguna— eta bestea, morfologiak, magnetofoniz bildua. Morfologiako galdekizunean 23 fitxa ziren eta 350 galdera frantsesez eginak, deklinabidea, zenbakiak, erakusleak, adberbioak eta izenordainak bereziki jasotzeko taxutuak. Bilketan Monique Capdevielle eta Roger Idiart ibili ziren herriz herri Iparraldeko probintzietan. Laguntzarik ezaz bide erdian gelditu zen asmoa helmugara iritsi ezinik. Haritschelhar jaunak dioenez hortxe daukagu lanaren hastapen bat eta berorren berri eman nahi izan digu sarrerako mintzaldi honetan. Beronen ustez atlas batean 2.500 galdera behar dira eta bilketa lana hiru modutara egiten da: zeharkako inkesta itzulpenaren bidez, galdera zuzenak eta, azkenik, hizketaldi libreen grabaketa. Etno eta tekno testuak ere erabil daitezkeela dio, harri batez bi txori hiltzen direlarik.

Ondoren Lafitte jaunak berak egin zuen lanaren berri eman du. Alemanien eta Suizan gaiak sailka eta eremuka galdegiteko era ikusirik, horrelako zerbait moldatu nahi izan zuen gutunez biltzeko, ahaidegoa, abereak, arbolak eta abarri buruzko galdekizunak prestatuturik. 23 herritako erantzunak jaso zituen izkribuz. Hala ere, ondorioak ikusirik, ez deritza aproposia halako bilketa sistemari: herri bakoitzean lagun bakar bat zuelarik, batzuetan lanpetuak zirela, bestetan hiztegiak begiratzuz erantzuten zutela, zenbaitetan bertakoak gabe etorkinak zirelako edota ortografia

bera nork bere gisara erabiltzen zutelako, bilduriko erantzunak ez ziren espero zuen bezain fidagarriak”...

“Koldo Mitxelenaren txostena, *Euskalkien ageriko aurpegia*, irakurri du A. Villasantek. Lanaren hasieran Euskal Atlasak eta dialektologiak dakarten atzerapenaren arrazoi nagusiak gogora erazi dizkigu: goimailako ikerzentzurik eta uni-bertsitaterik eza batetik, eta hizkuntzaren egoera bakartia, ahaidetik gabea, besteren saioez baliatu ahal izateko bestetik. Euskal hizkuntz-atlasa hasi gabe bada ere, ez da, haatik, horren urria dialektologiaren alorrean egin dena, hiztegien batez ere eta morfologian, aditzaz bereziki. Sintasian ere badihardu jendeak lanean gogotsu azken denbora hauetan. Arinen landu dena, hizkuntzaren muina ez den arren, oinarritzakoa izan da: hizketaren entzuteari eta ahozkatzeari dagozkionak”.

“Bigarren egunean, goizeko bederatzieta, A. Etxaidek eskaintzen digu bere gaia. Lehendabizi beraren lehen urratsak aipatzen dizkigu: 1965, 66 eta 67an Príncipe de Viana-ren laguntzaz Mitxelenak prestatutako 300 galdera zituen galdekizun bat erabili zuen 70 herri koskorretan. Fonética Histórica-n aurki daiteke galdera haien funtsa. Lehen esperientzia batek izan ditzakeen hutsuneak gora behera, orduan bildu zituen materialok argitaratzeko asmotan da.

“Euskal hizkuntz-atlas batek behar duen herri kopuruaz mintzatu da ondoren. Beraren ustez 300 herri honelako bilketa baterako gehiegi direlarik, aski izan litezke 175. Iparralderako Haritschelharrek aipatu dituen 51 tokiak onarturik. Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian 40na herri eta Araban laupabost harturik 175 lirateke guztira”.

“K. Rotaetxek goizeko hamaika t’erdietan hasten du bere azalpena bi galdekizun mota bereziz: atlas galdekizunak eta monografiak. Monografiatan mintzaira baten alderdi ugariak uki daitezkeela dio, fonetika, fonologia, morfologia, sintasiari eta hiztegiari dagozkionak. Atlasetan, berriz, fonetika eta hiztegia dira aztertuenak; morfologia ere ibiltzen da, baina nahi-ta-ez morfofonologia egin behar izaten dela, dio. Fonetikazko ikerketak egiteko aski galdekizun bereziak erabiltzen dira eta fonologia egiteko *pares minimos* direlakoan alderaketa. Morfologian paradigma guztiak sar daitezke base mota diferenteak gogoan dauzkagula. Zazpi base ditugu euskaraz, bost bokaleak, Zuberoan sei, eta kontsonantedunak kontutan harturik. Axola handikotzat jotzen ditu K. Rotaetxek armoniazazio fenomenuak”.

“Arratsaldeko 3,30etan J. M. Etxebarriak hitz egin du Sever Pop-en oharrak eta bere esperientziakoak bildurik dialektologi lanetarako aholku praktiko batzu emanez. Aurreko hitzaldietan esandakoak ez errepikatzen saiatu da. Lehenik Sever Pop-en lanaren, *La dialectologie* obra agortuaren berri eman du beronen edukina eta garrantzia azpimarratuz, eta gaiari atxikiz inkesta lanetan gogoan behar ditugun puntu batzu azaldu ditu”.

Bilera honen ondorio bezela lan bat proposatzen du udarako.

“Udarako proposatu den galdekizuna luzatu ala moztu behar den eztabaidatzen da, zer erantsi, zer alda eta zer zuzendu, forma mugatuak ala mugagabeak eskatu behar diren ala bietarikoak. Zenbait lagun beren oharrak batzordera eskutitzez bidaltzekotan gelditu dira. Galdekizuna ez da luzeegia eta goiz edo arratsalde batean erraz burutzen ahal da.

Ezer erabakitzen ez bada ere, lantsariena aipatzen da: lanaldiak orduka edo nola ordaindu, bidaiak, ostatu dieta, e.a. Satrustegi jaunak udako lan honetarako norbait liberatu behar den galdeginik, ezetz erantzuten zaio.

Hamaseik eman dute izena uda honetako bilketan, bakarka nahiz lagunen batekin, parte hartzeko: J. San Martin, J. M. Etxebarriaren laguntzaz, Eibarren ariko da; A. Etxaide eta B. Muniategi, Sakanan; Baztanen, Goizuetan, Esteribar eta Aezkoen; M. Salinas Lekeitio; E. Knörr Etxague, Elosu, Legutiano, Urrunaga eta Urbinan; R. M. Pagola, Bortzirietan eta Basaburua Txikian A. Etxaiderekin koordinaturik; X. Altzibar eta X. Videgain elkarrekin Markinaldean eta Zuberoan; P. Uribarren Aramaion; M. J. Azurmendi Hernani aldean; K. Rotaetxe Bakion; F. Ondarra Burundan eta Urdazubin; J. M. Etxabarria Sopela, Azkoitia eta Ataunen; J. Casenave Azparne aldean; G. Aurrekoetxea Arratian; A. Irigoyen Allustin eta J. A. Letamendia Hondarribian”.

Euskaltzaindiak arduradun batzu ere izendatzen ditu.

“Herrialde bakoitzeko arduradun bat izendatzen da: Iparralderako X. Videgain; Goi Nafarrorako A. Etxaide eta Hegoaldeko beste hiru probintzietarako J. M. Etxebarria. Bestetik, ez dela lan honetarako jende berririk hartuko erabakitzen da. Batzordean idazkari berria behar delarik J. M. Etxebarriaren izena proposatuta, aho batez onartzen dute batzordekide guztiek” (59).

Eta hona hemen Jardunaldi hauen ondorio bezela egin ziren grabaketak:

Abaurrea Gaina (A. M. Etxaide eta B. Muniategi: bi inkesta)

Arantza (R. M. Pagola)

Arano (A. M. Etxaide eta B. Muniategi)

Arruta (X. Altzibar eta X. Videgain)

Bakaiku (F. Ondarra)

Bakio (K. Rotaetxe)

Bedia (G. Aurrekoetxea)

Dima (G. Aurrekoetxea)

Eibar (J. M. Etxebarria eta J. San Martin)

Eskiula (X. Altzibar eta X. Videgain)

Etxalar (R. M. Pagola)

Ezkurra (R. M. Pagola)

Garai (R. Garcia)

Goizueta (A. M. Etxaide eta B. Muniategi: bi inkesta)

Hondarribia (J. A. Letamendia eta Txo. Sagarazu)

Inza (B. Muniategi)

Ituren (R. M. Pagola)

Lakarra (X. Altzibar eta X. Videgain)

Larrabetzu (G. Aurrekoetxea)

Larrañe (X. Altzibar eta X. Videgain)

Lekeitio (M. Salinas, bi inkesta)

Markina (R. Garcia, bi inkesta)

Orio (J. M. Etxebarria)

(59) *Euskera*, XXVII, 1982, 672-683.

Unanua (B. Muniategi)
 Urdazubi (F. Ondarra)
 Zeanuri (G. Aurrekoetxea)
 Zornotza (J. M. Etxebarria, bi inkesta) (60)

1982-XII-3an Villasantek Bilbon txosten bat irakurri zuen: *Euskaltzaindia. Zergatik eta nola sortu zen; eta eskuetan darabiltzan lanak*. Txosten horretan hau dio Villasantek: "Dialektologi batzordean ere asmo eta lan handiak darabiltza. Herriz herri eta magnetofonoz euskararen bilketak egin nahi ditu (eta lanean hasia da), aldez aurretik prestatutako galdeketa batzuen arabera. Horrela euskarak tokitik tokira dituen berezitasunak jakiteko bide bat gehiago izango dugu. Batzordearen azken helburua, "Euskararen Atlasa" burutzea da. Euskararen Atlasa: ekintza handia hau ere. Gaur egun edozein hizkuntzak du bere Atlasa egina: frantsesak, gaskoinak, katalanak etab. Guk oraindik ez dugu geurea. Lehen aipatu dudana "Erizkizundi Irukoitza", Azkueren eraginez burutua, horrelako zerbait da, baina ez dago behar bezala argitaratua, eta, gainera, bere garaiko kriterioekin eta tresnekin egin zen. Orain oraingoa behar dugu. Gaur egun ere herriko euskara biziak oraindik behar bezala jasoak eta aztertuak ez dauden berezitasun eta ondasunak ditu. Eta beharrezkoa da horiek jasotzea. Lan horretan dihardu Dialektologi batzordeak" (61).

MARKINA-XEMEINGO III DIALEKTOLOGI JARDUNALDIAK 1983-IX-23/24

Geldiune bat badago dialektologia lanetan baina ekintza hau ez da inolaz ere bazterten. "Jardunaldi hauek Deba eta Donaixti-Ibarrekoaren segida dira". "Berauen helburua... orain arte egin den lanaren erakusketa eta azterketa egitea" eta "atlas linguistikoa martxan jartzeko plangintza zehaztea eta finkatzea" dela esaten du jardunaldi hauetarako deiak.

Eta han bildu ziren euskaltzain eta beste 15 bat pertsona. Bi gai nagusi aztertu ziren jardunaldi hauetan: "Giza-gorputza eta eritasunak" gaiari buruz 1982an egindako lexiko bilketaren balantzea eta Atlas linguistikoaren plangintza.

Bilera honetan, besteak beste, erabaki hauek hartu ziren:

1. Traskribaketak nola egin eta horretarako alfabeto fonetikoak erabaki.
2. Galdeketa zeri buruz.
3. Organigrama Atlasa martxan jartzeko. Eta organigrama honetan sartu ziren: a) kontseilari edo aholkulariak; b) batzorde teknikoa eta d) lankideak.

Lanaren dedikazioari buruz zenbait pertsona lan hauetarako liberatzea ere aztertu zen, era honetako lanak ezin baitira, batzartutakoen eritziz, ordu libre,

(60) *Euskera*, XXVIII, 1983, 253-260 passim. Euskaltzaindian daude zintak eta traskribaketak.

(61) *Euskera*, XXVIII, 1983, 89.

asteburu edota opor garaian burutu. Euskaltzaindiak hiru pertsona liberatzea erabakitzen du: J. M. Etxebarria, jadanik erabakita zegoena, G. Aurrekoetxea eta X. Videgain. Bestalde, hiru hauek kontratua 1984.eko urtearen hasierarekin egitea nahi da, baina kontratoak berak eragozpenak dakartza eta J. M. Etxebarriak bakarrik sinatzen du kontrato hori. Baina lanean ezin da hasi, aste osoan kolaboratzailek ez duelako. Dena dela, tarteka tarteka zerbait prestatzen dute eta Haritschelharrek 1984-IV-27ko Euskaltzaindiaren bileran honela aurkeztu zuen atlasaren egoera: Euskalkiak, J. Haritschelhar-ek esan du, Atlasen batzorde ttipiak ba dituela zenbait gai eskuartean prestatuturik. Fonetika gaiak euskalkiz euskalki, lexikoari buruz erabiliko diren zenbait hitzen bilduma, hala nola aditzena. Joskera ere prestatzen ari dira. Laster aholkulariak deituak izango dira batzar batera! (62).

Proiektua prentsara heltzen da eta urte bereko Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokako eratzailiek gai honetaz hitzaldia antolatzen dute. Mintzatzen dira J. Haritschelhar, J. M. Etxebarria eta X. Videgain (63).

Markinako Jardunaldien aktak honela dio:

“DIALEKTOLOGIA BARNE JARDUNALDIAK

Akta honen bidez Euskaltzaindiari eta zuei, Dialektologia Jardunaldien berri emongo deusuegu. Batzordeko aktan agertuko dira zehatzago partaideak eta egin diren lanak.

Jardunaldi honein egitaraua hau izan zan:

1. Traskribaketak zelan egin.
2. Itaunketa zeri buruz.
3. Organigrama Atlasa martxan jartzeko.

1. Horretarako erabiliko dogun alfabeto fonetikoa erabaki dogu puntu nagusietan eta itaunketaren zati nagusienak aukeratzeko erizpide batzu jaso ditugu.

Lan honetan Dialektologia batzordekorik gehienak egon dira eta J. Allières Toulouseko unibertsitateko irakaslea eta Georges Rebuschi Nancy-ko Unibertsitatekoak heuren laguntza emon deuskue.

Plangintza hau betetzeko organigrama barri bat aurkeztu deuskue Euskaltzaindiko batzar iraunkorrekoak eta hori bere eztabaidatu dogu. Iritzi desberdinak kontuan izanik onartu dogu organigrama hau. Dialektologia batzordearen barruan azpibatzerde honeik egongo dira:

– Kontseilarien batzordea: J. Allières, A. Irigoien, K. Mitxelena, B. Oyharzabal, G. Rebuschi eta K. Rotaetxe.

(62) *Euskera*, XXIX, 1984, 806.

(63) Ikusi *Karmel*, 171 zbkia, 1984, 6-12; eta batzorde teknikoaren 1985-eko oroitidazkia txostena, 12-13. Argitara gabea.

– Batzorde teknikoak: J. Haritschelhar, G. Aurrekoetxea, Ana M.^a Etxaide, Ch. Videgain eta idazkari bezala, J. M.^a Etxebarria.

– Lankideak: orainarte Dialektologia batzordeko izan diran guztiak, gura badabe.

Kontseilari batzordearen zeregina, sortzen diran zalantzak eta eztabaidak argitzea izango da eta eskatuko jakezan itaunari erantzutea.

Batzorde teknikoaren zeregina, itaunketa prestatu, eta plangintza egin, hori betetzeko. Lan guztiaren arduradun nagusiak izango dira.

Idazkariak batzorde teknikoaren erabakiak bete eta betearazoko ditu, bai itaunketari buruz, bai grabaketei buruz eta bai plangintzari buruz. Batzorde teknikoak iritziak emongo ditu, baina botorik ez dau izango.

Lankideak: itaunketa prestatzerakoan, eta grabaketak egiterakoan parte hartu eta gero grabaketak eta traskribaketak egiterakoan erabakiko diren baldintzak bete.

Kontseilarien eta lankideen batzordea ez dira itxiak oraingoz.

Gero Vienen dagozan grabaketa batzuen barri jakin gendun J. M. Etxebarriaren bitartez eta Ana Etxaidek saio legez egin diren grabaketak aztertu zituen” (64).

Villasantek berak Jardunaldi hauek amaitzerakoan honelako hitzak esan zituen: “Amaituteko, berba bat Euskaltzaindiak hemen Markinan egun honeitan egin daben lanari buruz. Askotan entzun eta irakurri izan dogu Euskaltzaindiak herriko euskereari eta euskalkiei ez deustela jaramonik egiten. Baina Euskaltzaindiak badau batzorde bat Euskalkiena deritxona. Eta, hain zuzen, batzorde hau batu da hemen egun honeitan. Zetarako? Herri euskerearen bilketak zelan egin arakatutako. Bilketak egin nahi ditugu Euskal Herri guztian barna, Euskerearen Atlasa osotuteko asmoz. Obra handia izango da, urte askotako lana. Baina honelako obra bat ezin eroan leike aurrera plan zehatz bat egin bage, antolaketa bat bage, eta hori egitera batu da Euskaltzaindia, nun eta Markinan. Egun baten esan ahal izango da Markinatik urten ebala Euskerearen Atlasa zertu eban talde bizkorrak” (65).

Atlasa sortu dela esan genezake Euskaltzainburuaren hitzak entzun eta irakurritz.

Euskaltzaindia, bada, badabil atlasaren asmoa aurrera eramaten. Eta ez hitzez bakarrik. Markinako jardunaldi hauen bezperan, irailaren 22an, Kulturako ministroak deituta euskaltzain batzu Madrilan izan ziren. Eta ikusketa horren laburpean honelako zatitxo bat dago: “Agiritegi eta ikerketarako hain beharrezko ikusten dugun ordenadorea jartzea, hasteko zorian garen Atlas Linguistikoa aurrera eroatea Eusko Jaurlaritzak horretarako eskaintzen digun diru laguntzaz, Dialektologia ikerketak bultzatzea, soziolinguistika estudioak gaurkotzez” (66).

(64) *Euskera*, XXIX, 1984, 399-400.

(65) *Euskera*, XXIX, 1984, 19.

(66) *Euskera*, XXIX, 1984, 409.

Eta III Jardunaldiak bukatu ondoren IV.nak prestatu nahi ditu. 1984. urtera-ko Euskaltzaindiaren egutegia, aurkezten duenean honela dio J. L. Lizundiak: “Era horretara, Lapurdin oraingoan, egin daitezke jardunaldiak eta gai nagusia Atlas Linguistikoaren inkesta burutzea eta aurkeztea izanik” (67).

Eta egutegia hilabetez hilabete jartzen duenean, maiatzeko bilera Jardunaldi hauentzat uzten du, Ustaritze toki bezela aukeratuz eta gaia ere argi eta garbi jarrita: “IV Dialektologi Jardunaldiak (Atlas Linguistikoaz)”.

Fetxa aldatuz toki berdinean eta gai berdinez egin ziran IV Dialektologi Jardunaldiak.

IV DIALEKTOLOGI JARDUNALDIAK

Uztaritze, 1984-IV-22/23

“Ustaritzen 1984ko ekainaren 22-23an IV Dialektologia Jardunaldiak ospatu zituen Euskaltzaindiak. Gaia, “Euskalherriko Atlas Linguistikoa” izan zen. Batzorde teknikoa egon zen eta aholkularirik gehienak. Batzorde teknikoak prestatutako galderak lau zati nagusitan daude: Fonetika galderak; Lexiko galderak; Morfologia galderak eta Sintaxi galderak”.

Fonetika

Fonetika txostena G. Aurrekoetxeak prestatu zuen, aurretik erabaki genuen bezela. Eman ziren pausoak honela izan ziren. Lehenengo euskalkietan gertatzen diren zenbait fenomeno aztertu genituen batzorde teknikoko lau partaideok. Eta hortik aukeratu zituen Aurrekoetxeak fenomeno batzu.

Aukera aurkeztu zuenean aholkularien oharrak azaldu ziren. Lehenengo eta behin terminologia. Hizkuntzalaritza Hiztegitik hartuta zegoen, baina SALABU-RUren tesira ere joan beharko da terminologia hori orraztutzeko eta osotzeko, eta beste lan batzuetara ere.

Fenomeno batzuen izenak ere aztertu ziren; *-a*, *-e*, *-i*, *-o*, *-u* gehi mugatzai-leak sortzen dituen aldaketak bokale armonia dira ala ez ote lirateke morfofonologiaren lege bat izango? Dena den fenomenoak jasota zegoen.

Fonetika arloa ala fonologia? Uste genuen egokiago zela fonetika, hortik gero fonologiarako ere datoak jaso eta erabili daitezkelako.

Alfabeto Fonetikoa. Markinan egin zen alfabeto baten zirriborro bat. Hori hartuko genuke oinarritzat, baina hori bera ere aztertu behar da eta zehaztu.

Galdera fonetiko honen helburua Atlas linguistiko bat egitea da, ez lan monografiko bat. Orduan Atlasen tradizioa eta bideak jarraitu nahi ditu eta ez lan monografiko batenak.

(67) Euskera, XXIX, 1984, 404.

Azentoaren arazoa ere aipatu zen. Jaso behar da ala ez? Eta nola jaso behar da? Zalantzan gelditzen diren puntu horiek batzorde teknikoak garbituko ditu geroago.

Morfologia

J. M. Etxebarriak aurkeztu zuen. Deklinabidea eta aditza sartuko dira arlo honetan. Deklinabidean galdeketa luzeegia ez egiteko eta gauza berezigarrienak aukeratzeko, kaso berezigarrien aukera bat egin zen. Baina aholkularien iritziz, hobeto zen kaso guztiak sartzea aukeratuko diren herrietan. Bestaldetik bizidunak eta bizigabeak aukeratzen dira. Bai bokalez eta bai kontsonantez amaituak.

Eta hauen deklinabidea jasoko da mugagabeen eta mugatuan, eta hemen singularrean eta pluralean.

Gainera sartuko dira izen bereziak bai pertsonenak eta bai lekuetakoak. Honelako galdeketa batek luzeeraren oztopoa dauka. Baina behin egiten hasiz gero, hobe osorik deklinabidea jasotzea. Eta horrela erabaki zen.

Galderak batez ere inoiz magnetofonoarekin ibili ez direnen artean, eta despatxoan lana egiten dutenentzat, akats batzu badituzte. Lekukoak herriko euskara baino nahiago du dotoreagoa egin. Baina arrisku hau biltzaileak berak desegin behar du metodo egokiak erabiliz, gaur herrietan hainbat eta hainbat lekukok uste duelako bere euskara exkaxa dela eta “jakitunen” euskara, hori bai ona dela.

Dena dela, hau ez da lan monografiko bat izango eta Atlasen tradizioa jarraituko da, bide hori nahiko gaitasun duten hainbestek eta hainbestek jarraitu dutelako. Orduan lekukoari emango zaio Atlasetan duen garrantzia. Baina jakina denez, lekukoen aukera ez da bertan behera utziko, ondo neurtu eta ondo pentsatu ondoren egin baino.

Aditzean informazio asko eman dezaketen formak aukeratuko dira eta forma ezagunak alde batera utzi. Aditz sintetikoak ere utzi egingo dira.

Orduan erabaki zena aditz formak gehitzea eta deklinabidea osorik jasotzea izan zen.

Gero, Sintaxia. G. Rebuschi-k sintaxiari buruzko txostena aurkeztu zuen. Ez dira galdera asko, baino linguistika aurreratueneko ikuspegiak agertzen dira. Hori ere aberasgarria izango delakoan gaude, oso fenomeno berezi batzu direlako gaur gramatika sortzailearen bidetik aztertu nahi direnak auskalkien barruan.

Lexikoa

Xarlex Videgainek aurkeztu zuen lesiko zerrenda. Euskal gizarteari lotuta dauden gaiak aukeratu zituen.

Danera 30 gai, hasi abere eta landare izenekin, klima eta eguraldiarenak, etxea eta familiaren inguruak, eta gizarte bizitza, pisu, neurri, diruen izenak eta koloreekin bukatzeko. Denera lau mila hitz, gutxi gora behera.

Lehenengo txostenerako kopuru ederra. Baina arazoa hitz multzo hori murriztutzea zen. Bestaldetik lesiko arrunta eta abereen edo zuhaitzen izenak jaso behar ziren, baina horiekin batera, errementarien lesiko berezia, edo arrantzaleena edo beste lanbide batzuenak.

Bestalde euskal lesikoa erabiltzen duten industri batzuetako formak jaso behar dira. Orduan galdeketa orokor batekin batera beste galdeketa berezi bat behar da. Eta hauen zati handi batzu marrazki eta argazkiak erabiliz.

Bide bi zeuden aurrean: bata lesikoa murriztutzea eta bestea oraindino gehiago sartzea. Dena den, oinarritzat lau mila hitz zituen zerrenda hori onartu zen eta gero batzorde teknikoak orraztuko du entzun ziren erizpideen arabera, eta murriztu ere bai.

Argi gelditu zen bi egunetan lan egin ondoren bazegoela Atlasaren galdeketa izango denaren aurreproiektu bat.

Bigarren pausoa hortik aurrera hasi da: txosten horiek orraztu eta zehaztu, 1985aren hasieran bukatuta egon dadin Euskalherriko Atlas Etnolinguistikoa izango denaren galdeketa. Gero etorriko da hurrengo pausoa: herriz herri, aukeraturako herrietan hori dena bildu. Baina hori geroak esango du. Eta argi baino argiago gelditu zen badagoela gogoia eta asmoa Euskararen Atlas Linguistikoa egiteko.

Asmo hori 1912an lehenengoz aurkeztu zuen Julio de Urquijo jaunak. Garaia bada betetzeko.

Azpiegitura

Azpiegitura ere aipatu zen bilera horretan. 8-10 urteko lana martxan jartzeko ezin daiteke arto-beroak bezela ibili. Pertsonak behar dira lan honi ekiteko jo eta ke. Dena den, hemen lan egingo dutenak beste lan batzuetan baino zihurtasun gutxiago izango dute. Dirua ez ezik idealismo pixkat ere behar da honelako lanetan sartzeko. Tresnak behar dira eta ez nolanahikoak eta tokia behar da material guztiak batu eta lantzeko. Eta gerorako artxibatzeke. Eta kanpoko liburu eta aholkuak ere behar dira.

Hauekin denekin, hamar bat urte barru Atlas horren tomo bat edo gehiago kalean baleude, pozik egongo ginateke (68).

Oraingo honetan langileak hiru dira: G. Aurrekoetxea, 40 ordu astean edo dedikazio osoz; J. M. Etxebarria, 30 orduz, eta X. Videgain 20 orduz.

Kontratoa izenpetu gabe, talde hau lan iraunkorrean hasi zen 1984-X-1 an. Astero biltzen ziren hirurak eta tartean bakoitzari emandako lana prestatzen zuten. Kontratoa azkenean, abenduan izenpetu zuten. Baina kontratu edo hitzarmena esaten dudanean ez dut esaten kontratu laborala, bestelako kontratu bat baino.

(68) J. M. Etxebarria batzordeko teknikoko idazkariak *Mundaiz*, 1984, 28. zenbakian, 216-218.

Lan horren ondorio bezela Atlasaren galdekizunari ekin zioten eta lan horretatik sortuko dira hurrengo V. Jardunaldiak Gasteizen.

V. DIALEKTOLOGI JARDUNALDIAK

Gasteiz, 1985-I-25/26

Gasteizen Euskaltzaindiak duen Ordezkaritza berriaren inaugurapena dela eta, "Atlas Linguistikoaren galdekizunari buruzko proposamenaren azken azterketa eta onarpena"-z iharduteko Euskaltzain, Atlaserako Batzorde Aholkulikide eta Batzorde Teknikokideok bildu gara Gasteizen Urtarrilaren 25 eta 26an.

Etorri direnak: L. Villasante, J. Haritschelhar, P. Altuna, A. Irigoien, E. Knörr, L. Mitxelena, P. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak; A. M. Echaide, B. Oihartzabal eta K. Rotaetxe, Urgazle eta aholkulariak; G. Aurrekoetxea, J. M. Etxebarria eta X. Videgain lanaren aurkeztaile; eta B. Amundarain grabatzaile lanetan.

Urtarrilaren 25eko arratsaldeko Setan Euskaltzainburuaren sarrera hitzekin ematen diegu hasiera bilerei.

Orain arte aurrera eraman ezin izan den asmo zaharra dela euskararen Atlasa esanez hasten du bere hitzaldia. Arlo honetan gure Herrian aitzindari izan ditugun L. L. Bonaparte eta R. M. Azkueren lanak aipatzen ditu. Ondoren Atlasaren helburua "euskararen errealitatea ezagutu, den bezalakoxea atxeman eta jaso, ahalik eta zehazkiena" dela azpimarratuz.

A. Villasanteren ustez V. Jardunaldi hauekin amaiera ematen zaie prestakuntza saioei. Galdekizunaren egokitasuna, inkesta puntuak eta abar aipatu ondoren L. Mitxelenak Debako jardunaldietan Atlasaren premiaz esandako hitzak bere eginez bukatzen du.

IV. eta V. jardunaldien artean egindako lanen kontu eman du G. Aurrekoetxeak ondoren. Zertan aritu izan diren denboraldi honetan, izan dituzten arazoak, bakoitza zein dedikazioz aritu den, lan-sistema eta aurkezten den galdekizunaren ezaugarri garrantzitsuenak aipatzen ditu.

Ondoren B. Oihartzabalek G. Rebuschik Uztaritzera prestatu zuen lana zertan den galdetzen du. Erantzunez galdekizuneko "zenbait arazo morfosintaktiko" atalean kokatzen dela esaten zaio, a bere garaian aztertuko delakoan bertan behera uzten da.

L. Villasantek galdekizunarekin hasteko berriz ematen dio hitza G. Aurrekoetxeari fonetika-fonologia atalaren aurkezpena egin dezan.

Atal honek Uztaritzen aurkeztu zen txostena du oinarri. Han agertzen ziren fenomenoak, batzu lexikoaz baliatuz aztertuko dira, beste batzu morfologian; multzo handi bat kanpoan utzi du; eta gutxiengo bat fonetika-fonologia atalean galdetuko da. Atal honek, beraz, bi fenomeno multzo aztertzen ditu: *i* eta *u* bokal edo bokalerdiek ondoko silabako *a* letran duten eragina, eta euskararen ematen diren sandhi batzu. Guztitara 51 galdera.

Bestalde, testuinguruez ahal denik eta hitz hedatuena bilatu dituztela, esaldi baten barruan kokatu (errezago egiteko lekukoari) eta fenomeno bakoitza lortzeko, inkestatzaileari lagungarri gertatuko zaiolakoan, 3/4 galdera jarri dituztela esanez emaitzen du.

Aurkezpen-azalpenaren ondoren eztabaidara jotzen da. Bi ohar orokor egiten dira. Alde batetik galdekizunaren atal honetako zenbait galderatan fonetika eta morfologia nahastu egiten direla eta bereiztu beharra legokeela. Eta bestetik zenbait fenomenotan sistematizazio falta ematen dela.

Bi ohar orokor horien ondoren fenomenoaz fenomeno aztertzen da txosten osoa, zenbait testuinguru aldatu eta berriak ezarriz.

“Izen Morfologia” atalaren aurkezpena J. M. Etxebarríak egiten du. Izen morfologia “Morfosintaxia” atalaren lehen zatia da, bigarrena “Aditz morfologia” eta hirugarrena “Zenbait arazo morfosintaktiko” direlarik. Izen morfologia atal hau bi zatitan bananduta dago: izenaren deklinabidea eta gainontzeko guztia. Lehen zatiak 491 galdera ditu, bigarrenak 371. Osoara 852 izanik.

Izenaren deklinabidean bost bokal, diptongo (kasu bat) eta kontsonantez (kasu bat baino ez) amaitutako izenena burutu da, bakoitza mugagabe, singular eta pluralaz, eta leku-denborazko kasuetan bizidun/bizigabe bereiztuz.

Gainontzekoen morfologian konparaketa, partitiboa, zenbakiak, erakusleak (hiru graduen deklinabide osoa), indefinituak, izenordainak (ni, gu eta zuek-en deklinabide osoa), eta galdekari eta berauen eratorriak (nor, zer, zein, non, nola...; edozer, edonon...; norbait, zerbait, nonbait...; inor, ezer, inon,...).

Kasuak eta bestelakoak errepresentatzeko erabili den nomenklatura, galdekizunaren egitura, deklinabide kasuen ordena, kasu bakoitzean testuinguru berdintsuak erabiltzea, deklinabidean hitzaren amaiera bakoitzarentzat hitz altxorra, e.a. aipatzen dira aurkezpenean.

Elkarrizketa-eztabaidan galdekizunaren atal hau bere osotasunean hartuz murriztearen aldeko eta dagoen dagoenean uztearen aldekoen artean eztabaidatxo bat sortzen da, gehiengo ez murriztearen aldeko agertuz.

Bestalde, askotan esaldi osoa itzularaztea ez dela nahitaezko, ez egoki aipatzen da, ulergarritasuna kentzen ez den bitartean batikbat. Kasu hauetan aski dela euskaraz agertzea nahi duguna bakarrik galdetzea.

Ondoren testuinguruak aztertzeari ekiten zaio ordenarik gabe, handik eta hemendik; alde batetik gaztelerazko esaldiak zuzenduz eta bestetik testuinguruaren esanahia, zenbait kasutan euskaltzain bati baino gehiagori barregarri iruditzen zaizkion esaldiak komentatuz.

Iluntzeko 9ak aldera ematen zaio amaiera ekitaldiari.

Urtarrilaren 26ko goizeko 9,30etan jarraiera ematen zaio izen morfologiari, elkarrizketa J. M. Etxebarríak gidatzen duelarik. Honako honetan 372.etik aurrerantz aritzen gara. Zati honetan distributibo bat (“hiruna mila pezeta”...) “haren-/beren”, “denak” izenaren ondoren, eta neurrietan “Bost litro ardo baino gehiago edan du” edo horrelako esaldiren bat sartzea onartzen da.

10,15ean aditzaren morfologia hartzen da aztergai. Aurkezpena X. Videgainek egiten du. Aldez aurretik atal honetan sortu den adostasun eza utzi nahi du agerian. Aukeratu den sistemaren ezaugarriak eta nomenklatura azaltzen ditu, orain arte ez baita gehiegi erabilia izan gure artean. Sistema berriaren azalpena bukatu bezain laster eztabaidatxo bat sortzen da sistematizazio zaharra utzi eta berria hartzeko izan diren arrazoiez, eta proposatzen den sistemaren zenbait ezaugarri. Eztabaidan jende askok hartzen du parte, azkenez L. Villasantek mozten duelarik.

Atal honek aditz neutro eta alokutiboa barne hartzen ditu; aditz laguntzaile (lehen eta bigarren laguntzailea) eta trinkoa: guztitara 294 aditz forma.

Aditz defektiboen hutsuneaz galdetzen delarik, egileek puntu honetan izan zuten eztabaida luzea komentatzen da.

11,50ean aurkezpena amaitu orduan atsedenditxo bat hartzen da, 12,15ean elkarriketa-eztabaidari hasiera emateko. Elkarriketa hau J. Haritschelharrek gidatzen du. Eta berean testuinguruak egokitzeari ekiten zaio alde batetik; eta bestetik, zenbait zuzenketa proposatzen dira, hala nola “-iro-”ren ordez “-iro”; berdin -eza, -di; alokutiboetan ia zukako formarik erabiltzen den; galdetu beharko litza-tekeela adierazten du L. Mitxelenak.

Ordu bietarako hamar minutu falta direla ematen diogu amaiera goizeko ekitaldiari.

Arratsaldeko 4etan “Zenbait arazo morfosintaktiko” atala aurkezten du X. Videgainek. Perpaus bakuna baino ez duela aztertzen esanez hasi du bere azalpena, eztabaidagarria dela jakin arren; honen ondorioz ez dela ez nominalizaziorik ezta perpausa txertatueterako erabiltzen den juntagailurik galdetzen. Perpaus bakunean mugatzearen arrazoietan azpimarragarriena: menpeko esaldietako juntagailuek galdera bidez jasotzeko duten zailtasuna aipatzen du.

Atal honetan galdetzen diren fenomenoaren artean hauek aipa daitezke: aditz batzuren erregimena; “ikusi diot” eta horrelakoak; behar, nahi, ahal, ezin, gehi aditz iragangaitza; ari, ibili, ihardun, egon...; galdegaia; alokutiborik erabiltzen den galdera eta txertatueta... Guztitara 41 galdera.

Ondorengo elkarriketan zenbait fenomeno sartu ala sartu ez eztabaidatzen da (ahantz -aditza -t (z)en / -t (z)ea; asko -k; etorri zatoz; egin daroa; -t(z) eke...). Kontrolezko galderak egin beharra dagoela, bestalde, konprobatzeko; eta testuinguru zenbaitzuren egokitzapena aztertzen da.

Lexikoaren aurkezpena J. M. Etxebarriak egiten du. Aurkezten denaren oinarria Uztaritzen X. Videgainek aurkeztutako txostena dela esanez hasten da. Han bertan entzun ziren oharrei jarraituz moztu beharrez ia erdian gelditu delarik. Hala ere mozketan ez dela arrazoi linguistikorik aurkitu aipatzen du, extralinguistikoa baino. Eta mozketan honetan Uztaritzeko txostenak zeuzkan 30 gaiak mantendu egin direla. Guztitara 2.368 galdera, amankomunak, toki guztietan galdetuko direnak, eta 249 galdera espezifiko, zenbait tokitan baino ez direnak galdetuko; Guztitara 2.617 galdera.

Aurkezpena amaitu ondoren elkarriketa zabaltzen da J. Haritschelharren gidaritzapean.

Elkarriketa honetan zenbait puntu ezberdin ukitzen dira. Batzuren ustez lexiko atal hau oso zaila da eta ondo burutzeko oso inkesta-egile trebea izan behar da.

Halaber, atal honen luzeeraz kezkaturik murriztearen aldekoak ere azaltzen dira, eta zenbait hitz arrunt atal honetatik morfologiara pasatzearen aldeko.

Puntu honetan egileek beraien artean ere eztabaidatua izan dela adierazten dute, baina galdekizun osoan mantentzen den erizpidea hobetsi dutela, hots, fenomeno bakoitzak bere galdera izan dezala, maiz galdera batek bi atentziogune ditunean biak kontutan hartu beharrak zaildu egiten duelako inkesta-egilearen lana.

Itzulpenaren arazoak (“moule” hitzean adibidez), lekukoari adierazteko hitz zailak eta beste zenbait puntu ere aipatzen da.

“Beste gai batzu” titulupean ondoko hauek plazaratzen ditu G. Aurrekoetxeak:

1. Atlasa atalka ala dena batera burutu? Hau da, ala lehenbizi dena jaso eta atalez atal argitaratu ala atal bat jaso eta argitaratu, beste bat jaso-argitaratu... amaitu arte?

Atalka egitearen eta kontra zenbait arrazoi azaldu ondoren era honetan egitearen alde agertzen da taldearen izenean.

Aho batez onartzen da atalka egitea, elkarriketa labur baten ondoren.

Beraz, lexikoari dagokionez era honetan bananduko da:

- I atala: 1-4 gaiak
- II atala: 5-7 gaiak
- III atala: 8-17 gaiak
- IV atala: 18-30 gaiak

2. “Galdera fitxa” aurkezten du zenbaki bakoitzean zer joango litzatekeen azalduz.

3. Inkesta-puntuen proposamena. Mapa eta herrien zerrenda batez azaltzen da. Aholkulariak oharrak igortzeko gelditzen dira.

4. “Testu-libreak”: Lekuko bakoitzarekin 15 minututako testu libre bat grabatzeak merezi duen ala ez.

L. Mitxelenak baietz erantzuten du eta galdekizunaren amaieran egitea proposatzen. Hala egitea erabakitzen da.

5. Azentuaren arazoa. Aurkezpenean G. Aurrekoetxeak beraien ustetan markatu behar dela adierazten du.

L. Mitxelenak baietz esaten du, gauza inpresionista (lehenbiziko maila) baino ez bada ere. Hala ere nola markatu behar den horretan ez da adostasun osoa lortu.

L. Mitxelenak azkenez proposamen bat egiten du: “Zintza batzu hartu eta egin saio bat; markatzen joan lanean ibiliko direnak eta beste batzu” erizpideak bateratzeko.

Bilerok amaitzeko J. Haritschelharrek egiten ditu azken hitzak eskerrak emanez guztioi eta batez ere aholkulariei eman duten laguntzagatik (69).

Non dago orain Euskalherriko Atlas Linguistikoa?

Txosten hau aurketzen dudanean, Euskaltzaindiaren 1986-I-31ko batzarrean, 15 herritan Atlasaren lehenengo zatia grabatuta dago, eta zazpiren traskribaketa eginda ere.

Baina irudi duenez, atzerrian Euskalherrian baino ezagunagoa da Atlas hau. Hona zer esaten duen Londresko "Heffers" liburudendako 178. katalogoan, 56. orrialdean: "878. Les atlas linguistiques, et ethnographiques de la France par régions. The following volumes are in preparation: 1: Picardie; 21: Pays Basque; 24: Corse. Editions di CNRS. Details of published volumes available on request".

Zenbakia oker jarri dute, 21.aren ordeaz, 22a izan behar du. Ikusi gero datorren zerrenda.

Azkoz interesgarriago da beste berri hau Gaston Tuaillon jaunak Italiako aldizkari baten azaltzen duena. Gogoratu behar da, G. Tuaillon, 1983an Frantziko Atlas linguistiko guztien arduraduna zela CNRS-n. Hona bere hitzak: "Ont été également rattachés à la collection, les atlas suivants: ...3) le projet d'atlas du Pays Basque français"... Eta beherago jarraitzen du: "Les débordements sur les parlers des Etats voisins sont rares".

Baina badaude adibide batzu. Bat, guretzat interesgarria, aipatzen du: "(6) L'atlas des Pyrénées Orientales (catalan de France) a paru, avec une présentation un peu différente et un réseau très dense (382 enquêtes) au CNRS, mais en dehors de la collection. Pour ce domaine du catalan de France (la partie politiquement française du domaine catalan représente moins d'un dixième de l'ensemble) les comparaisons avec le catalan situé au sud des Pyrénées étaient une nécessité; aussi cet atlas comporte-t-il 6 points en Principauté d'Andorre et 90 points en Espagne et couvre de cette façon tout le dialecte roussillonnais du domaine linguistique catalan".

Eta honelako ohartxo batekin bukatzen du: "Nulle part, ils n'ont provoqué d'incidents diplomatiques, même mineurs; ils ont parfois été l'occasion, par dessus la frontière d'Etats, d'une fructueuse collaboration entre romanistes et dialectologues voisins" (70).

Eta ez hori bakarrik. CNRS erakundeak urte horretan edo inguruan behintzat liburuxka bat atera zuen: *Les atlas linguistiques de la France*. 11. orrialdean G. Tuaillon jaunak Frantziko atlas linguistikoek zerrenda hau ematen du:

1. Picardie: Gaston Tuaillon et Claude Deparis.—2. Normandie: Patrice Brasseur, tome 1, 1980.—3. Bretagne romane, Anjou et Maine: Gabriel Guillaume et Jean-Paul Chauveau, tome 1, 1975.—4. Ile-de-France: Marie-Rose Simoni-Aurembou, tome 1: 1973, tome 2: 1978.—5. Champagne et Brie: Henri Bourcelot, tome 1:

(69) 1985.eko oroit-idazkia, batzorde teknikoak prestatutako txostena, 38-44.

(70) *Bolletino dell'Atlante linguistico Italiano*, III Serie, Dispensa n. 7, 1983, 78-79.

1966, tome 2: 1979, tome 3: 1978.—6. Lorraine romane: Jean Lanher, Alain Litaize, Jean Richard, tome 1, 1979.—7. Ouest: Geneviève Massignon et Brigitte Horiot, tome 1: 1971, tome 2: 1974.—8. Centre: Pierrette Dubuisson, tome 1: 1971, tome 2: 1976.—9. Bourgogne: Gérard Taverdet, tome 1: 1975, tome 2: 1977.—10. Franche-Comté: Colette Dondaine, tome 1: 1972, tome 2: 1978.—11. Lyonnais: Pierre Gardette, tome 1: 1950 (2ème éd. 1967), tome 2: 1952 (2ème éd. 1970), tome 3: 1956, tome 4: 1969, tome 5: 1976.—12. Jura et Alpes du Nord: Jean-Baptiste Martin et Gaston Tuaillon, tome 1: 1971, tome 2: 1975, tome 3: 1978.—13. Auvergne et Limousin: Jean-Claude Potte, tome 1, 1975.—14. Gascogne: Jean Séguay, tome 1: 1954 (2ème éd. 1965), tome 2: 1956 (2ème éd. 1967), tome 3: 1958 (2ème éd. 1968), tome 4: 1966, tome 5: 1971, tome 6: 1973.—15. Languedoc occidental: Xavier Ravier, tome 1, 1978.—16. Massif Central: Pierre Nauton, tome 1: 1957 (2ème éd. 1972), tome 2: 1959 (2ème éd. 1976), tome 3: 1961 (2ème éd. 1977), tome 4: 1963.—17. Languedoc méditerranéen: Jacques Boisgonthier.—18. Provence: Jean-Claude Bouvier et Claude Martel, tome 1: 1975, tome 2: 1979.—19. Roussillon: un atlas a paru au CNRS hors collection, avec une méthode assez différente: Pyrénées orientales, par Henri Guiter, 1 vol., 1965.—20. Alsace: Ernest Beyer et Raymond Matzen, tome 1: 1979.—21. Lorraine germanophone: Marthe Philipp, tome 1: 1977.—22. Basque: Jacques Allières et Jean Haritschelar.—23. Bretagne occidentale: Jean Le Dù.—24. Corse: Mathée Giacomo-Marcellesi.—25. La Réunion: Robert Chaudenson et Michel Carayol.

Atlas linguistikoak eta denbora

Atlas guztien arazo bat denbora izaten da. Lan luzeak dira. Baina horren parean materialen aberastasuna jarri behar da. Euskararen kasoan kontuan hartzekoa da, hizkuntza ez indoeuropeoa izanik eta Europako hizkuntzarik zaharrena, ez duela oraindino atlas bat, hain baliotsua den tresna, ezta datu bankua hortik lortzen dena ere. Ez dut pentsatu nahi Euskalherrian euskara ahoan ibiltzeko jostailutxo bat dela, eta bai, gure altxor bat dela, jaso, landu eta ezagutu behar dena, gero eta gehiago. Horretarako da Atlas linguistikoa: gure patrimoniaioa aberasteko. Baina lan honetarako ez dugu eskatzen denbora gehiegi. 8 bat urtean aurreraka da ona eta agian osorik bukatuta egongo litzateke, behar dituen laguntzak ematen badituzte administrazioa eskuetan dutenek. Eta hemen ilargia eskatzen dugula norbaitek pentsa ez dezan, estatuak eta CNRS-k lagunduta Frantziako Atlasak zenbat denbora iraun duten aipatuko dut. Dato hauek ere G. Tuaillon jaunak emanak dira.

1. Picardie: 24 Corse: *non parus*.

Ont paru sous le titre Atlas linguistique (et ethnographique) de..., au C.N.R.S. (15, quai Anatole France, 75700 PARIS) les régions suivantes:

2. Normandie, par Patrice BRASSEUR (abréviation ALN), tome 1 (1980): 373 cartes.
3. Bretagne Romane, Anjou et Maine, par Gabriel GUILLAUME et Jean-Paul Chauveau (abr. ALBRAM), tome 1 (1975): 280 cartes.
4. Ile-de France et Orléanais, par Marie-Rose SIMONI-AUREMBOU (abr. ALIFO), tome 1 (1973) et tome 2 (1978): 687 cartes.
5. Champagne et Brie, par Henri BOURCELOT (abr. ALBC), tome 1 (1966), tome 2 (1969) et tome 3 (1978): 1045 cartes.

6. Lorraine Romane, *par Jean LANHER, Alain LITAIZE et Jean RICHARD (abr. ALLR), tome 1 (1979), tome 2 (1981): 695 cartes.*
7. Ouest, *par Geneviève MASSIGNON et Brigitte HORIOT (abr. ALO), tome 1 (1971), tome 2 (1974): 612 cartes.*
8. Centre, *par Pierrette DUBUISSON (abr. ALCe), tome 1 (1971), tome 2 (1976), tome 3 (1982): 1275 cartes (cartographie terminée).*
9. Bourgogne, *par Gérard TAVERDET (abr. ALB), tome 1 (1975), tome 2 (1977), tome 3 (1980): 1800 cartes (cartographie terminée).*
10. Franche-Comté, *par Colette DONDAINE (abr. ALFC), tome 1 (1972), tome 2 (1978): 719 cartes.*
11. Lyonnais, *par Pierre GARDETTE (abr. ALLy), tome 1 (1950), tome 2 (1953), tome 3 (1956): 1320 cartes; tome 4, Exposé méthodologique et Tables (1968); tome 5, Commentaires (opération terminée).*
12. Jura et Alpes du Nord, *par Jean-Baptiste MARTIN et Gaston TUAILLON (abr. ALJA), tome 1 (1971), tome 2 (1974), tome 3 (1978): 1842 cartes (cartographie terminée); un fascicule d'index.*
13. Auvergne et Limousin, *par Jean-Claude POTTE (abr. ALAL), tome 1 (1974): 582 cartes.*
14. Gascogne, *par Jean SÉGUY (abr. ALG), tome 1 (1954), tome 2 (1956), tome 3 (1958), tome 4 (1966), tome 5 par Jacques ALLIÈRES (1971) et tome 6 (1973): 2531 cartes; une pochette de matrices dialectométriques (opération terminée).*
15. Languedoc Occidental, *par Xavier RAVIER (abr. ALLOc), tome 1 (1978): 264 cartes.*
16. Massif Central, *par Pierre NAUTON (abr. ALMC), tome 1 (1956), tome 2 (1959), tome 3 (1961): 1899 cartes (cartographie terminée); tome 4, Exposé général.*
17. Languedoc Oriental, *par Jacques BOISGONTIER (abr. ALLOr), tome 1 (1981): 308 cartes.*
18. Provence, *par Jean-Claude BOUVIER et Claude MARTEL (abr. ALP), tome 1 (1975), tome 2 (1979): 670 cartes.*
19. Pyrénées Orientales, *par Jean GUITER (abr. ALPO), tome unique (1966): 565 cartes (opération terminée) (71).*

Eta kasu berezia eta apartekoa den arren, ALI (Atlante Linguistico Italiano) ere aipatuko dut. 60 urte iraun du Atlas honek eta orain argitaratzen hasteko daude. Baina 8.000 galdera ditu eta bost miloi erantzun baino gehiago jaso dituzte eta milaka etnografi dato (72).

Era askotako oztopoak sort daitezke, baina lan honi inork oztoporik jartzen ez badio lor daitekeela uste dut.

(71) Bertan, 82.

(72) Bertan, 5 eta 7-10.

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA (EHHA): INKESTA METODOLOGIA ETA EZEZKO DATUAK

1986-1-31

Gotzon Aurrekoetxea

1. Inkesta-metodologia

Ondoko lerroetan azaltzen den lantxo honek bi zati ditu: hizkuntz Atlasgintza lanetan erabiltzea erabakitako inkesta metodologia alde batetik eta guk “ezezko datu” hitzez bataiatu dugun kontra-galdeketa erabilpenaren nondik norakoaren azalpena bestetik.

Euskal dialektologigintzan aberatsa da gure Herria. Badira lan ederrak, mar-dulak, argitaratuta dauzkagunak; badira beste pila bat lan nonbait aurkeztu beharrez, hala linguistika ikasten ari diren ikasleak, nola euskararen tituluren bat eskuratzeko euskararen inguruan zerbait burutu beharrez euskal dialektologian barrena abiatu direnak, euskalki edota zenbait herritako euskara jaso dituztenak.

Lehenak, argitaratu direnak, asko badira, bigarren hauek konta-ezinezkoak direla esateaz ez dugula astakeriarik esaten pentsa genezake.

Grabaketa pila bat gure artean daukaguna, erakundeetarik hasi eta ia ia edozein norbanakorengana heldu arte. Grabaketak, gure hizkuntzaren aberastasuna gordetzeko bildu beharko liratekeenak, denon zerbitzuan jartzeko.

Lanak ugari egin eta argitaratu izan badira ere, lan horietan erabili den metodologiaz edo dialektologian grabaketa eta jasotze lanetarako metodologiaz, ordea, ezer gutxi argitaratu da gure artean. Badirudi bakoitzak ahal izan duen eran egin duela berari zegokiona, inor ez baita gelditu sakontzen metodologiaren azterketa.

Hala ere preminazko deritzogu egiten diren dialektologi lanetarako zertxobait bederen metodologia landu bat erabiltzeari, beste alorretan bezala, honetan ere lortzen diren emaitzen balioa fidagarriagoa izan dadin.

Beharrian honetaz ohartuz atlasgintza lanetan dihardugunok inkestagintzan erabiltzeko landu dugun metodologia argitara eman nahi dugu ezertarako balioko duelakoaren esperantzaz.

Gure hizkuntza ingurukoetarik berezi xamarra izateak berari buruzko ikerketa edota datu biltze soila ere berezitu egiten duela somatzeko ez da gehiegi ibilia izan behar dialektologi inkestagintzan. Konstatazio hau egiten ez gara lehenak;

gure aurretik behin baino gehiagotan izan da egina, guk hemen aipamen bat baino egingo ez dugun arren. Euskaltzaindiak 1982.eko Apirilaren 26ean Donaixti-Ibarren ospatutako "2. Dialektologi Jardunaldietarako" L. Mitxelena jaunak pres-tatu zuen "Euskalkien ageriko aurpegia" lanean zera esaten du gure inguruko hizkuntza erromanikoetan egiten diren dialektologi ikerketa eta gurekoen arteko ezberdintasunaz: "...auzokoenak, haatik, ezin guregana ditzakegu, eta hor dago "untzea", besterik gabe. Premiazkoak dira aldakuntzak, burutik oinetarainoko aldakuntzak, besterenez baliatuko baldin bagara" (1).

Berezitasun hauek, atlas bat burutzean inkestagintzan eragiten dituzten meto-dologi aldaketak, jorratzen ditugu, bada, lan honen lehen zatian.

Teorikoki dialektologi arloan eta bereziki atlasgintzan, korrespondentziaz egin-dakoak alde batera utziz, inkesta-metodologian joera ezberdinak izan dira ikerlari zenbaitzuren artean.

Bazen joera bat lekukoari bere hizkuntzako eredurik eman behar ez zitzaiola aholkatzen zuena.

Era honetako inkestetan galdera eta ohar guztiak erdal hizkuntza batez emanak ziren, lekukoak bere hizkuntzako beste eredurik entzun ez zezan eta ondorioz kutsatu ez zedin.

Bigarren joera baten arabera, aurreko eraren aldaki bezala kontsidera daite-keena, inkestagileak ez du hitzik ahoskatuko. Argazkiez baliatuko da, erakusten dituen irudien izenak galdetuz (2).

Besteren batzuren artean hirugarren bat ere aipa daiteke. Zera da: lekukoa-ren hizkuntza bera erabiltzea aurkitu nahi den hitzaren deskribapen edo definizio eta azalpenak emateko.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako 1. atalerako inkestagintzan erdara era-biltzeak daukan kalko-linguistikoen arriskua baztertuz euskaraz aritzea erabaki da, nahiz eta J. Allières-ek aipatzen duen arrisku interdialektala kontutan izan (3).

Inkestagilea euskaraz mintzatzen zaio lekukoari denbora osoan, inkesta bera ahal denik eta "era elkarriketatu" baten itxura ematen saiatuko delarik. *

Galdera-erari dagokionez behin edo behin baino ez da eskatzen erdal hitza-ren itzulpena.

Bi joera dira nagusi galdekizuneko 472 galderatan zehar: galdekizunaren lehen zatia narratzi, intsektu, arrain, txori eta piztiak aztertzen dira. Hau da, galdekizun orokorreko lehen gaia.

(1) **Euskera** XXVIII (1983-1), 245-252 orr. Aipamena 245. orr.

(2) Katalunian "Atlas lingüístic del Domini Català"ren arduradunek (A. M. Badia, J. Veny, M. Companys eta Colon) S. M. Sapon hizkuntzalarariaren "A pictorial Linguistic Interview Manual" (PLIM) sistema erabilia dute.

(3) "Suggestion pour l'atlas" (Problemas de la Prehistoria y de la Etnología). *IV Symposium de Prehistoria Peninsular*, 1965. Príncipe de Viana, 249. orr. Ikus baita L. MITXELENA "El atlas lingüístico vasco" in *Presente y futuro de la lengua española I*. Madrid, 1964, 427-442 orr. eta zuzenago 439. orr.

Hauetariko bakoitza adierazteko irudidun liburuez baliatzen gara. Darabiltza-gun liburuak (4) gai hauetaz argitaraturik daudenak aztertuz, ahal zenik eta erabilgarrien gerta zedin, proba batzu egin ondoren, gure galdekizunean azaltzen diren “animalien” irudi gehien zeuzkatenak aukeratu genituen, ahal zenik eta liburu gutxien erabili behar izateko esku artean.

Izena jakin nahi den narrazti, arrain, pizti... eta abarren irudia erakusten zaio lekukoari. Irudiarekin batera bere habitat eta ezaugarri garrantzitsuenak, hots, zer jaten duen, noiz agertzen den, zer duen maiteen... azaltzen zaizkio.

Galdekizunaren bigarren zatian fenomeno atmosferiko, denboraren zatiketa eta erliebea aztertzen dira. Hauetan ez da irudirik erabiltzen zenbaitzutarako baizik. Deskribapen eta definizioak erabiltzen ditugu: adibide bat emanez “izar” hitza lortzea bada helburu, honela deskribatuko diogu lekukoari “zeruan gauaz lainorik ez dagoenean asko ikusten dira, txiki txikiak, argia ematen dutenak, zer dira?”. Deskribapen guzti hauek “galdera-fitxa”tan azaltzen dira.

Era honetan galdetuz hizkuntzen arteko kalkoen arriskua desagertarazi egiten dela uste dugu eta neurri handi batetan euskalkien artekoa ere.

Irudia argia bada eta deskribapen edo definizioa ondo burututa badago lekukoak ez du arazorik izango erantzun “zuzenak” asmatzen. Hala ere irudia adierazgarri ez delako edota deskribapen edo definizioa argi ez dagoenean edo lekukoak berak benetakoa ezagutu edo bereizten ez duenean, gerta liteke lekukoak inkestagileak “a priori” espero ez zuen erantzuna ematea edo inkestagilearen ustez “erantzun okerra” izatea. Kasu hauetan “erantzun okerra” eman duen igartzeko bi bide erabiltzen ditugu:

a) Lekukoak erantzunez ematen duen hitza ezaguna bada eta inkestagileak galdetzen duenaren erantzuna ez bada, beste era batez adieraziko zaio zer nahi den. Aurreko adibide horretan inoiz jazo da “igetargia” lehen erantzunez ematea. Erantzun hau begi bistakoa da ez dela inkestagileak jaso nahi duena. Berririo azaldu beharko dio “igetargia baino txikiagoak direla eta asko izaten direla...” asmatu arte.

b) Lekukoak erantzunez ematen duen hitza ezezaguna bada, inkestagileak hitz hori deskribatzeko edo zer adierazi nahi duen galdetuko dio: era honetan ziurtatzen da lekukoaren erantzunaren fidagarritasuna. Inkesta batetan “témpanos” edo “glaçons” esateko “garranga” hitza eman zuen. Inkestagileak zer zen “garranga” galdetu zion eta berak deskribapen batez adierazi.

Egia esan, zorionez maizegi ez bada ematen ere, gertatzen dira halako buruhaustek lekukoari zer bilatzen ari garen adierazteko, ondo ezagutzen ez dituen animalia edo objektuetan batez ere.

Ikusten ari garenez Gillieron-en “lehen kolpea”ren teoria hura desmitifikatu egiten dugu, pixka bat baino ez bada ere, baliorik ez bait diogu ematen (edo gutxi behintzat) lekukoak berak arbuiazen duen hitzari, lehena izan arren, erra-

(4) Hauek dira P. DAHLSTROM eta B. J. MUUS, *Guía de los peces del mar* (ed. Omega espainieraz) eta I. ZAHRAĐNIK eta J. ČIHAR, *Guía básica de la Fauna de Europa*.

kuntza nabarmena dela ohartzen denean. Lekukoaren ustez erantzun zuzena den argi gelditu behar da inkestaunean, hura baita balio handiena duena. Eman dituen beste erantzunez transkribatzaileak bere oharrak jartzeko aukera izango du.

Beraz, lehenik bilatzen ari den animalia edo objektuaren izena finkatzen ahaleginduko da inkestagilea.

Bestalde, inkesta jasotzeko moduan ere izan dira aldaketak dialektologian. Grabatzeko tresnak sortu arte ez zen lekukoak ematen zituen datuak bertan, inkesta egin garaian, jasotzea baino beste erremediorik, ez zen beste aukerarik.

Giza-ahotsa kalitate handiz jasotzeko tresnak agertu zirenean bi joera nabarmendu ziren dialektologi inkestagintzan: bi joerok G. Hammarström-ek proposatu eta M. Companys-ek bi artikulu definitibotan (5) erabiltzen duen terminologian “enquête directe” eta “enquête indirecte” dira, guk hemen “inkesta zuzena” eta “zeharkako inkesta” izenez erabiltzen ditugunak.

“Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne” (A.L.G.)-ko inkesta konplementarioan (6) (M. Companys garai hartan A.L.G.-ko lankidea zen) zeharkako inkesta eraz baliatzea erabaki zuten, orduan dialektologi inkestetan banda magnetikoak erabili edo ez erabiltzearen baliotasunaz pil-pilean zegoen eztabaida itxiz. Inkesta osoa zinta bidez jasotzea erabaki zuten ezer idatzi gabe.

Gure lan honetarako ere jokabide hau hartu dugu eta inkesta osoa hasieratik bukaeraraino grabatzea erabaki dugu. Alde batetik lekukoak inkesten zehar esaten dituen hitz guztiak bere azalpen, ezbai, zalantza eta ohar guztiak jasotzeak merezi duelako (galdetzen den hitz horrek herri horretan daukan bizitzaz seguruago izango garelako). Eta bestetik galdekizun erak, berak, aurrerago ikusiko denez, horretara behartu gaituelako, bere konplexotasuna dela eta.

Lekukoa falta zaigu inkesta burutzeko. Lekukoa aukeratzeko bi bide erabilgarri ditugu. Hautatuta daukagun inkesta-puntuak inor ezagun edo adiskiderik bada, bera erabiltzen dugu bitarteko lekukoa aukeratze lanetan. Lehen-lehenik lekuko “on” batek bete beharko litzuzkeen baldintzez gida-puntu batzu dituen eta horretarako osaturik daukagun orrialdea bidaltzen diogu bitarteko horri, orrialde horren arabera aukera dezan. Epe labur bat eman ondoren berarekin harremanetan jartzen gara inkesta-eguna finkatzeko.

Lehen ikustaldia bitarteko horren laguntzaz egiten da. Bitartekorik ez bada inkestagilearen esku gelditzen da zeregin hori eta herrira helduz berak ekin beharko dio handik eta hemendik lekuko egoki bat lortu arte.

Lekukoa aukeratuz gero biak, lekukoa eta inkestagilea, aurrez aurre mahai baten inguruan jarritz, sukaldean nahiz etxeko beste gelaren batetan, toki isila

(5) “Les nouvelles methodes d'enquête linguistique”, Via Domitia III (1956), 89-138 orr. eta V (1958), 49-167 orr. Ikus baita lan honen laburpen bat J. Allières, “Suggestions...” aurrerago aipatua, 249-251 orrialdetan.

(6) Ikus X. RAVIER, “L'Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne: le bilan de l'entreprise et les réalisations en cours”, Lo Gai Saber, Revista de l'Escòla occitana, 315, juillet-août, 1964, 431 eta ss.

ahal bada, lanaren helburua, zergatia eta abar azaltzen dizkio. Gero inkestaren sistema azaldu eta bere fitxa betetzen da. Ondoren magnetofonia martxan jarri eta zintaren hasieran datu batzu grabatuz inkestari ekiten zaio magnetofonia atsedenuetan baino gelditzen ez delarik. Lan honetan darabilgun tresneria ondoko hau da: magnetofoniak denak UHER etxeak dira: UHER 4.400 eta UHER 4.200. Abiada 9,5-ean, Mikroak UHER M 534. Zintak BASF 13 zm.takoak, 275 m. eta 365 m. takoak (hauek gutxien batzu). Grabaketa "pista" batetan baino ez da egiten eta alde bietarik.

Inkesta osoan (7) hizki bat ere ez da idazten, atentziogune bakarra lekukoak esaten duenean jarriz.

Lekukoari galdekizuneko ordenaren arabera joango gatzazkio galderak egiten, irudiak eta deskribapenak aurkezten, bilatzen ari garen horren izena eman diezagun. Lekukoak erakusten diogun irudi edo ematen diogun deskribapen-definizioari dagokion izena era mugatuz (gehienetan singularrean) erantzuten dio. Hau da, artikulua eta guzti.

Artikuluaren izaera da euskara inguruko hizkuntza erromanikoetatik bereizten duen marka bat. Artikulua atzetik izatea eta ez inguruko hizkuntzetan bezala aurretik eta hitzetik bereiz, da arlo honetan, atlasgintza lanean, kanpokoek izan ez duten eta guk gainditu behar izan dugun arazo berri bat (8).

Hitzaren forma mugatu eta mugagabea ez bereiztea honelako lan batetan onartezina litzateke, zeren artikulua sortzen dituen aldaketa fonetikoez gain, bera eta -a itsatsia ondo bereiztea nahitaezkoa baita, zientifismo txikiena eman nahi bazaio lanari.

Lexikoaz ari garelarik hitz hutsa behar da, lexema hutsa, beste inolako atzizkirik gabea, artikuluen eragina morfologian neurtuko baita, izenaren deklinabidea aztertzean.

Beraz, bigarren galdera baten beharrezana argi ikusi zen. Era honetako galdekizunaren aurrean lexema hutsa nahi baldin bagenuen, bigarren galdera nahitaezkoa genuen.

Une honetan arazoa larriagotu egin zen, ze biltzen ziren emaitza guztiak aldaragarri edo gonbaragarriak izan behar ziren. Horretarako egiten zen galdera ere berdina edo berbera izan behar zen toki guztietan. Eta galdera hau "naturala", bortxatu gabea izan behar zela uste genuen, lekukoak galderaz galdera gehiegi asper ez zedin.

Arazo hau gogotan izanik mugagabea lortzeko aukerak aztertzen hasi ginen (9). Ondoko determinatzaile hauek erabili genituen: bat, hiru, zenbait, batzu, zenbat, zein, bost, hau/hori...

(7) A.L.G.ko inkesta komplementarioan lehenik eta A.L.L.Oc-en gero (Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental) egin bezala.

(8) Ikus besteak beste. L. MITXELENA, "Encuestas lingüísticas en el País Vasco", **Euskera**. XXVI (1981-1), 245-252; eta J. ALLIERES, "Suggestions..." aipatua.

(9) Ikus formula edo era batzu, L. MITXELENA, "Encuestas lingüísticas..." lanean.

Ondoren testuinguru desegokia sortzen zuten determinatzaileak kentzen edo baztertzen hasi ginen: hala “bat” eta “batzu” fonetikazko arazoak sor ditzaketelako aurrean, hitzaren amaieran, “-n” aurkituz gero.

“Zenbait” ere, euskararen eremu osoa ez duelako hartzen, eta helburua inkesta-puntu guztietan testuinguru berbera erabiltzea erabaki bait zen.

“Zenbat”, “zein” eta antzerako galderagileak desegokiak iruditu zitzaizkigun, galderaren erantzuna emango zuketelako edo antzerako zerbait.

Eta besterik ezean “bost” zenbakaria aukeratu genuen, alde batetik ez duela arazo fonetiko handirik sortarazten; bestetik eroso egiten delako galdetzerakoan, eta azkenik, baina aurrekoak bezain garrantzitsua, euskararen eremu osoan berdintsu erabiltzen delako. Esan behar da batzutan bitxia egiten dela (“bost eguzki”, “bost eguraldi”, “bost hotz”... baina lekukoa jokoan sartuz gero oso ondo ateratzen da).

Lekukoak testuingurua hobeto uler dezan, inkestaren hasieran nola burutu nahi dugun azaltzen zaio: ematen duen erantzun bakoitzaren ondoren beti galdetuko diogula “eta bost?”, berak eman duen hitzari “bost” erants diezaion, ariketa pare bat eginez. Adibide bat hartuz: “izarra” hitza ematen duenean “eta bost?” galdetuko diogu berak “bost izar” eman dezan.

Burutu diren inkestetan, esan beharra dago, oso ondo egokitu direla lekukoak, sarritan galdetu gabe ere, eman duen erantzunari automatikoki “bost” determinatzailea eranstera helduz.

Testuinguru hau, “bost+hitza”, galdekizun osora hedatzea erabaki genuen gero, beste arazo bati inkesta guztian zehar erantzun berdintsua emateko: azentuari, hain zuzen.

Atlas batek hizkuntzaren inguruan sortzen diren arazo edo ñabardurei dagozkien ikerkuntzak bideratzeko tresna egokiak aurkeztu behar dituela uste dugu.

Euskal Herriko Atlas linguistikoaren lehen atal honetan hurbil hurbiletik ukitzen direnak lexikoa, ahoskuntza eta azentua dira. Eta hiruretarik arazo larrienak sortzen dituena gure hizkuntzan azken hau dugu: azentua.

Galdera bakoitzari testuinguru ezberdina jarritz gero, azentuaren kasuan gure galdekizunaren emaitzek ez luketela balioko elkar kidetzeko ikusten zen, testuinguruak ezberdinak izanik azentua ere alda zitekeelako.

Galdera guztietan testuinguru berbera erabiliz emaitzak gonbaragarriak egi-ten genituen. Eta horrela egitea erabaki genuen LEHEN ATAL honetan, izene-
tan bederen.

Inkestan zehar tarteka marteka atsedenalditxoak eskeintzen zaizkie lekukoei magnetofoa geldituz, zigarro bat erre edo grabatutakoaren kalitatea konprobatzeko.

Eta hitzez hitz, galderaz galdera, inoiz lekukoa moztu gabe, presarik hartu gabe, sortzen diren pasadizu, gertakizunen historiak eta lekukoaren bizitzeko pasarteak entzunez inkesta-saioaren bukaeraraino abiatu arte ekiten zaio.

Lekukoari bere azalpenak moztea ez dugu onartzen zenbait arrazoi dela medio; beste batzuren artean hona hemen batzu: bat, lekukoa harro sentitu-arazi

behar dugu, gauzak bide onetik abia daitezzen. Horretarako berak esaten dituen hitz guztiak eta azalpenak interesgarriak direla (berez interesgarriak dira) aditzera eman behar diogu. Bi, bere azalpen eta kontakizunetan zehar ohar etnologiko asko eta asko azaltzen direlako. Eta hiru, maiz galdera zehazteko baliagarri gertatzen direlako.

Inkesta-saio bakoitzak bi ordu inguru irauten du batz bestea. Ez dugu uste, ohituraz, luzeagorik egin behar denik, inoiz gerta baledi ere. Kontutan hartu behar da informatzaileak jende adintsuak izaten direla eta beraiek konturatu gabe nekatu egiten direla. Eta normala denez, zenbat eta nekeago hainbat eta hutsune gehiago. Eta normalean eguneroko zereginak egin behar izaten dituztela, lana edo besterik ez bada, auzokoarekin eguneroko hizketaldia.

Inkesta-saioa amaitzean hurrengo saiorako eguna eta ordua jarritz bukatzen dugu ekitaldia.

Jakina da, aditasun osoa jarri arren ere, inkesta guztietan, inkestagile onari gutxiago, txarragoari gehiago, zenbait galdera itauntzea, hitz haren mugagabea lortzea, beste hitz hura proposatzea... ahaztu edo “pasa” egiten direla.

Akats hauek kontutan hartuz, lehen inkesta burutu ostean eta bigarrena egiten joan aurretik grabatutako zinta transkribatzea gomendatzen da, beti ez bada posible gertatzen ere.

Transkribaketa horretan azalduko dira bete diren hutsuneak. Hutsune guzti horiek bakoitza bere zenbaki eta identifikatzeko beharrezko dituen kodeekin bigarren inkesta-saioan edo inkesta guztiaren bukaeran galdetuko dira elkarren segidan. Era honetan inkestak hutsune gutxiago izango du eta osoago aterako da lanaren emaitza.

Azken inkesta-saioa bukatzean lekukoari oroitzarri bat ematen zaio, ez lanaren ordain, ordaintezina baita, gure esker ona adierazteko baino.

Gure ustez ezin da inoiz aldenitu inkesta edo grabaketa bat burutu ondoren lekukoari, oso konfidantzazko ez bada, detailetxuren bat, txikiena bada ere, berarekin izan gabe. Beraiek konsziente dira zerbait eman, aportatu egiten dutela; guk, ordea, ezin ditugu musutruk utzi, hurrengo batez bere beharrezana izan eta berarekin kontatu nahi baldin badugu behintzat.

2. Ezezko datuak

Jatorriz Gillieron-ek bere A.L.F. burutu zuenetik oraintsu arteko atlas linguistikoetan datu positiboak baino ez ziren jasotzen, hau da, inkestagileak era zuzen edo zeharkakoaz baliatuz lekukoak ematen zion erantzuna bakarrik jaso izan da. Eta ezer ez bazuen erantzuten, kontzepto horrentzat hitzik ez edo gogoratzen ez zelako, ezer ere ez zen jasotzen.

Inkestak burutze eta datuak jasotze era honi “gillieronon era” ere deitu izan diote behin baino sarriagotan.

Gaur egun ere honela burutzen den atlasik badugu, atlasgintzaren teknika eta norabidea poliki poliki aldatuz badoa ere.

“Atlas Linguistique et ethnographique de Gascogne” (A.L.G. hemendik aurrerantz) delakoaren inkesta konplementarioa burutzean Jean Séguy proiektuaren buru zen Toulouse-tar hizkuntzalaria eta Xavier Ravier geroago ezagunago bihurtuko den dialektologoaren artean geolinguistikan aurrerapausu nabarmena suposatzen duen aldaketa metodologiko bat baino gehiago jarri zituzten praktikan.

Puntu honetan guri dagokigunez arituko gara, beraiek “données négatives” deitzen dutenaz, alegia (10).

Lehenik informazio positiboak bilatzen aritzen ziren. Baina inkesta-unean lekukoak bilatzen ari ziren hitz hori ez bazuen konszientean, edo memorizazio ahalegin beharrezkoa ez zuelako egin nahi, edo hitza edo nozioa ez bazuen ezagutzen, edo “galizismo” (“erdarakada”?) bat ematen zuenean, A.L.G.n inkesta-puntu horretako inguruetakoa herrietan jasotako hitzak, bat edo bi, proposatzen zitzaizkion (beraiek “contre-interrogatoire” deitzen zioten), informatzaileari galde-tzen ari ziren hitz horri esateko erabiltzen ziren ala ez itaunduz. Proposatzen zituzten hauek deitzen zituzten “données négatives”, hau da kontra-galdeketa-aren bidez lortzen den erantzuna.

Proposatu edo iradokitako hitzen aurrean lekukoak izan dezakeen jarrera sinbolo konbentzional batzuz aztertzen da, guztiz ados izatetik ukatzerainokoak betetzen dituzten zeinuak erabiliz.

Lekukoak hitz bat nolabait onartzen zuenean, onarpenaren maila aztertu asmoz A.L.G.n erlojuaren orratzen sinboloa hartzen zuten, orratzaren bost posizioz baliatuz (11).

Lekukoak proposatutako hitza ezeztatzen zuenean, hau da ezagutzen ez zuenean, hitz horren lehen hizkiaren alfabeto grekoko kidea jartzen zuten mapan.

A.L.G. amaitu ondoren X. Ravierrek “Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental” (A.L.L.Oc.) burutzean erlojuaren orratzen sinbolismo hori hain konplexu ez zen beste sistema batez aldatu zuen (12). Sistema hau oso sinplea da: proposatutako hitza lekukoak formalki onartzen badu Σ grekoko hizkia jartzen zaio ondoren. Hitz hori zuzenduz ematen badu, Σc jarriko zaio ondoren. Gerta daitezkeen beste ñabardura guztiak (nekez onartzea, erabilpenaren arazoa...) oharren bidez adierazten dira.

Aldaketa metodologiko honek atlasgintzari bide berriak zabaltzen dizkiola ezin da ukatu.

Lexikoaz ari garelarik, abantaila handiak dakartza lexikologia arloan.

Sistema honek lekukoaren baitan dagoen hitzen disponibilitate edo erabilgarritasuna neurtzeko aukera ematen digu. Adibide bat emanaz eta horretarako

(10) X. RAVIER, “Le traitement des données négatives dans l’Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne”, *Revue de Linguistique*, XXIX, 1965. Ikus baita J. SEGUY, “Avant Propos” de l’A.L.G. IV.

(11) X. RAVIER, “Le traitement...”; J. SÉGUY, “Avant propos...”.

(12) X. RAVIER, “Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental”, “Avant propos”.

jadanik jasota dauzkagun inkestetako emaitzez baliatuz, “Erithacus rubecula”, gure erdara bietan “petirrojo” eta “rougegorge” txoria izendatzeko “txindor” hitza jaso genuen inkesta batetan. Hitz bat jaso arren, bigarren bat ezaguna zen frogatu nahi genuen eta “papargorri” hitza proposatu. Hitz hori ere ezaguna zen txori berbera izendatzeko. Inkesta-puntu berean “Vulpes vulpes” (gure erdaretan “zorro” eta “renard”) basa-piztia izendatzeko “luki” hitza jaso zen era positiboz; hala ere “azegari” hitza proposatu eta “badakiu ser dan... berbain es” erantzun zuen informatzaileak.

Adibide bi hauen arabera kontzepto bi horiek inkesta-puntu horretan duten disponibilitatea aztertzeo aukera ederra sortzen zaigu. Alde batetik “txindor” eta “papargorri” hitzen erabilgarritasuna berdin samarra dela frogatu daitekeen bitartean, “luki” eta “azegari” hitzen artean oso bestelako egoeran aurkitzen gara.

Dialektoen arteko edo inkesta-puntu ezberdin biren arteko elkar-ulerketa neurtzeko datuak ere aurkezten dizkigu sistema honek.

Aurreko lehen adibidean agertzen diren hitzak erabiltzen dituen lekuko edo inkesta-puntu horretako biztanle guztiek era naturalez ulertuko dute.

Bigarren adibidean “luki” hitza zein “azegari” entzutean ez du arazorik izango ulerpenerako. Baina “luki” hitza erabiltzen ez den edozein inkesta-puntutako batekin hitzegitean, hitz hau erabiltzean ez dio ulertuko zer esan nahi duen, ez badio beste inolako azalpenik ematen.

Hitzen hierarkia aztertzeo bidea ere jartzen dute era honetako inkesta batekin ematen dituen ondorioek. Aurreko adibideak jaso ziren inkesta berean “destrorzar”, “devastar” / “ravager”, “abimer” esateko era positiboz “apurtu” hitza erantzun zuen. Kontra-galdeketa “ondatu”, “zuzitu”, “austu” eta “birrindu” ere onartu zituen lekukoak.

Aurreko guzti honen gainera inkesta era honez informazio pila bat gehitzen dela ezin uka, hitzen mugak zehaztu eta hitz bakoitzaren barne bizitza argitzen laguntzen duenari, azterketa egokiak egiteko aukera ezin hobea emanez.

Euskal Herriko Atlas linguistikoa burutzean Toulouse-ko eskolaren jarraitzaile bihurtu gara, hala esan badakioke bederen, J. Ségué, X. Ravier, J. Allières eta besteek atlasgintza lanei ekarri dieten ikuspegi berriari.

Gure atlasaren lehen atal honetarako beraiek deitzen dituzten “données négatives” horiek, guk “ezezko datu” bezala bataiatu ditugunak, erabiltzea erabaki dugu. Beste pausu bat emanez gainera.

Gure kasuan ez ditugu lekukoak erdarakada bat edo ezer ez duenean erantzuten bakarrik erabiliko; galdekizunean zehar nahiz positiboki erantzun, nahiz ezer erantzun ez, inguruko herrietan edo euskalkian esaten eta erabiltzen diren hitzak galdetuko ditugu, era honetaz ahal denik eta gehien baliatuz.

Euskararen egoera eta aberastasuna ikusiz beharrezko ikusten genuen joera hau azken muturreraino eramatea.

Sortu zitzaigun lehen arazoa, ordea, bestelakoa genuen: non aurkitu “datu” horiek, hori baitzen gure lanaren helburua?

Arazo honi irtenbide egokia bilatzen geureak eta bi egin genituen. Eta gauzak zehaztasunez egin nahian Jon Bilbaoren “Bibliografia”tik “caza”, “Calendario”, “Entomología”, “Historia natural”, “Ictiología”, “Malacología”, “Lexicografía”, “Ornitología”, “Pesca”, “Zoología”, “Geografía lingüística”, “Geología”, “Dialectología” eta “Cartografía” ataletan azaltzen diren idazlan andana bat aztertuz atera genituen beharrezko datuak.

Lan hauez at R.M. Azkue eta P. Mujikaren hiztegiei ere astinaldi ederra eman genien.

Guztitara 1000 bat fitxa burutu ziren, zeinetan 5 bat mila datu bildu ziren. Ondoren fitxa hauek sailkatu, parekatu eta egokituz galdekizuna osatzera pasa ziren.

Inkestagileak inkestagunean begi aurrean daukan galdera-fitxaren ataltxo batean aurkitzen dira “ezezko datu” guzti hauek euskalkiz euskalki bananduta, inkestagileak behar dituen erako. Galdera-fitxa bakoitzak bereak ditu.

Ezezko datu bakoitzak alfabeto grekoko hizki bat darama galdekizunean. Hizki horrez baliatuko gara geroago lekukoak ezeztatzen dituen hitzak mapetan errepresentatzeko.

Inkestan bilatzen ari garen hitza aurkitzeko egiten den galderaren erantzuna lortu ondoren “ezezko datuak” aurkeztzen hasten da inkestagilea “gauza (abere...) hori izendatzeko beste hitz hau inoiz erabili edo entzun duzu herrian?” eta antzeko galderak eginez.

Proposatzen zaion hitza bat bakarra izan daiteke, baina sarriagotan gehiago izaten dira: bi, hiru, lau... inoiz zortzira ere helduz. Hau da, aurreko datu bilketa horretan inkesta-puntu hori kokatzen den euskalkiari buruz lortu ditugun hitz guztiak ez bada gehienak, galdetuz: 1.5.30. galderan aurreko adibideetako inkesta-puntuko beste adibide bat emanez lekukoak “erlai” hitza eman zuen era positiboz “Hirundo rustica” (“golondrina común” eta “hirondelle de cheminée” gure erdaretan). Ezezko datu bezala ondoko hauek proposatu zitzaizkion “enara”, “eleiztxori”, “arrandera”, “boletxiko”, “etxelai”.

Proposatutako hitzetatik lekukoari ezezagunak egiten zaizkionak bertan lagatzen dira besterik gabe. Transkribatzerakoan erantzun-fitxan ezagutzen ez duen hitz horren grekoko hizkia jarriko da, horretarako egokitutako lauki batetan. Hizki horrek ukapena, ezeztapena, adieraziko du, aurrerago esan bezala. Grekoko hizki bakoitzak datu edo hitz bat baino ez du ordezkatzeko.

Bestetik, eman dugun datu hori berak positiboki erantzun duenarekin eman badu, bat datorrela frogatu behar da. Honetan arazo gutxiago azaltzen da, leku-koa bera aurreratzen baita azalpen hori egiten.

Gure galdekizunean 1.5.17. galderan “Scolopax rusticola” (“chocha perdiz” eta “Bécasse des bois” erdaretan) galdetzean “oilagor”, “iztingor” eta “mingor” dauzkagu besteak beste. Aurreko adibideetako inkesta-puntuan “oilagor” eman zuen erantzun positiboz; “iztingor” galdetuz ez zuela ezagutzen hitz hori erantzun zuen; “mingor” galdetu zitzaionean baietz erantzun zuen, segidan “bestobat da” gehitu zuelarik. Handiago ala txikerragoa zen galdetuz “txikerraua” zela erantzun zuen.

Inoiz baieztatzen duen hitzaren definizio edo deskribapena ere eskatzen zaio.

Egia esan, era honetan ere inoizko batzutan izan daiteke ez lekukoak positiboki eman, ez proposatzen zaizkion hitz ez denik ere erabiltzea toki horretan, baina hauek urri gertatuko direla uste dugu.

Aipatzen ari garen posibilitate hau gutxitzeko bada bide bat, ahal denean erabiltzen duguna. Zera da: lekukoa bilatzen erabili den bitartekoa. Pertsona hori, lekukoa aurkeztuz gain inkestan zehar izatea ez da kalterako izaten. Gertatutakoak bakarrik kontatzeko behin baino sarriagotan jazotakoa kontatuko dugu hemen: gauza edo abere bati buruzko galdera eta hitz guztiak proposatu ondoren bitarteko horrek herri horretan erabiltzen den hitzen bat gelditzen bada galdetu gabe, berak proposatu izan dio lekukoari era natural batez.

Ezezko datu hauek, bestalde, ez daukate zertan zehatz mehatzak izan beharrik. Lekukoak berak adierazi behar dizkigu zer diren edota zertarako erabiltzen diren.

Azken adibide horretan “oilagor” hitzaren ondoren “mingor” hitza ere agertzen da, zenbait hiztegitan bietarako erdal kide berbera ematen dutelako. Gure orain arteko inkestetan ezagutu izan dutenek bi txori ezberdintzat jo dituzte, “mingorra” txikiagoa dela adieraziz. Batzu “Gallinago gallinago” (“agachadiza común”) erakutsiz bera dela baieztatu dutelarik.

Honelako zehaztasunak behin eta berriz ematen dituzte aurkeztzen zaizkien ezezko datuetan.

Ezezko datu hauek inkestari aberastasuna ematen badiote, luzatu ere egiten dutela esan behar; luzatu eta zaildu.

Denbora aldetik era positiboz lortutako erantzunetarako bi galdera behar zirenean, hauek gehitzean lau edo bostetara heltzen da (inoiz gorago esan bezala zortziraino ere helduz). Jakina, ezezko datu bakoitzaren frogaketa lanak egin ondoren mugagabea ere atera behar dela.

Inkesta zaildu ere egiten duela esan da aurrerago. Atentziogunea bakarra izan behar da hitz bakoitzaren frogaketa egin behar delako eta mugagabea lortu; mugagabea ez bada, ez baitu erabiltzeko aukerarik ematen tratatu behar denean. Eta pausu guzti hauek kontutan izan behar izateak, aditasun osoa eskatzen du.

Inkestak burutzen hasi aurretik zenbait “ezezko datu” bildu bagenituen ere, inkesta bakoitzean sortzen dira gure zerrendetan agertzen ez diren berri batzu.

Hauek hilabetero behin inkestage guztiok egiten dugun bileran aztertu, kodea eman (grekoko alfabetoko hizkia) eta bakoitzak bere galdekizunean erantsi egiten ditu, aurrerantzerako inkestetan hitz berri hauez ere baliatzeko.

Ezezko datuon aurrean lekukoaren jarrera transkribatzeko ondoko kode hauek erabiltzea erabaki da:

1. Lekukoak proposatzen zaion hitza ezagutzen ez duenean hitz horri dago-kion alfabeto grekoko hizkia jarriko da.

2. Proposatutako hitza onartu egiten duenean Σ zeinua jarriko zaio ondoan. Honetan ere, aurrerago bezala, X. Ravierrek ALLOC-en erabiltzen duen zeinua erabiltzen dugu.

Proposatutako hitza onartuz zuzendu egiten badu, Σz zeinua jarriko da.

3. Lekukoak hitza entzuna duela baina ez dakiela zer den esaten duenean, Δ zeinua eramango du aldamenean.

4. Lekukoak hitza ulertzen badu baina erabili ez, $\Diamond$ zeinua jarriko da.

5. Proposatutako hitza nekez onartzen bada, ∇ zeinua erabiliko da.

6. Arkaismotzat jotzen badu, $*$ zeinua.

7. Proposatuko hitzak beste gauza bat esan nahi duenean lekukoarentzat, $\neq$ zeinua eramango du erantzun-fitxan.

Ikusten den bezalaxe galdekizun luze eta zaila, inkestagileari aditasun osoa eskatzen diona, baina ondorio ugariak emango dituena.

ATLAS LINGUISTIKOA ETA INFORMATIKA

1986-I-31

I. Ibarra
X. Videgain

0. Sarrera

Hastapenetik erran dezagun txosten hunek bukaturik den lan baten berri ez duela emaiten, baizik eta egiten ari denarena. Euskal Herriko Atlas Linguistikoa ez da egina, urrundik ere, bainan ematen ditugun urratsak zoin diren erakustea interesgarria litekeela pentsatu dugu.

Bi hitzez, atlas linguistiko baten helburua zer da? Definizio hau proposatzen dugu: eremuaren arabera, espazioaren arabera aldaketa linguistikoa agerian ematea. Horrek berak datu-kopuru handia eskatzen du. Alabainan, galderak milaka kontatzen dira, inkesta-puntuak 150 baino gehiago dira, lekukoak ere bai, ahanzi gabe galdera batek erantzun bat baino gehiago erakartzen duela kasu hainitzetan. Adibidez, J. Allières-ek egin duen lanean, Gaskoinerazko aditzari buruz, 150.000 aditz-forma tratatu zituen nahiz eta berak aitortzen zuen bezala, datuak beste norbaitek bildu eta transkribatu zituen.

Orain artio eta kasu bakarño batzu salbu, datu guzi hauek eskuz tratatzen ziren. Halere iduri luke hain ahaltsu agertzen den informatikak lan mekanikoa arint lezakeela, ikertzaileei aizina gehiago emanez arazo linguistikoak aztert ditzaten, datuen zamaren pean sobera higitu gabe. Gure definizioak dioenez eta "atlas linguistiko" tituluak berak dioenez, atlasgintza lehenik geografiari dagokio, beraz espazioari, eta bigarrenik linguistikari berari, eta bereziko aldaketa linguistikoari. Bere laguntza lanaren bi epeetan eman lezake informatikak; lehenik datu linguistikoaren jasotzeko epean, eta bigarrenik datuen kartografiatzeko epean. Gure txostenak bi laguntza hauk azaldu nahi ditu.

Gaian berean sartu gabe, egiari zor diogu erraitea zoin diren txosten honen bururatzeko lagundu gaituztenak. Lehen epeari dagokionez, datuen atxikitze proposatzen dugun eskema kontzeptuala, Tolosa-ko Le Mirail Unibersitatean J.L. FOSSAT-ek aurtan ematen duen kurtsoa baliatzen dugu, nahiz ez den oraindik nihun argitaratua. Bera da eskema hunen asmatzailea eta egilea. Bigarren epeko lanaz, kartografiar hitz-egiteko, PHILIPP eta BOTHOREL andereen laguntza hartu dugu. Milesker bie Strasbourg-eko Unibersitatean eta Kalkulu-zentroan beren lanaren berri xehetasun haundiz eskeini dizkiguten azalpen guzietaz.

1. Eskema kontzeptuala

J. L. FOSSAT-en eskema azaltzen dugu hemen euskararen adibide zeinbaitez horniturik. Parte huntan kartografiaz ez gara beraz axolatuko.

Orroit-araz dezagun zer den atlas batentzat biltzen dena: *G.* galdakizun batetik, izan dadin fonetikoa, fonologikoa, lexikala edo morfologikoa, ateratzen dugun *g* galdera-kopuru bati, *e* erantzun-kopuru bat ematen dio *h* herri-kopuru batean bizi den *l* lekuko-kopuru batek. Beraz *G.* (galdakizuna), *g* galdera, *e* erantzuna, *h* herria, *l* lekukoa, denek datu-kopuru bat osatzen dute.

Beharrezkoa da erlazioak, harremanak sort-araztea elementu hauen artean. Datu guziek elgarrekilako harremanak balinbadituzte, oinarri bat osatzen dute. Multzo hori deituko dugu, *datu-base erlaziokoa*.

Bide nabar erran dezagun edozoin mintzairatan edo hobeki erranik, leku-koak nahi duen mintzairan jaso genitzakeela erantzunak, beste lan bat egin bageneza. Soziolinguistikaren aldetik libertate hori oso interesgarria izanik ere, horrelako hautaketarik ez dugu onartzen atlasaren erantzunak biltzen ditugunean. Ahalaz, euskarazkoa izan behar da erdietsi nahi dugun erantzuna. Horrek ez du erran nahi, haatik, erdal hitzik ez dugula jasoko enuntziatu batean. Bizkaian adibidez gertatu zaigu entzutea: “*día de campo-ra jun dires*”, “*día de campo*” esaten da españolezko “*luna de miel*” adierazteko eta bere hartan jasoko dugu. Euskaraz honen adierazteko beste hitzik baditakeenetz, hori ezezko datuek erakuts lezakete, baina erantzun hau errespetatu behar da.

Bainan itzul gaitezen “*datu-base erlaziokora*”. Basean biltzen diren informazioak sailkatu nahi ditugu 9 erlazio-mota hautatuz, berehala izendatuko ditugunak:

1. “Alorra” erlazioa.
2. “Herria” erlazioa.
3. “Lekukoa” erlazioa.
4. Galdera eta alorraren arteko erlazioa.
5. “Elkarriketa” erlazioa.
6. “Erantzuna” erlazioa.
7. “Hitza” erlazioa.
8. “Ingurumendua” erlazioa.
9. “Ezezko datoak” erlazioa.

Bana bana azalduko dugu erlazio bakoitzak zer atributuak dituen.

1.1. ALORRA erlazioa

Aipatzen dugun alorra fonetikoa izan daiteke, edo fonologikoa, lexikala eta-bar. Alor bakoitza azpi-alorretan banatzen ahal da arbolaren eskema hartuz,

Linné-ren taxonomian bezala: A. alorra, B. alorra ... etabar. Modu horretan thesaurus edo altxor bat metatzen da, gero kode zenbakizko edo gako baten bitartez kontsultatzen ahalko dena. Adibidez: Gerta liteke galdera bat bi alorretan sartzea. Har ditzagun ondoko lau erantzunak:

Zeun: hogeï ildoren multzoa.

Untze: idi-probetako distantzi neurri bat.

Erralde: abere baten pizua estimatzeko neurria.

Zehe: eskua zabalduz, hartzen den distantzia.

“Zeun” (1) hitza sar daiteke “kanpoko-lanak” deitu alorrean, eta “lur-lantzea” azpi-alorrean. “Untze” hitza sar daiteke “gizarte-alorrean, “kirola” azpi-alorrean. “Erralde” hitza sar daiteke “abelkuntza” alorrean. “Zehe” hitza sar daiteke “giza-gorputza” alorrean.

Ohargarri da lau hitzek beste azpi-alor bat osatzen ahal dutela, baldin eta aintzinetik toki bat eman badiogu galdakizun lexikalaren antolaketan. Azpi-alor honen titulua liteke: “ohizko neurriak edo izariak”. Aintzinetik kontuan hartu behar dugu beti zer galdera mota eginen zaion atlasari.

Bestalde, alor-erlazioari esker homonimia-kasu gehienak ebakitzen ahal dira. Zer nahi gisaz, kategori gramatikalari esker egin daiteke ere, hala nola “bare” (izena) eta “bare” (adjektiboa), baina alorren arabera bereziko dira. Are gehiago bereizketa egiten da “alorra” erlazioari esker, bi edo hiru adierazleak kategori berekoak izaiten direlarik. Hala nola “neskato” adierazleak bere tokia hartuko baitu, ala “gaztaroa” alorrean, “mutiko” eta “ume” hitzen ondoan adibidez; ala “etxe-zerbitzuak” alorrean, “sehi”, “morroi” hitzen ondoan adibidez; ala “sukaldeko tresnak” alorrean, “laratz” eta “kapitxulu” hitzen ondoan adibidez.

1.2. *HERRIA* erlazioa

Datuak biltzen ditugu leku berezi zenbaitetan, ongi zedarrituak diren eremu zenbaitetan. Datua nun bildua den zehaztuko dugu “herria” deitu erlazioari esker. Herriaren izena emanen dugu, haren herrialdea, kantonamendua adibidez, gero probintzia edo/eta departamendua, gure herriek ezagutzen dituzten egoera administratibo desberdinak kontuan hartuz. Adibidez: Larzabale/Larceveau, Iholdiko Kantonamendua, Benafarroa, Pyrénées-Atlantiques departamendua.

Beharbada interesgarria izanen da herri bakoitzaren posizioa ematea Bonaparteren azken sailkapenaren arabera (1869.koa). Horrekin ez dugu erran nahi Bonaparteren sailkapena ezin ukituzkoa denik, eta ukituak hartu ditu ere, baina erreferentzi gisa har daiteke haren lana.

(1) OHARRA: lan hori bukatua zegoela, ohartu gara “zeun” hori AZKUE.k Erronkariko eletzat ematen duen “zegun” besterik ez dela: “señales, ramitas que se dejan en los campos para indicar dónde se han sembrado y dónde no”. Beraz, Ostibarren bildu dugun “zeun” hitzak lerraketa semantiko baten ondorioa jasan duela iduri luke.

Marka ginezake adibidez: Larzabale, benafarrera euskalkia, Amikuze-Garazi azpi-euskalkia.

Bistan da, informazio hau guziak gako baten bitartez adierazten dira.

1.3. *LEKUKOA* erlazioa

Erlazio hunen bitartez, ahalik eta berri gehien metatzen da lekukoari buruz edo HAGEGE bezala mintzatzeko, datu “biolektalak” jasotzen dira, deitura, izena, adina, sexoa, egoera-zibila, lanbidea, helbidea, sort-herria, eskola-maila, kanpoan zonbat denboraz egon den, bere aktibitateak. Lagunaren eta gurasoen datuak. Lekuko printzipala den ala ez biltzen da, baita ere zer kondizionetan egin den inkesta bera. Datu gehiegi ez da sekulan biltzen pundu huntan.

Adibide gisa eman genezake: Casadevant, Dominique, 65 urte, 1920.n sortua, gizonetza, ezkondua, laboraria, Etxebarne etxekoa, Arbide auzokoa, Esterenzubi herrikoa, Esterenzubini sortua, han bizi dena, eskolan 12 urte artio ibili dena, 2 urte Tarben soldado egona, arrantza eta ihiztari amorratua. Emaztea Esterenzubikoa, aita Esterenzubikoa, ama Esterenzubikoa. Lekuko printzipala, Inkesta egiteko bera egon da lagunik gabe. Sukaldean.

1.4. *GALDERA* ta *ALORRA* erlazioa

Hemen markatzen da zer alor-motaren arabera egin behar den galdera.

1.5. *ELKARRIZKETA* erlazioa

Erlazio honen atributoak dira:

1.5.1. Galdera-motak.

Galdera pausatzen ahal da itzulpena eskatuz “nola erraiten duzu lundia, lunea?”. Ahalaz galdera-mota hau baztertzen dugu.

Bigarren mota da realia bera erakustea: arrain bat, intsektu bat, xori bat, etabar, argazki bat erakutsiz. Argazkiaren erreferentzia emango da. Adibidez: hérisson, erizo, Zahradnick. Fauna de Europa, 342-1.

Hirugarren galdera-mota perifrasiak da edo galdera zeiharkakoa. Adibidez: “adret, soulane; solana”. “Nola deitzen duzu eguzkiak egunean luzaz jotzen duen lurraldea, itzalean luzaz egoten ez dena, kabaleentzat askoz hobea dena?”. Batzutan tautologiatik ez gara eskapatzen.

Laugarren motatzat har daiteke galdera eratorria, hala nola lexema bat lortu ondoan, haren antonimoa bilatzen dugunean. Adibide bera hartuz, “adret, solana” lortu ondoan, “ubac, umbrío” ateratzea ez da zaila perifrasi osoa errepikatu gabe.

Beraz, ikusten den bezala, euskal adierazle baten erdiesteko edo euskal adierazlearen erdal kidea aurkezten dugu, edo erreferentea, edo adieraziaren definizioa, semema.

Elkarriketa erlazio huntan sartzen dira beste lau atributo:

1.5.2. Inkesta-egilearen izena.

1.5.3. Lekukoaren izena.

1.5.4. Inkestaren data.

1.5.5. Erantzunaren osakinak.

1.6. *ERANTZUNA* erlazioa

Erlazio huntan ez da ahanzi behar erantzun bat baino gehiago jasotzen ahal dela galdera bakoitzeko. 2,3,4 erantzun bil daitezke eta heien hierarkia markatzen ahal da bakoitzari bere maila emanez. Erantzunik eza erantzun bat da.

Erantzun bakoitza terminologia batean sartzen da bere kategori gramatikala-ren arabera:

- 00 Aditza
- 01 Izena
- 02 Adjektibo.
- 03 Adberbio.
- 04 Artikulu eta aktualizatzailer.
- 05 Izenorde.
- 06 Numerala.
- 07 Postposizioa.
- 08 Juntagailua.
- 09 Interjekzioa.
- 10 Erdal izena.
- 11 Izen propioa.

1.7. *HITZA* erlazioa

Horrek zehaztasun gehiago behar luke, hitza zer den definitzeko ez baitgara denak ados. “Lexia” ere erran daiteke.

Etimologian sartu gabe, hitzetan bereziko ditugu bokabloak eta formak. Adibideek erakusten dute zer erran nahi dugun:

Galdera: “Jambe; pierna”.

1. Bokabloa: “Zango” hitzari hurbil diren formak. Bil genitzake bokablo honen 3 forma: zango, zankho, anka.

2. Bokabloa: Berna.

Beste adibide bat “écho; eco” galderarekin.

Lau bokablo agert daitezke:

1. Arana, arada, ana: lehen bokabloaren hiru forma.
2. Danga.
3. Oihartzun.
4. Harribizi.

Hortan ez itotzekotan, beharbada grafoen teoria baliatuko dugu bereziki adierazle frango daukaten adieraziekin. Gogorat heltzen da “papillon; mariposa” edo “grenouille-rana” kasuetan agertzen den adierazi-kopuru haundia.

Beste puntu bat hitzei buruz. Hitz bakoitzaren izkiak agerian emanen ditugu; aurrizkiak, atzizkiak, artizkiak. Edo eta lan luzeegi balinbada, bederen posibilitate hori zabalik utziko dugu zoin nahi ikerlarik bihar etzi hitzak deit ditzan izkika: hala nola *-tsa* atzizkia edo *ber-* aurrizkia nun agertzen den jakiteko posibilitatea.

Azken oharra hitzari buruz; hitza bi eratan idatziko da: hizkuntza naturalean eta alfabetu fonetiko baten arabera.

1.8. *INGURUNEA* erlazioa

Hemen zehazten dugu lekukoak eman duen erantzunaren ingurunea. Erantzuna sartzen da texto luze batean, texto labur batean, esaldi batean, sintagma batean, hitz batean.

Ingurune horrek 3 itxura har lezazke:

– Definizio bat; Adibidez: “lehentxa da bere lehen umea egiten duen behia, ardia edo behorra”.

– Anekdota bat: “larrutu” hitzaren esplikatzeko, ardi bat bortian nola larrutu zen kondatzen digu lekukoak.

– Datu etnografiko bat: Adibidez Jondoni Jondaneaneko egunean egiten diren ritoak, edota zer diren zotalegunak edo igerregunak.

Bereizketa ez da beti garbia izanen lekuko batek definiziotzat daukana beste batek datu etnografiko gisa aurkeztuko duelakotz. Azkenean bien arteko diferentzia konparatzen dugu sineste eta sineskeriaren arteko diferentziarekin, bi nozioak aski erlatiboak izanik.

1.9. *EZEZKO DATUAK* erlazioa

Azkenik, bederatzigarren erlazio huntan X. RAVIER-i mailegatzten diogu “ezezko datua” esaera. Lekukoari test bat iragan-arazten diogu: “Hitz hau ezagutzen duzuia?”. Erantzuna “bai” ala “ez” izanen da.

Erantzuna “ez” balin bada, arbola hor bukatzen da.

Erantzuna “bai” balinbada, ondoko adarrak hautatzen ahal dira:

- Den bezala onartzen du.
- Hitzean zerbait aldatuz, baliatzen du.
- Den bezala, nekez onartzen du.
- Den bezala, ezagutzen du beste nunbait entzunik eta hangoa dela badaki, nahiz berak ez duen komunzki erabiltzen.
- Den bezala entzun du, zuzen zer den jakin gabe.
- Den bezala baliatzen du beste adierazi batekin.
- Den bezala lehen baliatzen zen, orai ez hainbeste edo batere ez.

Adibideak dotzenaka agertzen dira, sorpresak ere bai. Hala nola Xuberoko herri batean, “lièvre, liebre” galderari erantzunez, “llepe” arkaismo gisa aurkeztu digu lekukoak, egungo egunean “erbi” gero eta gehiago erraiten delakotz. “Arkaismoa” erromanismoa izaiten ahal baita (lekukoarentzat), purismoaren edota eus-kara batuaeren eraginez, besteak beste.

Azken erlazio honekin bukatzen dugu lehen zatia. Gure ustez, horrela jokatzuz, lekukoaren, hizlariaren nortasun linguistikoa errespetatzen dugu aski fermuki. Haren berezitasuna ez dugu itotzen.

2. Kartografia

Lehen partean ikusi dugunarekin atlas bat ez dugu osatzen. Hor, datu linguistikoak metatzen ditugu bainan hiztegi batek, glosario batek, gramatika batek helburu bera betetzen dute. Gauza bat falta zaigu atlasaren egiteko; alderdi geografikoa, alderdi grafikoa, mapak.

Datu hauek oro mapetan agertu behar bait dira. Hortarako tresneria ahaltsua beharko dugu, logiziel grafiko baten bitartez mapak marrazkituko dituen.

Gai hontan trebatua den talde batekin mintzatzea pentsatu genuen duela zombait hilabete. Eta duela bederatzi hilabete Strasbourg-era joan ginen CNRS-k Cronenbourg auzoan daukan kalkulu-zentruaren bisitatzer. Han ikusi genituen “Atlas linguistique de Lorraine germanophone” deitu lanaren egileak: M. PHILIPP anderea eta A. BOTHOREL anderea Strasbourg-eko Unibertsitatean erakasle direnak. Heiekin ere entzun genuen informatikariaren esperientzia. Lanaren prozedura guziaz xeheki azaldu ziguten. Beste mila gauzen artean garbi utzi ziguten linguistek eta informatikalariek hastapenean lana senper egin zutela elkar ulertzeko.

Labur bada labur, hemen aipatuko dugu zer tresneria eta zer programeria derabilaten, datuen sarrera informatikoa azaldu aintzin. Informatikaren teknikan ez gara sartuko, adibidez kargatu beharko diren fitxategi diferenteak ez bait ditugu izendatuko.

2.1. *TRESNERIA*

Erran dezagun taldeak Strasbourg-en baliatzen duen tresneria beste ikerlari askok baliatzen dutela, partikulazki zientzi zehatzetan. Adierazi nahi dugu horrekin materiala ez dela erositia izan preseski atlas baten bururatzeko.

Ordenadorea oso haundia da: IBM 3081. Ez da beharrezkoa hain haundia izaita.

Ordenadoreaz bestalde, berezitasun interesgarriena da inprimagailua, frantsesez "traceur à plume" deitzen dena, BENSON 1222 modelokoa. Haren ondoan bufferra behar du, BENSON 4000 modelokoa. Inprimagailua vektoriala da eta ez elektrostatikoa, eta aholkatu ziguten era hortakoa izaita. Tresna honek mapak marrazkitzen ditu eta maparen gainean idazten edozein idazkera-mota, zehatzasun haundiz eta neurri ttipienez ere.

2.2. *PROGRAMERIA*

Tresneria bezain garrantzitsua da programeria. Strasbourg-en, logiziel grafiko bat erosi dute, GPGS deitzen dena, Noruegan egina. Programeria honek, memorian toki asko ez badu hartzen ere (64 k) xehetasun haundiko marrazkiak egitea permititzen du eta bereziki zeinu fonetikoak beren konplexutasun osoz marraztea: 200 zeinu baino gehiago definitu dute. Zer nahi gisaz, zeinu guztien marrazteak lan itzela eskatu du. Zeinu fonetiko bakoitza [š] adibidez, 12×7 puntutako matrize baten sartu dute, kontuan hartuz 3600 konbinazio badaitezkeela. Bestalde, mapen zola edo euskarriak, erran nahi baita, mugen eta inkesta-puntuaren kokapena eraikitzeak ez du arazo berezirik planteiatzen, jakinez puntuak behar den neurrian lekutzen ahal direla, hitz bat beste baten gainean ez dadila egon. Gainera, programeria horri esker, mapak eskala desberdinetan marrazten dira.

Aipatu behar da azkenik, transkribaketa Strasbourg-eko Unibertsitatean berean egiten dela IBM-PC ordenadoreetan eta gero on-line edo disketez igortzen dela Cronenbourg-eko kalkulu-zentrurat. IBM-PC ordenadorearen ordezkari beste bat izan daiteke, Olivetti M 24 adibidez, IBM-ekin konpatible den ber.

2.3. *SARRERA INFORMATIKUA*

Ez dugu hemen erakutsiko Strasbourg-en eraiki duten sarrera-dokumentoa, gure kasuari egokitu behar dugulakotz lehen partean eman dugun eskema konzeptualaren arabera. Halere, Strasbourg-eko sarrera-dokumentua gidari hartuko dugu puntu batean, hots, alfabetu fonetikoaren arazoan.

Atlas bat eskuz egiten delarik, erantzun bakoitzari dohakion segida fonetikoa kaligrafo batek idazten du behar duen tokian. Luzea da, ez da merkea. Strasbourg-en egiten dena oso desberdina da. Alfabetu fonetikoa zenbakizko kode batetara itzultzen da, eta ordenadorean horrela sartzen da. Gero inprimagailuak mapan arra-itzultzen du zenbaki bakoitzari dohakion zeinu fonetikoa.

Adibidez: [t] soinuari /2/0/5/2/ zenbakia eman geniezaioke

[y] soinuari /0/1/2/5/, etabar.

Diakritikoak ere zenbaki batez adierazten dira.

Dударик gabe itzulpen hunek indar bat eskatuko digu edozoin hitz irakur dezagun zenbakien arabera. Bainan Strasbourg-eko taldekoek zioten aski laster ikasten dela.

Hobe izanen da zenbakizko kodea zeharo arbitrarioa ez izaitea, baizik eta argia edo adierazgarria. Erran nahi dugu zenbakiak hautatuko ditugula ahalaz eskema fonetiko bati jarraikiz. Abantail haundirik ekarriko du geroko erabiltzaileentzat, aukera askoz zabalagoak eskeiniz azterketa berezi batzu egitekotan.

Dударик gabe informatikalari trebe baten jakitatea beharko dugu kode honen osatzeko eta honekin batera prozedura informatiko osoa asmatzeko, egokitzeko eta jarraitzeko.

2.4. AZKEN HITZA

Amaitzeko, markatu nahi genuke Strasbourg-eko taldeak bide berriak urratu dituela bainan, alor huntan aintzinetik nehor ez izanki, bidea ez dutela beti nahi zuten bezain zabal eta zuzen barnatu. Sobera harro izan habe, asmoa badugu hek bezanbat lan egiteko eta ahal bada, hango hutsuneak eta ahuleziak kontuan hartuz, urrunago eta sakonkiago ibiltzeko. Bainan erakutsi diguten jakitatea ezin genezake neholaz ere mespretxa eta bazterrerat utz, gu hasi berriak garen epe huntan. Aitzitik, interesgarria bezain beharrezkoa ikusten dugu hango jendeekin harremanetan segitzea, gure alderako erakutsi diguten abegi ona ez dugularik ahanzten.

Besterik da tresneriaren arazoa. Strasbourg-en ikusi dugun materiala ez da merkea. Guretzat bakarrik erostea amentskeria dirudi. Erran dugun bezala, Strasbourg-en alor desberdin askotan senditu da tresneria ahaltsu baten beharra. Euskal Herrian tresneria berdintsua egoitea pentsa liteke baldintza bat bete baledi, erran nahi baita, atlasgintzaz bestalde eta segur aski linguisteez bestalde, beste ikerlari askok tresneria horren beharra sendi balezate eta erakutsi balezate, izan ditezten geografoak, soziologoak, etnografoak, paleontologoak eta zer esanik ez zientzi zehatzetako gizonak. Egiaren erraiteko ez dakigu hortaz zer dioten eta behar bada urrats zenbait eman dira jadanik, gu ez jakinean egonik ere. Ez da дударик hor erabaki zenbait hartu behar litezkeela kultur-erakundeen eta Gobernamentuaren artean, tresneria hori eskaintz lezakeen zentruaren eraikitzeko. Guk begi onez ikus genezake holako iniziatiba, bainan gure aldetik gure lanak presa duela azpimarratu nahi genuke. Behar dugun materiala hemen ez dagoeno, hobeki deritzagu dagoen tokira joaitea atlasaren lehen tomoaren bideratzeko.

Azkenik eta hemen aipatu ditugun harat-hunat guziengatik ere, uste dugu Euskal Herriko Atlas Linguistikoa tresna on bat izanen dela gauza baten erakusteko: euskarak kontinuum bat ezagutzen duela, aldaketa, kanbiamendu, oszilazio, zalantza geografiko guzien gainetik.

FELIX LANDABURU MADARIA (1886-1918)

FELIX LANDABURU MADARIA
(1886-1918)

Bilbo, 1986-I-31

Jose Antonio Arana Martija

Bilbotar honen jaiotzaren mendeurrenean ba du Euskaltzaindiak zer ospatu, berak eragindako Akademia honi atseginez emango zion etxe berri honetan. Landaburu jauna izan zen 1918an, Urtarrilaren 25ean, Kosme Elgezabal durangarrarekin batera, Bizkaiko Diputazioari Euskararen Akademia bat sortzea proposatu ziona. Eta gizon honen itzala eskerrenez beterik gaur eta hemen gogoratzean, badugu lekuko bere irudia, Angel Larroque Echebarria (1874-1961) pintatzaileak egindako oleoa, Begoña Landaburu Azkue andreak, Felix Landabururen alabak, Euskaltzaindiari egoitza berri honetan jartzeko ematen diona. Lehendabizi, bada, emailari gure Erakundearen eskerrik beroena, betirako izango baita hemen eta gure artean bizirik zure aitaren gogoramena.

Felix Landaburu Madaria Bilbon jaio zen 1886an, Tenderia kalean. Handik hurbil zegoen Azkueren Euskaldun Biltokian egin zituen bere lehen ikasketak, euskara gure Azkuerekin landuz. Hamalau urte zituelarik Sabino Arana eta Goiri-rekin topo egin zuen eta berehala hasi zen abertzale giro batetan lanak eta eginkizunak betetzen. 1901ean, gure hamabost urteko gazteak, *Lauburu* aldizkaria sortu zuen, multikopiaz inprimaturik banantzen zena. "Euzko Gaztedija" taldearen sortzaile izan zen 1902an, gero "Juventud Vasca" izatera iritsiko zen erakunde benetan langilea. Garai hartan Sabino Aranak sortutako *La Patria* eta gero *Patria* aldizkarietan parte hartu zuen Landaburu jaunak E. G. edo "Gregorio de Madaria" ezizenarekin. 1907an sortua izan zen *Jel* aldizkarian idatzi zuen gero "Laumaiki" izenordearekin. Bilboko Patronatoan zegoen Literatur Akademian ere partaide zen.

Lumatik ekintzetara igaro zen Landaburu jauna, ezkondu ondoren, 1916an. Euzko Alderdi Jeltzaileak Diputaziorako hautagai izendatu zuen Felix Landaburu urte horretako hauteskundeetan Markinako herrialdetik. Azkueren laguntzaren bila jo zuen orduan aspaldiko ikasleak eta 1917.eko Martxoaren lehen egunetan, gurutzatutako gutunetan azaltzen denez, esku zabalez lagundu zion Azkue jaunak. Martxoaren hamaikan Bizkaiko Diputatua aukeratu zuten markinarrek Landaburu jauna. Urte beteko

bizitza geratzen zaio gure diputatuari eta harrigarria da benetan berak burutu zuen lana. Kultur Batzordea sortu zuen Diputazioan 1917ko Maiatzean eta Oñatiko Biltzarra antolatzeko berak eman zituen lehen urratsak. Euskal Kultur Batzordearen buru zelarik 1918rako hitzaldi sorta bat antolatu zuen Landaburuk, tartean Azkuek Euskal musikaz eman zituenak zirelarik, hots, 1918.eko Urtarrileran eta Otsailean. Azkueren eraginez, behar bada, Euskaltzaindia sortzeko proposamena egin zuen, esan dugunez, egun haietan, eta tamalez ezin izan zuen proiektu hau burututa ikusi, Oñatiko Biltzarra izan orduko hil baitzen. Bere haurtzaroko egunak gogoratuz, Bilboko haurren euskalduntzearekin ere arduratu zen: hor dugu lekuko *Euzkadi* egunkarian 1918.eko Maiatzaren 18an idatzi zuen lana: *De la enseñanza primaria*.

Hogeitamabi urte zituelarik hil zen Felix Landaburu Madaria 1918.eko Abuztuaren 4an. Beste aipamen batzuen artean, nekrologia eder bat eskaini zion *Euzkadin* Kirikiñok.

Landabururen ezkontza aipatu dut lehen. Azkueren loba batekin ezkondu zen 1916.eko Maiatzaren 25ean, Teresa Azkue Gorostizaga andreakin (1889-1973). Azkueren artxiboan hainbat gutun gordetzen dira loba honekin izandakoak, Toursen 1904an zegoelarik hasita. “Teresiminak” —hau zen Azkuek ematen zion izena— zera idatzi zion osabari 1915.eko Abuztuaren 4an (etzekien orduan ezkongaiak hiru urte barru egun berean hilko zela senarra): “... desde hace poco tengo relaciones con Félix Landaburu... El me ha hablado mucho y muy bien de usted”. Eta senarra hil ondoren, Euskaltzaindiaren aipamen samur bat egiten dio Azkue osabari, 1919.eko Irailaren 28an idatzitako gutunean: “Desde que quedó constituida *nuestra* Academia...” Gure erakundearekin hain loturik zeuden senar-emazte hauetatik sortu ziren hemen gurekin daukagun Begoña eta Peli Landaburu Azkue, oraintsu 1985.eko Abenduaren 20an joan zaigun josulaguna.

Euskaltzaindiaren aldetik eta euskalzale eta euskaldun guztien aldetik merezi zuen Felix Landaburu Madariak gorespen hau. Eta hala eginenez ordaindu diogu, gaurkoz, gure zorra. Gera bedi hemen betirako bere irudia eta gure bihotzetan begirune eta eskerrona.

**EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIAK**


EUSKAL AZENTU ETA EBAKERAZ ILJARDUNALDIAK

Durango, 1986-V-30/31

Euskaltzaindiaren adierazpena

Egunotako Jardunaldien ondoren bildurik Euskaltzaindiak honako adierazpen hau egiten du:

a) Nabari da, euskalkien arteko bereizkuntzak hain gogorrak izanik, euskal azentua, axaleko ezberdintasunak gora behera, funtsean batera dabilela eskualderik gehienetan. Badu, beraz, oinarritzko batasuna ahozko mintzabiderako aski dena. Aski dena oraingoz eta osoago bihur daitekee-



Durangoko uriko eskolak.

na luzaro gabe. Azentuari loturik dauden hitzen arteko alde eta bereizkuntzak izan arren —*zúena*’ (hark) *zuen(a)*’ eta *zúena* ‘zuek duzuená’ esateko—, ez dutela ia sekula gaztelaniaz *méndigo* edo ingelesez *component* ebakitzean sortzen diren antzeko nahasteak sortzen.

b) Entzun diren mintzaldien artean baziren era eta maila askotakoak, lagunarteko hizketatik hasi eta hitzaldi landuetaraino. Komeni litza-tekeela dirudi, halaz guztiz, euskalki eta eskualde bakoitzeko ebakera ohiturei amore emanaz guztionganako behar den batasuna gordetzea. Ez da hori hiruzpalau egunetan erdiets daitekeen eginbidea: bai, ordea, gerora gabe poliki-poliki egin behar genukeen lana.

c) Hizkuntzaren erabilera okerraren kontrako guzion gatazka sendotu behar da, eskoletan eta komunikabideetan batez ere. Aldi berean hizkuntza biziaren erabilera artatu eta bultzatu behar da, belaunaldi belaunaldi kalterik gabe iragan dadin. Hizkuntza, zein ere den euskalkia, ongi darabiltenen arteko arrazoi gabeko lotsa nahiz beldurra uxatu behar da ezinbestean.

d) Noraezeko da horretarako gure irakaskuntzan ahalegin bereziak egitea, haurtzandegietarik abiatuz, haurrei irakurtzen behar den bezala irakasteko. Beharrezko baita zuzenbidez jokatzeko bi alde erakustea: badirela, alegia, ikus daitezkeen letrak eta ikurrak edo seinaleak; baita ere, ordea, horiek bezain premiazko dena, gogoan eduki behar diren erregela ezinikusiak. *Ez* eta *dakit* berex bata bestearen aldamenean irakurri arren, *eztakit* dela, euskal legeen arabera, irakurri behar dena.

e) Ahozko euskal hizketan eta agiriko komunikabideetan gehienik nabarmentzen den hutsa da, agian, *ere* bezalako hitz azentugabeei, beste hitzen laguntzarik gabe ezin ager daitezkeenei, aitortzen zaien burujabetasuna, euskal ebakeraren kalte gorritan.

f) Ikerlanak ez baztertzeko asmoz, komeni dela iruditzen zaio Euskaltzaindiari azentuaren lekualdatzeaz soilik bereizten diren hitz pareen zenbait zerrenda prestatzea. Nork bere ingurukoak jasotzeaz kanpora, premiazko genuke euskalariek han eta hemen bildurik argitara dituztenak biltzea.

EUSKALTZAINDIARI PROPOSAMENA

Ondoan sinatzen dugun euskaltzainon ustez, gure eskuetan dauden bide guztiak zabaldu beharko litzaizkioke Euskaltzaindiari, dituen eginkizunak ahalik eta hobekien bete ditzan.

Ongi aski ikusten ahal denez, azken urte hauetan euskal gizartean nagusitzen ari den dinamikan oldarturik dago Euskaltzaindia: Erakunde honen aurrekontuak, batez ere Automiako Estatutua ibiltzen hasi dene-tik, handituz joan dira, proiektu berriei ere bideak irekiz honela. Ez da harritzekoa, hortaz, Akademia honek burutu beharko lituzkeen lanen segida gero eta estuagoa eraman nahi baldin badute aginte publikoek, beraien eskuetan bait dago, azken batean, ditua libratzea eta beraiek bait dira, gizartearen aitzinean, diru publikoaren erantzunkizuna dutenak.

Gizarteak aurkeztu eta ezartzen duen dinamika honi erantzun dife-renteak eman dakizkioke eta instituzio guztiak ahalegindu dira nola edo hala beren jarrerak eta jokabideak behar bezala egokitzen, eta eginkizun dituzten lanak burutzeko, modurik egokienak aurkitzen, aldatu behar dena garaiz aldatuz eta ukitu gabe uztea komeni dena, berriz, bere horretan utziz. Horren seinale da, adibidez, Elizak egiten duena bere Apezpikuekin, orain dela urte batzu ezarri zen arau berri bati jarraikiz: adin jakin batera iritsiz gero, indar berriei leku egiten zaie. Unibertsita-tean ere honelako zerbait gertatzen da eta irakasle guztiek, hoberenek ere, adin jakin batean eman behar izaten dituzte azken eskolak. Hala ere, ez dira horiek aurkitu izan diren bide bakarrak: Euskaltzaindiaren pareko izan daitezkeen zenbait Akademiatan, adinaren kontuaz gain, batzarretara etortzearen gutxienezko maiztasuna eskatzen da, hori betetzen ez due-nak bere eskubideetako zenbait galtzen dituelarik. Guzti hauek dira gaur egungo gizarteak ezartzen duen aipatu dinamikari paratzen zaizkion eran-tzunak. Jakina, beti aurkituko ditugu, aurkitu behar ere, salbuespenak: ez Apezpiku guztiak erretiratzen dira, ez irakasle guztiek behar dute Uniber-tsitatea utzi, “emeritus” ere bihur bait daitezke.

Kontuan izan behar dugu, bestaldetik, Euskaltzaindia helburu jakin batzurekin sortu zela, baina, gaur egun helburu horietako zenbait hobeki

bete ditzaketen erakunde publikoak baditugula. Horrela, besteak beste, Euskaltzaindiaren Arautegiko lehenbiziko artikulua *a, c, e, g, i* eta *j* puntuek Unibertsitateko Fakultateetan ere lantzen dira, baliabide gehiagorekin gainera. Guzti honek adierazten digu, aurreko garai batean ez bezala, gaur egun Euskaltzainditik kanpo jende baliotsua dagoela, euskaltzain oso izateko bideak hertsirik aurkitzen dituztelarik, egin izan dugun gure Estatutuen interpretazio eztabaidagarri bat dela medio. Horrek ireki dezake, uste gabea, zulo bat Euskaltzaindia eta gizartearen artean, gutiz arriskugarria izan daitekeena, ezin bait dugu ahaztu, Xalbador zenaren hitzetan, izaita bat ez daitekeela hezur hutsez osa; herria izanik gorputza, Euskaltzaindia da, berriz, hezurra, hizkuntza kontuetan: “bertzetik berex-tean bitarik bakotxa, izaita horrendako segurra hil hotza”.

Hori dela eta, agiri hau sinatzen dugun euskaltzainok kezka baterik gaude eta beldur gara ez ote den Euskaltzaindia eginkizun ditugun lanak aurrera eramateko gure eskuetan dauden zenbait baliabide pixka bat baztertzen ari, Azkue goraiatuak berak ere behin erabili zituen haiexek beraiek, hain zuzen.

Urrats hau emateko erabakia hartu dugu, euskara eta Euskaltzaindiaren (ordena honetan) onerako izanen delakoan. Ez genuke, inola ere, halako dardararik sorterazi nahi euskaltzainen artean kontu honengatik. Proposatzen duguna oso erraza da: indarrean ditugun Estutuen 33. artikulua eta Barne-erregelako 39. bete eraztea.

Honela diote artikulua hauek:

Estatutos

“Artículo trigésimo tercero. Las vacantes de Académicos de número se anunciarán en sesión ordinaria, pudiendo presentarse propuestas para proveerlas en las dos sesiones siguientes a aquella en que se hubiera anunciado la vacante.”

Arautegia

“Hogeitahamahirugarren artikulua. Euskaltzain osoen hutsuneak batzar arruntetan jakinaraz bitez, eta hutsuneok hornitzeko proposamenduak horren hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira.”

Reglamento Interior

“39. cuando por defunción o por imposibilidad de colaborar, que la Academia en votación secreta estime irremediable, quede vacante una

plaza de académico numerario, la Academia lo declarará así, y lo hará inmediatamente.”

Barne-erregelak

“39. Euskaltzain bat hil, nahiz lanerako ezindurik geldi baledi (eta ezin hori batzarrean, bozketa izkutu baten bidez, ezin erremediatuzkoa dela erabaki ondoan), hutsarte bat gertatu dela euskaltzain osoen artean aitortu behar du Euskaltzaindiak, eta lehen-bai-lehen aitortu ere.”

Artikulu hauen ezarketa eskatzen dugu sinatzaileok, euskaltzainok adin batera iritsi ahala, gizarteko beste mailetan gertatzen den bezalaxe. Ezarketa bai, baina urratsez urrats ematekoa. Hortaz, haxe da Euskaltzaindiari proposatzen dioguna:

1. Euskaltzainek 75 urte betetzen dituztenean Euskaltzain Ohorezko bihurtuko dira, euskaltzainen batzarretara agertzeko eskubidea galdu gabe, nahiz bozketetan parte hartzerik izango ez duten.

2. Agiri hau sinatzen dutenen artean adin hori bete duenik balego, besterik gabe ezarriko zaio lehen puntua.

3. Lehen puntua ez da ezarriko Euskaltzainburu ohien kasuan, ez eta, Euskaltzaindiak hala onetsiko balu, lanean iharduteko oraingoz gaitasun ageria dutenen kasuan ere.

4. Prozedura hau ezin izanen da urte natural batean lau aldiz baino gehiagotan erabili, Euskaltzaindiaren ibilbidea hauts ez dadin.

Azkenik, esan nahi dugu agiri hau ez zaiela euskaltzain guztiei pasatu sinatzera eta, hortaz, sinadurarik ez agertzeak ez duela, besterik gabe, ez-adostasunik erakusten. Bestaldetik euskaltzainen izenak ordena alfabetikoan paratu direla ere adierazi nahi dugu.

Euskal Herrian, 1986ko Otsaila.

Euskaltzainen izen-lerrokada

1. Patxi ALTUNA *Patxi Altuna*

2. Jose Migel BARANDIARAN *Barandiaran*

3. Pierre CHARRITTON *Charritton*

4. Jean-Louis DAVANT *Davant*

5. Xabier DIHARCE

6. Eusebio ERKIAGA *E. Erkiaga*

7. Juan GOROSTIAGA *Juan Gorostiaga*

8. Jean HARITSCHELHAR

9. Jean HIRIART-URRUTY *Hiriart-Urruty*


10. Damaso INTZA *(Haren ordeztu) E. Knörr* 86.2.27.

11. Alfonso IRIGOYEN

12. Endrike KNÖRR *E. Knörr*

13. Federico KRUTWIG


14. Antonio M^a LABAYEN




15. Emile LARRE



16. Pierre LARZABAL




17. Manuel LEKUONA



18. Luis MITXELENA

19. Francisco ONDARRA

20. Pello.SALABURU



21. Juan SAN MARTIN

22. Jose Maria SATRUSTEGI

23. Luis VILLASANTE

24. Antonio ZAVALA

EUSKALTZAINDIARI

Azpian sinatzen dugun Euskaltzainok adierazten dugu:

Joan den urteko hasieran izkribu bat zuzendu genduela adin edo osasunagatik ezin parte har lezaketen Euskaltzaintzat posible izan ledin *emeritus* gisara agertzea, eta haien ordeztu batzuz izendatzea egiazki parte hartuko luketenak, lehengoek, hala ere, oso osoan eskubideak gorderik. Baina kontutan hartuz gero honek arautegian finkatzen diren botuen kopurua ugaltzen zuela, ez zen aurrera joan.

Gure proposamen berria, gogoan dugula Euskaltzain bat berez “immortel” dela, beste bide batetik abiatzen da, eta horrela, ezin ager baledi, ordeztu “epe bateko mandatari” bat, batzarretara joango dena, izenda litekeela uste dugu, hitza era botua dituela, baina mandatari izate hau tituluduna batzarretan present legokeenean desegingo litzatekeela. Ordeztuaren izendatzea iraunkorra litzateke, ezabatu ahalko balitzateke ere. Ordeztuak, hutsik geldi baledi ziharduen lekua, kandidatu hobetsia litzateke titulua eskuratzeko.

Donostia, 1986-garreneko Martxoaren 21-ean.

Alfonso Irigoyen

F. Krutwig

A LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

Los abajo firmantes, miembros de número de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, exponen:

Que a principios del pasado año dirigieron un escrito proponiendo la posibilidad de que los Académicos de número que por razones de edad o de salud, las cuales impidan en la práctica definitivamente su participación activa puedan pasar a ser *emeritus* y se haga viable el nombramiento en su lugar de otros que realmente tomen parte en las actividades de la Academia, sin perjuicio de que aquéllos mantengan sus derechos plenamente. Pero teniendo en cuenta que esto aumentaba los votos fijados en los estatutos no prosperó.

Nuestra nueva propuesta, teniendo en cuenta que un académico es por esencia un “immortel”, se encamina en el sentido de que si no pudiera asistir se nombre un “delegado temporal” que acuda a las reuniones en su lugar, con voz y voto, entendiéndose que esta delegación deja de existir desde el momento en que el titular esté presente en las reuniones. El nombramiento de sustituto tendría carácter de permanente, aunque podría ser revocado. El sustituto, en caso de que quedase vacante el puesto en que venía actuando, sería candidato preferente para adquirir la titularidad.

San Sebastián, 21 de marzo de 1986.

Alfonso Irigoyen

F. Krutwig

GURE AKADEMIAREN AKADEMITASUNAZ

Donostian, 1986, Apirilak 25

Fr. L. Villasante

Zenbait euskaltzainen bi proposamen direla eta, Euskaltzainburuaren azalpena

Joan den hileko batzarrean zenbait euskaltzainek bi proposamen aurkeztu zituzten. “Lehena” eta “bigarrena” hitzekin bereiziko ditut bata bestetik.

Objektibitate handienaz nahi nuke arazo honi buruzko neure azalpena egin. Hitz iraingarririk esaten badut, oraidanik ezeztatzen dut; eta horrelakorik lehenago esan badut, barkazio eskatu eta hitza erretiratzen dut.

Baina, hori bai, dudan karguagatik eta dudan bitartean, instituzioaren legeak bete eta betearazi behar ditut (ikus Estatutos, art. 9), eta instituzioaren izatasuna eta eitea babestu behar dut. Instituzioaren izatasuna nondik hauteman genezake, ordea? Gure legetarik, noski, eta bai praktikatik ere, zeren praktika bera jurisprudentzia baten sortzaile baita. Eta Euskaltzaindiak, 1919an sortu baitzen, 66 urtetako adina hartu du jadanik. Bitarte horretan segitu duen praktika iraunkorrek asko erakusten digu sortzen diren istilu eta auzi berriak argitze orduan. Kontzientzia ere ez da berehalakoan pizten, biziz eta ibiliz baizik.

Gainera, gure Euskaltzaindia hizkuntzen Akademien sailekoa da. Orain bada, hizkuntzen Akademiek izatasun guztiz partikularra eta berezia dute. Egia esan, ez dut uste munduan horrelako asko dagoenik. Ingalaterran ez dago, Alemanian ere ez. Akademia horien sorterria Frantzia eta Espainia dira, batez ere Frantzia. Eta gurea bi horien bide erdian kokatua dagoelarik, horien irudi-antzerak eraturako sorkaria izan behar.

Denek ezagutzen dugu Akademia horien hizkelzainei —apika ironi puntta batekin— ematen zaien deitura, hots, “immortel”, “les immortels”. Zer esan nahi duen horrek, agerian dago: betiko aukeratuak direla.

Lehen proposamenak, ordea, zera eskatzen du, hots: Dinamikaren izenean eta gaurko erritmoak eskatzen duenari men eginez, egokitze

batzu egin ditzagula. Apezpikuen kasua aipatzen dute adibidetzat: 75 urteko adina hartzen dutenean, agintea uzten dute. Baina guk, jaunak, ez dugu aginterik bat ere. Apezpikuak eliz barrutia gobernatu behar du eta euskaltzainek ez dute inoren gaineko gobernu suerterik. Eta hor dago Jesuiten Jenerala: orain ere betiko aukeratzen dela uste dut. Unibertsitateko irakasleena ere aipatzen dute. Beraz, jaun hauek eskatzen dute 75 urte bete dituzten euskaltzainek automatikoki euskaltzaingoa utz dezaten eta ohorezkoen mailara pasa daitezen; halaz guztiz, batzuei —ez dakit zergatik— bizia barkatzen digute. Esaten da, gainera, gehiegizko dardara sor ez dadin, urtean lau aldiz baino gehiagotan ezingo dela prozedura hau ezarri.

Eskatzen dute, halaber, Arautegiaren 33. artikulua eta Barne- Erregeletako 39.a bete daitezela. Honetaz beherago luze mintzatuko naiz.

Jaunak: Nik ez dut uste bestek egiten dutena mimetismoz idurikatzen ibili behar dugunik. Gainera, exenplutzat dakarten ereduak ez dute gurekiko egokitasun handirik. Bere izatasunari, egitekoei eta ahalbideei dagokien bezalako dinamika du Euskaltzaindiak, eta ez besterik.

Eta dinamika aipatzen digutenez gero, ez dut nik uste bat ere ahula denik Euskaltzaindiak gaur duen dinamika. Hor dira ezin ukatuak diren obrak: Lexiko Erizpideen Finkapena, Orotariko euskal hiztegia, euskal Gramatika, Atlasa, Euskararen Lekukoak bilduma, eginberri diren Toponimi Jardunaldiak, etab.

Baina hau ere esan behar dut: nik ez nuke inolaz ere nahi Euskaltzaindia giza-kutizien eta interesen gupil deabruzko horretan sar ledin. Euskaltzainak betiko aukeratzen dira. Gure etxean ez zaio inori atea hersten gaztea delako, baina ezta ere ez da inor kanpora jaurtitzen zaharra delako, eta hori egingo litzateke proposamen horrek eskatzen duena egingo balitz. Eta ez diezadatela esan ohorezko izaten segituko lukeela, zeren oso-osoko eta egiazko euskaltzainak numerokoak baitira; horregatik, hain zuzen, “euskaltzain osoak” deitzen zaie. Horiek “numerus clausus” dira; urgazle eta ohorezkoetan ez dago horrelakorik. Legea hola da, eta zer egingo zaio! Nik ez dut ikusten nola kideak kideari betiko eman zitzaion euskaltzaingoa ken diezaiokeen. Hori bai izango litzatekeela iraina eta bidegabekeria! Tribunaletara ere eraman gintzakete horrela euskaltzaingoaz gabetuak izan direnek.

Gainera, Akademien eiteaz ongi jabetzeko, beroien mugak ere eza-gutu behar dira. Akademien zenbait dohain, bereizgarri eta baldintzapez jakin behar dira, alegia. Aipa dezadan baldintzapez bat, oso ondoriotsua dena. Gaurko gizartearen bada balio bat gainbehera amilka doana, hots, debaldetasuna, gratuitatea, lana urririk eta dohainik egitea. Eta neurri handi batean gisa horretakoa da Akademietan egiten den lana. Academia Españolakoekin egon garenean, beti esan digute diruz oso urri dabilzala,

eta uste dut hori egia dela. Horrek badu alde txarrik, baina agian bai onik ere: diruaren usaira letozkeenak uxatzea. Eta ez da guti. Euskaltzaindiaren jaioberri hartan batzarrera etortzeagatik bost ogerleko ordaintzen zitzairen euskaltzainei. Ferrocarriles Vascongados delakoak bere aldetik dohainik ematen zien primera claseko billetea. Baina hori zer da? Dohainik egiten zuten lana jaun haiek. Eta zenbait asignazio egonagatik edo lan berezi batzuengatik sariren bat emanarren —hori ere ahal denean—, esan behar da dohainik edo erdi dohainik egiten dela orain ere lana Euskaltzaindian. Eta horrek hola behar du, zeren beste ogibide edo ofizio batzuetatik bizi baitira akademikoak: bata medikua izango da, bestea legegizona, irakaslea edo apaiza; orduan euskaltzaingoa zerbait gainetiko gertatzen da, eta gauzen egoera hau aldatuko balitz, nik ez dakit ez ote genukeen inkompatibilidadeen legearekin topo egingo.

Hori horrela delarik, uste dut konprentzio pixka bat eduki behar dela denak beti txintxo batzarreetara ez badatoz, gainera bi Estatutan barreiatuak gaudelarik, eta komunikabideak beti errazak ez direlarik eta batzu adinaren handiz edo, etortzeko gai ez direlarik. Batzuek bete-betean parte hartzen dutela lanetan, eta beste batzuek ez hainbeste? Bai, segur, baina hori ere Akademia guztien ajea dela esango nuke, eta horrek ez du erremediorik. Ezin egin dena da gure nortasuna eta izatasuna funditu. “Garean garean legez” zioen Fr. Diego Lizarrakoaren arma-harriak, eta gureak ere hala behar du.

Hemen aitortu behar dut lainoki nik ere izan nuela tentaldi hau. Garai batean oso guti biltzen ginen batzarreetan. Gogoan eduki behar da “H”aren eta euskara batuaren auzi horrekin batzuek alde egin zutela. Beharbada boikota egin nahi zuten, ustez eta horrela Euskaltzaindia desegingo zela. Ez dakit. Nolanahi den, kontu honen isatsa orain ere hor da. Esan nahi dut, kontrako indarrak guk disparateren bat egingo ote dugun zain egon daitezkeela, erasotzeko. Foruan 1979an egindako barnejardunaldietan luze mintzatu ginen horretaz: zer egin ez datozenekin? horien ordeaz beste batzu izendatu? Asko mintzatu ondoren, ez genuen ezer egin. Eta ordu onean! Gauzak egonarriz hartu: hori izan zen hartu genuen bidea. Egia esan, legeak ere ez zigun bestetarako kirtenik eskaintzen. Ikus **Euskera** (1979), 825-830.

Gaur egoera guztiz bestelakoa da. Batzarreetara datozenen kontua aski ugaria da. Azken urteotan sei euskaltzain berri sartu dira, batzarreetara txintxo datozenak. Beren izenez izendatuko ditut: Knörr, Altuna, Ondarra, Salaburu, Charritton eta Krutwig. Azken hau ez da berria, noski, baina kontuan sartu behar dela uste dut, zeren eta 25 eta gehiago urtez atzerrian egon baita exiliatua, Euskaltzaindiko lanetan parte hartu gabe. Instituzioaren egonkortasuna zaintzeko hobe da zahar-berritzea horrela egin dadin, iraultza gabe, trauma gabe eta besteen eskubideak errespetatuz; bizitzeak eta heriotzeak egin dezatela beren jokoa, alegia.

Auzi hau barnetikago aztertzeko, goazen orain legeek zer dioten aztertzeraz. Ez oraingoak bakarrik; Euskaltzaindiak orain baino lehen izan dituenak ere bai. Hiru legegintza-aro ezagutu ditu gure Euskaltzaindiak.

- 1.—Har dezagun hasierako Arautegia, hots, Estatutuak. Bilbon 1920an argitaratu ziren liburuska batean. Bertan euskaltzain osoen kopurua 12tan mugatzen da (ikus art. 7, p. 4). Euskaltzainburuari dagozkionen artean honako hau dator: Arautegia eta barne erregelak betearaztea (art. 12 p. 5). Eta gure kontuko, han ez dator beste ezer.

Barne erregelak ere urte berean, hots, 1920an, beste liburuska batean agertu ziren. Eta hor, bai, bada zerbait:

Art. 16, p. 6: “Si por defunción o renuncia de algún académico, la Corporación se encontrase mermada, seis asistentes podrán constituir sesión válida. Con menor número no se podrán tomar acuerdos firmes; pero se seguirá en todo el orden prescrito y percibirán sus dietas los asistentes”.

Art. 26, p. 8: “Cuando por defunción o por imposibilidad de colaborar, que la Academia en votación secreta de Junta ordinaria estime irremediable, quede vacante una plaza de académico numerario, la Academia lo declarará así y lo hará inmediatamente”.

Jaunak, hau da zorioneko artikulua, ia hitzez-hitz gero gaurko barne erregeletara pasatuko dena, eta beti, nik dakidala, paperean gelditu dena. Geroago esango dut honi buruz uste dudana.

- 2.—Gerra ondoren, 1954ean, Euskaltzaindiak bere legeen gaurkotze bat egin behar izan zuen eta liburuska batean atera zituen. Hala dio tituluak: “Estatutos y Reglamento de la Academia de la Lengua Vasca. Aprobada en reunión de 24 de Agosto de 1954”.

Hemen oharpen bat behar da egin. Euskaltzaindiaren kondairan zatirik ilunena gerra ondoko lehen aroa da. Gogora dezagun Lafittek bere Gramatikaren hitzaurrean idatzi zuena: “La défunte Académie”. Ez dut uste erabat hil zenik. Azkue uste dut beti txintxo joaten zela egoitzara lan egitera, baina batzarreak ez ziren egiten, euskaltzainetarik batzu hilak ziren, beste batzu exilioan, beste batzu beren etxean. Beste entseiu batzu alde batera utzirik, 1949-1950. urte inguruan, eta Krutwig jaunari eskerrak, hasten da Euskaltzaindiaren berpizte bat, beldurtia nahi bada, baina iraunkorra. Egoera guztiz anormala zen eta gauzak ahal zen bezala egin behar. Orain *Euskera*-ren bir-argitalpena egin denean, azkeneko tomoan lehen aldiz azaldu dira garai horretako zenbait batzar-agiri; aurkitu ahal izan direnak, noski. Hortik ikusten da, Krutwig jaunaren eskariz, 1949an, onartu zela euskaltzainen kopurua 18ra gehitzea, eta ondorioz izendatzen dira Lafitte, Lafon, St. Pierre, Dassance, Lekuona eta Semina-

rio de Rojas. Pixka bat geroago, 1950ean, Gorostiaga. Ni ere orduan —1951n— sartu ninduten eta ez dut sekulan jakin noren ondorengoa naizen Euskaltzaindian. 1953an Oxobi eta Mitxelena uste dut izendatuak izan zirela. Norbaitek esango du: 12tik 18ra gehitu baziren euskaltzainak, 6 baino gehiago aipatu duzu zuk. Bai; baina kontuan eduki behar dira hilak ere: Campión, Olabide, Lacombe, Azkue, Urquijo, Eguzkitza, Intzagarai; eta exilioan zeudenak: Altube, Bonifaciò Etxegarai, Intza; eta pixka bat geroago —1952an— Krutwig berak alde egin behar izango du. Dena dela, 1954ean arautegi eta barne erregela berriak argitaratzen dira, baina lehenagotik ere euskaltzainen kopurua 18ra gehitzea onarturik zen.

1954ean Arautegi eta Barne-erregela berrituak agertu aintzin, Marxoko agirian hau irakurtzen dugu: “El Presidente —Etxaide, noski— manifiesta que de hecho el reglamento está variado en puntos esenciales y recuerda que varios académicos han manifestado en diversas ocasiones su opinión de que se dé de baja a académicos que habitualmente no asisten; el Presidente no es partidario de recurrir a este extremo violento, pero sí de nombrar suplentes a todos los académicos que no asisten, suplentes que, de hecho, gozarán de todos los derechos de los Académicos y que no cesarán en sus cargos si los suplidos comienzan a acudir”.

Urte berean argitaratuko dira, bada, arautegi eta barne erregela berriak eta bertan bide hori hartuko da. Uste dut Mitxelenak parte hartu zuela gure legeen gaurkotze honetan. Eta Lojendio eta Arrue ordezkio bezala euskaltzain izendatzen dira. Maidagan-i ere eskaini zitzaion, baina ez zuen nahi izan.

1954eko arautegian, 6. artikuluan, hauxe irakurtzen da:

“La Academia contará cuando menos de diez y ocho miembros de número”.

Eta hurrengo artikuluan hau dio:

Art. 7: “Si un académico deja de asistir durante todo un año a las reuniones, sin excusar su falta de asistencia con razones que la Academia estime suficientes, se designará un académico suplente que gozará de todos los derechos de los académicos de número y que no cesará en su cargo aun cuando el suplido comenzare a asistir”.

Jaunak: hau izan zen orduko Akademiak gerra ondoko egoeraren ondorio beltzak garaitzeko asmatu zuen bidea. Euskaltzain batzu exilioan zeuden eta batzarrera etortzerik ez zuten eta, beraz, batzarreetan guti biltzen ziren. Orduan zer egin zen? Euskaltzainen kopurua 18ra igo, etortzen ez zirenen kargua edo euskaltzaingoa mantendu, baina horien ordezkioak izendatu, eta inoiz haiek etortzen hasiko balira, bi-biak barnean atxiki. Lege berritze honek 1954eko data du, baina lehenagotik praktikatzen hasi zen.

Barne-erregeletan, berriz, hau irakurtzen dugu:

Art. 11: "Cuando por defunción quede vacante una plaza de académico numerario, la Academia lo declarará así inmediatamente".

Hemen, jaunak, harako zorioneko artikulua hartan mozketa bat egin da. "Por defunción", y punto. Ez du jartzen beste hura: "por imposibilidad de colaborar que la Academia en votación secreta estime irremediable". Hau kendu egin da.

3.—Hamazazpi urte geroago, ordea, 1971. urtean, Euskaltzaindia berriz ere bere lekeen gaurkotzea egin beharrean gertatu zen. Arrazoi bat baino gehiago egon zen horretarako. Gogoan ditudanak aipatuko ditut:

1. 1954eko lege berriztatzea pixka bat murrizt eta urria gelditu zen. Askotan 1920kora jo behar izaten zen, eta nola biak ez baitzetozen bat, ez zenuen jakiten zein zegoen indarrean edo zein hartu behar zen.

2. Aurpegira botatzen ziguten ez genuela legezko nortasunik. Kasu bat aski sonatua gertatu zen. Editore batek gure baimenik gabe Azkueren hiztegia argitaratu zuen honako hau esanez, gainera: Auzitara jotzen badute, ez dute ezer egiterik, zeren ezpaitute legearen aitzinean nortasunik. Orduan, jakina, gure eskubideak defenditzeko eta baita euskararen alde behar bezala jokatzeko ere, legezko nortasun hori erdietsi behar zela pentsatu zen; baina horretarako, gure lege-gizonen aburuz, noraezekoa zen Arautegia gaurkoturik edukitzea.

3. Ley de Asociaciones-en barruan sartu nahi gintuzten, Ministerio del Interior-en eremuan, alegia. Guk beti esaten genuen ez ginela asoziazio bat, instituzio bat baizik, baina Francoren denborako legeekin hori frogatzea edo egiztatzea ez zen erraz.

4. Gure eskubideak eta euskararenak defenditzeko bide egokia zirudien Estatu mailako onarpena lortzeak.

Urrats handia zen hau, lehenbiziko aldiz egingo zena, eta beharbada lotura batzu ekarriko zizkiguna; zenbaitek bere zalantzak agertu zituen; baina Euskaltzaindiak bere egitekoak hobeki betetzeko eta etsaietarik bere burua begiratzeko, bide ona zirudien nortasun legezko hori lortzeak, eta hala erabaki zen. Horretarako, berriz, eta bestela ere horren premia zegoelako, arautegia gaurkotu behar zen, eta hori ere egin zen. Ikus **Euskera** (1972), 172.

Orain bada, arautegi berrian euskaltzain osoen kopurua 24ra igotzen da. Ikusten duzue egon den gorakada: hasieran 12, gero 18, azkenik 24.

Gogoan dut arautegia berriztatzen ari ginenean, norbaitek proposatu zuela 80 urtetara iristean euskaltzainak ohorezkoen mailara pasatzea;

baina ez zen onartu. Beraz, puntu hau espresuki ukitu zen eta baztertu egin zen.

Arautegi gaurkotu honetan 33. artikulua honela dio: “Las vacantes de académicos de número se anunciarán en sesión ordinaria, pudiendo presentarse propuestas para proveerlas en las dos sesiones siguientes a aquélla en que se hubiese anunciado la vacante”.

Jaunak: Artikulu honen esanahia ura bezain argi eta gardena da. “Vacante”a gertatzen da noiz eta euskaltzain bat hiltzen baita. Hau izan da, gainera, praktika eta jokaera. Ordezkoak ere ez dira gehiago aipatzen. Gerra ondoko garaian horiek beren papera bete zuten, baina geroztik ez.

Joan Karlos Erregek 1976. urtean Euskaltzaindiaren Onartze-Dekretua eman zuen eta Dekretuaz batera gure Arautegia Estatuaren Boletinean ager arazi zuen. Esan behar da Arautegiaren onarpena lor zedin aldaketa xume batzu ere egin behar izan zirela. Ikus **Euskera** (1976), 5.

Eta hau da hemen azpimarratu behar dena: behin goimailako onarpen hori lortuz gero, gure arautegia pixka bat bahitua gelditu zaigu. Esan nahi dut: bertan aldaketak sartzea ez dago jadanik gure eskuan soilki; gora jo behar da, eta han ez dute erraztasunik ematen. Inoiz eskatu da zerbait aldatzea, eta erantzuna izan da: Arautegia ez dagoela aldatzerik, eta gauza berriak barne-erregelatan sartzeko. Baina, jakina, barne erregelak maila apaleko legeak dira eta arautegiak ezartzen duena ezin dezakete alda. Beste hitzez esanik: arautegian aldaketa sustantzial bat berekin dakarren gauzarik ezin dezakete mana barne-erregelek.

Hemen galdera bat egingo nuke edo egingo nioke neure buruari: Zer dela eta, nahi dute agintariak kontrolpean eduki berek onartu dituzten instituzioen oinarrizko legea? Neri erantzun bat bururatzen zait. Badakite, nunbait, giza taldeetan, batez ere gaur, gauzak gainazpikatzeko tentaldiak altza ohi direla; badakite, bestalde, egonkortasuna onuragarri eta beharrezkoa dela elkarte horiek bizi eta lan egin dezaten, eta horregatik, berek babestutako instituzioak tentaldi horietarik gorde nahi dituzte.

Estatuan bezala, Elizan ere jokaera berbera nabaitzen dut. Gure Ordenan, esate baterako, Konstituzio berriak, Kodigo berriari egokituak, egiten ari dira. Egin, Ordenak berak egiten du oinarrizko lege hori, baina balio dezan, goragoko onarpena behar du, hots, Aita Sainduarena; eta han onarpen hori ez dute ematen aurretik ongi aztertu gabe eta behar bada zenbait aldaketa egin gabe. Eta behin legea onartuz gero, bahitua bezala gelditzen da; ezin daiteke bertan aldaketarik egin gora jo gabe, eta han ez dute baimena errazki ematen. Hori, bai, Ordenak egin ditzake maila apaleko erregelak eta horiek aldakorragoak dira, baina, jakina, oinarrizko legean dagoena ukitu gabe edo hautsi gabe, beti ere.

Hemendik ondorio bat atera behar dugu, eta da: Oinarrizko legearen egonkortasuna instituzioen onerako dela, eta zaindu behar dela.

Eta barne-erregelekin zer gertatu zen? Horietaz Erregek ez zuen bat ere kasurik egin. Estatuko Boletinean horiek ez ziren azaldu. Horiek aldakorrago dira, noski, baina inolaz ere arautegia ezin dezakete kolpa.

Barne-Erregelak Euskaltzaindiak 1974. urtean gaurkotu zituen, hots, Erregeren onarpena lortu baino lehen. Ikus **Euskera** (1974), 363. Eta geroago oraindik aldaketa edo gehiketa batzu egin izan dira. Ikus **Euskera** (1981), 733-743.

Barne-erregela hauetan bada artikulua bat —azken erredakzioan 39.a dena eta honela dioena—: “Cuando por defunción o por imposibilidad de colaborar, que la Academia en votación secreta estime irremediable, quede vacante una plaza de académico numerario, la Academia lo declarará así, y lo hará inmediatamente”.

Artikulu hau, egia esan, ez da berria. Ia hitzez-hitz hasierako barne-erregeletatik hartua da. Atzera jotze bat gertatu da hemen. 1954eko barne-erregelek kendu zutena berriz hartu, alegia. Baina, nik dakidala, beti paperean gelditu da. Ez Euskaltzaindiaren lehen garaian eta ez orainagokoan ez da praktikara eraman.

Iaz esan nuen bezala, barne-erregeletako artikulua honek aldaketa sustantzial bat sartuko luke oinarrizko legean, eta, beraz, ez du balio.

Oinarrizko legeak 33. artikuluan “Las vacantes de académicos de número” dioenean, begien bistan da zer esan nahi duen: euskaltzainak hiltzen direnean. Barne-erregeletan, aldiz, heriotzeaz landara beste zenbait jartzen da: “imposibilidad de colaborar que la Academia en votación secreta estime irremediable”. Nik argi eta garbi salatu nuen iaz artikulua hau oinarrizko legearen kontra doala, eta, beraz, ez dela legezkoa. Gainera, euskaltzainen bozketak egiztatu edo frogatuko du norbaiten kolaboratu ezinak ez duela erremediorik? Bitxia da hori. Oinarrizko legea sustantzialki aldatzen duen artikulua da, eta sekulan praktikara eraman ez dena; beraz, indargea. Eta praktikara erman nahiko balitz, zer-nolako istilutan sartuko ginatkeen jaun baten eritasunak, exilioak, tokiz aldatzeak, lanpeturik egoteak etab., erremediorik izango ote duen ala ez jakiteko!

* * *

Egin diezaiegun orain soaldi Euskaltzaindiko historiaren pasaizo batzuri. Jose Agerreren kasua aipatzen da. Bai. **Euskeraren** lehen tomoa aztertzen badugu, han agertzen da Agerre lehen orduko izendatuen artean. Ikus **Euskera** (1919-1920), 48. Gehiago oraindik: lehenbiziko bi batzarreetan egon zen —goizekoan eta arratsaldekoan, 1919ko Urriaren 7an Donos-

tian egindakoetan—. Ikus **Euskera** (1919-1920), 49. Gero, berriz, ez da gehiago azaltzen. Eta 1920ko Ekaineko batzar-agirian hau aurkitzen dugu: “Jose Agerre jaunaren ordezkotzat A. Damaso Intza kaputxinoaren alde aurkeztea egin eben Campion, Urkijo eta Azkue euskaltzainak” (p. 76). Zer gertatu zen bitartean? Nik ez dakit. Agian Aita Intzak jakingo du zerbait. Segur aski, Azkuek jakin araziko zion: “Aut aut: edo batzarrera etorri edo bestela tokia beste bati utzi”. Ikus **Euskera** (1920) 69,70.

Eta batzar-agiri horretan bertan segituan beste hau dator: “Urtean izentauta dagozan ogei aldiroko batzaldietatik gitxienez amar batzarretara eztaozen Euskaltzainaren lekua utsik dagoala iragarteko eskubidea Euskaltzaindiari emon” (p. 76).

Baina geroztik, eta hori hor egonagatik, nik ez dakit sekulan horrelakorik egin den.

Beno, beste zerbait ere aurkitu dut. Domingo Agirrek agerkarien bidez karguari uko egin ziola esaten da (Ikus p. 73). Segur aski, Agerren ez etortzeaz sortu zen istilua jakingo zuen; beste aldetik, bere osasun ezagatik ez zuen bere burua lanetan parte hartzeko gai ikusten, eta orduan prentsa bidez uko egin zion euskaltzaingoari, eta, aurki hil zen, gainera. Haren ordezt, jakina denez, Altube sartu zen.

Zer esan gauza guzti hauei buruz? Hau datorkit burura: Hasiberri hartan behar ziren gauzak pixka bat gogor hartu, eta hala egin zuen Azkuek. Behar ziren euskaltzainak serioski lanean ezarri eta disziplina baten barnean ibiltzera ohitu. Izan ere, hasieran honelako disziplina edo ohitura sendo bat hartzen ez bazen, instituzioa bera hutsean gelditzeko arriskua zegoen. Baina geroztik, nik ez dut ezagutzen beste inor kargua utziraizi zaionik, eta ez euskaltzaingoa bere borondatez edo berekasa utzi eta onartu zaionik ere. Enetzat praktika honek asko esan nahi du.

Eta orduan norbaitek euskaltzaingoari bere gogoz edo borondatez uko egiten badio, zer? Nik, egia esan, printzipioei leialtasuna gordetzeagatik, orduan ere ez nuke onartuko. Printzipioei leialtasuna gordetzeagatik, eta noraino eramango gaituen ez dakigun zirrikitu bat ez zabaltzeagatik. Betiko badira euskaltzainak, betiko dira. Eta ez zait ez itxurazko, eta ez gizabidezko ere iruditzen pertsona zahar beneragarriei euskaltzaingoa utz dezaten eskatzera joatea. Behin baino gehiagotan gerta daiteke, gainera, ezetz esateko adorerik ez eta erdi bortxaz amore ematea. Gainera, tranpak edo sareak ere egon daitezke estaliak. Lehen ere esan dut. Segur, bat baino gehiago dago gure hanka sartzeren baten begira, gero erasoak eta gure kontrako propagandak pizteko eta puzteko. Zer dela eta, horrelako presa eta lehia 80, 90 eta gehiago urte duten pertsona beneragarriak euskaltzaingoa utz dezaten? Luze jota ere, zenbat iraungo dute? Gorago esan dudan bezala, utz dezagun bizitzeak eta heriotzeak beren lana egin dezaten, eta Euskaltzaindiaren zahar-berritzea trauma gabe egin bedi.

Ez dugu ahantzi behar, gainera, euskaltzainak hasieran 12 bakarrik zirela, gero 18, eta orain, azkenik, 24. Zergatik gehitu ziren horrenbestearaino? Hain zuzen, aukera gehiago egon zedin. Batzuek adinagatik, osasun ezagatik edo beste arrazoiren batengatik lanetan parte hartzeko gai ez izanarren, oraindik, instituzioaren erantzukizunak aurrera eramateko behar diren beste egon daitezten. Beraz, 12 bakarrik zirenean atera zitezkeen arrazoiak, ez dute, nik uste, orain, 24 direnean, berdin balio.

Baina orain —esaten digute— aurreko denboretan baino zeregin gehiago ditu Euskaltzaindiak. Baliteke. Ez dakit. Gauza batzu hartu ditu, baina beste batzu utzi ere bai. Autonomiaz egoera normaltzen den ber, hainbeste gauza, lehen egiten genituenak —beste inor ez zegoelako— uzten ari gara: Alfabetatze kanpainak, euskal irakasle titulua, bertsolari txapelketa, etab. Proposamenen bertan esaten da gaur badirela Euskal Herrian gauza batzu guk baino baliabide gehiagorekin egin ditzaketen taldeak. Bapo. Ba egin ditzatela. Guk ez dugu horren damurik.

Eta horra oraino egin daitekeen beste galdera bat: Euskaltzainen kopurua zergatik ez berriz ere igo edo gehitu? Horrela —esan ohi da—, gaur, batez ere zenbait lurralde historikotan dagoen jende prestu eta prestatuari Euskaltzaindian sarrera emango litzaioke. Jaunak: neure aburua agertuko dut. Alde batetik, hori egiteko, oinarritzko legea aldatu behar da, eta ikusi dugun bezala, hori gaur oso zaila da. Bestetik, auzi honek badu beste alderdi bat oso axola handikoa eta ahaztu edo gutietsi ohi dena. Euskaltzaindiak euskalki guztietako ordezkariez osatua egon behar du, ahal den neurrian behintzat, eta halako oreka bat gorde behar du horretan. Orain bada, Gipuzkoa eta Bizkaian jende prestatu asko dagoelako, lurralde hauetako multzo handi bat sartzen bada, desoreka arriskutsu bat sor daiteke. Euskaltzaindiak bere itzala eta autoritatea gorde nahi baditu, puntu honi arduraz begiratu behar dio. Lehenago ere inoiz Lafitte jaunak harako zirto hura bota zuen: Euskaltzaindia Giputz-zaindia bihurtzen ari zela. Horrelakorik ez zaigu inondik ere komeni. Desoreka nabarmenik ez, bada. Gainerakoan, akademikoen kopurua mugatua denez gero, beti gertatuko da, nik uste —eta hori Akademia denetan—, jende iaio eta prestatuturik aski kanpoan gelditzea. Eta zer egingo zaio? Gauzak diren bezala dira. Beste alde, jendea gehiegi ugaritzen bada, goberna ezina bihur daiteke Akademia, eta hori ere ez da ipuinetako kontua, gero!

Bigarren proposamenari buruz ere hitzerdi bat esango dut. Proposamen honetan argi eta garbi aitortzen da akademikoa esentziaz hilezkorra dela, hots, “immortel”. Orduan beste zerbaite proposatzen da, hots: euskaltzain bat batzarrera ez datorrenean, ordezkoa izenda dakiola, baina ez betirakoa; eta euskaltzain hura etortzen hasten den bezain laster, ordezkoren kargua suntsitu egin dadila. Hau oso konplikatu da, ene ustez, eta agian nahastetarako bidea ipintzea. Ordezko hori ez da akademiko

osoa, agian denbora luzean hala balitz bezala jokatu luke eta gero egunen batean ez dela ezer esan beharko litzaioke. Ez dut uste bide horretatik sartzea on denik. 24eko muga ez pasatzeko lege hori ere ez dakit ongi gordeko litzatekeen. Lehenago ere esan dut: Euskaltzaindia ateka gaitz batean gertatu zenean, ordezkoen asmazio horrek mesede ederra egin zion; baina orain ez gaude kasu horretan.

* * *

Hala ere, esan den guztia esan ondoren, eta gure estrukturak salborig utzi behar direla errepikatu ondoren, ez ote da gaineratu behar badela agian zerbait egin beharra? Agian bai. Gaur Euskaltzaindiak neurri batean batzorde bidez egiten du bere lanaren zati handi bat. Orain bada, batzordeak pixka bat autonomoak dira —autonomiak ez du esan nahi independentzia, hori ere garbi geldi bedi—. Batzorde bakoitzaren buru euskaltzain oso bat egon ohi da. Praktikan, ordea, zer gertatzen da? Euskaltzain batzuekin ezin konta daiteke, edo adinagatik edo beste lanetan dabiltzalako; Iparraldekoak ere gehienetan ez dira aproposak izaten beste Estatu batean bizi direlako. Orduan zer pasatzen da? Gutxi batzuek gelditzen direla, eta berberak daudela hiru edo lau edo batzorde gehiagotan. Horren ondorioa, berriz, hau da: hipertrofiaz batzorde batzuek ez direla behar bezala ibiltzen, erdi hilik edo geldirik daudela, alegia.

Baina gaitz honentzat, estrukturak ukitu gabe ere, bada agian erremediorik. Ez da noraezekoa batzordeburua beti eta kasu guztietan euskaltzain osoa izatea. Hor dira urgazleak ere. Badakit horietarik askok Euskaltzaindiko lanetan ez dutela parte handirik hartzen, baina badago multzo bat oso txintxo eta langilea. Horiek, ordua heltzen zaienean, euskaltzain oso izango dira seguraski; baina bitartean ere, aipatu dudana hipertrofia hori arintzeko, zergatik ez eman horiei erantzukizun bat? Legeek ez dute hori debekatzen. Nik ez dakit fin eta leialki lanean ari diren gure urgazleei ez ote genieken ezagutza berezi bat egin behar. Agian hortik du irtenbide auzi honek.

Jakina, hau ez da orain erabakitzeko gauza. Baina agian batzordeak berritatzeko direnean aztertzekoa edo eztabaidatzekoak litzateke.

Eta besterik ez. Barka, hainbeste luzatu banaiz, baina auzi hau argitzeko zimenduetara jo beharra zegoen, hots, Euskaltzaindiak izan duen iragana eta lege gorabeherak aztertu behar ziren.

BATZAR AGIRIAK

Bilbon, Plaza Barriko bere egoitzan, 1986.eko urtarrilaren 31an, arratsaldeko 4etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bilkura. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Larre, E. Knörr, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. J.A. Arana, A. Arejita, R. Badiola, F. de Barrenengoa, J. Bilbao, J.G. Etxebarria, J.M. Etxebarria, X. Gereño, J.L. Goikoetxea, J.L. Lizundia, J. de Oleaga, P. Pujana, J.A. Retolaza, K. Rotaetxe, P. Uribarren, X. Videgain eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J.M. Satrustegi idazkari dela. Goizean P. Altuna ere egon da.

Ezin etorria adierazi dutenak: P. Charritton, J.L. Davant, J. Hiriart-Urruty eta A. Zavala.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Abenduko batzar-agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Euskaltzainburugoak aurreko ostiralean eztabaidatutako gai nagusia urteko Memoriarena izan zen, eta horren kontu eman du idazkariak. Garrantzizkoa eta beharrezkoa ikusten du Zuzendaritzak, berez dagokion epean eta inolako luzape-nik gabe, Euskaltzaindiaren urteko Memoria kaleratzea. Horretarako, batzordeek arretaz hartu beharko dute beren ekintza guzien berri ematea. Hemendik aurrera euskaltzainburuak jakineraziko die batzordeburuei eginkizun hori betetzeko epea, eta idazkaritza arduratuko da jasotzez. Urteko ekintza nagusi eta batzarlanez bestalde, erakunde ofizialekin izandako harremanak eta euskaltzainkideei dagoz-kien izendapen eta gertakizun kultural nabarmenak ere bertan aipatuko dira. Inolako eragozpenik gabe onartu da proposamena.

Udaletako esaminak direla-eta, aspaldiko zama aipatu da. Behin eta berriz hartutako erabakia, zera da: itzultzale lanposturako ez bada, ez agertzea. Dagoz-kien agintariei hala jakinerazi zitzairen bere egunean, baina arazoak berdin jarrai-tzen du. Berriz gogoraztea erabaki da.

J. M. Makua, Bizkaiko Diputatu nagusiarekin egon da batzorde bat eta egoitza berriztatzeke dirulaguntza onartu dela jakin du. Antolaketako proiektua egin behar da orain.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismoko Sailburu den L. M. Bandres jaunari erantzunez, P. Salaburu izendatu du *Euskal Kulturaren Kontseilu Oroko-rerako* bere ordezkari Euskaltzaindiak.

J.A. Arana eta X. Gereñorekin batera Estatu Batuetara egindako bidaiaren berri eman du E. Knörr jaunak. Helburuetan, Ipar Ameriketako zenbait biblioteka ikusi eta harremanetan sartzeari aipatu du. Chicagokoan Bonaparte printzearen izkribuak mikrofilmaz lortu dute. Fundazio eta ikerlanetarako laguntzak nola funtzionatzen duten ere ikusi dute, asmo berriak bideratzen joateko. Harreman baliotsuak izan direla esan du, eta harrera ezin hobea ukan dutela. Esker ona merezi dutenen zerrenda aipatu du gero.

J.R. Uriarte, *II Euskal Mundu-Biltzarraren* idazkari orokorrak gutun bat bidali dio Euskaltzaindiari, hizkuntza ere aztergai izango dela gertakizun horretan, aditza emanez. Biltzarraren motibapen eta oinarritzko filosofiaren berri ematea eskatzen du, denbora berean. Hala egin da.

Jazinto Iturbe jaunaren gutun bat ere jaso da, *l, n, r*, kontsonanteen ondoko *s* eta *z* letrei buruz Euskaltzaindiak hartutako erabakiaren berrikuste bat eskatuz. Itxita dagoela esan da.

J.M. Satrustegi idazkariak aita Inza euskaltzaina ikusten izan dela esan du. Azken batzarrean esan bezala, bere apaiztearen 75.urteburukari zorionak eman ondoren, aurrean bere jaiotzaren ehunurteburua dela-eta udazkeneko ospakizuna aipatu zion. "Oh, nunbait dago! Ordurarte bizi behar...?", erantzun zuen.

Begoña Landaburu andereak bere aita zenaren margo-irudi bat, Angel Larroque-k egin, eskaini dio Euskaltzaindiari. Felix Landaburu Bizkaiko Foru Diputazioko diputatu zelarik Euskaltzaindia sortzea beste hiru Aldundiei proposatu ziena izan zen, Cosme Elgue zabalekin batera. Hori dela-eta esanahi berezia du Plaza Barriko egoitzan. Begoña bera eta T. Uribe txabarria, Bizkaiko Kultur arduraduna jarri dira mahai buruan.

J.A. Aranak egin du Felix Landaburu zenaren aipamena. "Lauburu" aldizkariaren sortzailea, beste aldizkari batzuetako idazle ere bazen. Oñatiko Biltzarrean berak aurkeztutako Euskal Akademiaren proiektu edo aurreasmoa ezin izan zuen buruturik ikusi, laster hil baitzen 1918an bertan. Esker ona agertu zaio emaitza ederragatik alabari.

E. Tierno Galvan irakasle eta Madrilgo alkate zenaren heriotza aipatu du euskaltzainburuak. Euskararen egoeraz arduratzen zen eta urtero bialtzen zuen bere diru laguntza. Baltasar de Echave-ren "Discursos..." liburua birargitara beharra aipatu zion Villasanteri gutun batean.

Txostenak

Hiztegigintza. Goizeko bilkuran M. Zalbidek Miren Azkaratekin batera egindako txosten bat irakurri du, "Lexiko erizpideen finkapena: 1986rako ekintza-plana" izenburuarekin. Asmoa bere osotasunean bideratzen joateko bi Jardunaldi egitea proposatu dute. Ekainean: programaren azalpena, aztergai zerrenda finkatu eta bigarren Jardunaldietarako txostengileak izendatzea. Abenduan: egindako lana aztertu eta emaitzak lantzea eta 1987rako txostengileak izendatzea, izango litzateke helburu nagusia. Miren Azkaratek ez dauka oraikoz bete-betean lan honi lotzerik, baina talde eragilearen ardura har lezake. Diru beharrak lehen urtetik

hasita bere osotasunean aurkeztea komeni dela esan dute txostengileek. Proposamena ontzat eman da.

Beste asmorik ere azaldu du gaurkoan M. Zalbidek. Liburu argitalpenen laguntza zabaltzen doa eta konposaketa informatikaz egiten denez, kopiak lortzeko aukera ikusten du informazioaz zuzenean baliatzeko. Gaia gordin badago ere ahalbideen berri jakiteko urratsen bat eman daiteke. Hizkuntz Politikarako idazkariari idaztekotan gelditu da bera.

Ebakera. Maiatzaren azken astean, Durangoko Euskal Jaiei mendeurrena ospatuz egingo diren beste gauza askoren artean, Euskaltzaindiak azentua eta doinua aztertzeko Jardunaldiak antolatu ditu. Pare bat eguneko iraupena izango dute, egitaraua honela mugatuz: Lehen gaitzat, teoriako txostenak, bigarrenik, ereduaren azalpena, eta azken partean, Komunikazioak. Hau dena aurrera eramateko batzordeñoa izendatu da, L. Mitxelena, J. San Martin eta P. Altuna barne direla, eta J.L. Lizundia antolaketa laguntzaile.

Atlasgintza. Arratsaldeko batzarrean Euskal Herriko atlasgintzan diharduen batzorde teknikoaren txostenak irakurri dira.

J. M. Etxebarriak orain arte euskararen atlasaren kezka aritu izan direnen aipamena eta saioen historia agertu du. Historia laburra deitu arren, gaiari buruz dagoen bibliografia, pertsonen izenak eta gertakizunen unea zehazki ematen dituen txostena izan da.

Gotzon Aurrekoetxeak 1985.eko balantzea ekarri du. Aipamen soila eginez, galdekizunen orrazketa, bileren kopurua, itaunketa puntualak, alfabetoaren finkapena, traskribapen arauak, fitxen eredu eta alderdi ekonomikoa zer izan diren agertu du txosten honen eduki tinkoan.

Xarles Videgainek atlasgintzan informatikak duen garrantzia azaldu die batzar-tuei. Mapen eta datu guzien baliapena prozedura oso zehatzen baita dago. Arlo espezializatua da alde batetik, eta tresneria oso garestia bestetik. Horrelako zerbait sortu baino hobea eta merkeago dela zioen, Strasbourg edo antzeko zentroetatik baliatzea. Harremanetan omen daude.

J. Haritschelhar, mahai buruan, galdera eta herriak kondatzen aritu da eta orobat 574.000 galdera izanen duela lanak, aditzera eman du. Traskribapena eta azterketa bestalde.

Atlasgintzako langileen hautapena urtarrilaren 17an egin zen. Onartuak izan dira, Isaak Atutxa, Izaskun Etxebeste eta Koro Seguroa.

J. A. Arana Betolazaren dotrinaz mintzatu da gero. 1596ko Kristau Ikasbide hau Ostolazaren izenean eman zuten Vinson eta beste zenbaitek. Betolazarena da, noski. Ripaldaren itzulpena. Nongoa da egilea? Bilboko parroketan ez da aurkitzen bere jaiot-agiririk. Arratia, Orozko edo Audio aldera jo beharko da argitasun bila. Argitalpen honek badu berezitasun nabarmena: irakurtzen erakusteko katoi edo arau adibide bat dakar hasieran. Alfabetatze arloko lehen saioa dela esan du txostengileak.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi
Idazkaria

Donostian Gipuzkoako Diputazio Jauregian 1986ko otsailaren hogeita zortzian, arratsaldeko lauretan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilkura. Batzar-tu dira: L. Villasante burua, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. M. Atxaga, J.A. Arana, R. Badiola, J. Etxaide, J.Fz. Setien, J.L. Lizundia, X. Mendiguren, J.A. Mujika, K. Otegi eta J.J. Zearreta, urgazleak, J.M. Satrustegi idazkari dela. Goizeko batzarrean E. Larre ere egon da.

J. Haritschelhar, X. Diharce eta L. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Urtarrileko batzar-agiria onartu da.

A. Tovar zenaren aipamena

L. Mitxelenak A. Tovar ohorezko euskaltzain ohiaren omenez egindako lana, bere ezin etorriagatik, P. Altunak irakurri du. Adiskidantza zintzoaren eraginez sortutako hitz hauek, zenduaren nortasuna, karguak, lana eta gizamaila azaldu dute. Gerra osteko egoera txarrean euskararen alde egindako ekintzetan Larramendi katedra Salamankako Unibertsitatean sortzea aipatu du, besteak beste, eta euskal irakasleei eskaintako harrera ona. Atzerrian irakasle izana, aspaldidanik euskaltzain urgazle zen eta azken urteotan ohorezkoa. Gizamailan eskuzabala eta diruaren amorrurik gabeko pertsona zela esan du, eta pentsabide desberdinagatik bereizketarik egiten ez zuena.

Goizeko bilkuraren berri

NATO edo europear militarzaintzako erreferendum edo itaunketari buruz bozkatzeko txartelak erdär az bakarrik izango direla jakinik, Euskaltzaindiak adierazpen bat bialdu die Euskal Herriko gobernari zibilei. Ofizialki onartua den elebitasunaren aurkako erabakia dela esaten zaie eta euskaldunon eskubideak zapaltzen dituela.

Sarako “Syndicat d’Initiative” delako elkargoak antolatuta, Euskal Idazleen III. Biltzarra egingo da Pazko astelehenez, martxoaren 31an. Egun horretarako gomitari erantzunez, E. Larre izango da Euskaltzaindiaren ordezkaria. P. Charriton nehor ez bialtzearen aldeko agertu da.

Donostiako Udalak sortu nahi duen “Euskararen Patronatuko Aholku Kontseiluari” buruz, ez da ordezkariarik izendatu. Euskaltzaindiak Erakunde orokorretan bakarrik parte hartzen duela, erantzungo zaio.

Bertsolarien txapelketa aurrera doalarik, azken sarietarako trofeoaz hitz egin da. Hasieran esan bezala, egina genuena bialduko zaie eta J. Haritschelhar buruordeak emango dio dagokion sarituari.

Estatu Batuetako “Basque American Foundation” izeneko elkargoaren gutuna irakurri da Kongreso baterako diru laguntza eskatuz. Orain baino lehen esana zitzaizen antolatzaileei Akademia honek ez duela halako ekintzen finantziabidetakorako diru altxorrik, eta arazoa bere hortan moztea erabaki da.

Madrilgo Kultur Ministeritzatik aditzera eman digutenez, ihaz inolako diru laguntzarik eman ez baziguten ere, aurten milioi pare bateko laguntasuna jasoko omen du Euskaltzaindiak.

“Euskarazko Kulturaren Batzarreak” Euskararen eguna antolatu nahi du apirilaren 27an eta, horretarako, Euskaltzaindiarekin harremanetan sartzea eskatzen du. J. San Martin mintza bedi arduradunekin.

P. Salaburuk “Euskal Kulturaren Aholku Kontseilu Orokorreko” lehen urratzen berri eman du.

Nafarroako Gobernuari eskerrak emango zaizkio aurtengo diru laguntzaren gehiketagatik.

Batzordeen berri

I. *Argitalpenak*. Goizeko 9etan bildu da egun Argitalpenen batzordea. 1986tik 1990ra bitarteko asmoen azterketa egin du. **Euskera** aldizkaria dago oinarritzat, alde batetik. Beste bildumatan prest daude zenbait lan. Programaturik eta prestatzeke, beste batzu. Aurreasmo hutsa dira, azkenik, zenbait gai. Argitalpenok direla-eta kezka bat badateke Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultur Kontseiluko arduradunen baitan. Euskaltzaindiaren egitekoa den, alegia, edota zenbatetarainokoa. Helburuen azalpen zehatza emango zaie.

II. *Lexiko Erizpideen Finkapenaz*, Miren Azkaratek 1986rako aurrelanen zehaztapenak aurkeztu ditu. Taldekideen zerrenda birrestu da. Jardunaldiak datorren ekainaren 25, 26 eta 27an egitekoak dira eta tokia hitzartu gabe badago ere, Hondarribia izan daitekeela esan da.

III. *Ebakera*. Durangon maiatzaren 30 eta 31an egin gogo diren Jardunaldiak aipatu dira. Eredutzat emango diren irakurle eta hiztunen izenak aipatu ondoren, antolakizun lanak ongi doazela ikusi da.

IV. *Ekonomia*. E. Knörr eta J.J. Zearretak dirukontuak eman dituzte. Txostena denei banatuz ikuspegi orokor bat eman zaie, xehetasun gehiago nahi lukeenari emango zaiola hitzemanaz.

V. *Onomastika*. Goizean eta gero arratsaldeko batzarrean, Onomastikako Jardunaldietaz mintzatu da E. Knörr batzordeburua. Pazko astean, apirilak 3, 4 eta 5, Erakunde publikoekin batera Euskaltzaindiak egingo dituen saioetan parte hartuko duten hizlarien izenak eta gaien zerrendak aurkeztu ditu. Kartografia erakusketa egin nahi da, denbora berean, eta lehen argitalpenaren aurkezpenera ere, agian. Jardunaldi hauek, gerora begira jarraian egin nahi liratekeen hasiera izango dira. Txostenak argitaratzeko asmorik ere badago.

Txostena

“Deklinabidearen eta erakarbidearen artean” izenburuarekin egindako txostena bialdu du L. Mitxelenak. P. Altunak irakurri du. Lehen garbizalekeria izan genuela eta orain erdal kutsuko zabarkerian erortzen ari garela salatu du txostengileak. Mugatzailea aipatu du adibidetzat. Beste eredu batzuren artean, genitiboko *-ren* eta *-ko* atzizkiak aztertu ditu bien arteko diferentziak adierazteko. Bizidun eta bizigabeen muga aipatu du ezaugarri nabarmenena bezala. On da euskaraz mintzatzea, esan du, baino ez genuke ezer galduko ongi egiten ahaleginduko bagina. Beste joera askoren artean izenak aldatzeko sua ere aipatu du, askoren ustez hori baita besteak baino euskaltzaleago direla-edo aditzera emateko modua.

A. Irigoyen-ek ohar batean azaldu du, bizidun zentzua duten izen sintagmetan ere ibili ohi dela, behin edo beste, *-ko* genitibo nominalizatzailearen atzizkia: hala nola, “bi ugazabako etxea” eta “ehun ardiko artaldea”.

Txostengilea bertan ez zegoenez, beste batzar baterako gaia izan lezakeela aditzera eman zaio Irigoyen jaunari.

Liburuen aurkezpena

Bi liburu aurkeztu ditu gaur Euskaltzaindiak, Iruñeko Batzarreko txostenen bilduma dakar **Euskeraren** ale berriak, sarrena hitzaldi, kronika, adierazpena eta batzar-agiriarekin batera. Gramatika batzordearen txosten nagusia bere egunean plazaratu zen eta hirugarren argitalpena egitekotan gara.

Bigarren liburusak *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* jasotzen ditu. Hiru urteko lanen emaitza hauek, txosten asko, azterketa-lan eta elkarriketa ugariren ondoreak dira. 1959an mailegu zaharrak ere euskal hitzak zirela esan zuen Euskaltzaindiak, eta mailegu berriak nola eskuratu behar diren aditzera ematen du gaur. Euskaltzainburuaren hitzetan, lan hauek luza-laburrez hain haundiak ez badira ere, garrantzitsuak behintzat bai.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi
Idazkaria

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, 1986ko martxoaren 21ean egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea, arratsaldeko lauretan. Batzartu dira: L. Villasante burua, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, X. Kintana, X. Mendiguren eta J. J. Zearreta, urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Goizean E. Knörr euskaltzaina eta J.L. Lizundia idazkari-ordea ere egon dira.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Otsaileko batzar-agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Durangoko Euskal Jaietako literatur lehiaketan antolatzaileek epai mahairako ordezkariak eskatu dizkiote Euskaltzaindiari. Honako hauek izendatu dira: J. San Martin saioetarako, F. Krutwig itzulpenetarako, A. Irigoyen olerkietarako, J. Kortazar eleberrietarako, A. Lertxundi ipuietarako eta I. Beobide antzerkietarako.

“Asociación Artística Vizcaina” izeneko elkargoak, bestalde, bere olerki lehiaketarako mahai osoa eskatu du. A. Irigoyen, J.L. Goikoetxea eta P. Uribarren joango dira.

Nafarroako EGA tituluatarako partaidetza eskatuz zuzendu zaizkie gutunak batzorde horretan lehen egondako zenbait laguni. Hori dela eta J.J. Zearretak aurkeztutako galderari erantzunez, bulegoko orduetara landa batzordean berau egoteko eragozpenik ez da ikusten.

Pazko asteen Gasteizen egitekoak diren Toponimia Jardunaldietako egitaraua banatu du E. Knörr, Onomastikako batzordeburuak. Hizlarien izenak eta antolakizunari buruzko punduren batzu ere aipatu ditu.

Hamalau euskaltzainek sinaturiko proposamen bat aurkeztu da azken orduan, adineko euskaltzain batzarreetara ez datozeinei buruz. Horren ondoren beste idazki bat banatu dute bi euskaltzainek erdibide antzeko aurreasmoa eskainiz.

Garrantzitsutzat eman da gaia, eta erabakirik hartzekotan beste batzarre batean eztabaidatuko da, aurrez euskaltzainburugoak aztertuta.

Bertsolari txapelketako azken saioa dela-eta, Euskaltzaindiaren izenean lehen saria nork bana, birmahairatu da. Egoeraren atze-aurre guziak ikusita azken batzarreko erabakia birrestuz, J. Haritschelhar aipatu da eta, ezean ala ezinean, J. San Martinek egingo du.

Batzordeen berri

Hiztegitintza. L. Mitxelena eta I. Sarasola *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren argitalpenaz mintzatu dira. Urte barruan lehen alea egiteko on direla, esan dute. Apirilaren azken alderako erredakzioa amaiturik eta bigarren frogak ikusita, inprimatzeko prest egongo omen da 800-en bat orrialdeko zenbakia. Argitalpena eta banaketak sortzen du istilua, komertzializazioak alegia. Zabalkunde internazionala izan dezan, kandela publikora ateratzearen alde agertu dira egileak. Euskaltzaindiaren aldetik ez dago horretan eragozpenik. Oinarrizko mugak eta legezko baldintzak ikusi beharko dira, noski, eta horretarako batzordeño bat izendatu da. L. Villasante eta P. Altuna egongo dira Euskaltzaindiaren izenean egileekin eta agintarien ordezkariarekin harremanetan.

“Azkue” Biblioteka. Batzorde honek Bilboko egoitza berriaren antolaketako aurreasmoen berri eman du. Arazoa zera da, arkitektoek birmoldaketa ikertzak hasi aurretik Euskaltzaindiak izango dituen beharren zerrenda zehatza eduki nahi dutela. Bestelako eritzirik agertu bada ere, honako aburu honen ildotik joan da eztabaida: Beherean, solairu arteko barnean joango litzateke batzar-areto nagusia, eta beste batzargela txikiren bat ere, behar bada. Lehen solairuan Biblioteka eta irakurgela txiki bat. Bigarren solairua erdibituz, alde batean bulegoeria eta bestean Bibliotekaren eranskina. Hirugarren estaia ere erdibana daiteke, zenbait bulego, langela eta beste zerbitzuren batzu bertan kokatzeko. Atea ez du etxeak oso egokia. Aretoko sarrera kontutan harturik berriztatzea ez litzateke gaizki egongo. Birrantolatzaileekin harremanetarako honako batzordeño hau izendatu da: A. Irigoyen, J. A. Arana, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta.

Txostenak

Otsaileko batzarrean aipaturiko gaiari jarraituz, A. Irigoyen jaunak “Bizidun zentzuzko izen sintagma eta *-ko* genitibo nominalizatzaileaz” egindako txostena ekarri du. Lanaren funtsa zera da: *-ko* genitibo nominalizatzailea euskaraz ezin dela bizidunen zentzua duten izen sintagmetan ibili. Hala ere, usadioa lekuko, genitibo horrek edutezko zentzua, balio posesiboa alegia, hartzen du batzutan, eta bizidun zentzuzkoekin ere joan daiteke orduan: ehun ardiko artaldea, etab.

Gaitik zertxo bat saihestuz eta komunikabideek gaur-egun duten eragina eta garrantzia hizkuntzen normalizapen arloan kontutan izanik, Euskal irrati eta telebistaren euskara maila salatu da. Zuzentzaile karguaren lana ganorazkoa ez bada ondore oso txarrak ekar liezazkiokete tresna kementsu hauek euskarari.

Kezka hau nabarmena izan da batzartuen artean. Galbahe estuagoa igaro behar lukete hizlari eta aurkezleek horrelako lanpostua lortzeko.

*Ezkond*u hitzaren etimologiaz L. Roberto Gonzalez jaunak egindako txostena irakurri du gero P. Altunak. Elizaren bidez sartutako hitz hauen edukia bazate-keela kristautasunaren aurretik ere gure artean, esan du lehenik, lehen iturrietara jo nahian bere aldetik. Denboren joan-etorriekin hitzen ahoskeran izandako aldaketak gora-behera, *ezkond*u hitzaren oinarrian *etxe* ote dagoen esatera etorri da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi
Idazkaria

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, 1986ko apirilaren 25ean arratsaldeko 4etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Bildu dira, L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak. J. A. Arana, P. Arregi, M. Atxaga, R. Badiola, J. Etxaide, P. Goenaga, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta, urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Ezin etorria adierazi dute, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabalek.

Goizean L. Mitxelena ere egon da.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Aurreko batzar-agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Datorren urteko egutegiaren aurre-asmoa azaldu du idazkariordeak. Toribio Etxeberriaren mendeurrena dator, alde batetik, eta Poza-ren *De la antigua lengua de las Españas* liburua plazaratu zeneko laugarren ehunurteburua, bestetik. Maiztean bileraren bat egitea proposatu du aurkezleak.

Maiatzaren 30 eta 31an egitekoak diren ebakerarekiko Jardunaldiak aipatu dira gero. Durangoko eskola zaharretan egingo direla esan du J. L. Lizundiak. Bezpera arratsaldean, 29an alegia, bilduko da Euskaltzaindia hileroko bere batzarre arrunta egiteko.

“Lexiko erizpideen finkapena” gaitzat harturik eratutako Jardunaldiak Iparraldean izango dira datorren ekainaren 26 eta 27an, P. Charritton euskaltzain berriak 28an bere sarrera-hitzaldia emango duelarik.

Eusko Jaurilaritzak bere lurraldeko hiru Diputazioekin batera, bide seinalizapen arazoetarako batzordea sortu berri duela aditzera eman da. Bertan Euskaltzaindiak ordezkariaren bat izango badu, E. Knörr eta J. L. Lizundia, Onomastika batzordeko buru eta idazkaria, izendatu dira.

. Gramatika batzordeak Euskal Unibertsitateko Uda ikastaroetan eskuarteko lana aurkezteko erabakia hartu duela, aditzera eman du idazkari orokorrak. Euskaltzaindiaren baimena behar zela argitu ondoren, onartu da asmo hura.

II. Euskal Mundu Biltzarra

Jose Ramon Uriarte jaunak, datorren udazkenean Bilbo, Donostia eta Gasteiz hiriburuetan egin gogo den “II. Euskal Mundu Biltzarraren” berri eman dio Euskaltzaindiari. Mari Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako idazkariarekin, etorri da. Gai orotariko Biltzar honek 27 azpibatzarre eta mintegi izango dituela esan ondoren, hiriburu bakoitzean emango diren gaiak banatu ditu. Euskal Herriko mailan jakintzagaia ugaltu eta abiapuntutzat ereduak finkatzea dela helburua, aditzera eman du. Atzerriko ikerle ospetsuekin kondatzen da horretarako. Euskarak izango du noski bere tokia. Bertan aurkeztuko diren lanen hautapena batzorde baten bidez egingo da.

Zalantza batzu azaldu dira gero. Euskal Herriko erakundeekilako harreman hauek ez ote zen hobe izango asmoa burutu eta finkatu aurretik edukitzea, galdetu zaio besteak beste.

Uriarte jaunak erantzun duenez, asmo nagusia haizatu ondoren hartu zuen berak Biltzarraren ardura eta ikuspegi zehatz baten ildotik bideratzen ahalegindu besterik ez du egin.

Euskaltzain buruak eskerrak eman dizkio berri hauengatik, Euskal Herriaren eta euskararen onerako dena ongi atera dadin opatuz.

Euskaltzainen izendapenaz

Batzarreetara ez datozen euskaltzainei buruz zenbait sinadurekin aurkeztutako bi proposamenei erantzuna eman die euskaltzainburuak. Hizkuntza Akademiaren izaera oso berezia dela, esan du lehenik. Giza-kutizien eta interesen gurrpilean Euskaltzaindia sartuta ikusterik ez lukeela nahi-eta, “gure etxean ez zaio inori atea hersten gaztea delako, baina ezta ere ez da inor kanpora jaurtitzen zaharra delako”, aitortu du. Arautegiak izan dituen ikutu eta aldaketak aipatu ondoren, erregelak ezin direla inoiz arautegiaren aurka joan oroitarazi du, eta eskarian aipatzen den barne-erregelako artikulua honek aldaketa sustantzial bat sartuko lukeela oinarritzko legean, uste du buruak. Beraz printzipioei leialtasuna gordetzeagatik, euskaltzainen kargua bizi guziraiko uztearen alde dago: “utz dezagun bizitzeak eta heriotzeak beren lana egin dezaten”.

Horrelako lan serio bati bat-batean erantzuteko ez dagoela prestaturik, esan du P. Salaburuk, eta beste batean eztabaidatu ahal izateko uztea eskatu du. Horrela onartu da.

I Toponimia Jardunaldiak

Apirilaren lehen astean Gasteizen egindako I Toponimia Jardunaldiak aipatu ditu E. Knörr, Onomastika batzordeburuak. Arrakasta eta ondore onak azpima-

rratu ditu. Antolatzaile, hizlari eta jardunlariak kontuan harturik, 130 bat lagun ibili dela bertan, esan du J.L. Lizundiak. Arduradunek Ardanza lehendakariarekin Ajuria-enean egindako afaria ere aipatu du batzorde-idazkariak. J.A. Arana kartografia erakusketaz mintzatu da. Interesgarria izan dela hainbat mapa, eta zenbait oso bitxiak, horretaz kezkatzen diren pertsoneri agertzea. Jardunaldiek asko irabazi dute horrekin.

Txostena

Pakita Arregi anderea “Umeen ahozko produkzioaz” mintzatu da bere txostenean. “B” ereduari ikasketak egiten dituzten bost urteko haur euskaldunen lanak aztertu ditu. Hauetako eskola batzu ingurugiro euskaldunekoak bazirer ere, besteak erdia euskaraz eta erdia erdaraz dutenetakoak dira, edo ikastetxeetan jarrera aldatu gabe dutenak. Ondorio gisa ikusten du, haurren hizkuntza beste faktore talde baten emaitza denez, helduengandik tratatu berezia eman behar zaiola didaktiko helburuetarako besterik ez bada ere. Maila apalean noski eta hutsak-huts, bost urteko haur hoiaren artean komunikazioa lortzen da. Eta horrek du garrantzia.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi
Idazkaria

Matiena-Abadiñoko San Blas hostalean 1986.eko maiatzaren 29an, arratsaldeko sei t'erdietan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Euskal ebakeraz II. Jardunaldiak Durangon bihar hasiko direnez erabaki da batzarrea bezperatik bertan egitea. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, P. Charritton, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. L. Lizundia idazkariordea eta J. J. Zearreta ekonomi-eragilea, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, P. Larzabal eta L. Mitxelenak ezin etorria adierazi dute.

Ohizko otoitzarekin hasi da batzarrea.

Apirileko batzar-agiria onartu da.

Ebakeraz II. Jardunaldiak

Durangoko musikeskolan egingo ditugun Jardunaldiei buruz zehaztaper batzu eman dira lehenik. Bihar etorriko dela aditzera eman du L. Mitxelena jaunak. Jadanik 70 bat lagun matrikulaturik badela esan dute antolatzaileek.

Metodologia aipatu da ondoren. Bi egun horietako egitaraua ikusita birsailkapen bat egin da. Euskalkietako entzungaien eraketa ontzat eman arren, Axularren irakurgaiak badu berez batasun bat eta segidan entzutea hobetsi da. Ostiralean, beraz, bizkaierazko emankizunen ondoren edo berorien aurretik Axularren irakurketak azalduko dira. Testu horien azterketa dator gero. Euskalkietako ereduak entzun eta elkarrizketa egiteko gidoi edo abiapundu batzu markatzea komenigarri dela eta, goizeko hitzaldien ondoren ikusteko utzi da nola bideratu arazoa.

Ondorioak oraikoz ez dira helduegi ikusten, baina irriti eta ETB-ko esatariak hautatzean zenbait baldintza ezartzea behar-beharrezkoa dirudi, hala nola euskara batuarekin batera beste euskalkiak ulertzeko gai izatea. Ezin ukatua da ikusentzungailuek mintzairaren esparruan duten eragina eta arretaz zaindu behar da ematen duten mintzairaren ereduak. HABE, ETB eta IRALE elkarteekin batera, Euskararen Aholku Kontseiluari ere helaraziko zaio gaitasunaren eskari hau.

Eskuarteko gaiak

Rudolf de Rijk euskaltzain urgazleak holandaraz egina duen euskal gramatikari buruz, egilearen eskari bat iritsi da. Laburtuz, beste erakunde batzuren laguntzarekin batera argitalpena bideratzeko, Euskaltzaindiari lana birmakinatzenko ardura eskatzen dio. Gainerontzeko urrats guziak segurtatuz har lezake Euskaltzaindiak bere gain birmakinatzenko laguntza.

Bilboko Lurralde Audientziak itzulpen luze bat eskatzen du. Ez da Hori Euskaltzaindiaren egitekoa. Euskal erakundeei orain baino lehen aditzera eman zaienez, euren betebeharrorietarako tresna egokiak sortzen joatea nahita-etzpada-ko lanbide-arazoa zaie, eta noizbait egin beharko dute.

“Juan de Garay” eusko-argentinaren elkargotik gutun bat jaso da, Buenos Airesko ikastolatik Euskal Herrira datorren neskaitilla batentzat, udapartean hemen egin ohi diren euskal ekintzen berri eskatzen. HABE-koekin harremanetan ipini-ko dugu.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Saileko Euskara Arazoetarako zuzendari den Josu Legarreta jaunak, bi eskari dakartza gutun batean: alde batetik, literatur lanak sortarazteko diru-laguntzen epai mahairako Euskaltzaindiko ordezkariarena, eta hirugarren aldiz Euskal Letretako Merezimenduzko sarirako mahaikidea izendatzea, bestetik. Sorketa laguntzarako mahaiki de J. L. Goikoetxea izango da, eta A. Irigoyen izendatzen du Literatur batzordeak Euskal Letretako Merezimenduen sari banaketarako ordezkari. Kultura eta Turismo Sailburuari aditzera emango zaio, E.H.A.A.-an Literatur batzordeari zuzentzen zaion eskaria, duen garrantziagatik, Euskaltzaindiari zuzenean legokiokela.

Deustuko Unibertsitatearen mendeurrenkari antolatzeak diren ekitaldi akademikoetarako gomita jaso da D. Aranzadi erretorearengandik.

Estatu Batuetako euskarari eta bertan bizi diren euskaldunen egoerari buruz ikerketaren bat egiteko proposamen arrazoitua bialdu du H. G. Brettschneider jaunak. Euskaltzaindiak ongi ikusten du asmoa eta berari dagokion neurrian laguntzeko prest legoke. Gutunak ez du esaten zertan edo nola egin genezakeen. Euskal Herriko ikasleek ere parte har lezaketela edo, neurri batean, hartu behar luketela, aipatu da.

Azkenekoz, Hauteskunde Orokorrek direla bide Nafarroan hautespen txartelak euskaraz ematea eragotzteagatik, Hautesbatzar Nagusiari gaitzespena agertu dio erabaki baten bidez Euskaltzaindiak, euskararen lege-egazatik eskuzabalagoko beste zerbait itxaro zitekeelako.

Batzordeen berri

Atlasgintza. Euskal Herriko Atlas Linguistikoa egiten ari den taldearen barruan sortutako tirabirak aipatu dira gero, Juan San Martin jaunak aditzera eman duenez, bideraturik dago arazoa. Bakoitzaren lan kopuruari dagokion balorazioa *Campion-Broussain* azpielkargoaren egitekoa izango da, eta EHAI horren zuzendari den J. Haritschelhar jauna arduratuko da, bestalde, maila teknikoarekin

zerikusirik duten arazoetaz. Kasu honetan desoreka susmoa sortu duen lankidearen egoerari buruz, burututako inkesten arabera egingo da lanaren ordainketa hemendik aurrera. Plangintza orokorraren koordinaketa beste bi langileen esku utzi da, partaideak adostasun batera horrela iritsi direnez.

Duela zenbait hilabete ekintza hauetarako hitzartutako hiru lankideen egoera ere azaldu da. Finantziabideak ekarri omen du lanean hasteko luzapena. Aurrekontuetan sartu behar dira lehenik eta ekintza osoaren dirulaguntza lortu gero. Orduan bakarrik has daitezke lanean. Berek badakite hori eta ez dute inolako istilurik sortu.

Gai hau dela bide, hautapena egiteko deituak izan ziren epai mahaikoei beren lanagatik esker onezko gutun edo agiriren bat bialtzea erabaki da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi
Idazkaria

Hazparneko Herriko-etxean, 1986.eko ekainaren 28an, goizeko bedezatzi t'erdietan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. Bertan egon da J. L. Lizundia idazkariordea ere.

Hamaiketako batzarre irekira, aipaturikoetaz bestalde, etorri dira, P. Charriton eta E. Larre, euskaltzainak. E. Agirretxe, P. Andiazabal, J. M. Aranalde, P. Arregi, M. Atxaga, J. Azurmendi, R. Badiola, R. Camblong, P. Duny-Pètre, E. Etxamendi, J. B. Etxarren, P. Etxehandi, J. Etxeberri, M. Goienetxe, R. Idiart, J. Intxausti, M. Itzaina, D. Landart, Tx. Peillen, J. M. Torrealdai eta X. Videgain, urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

P. Altuna, F. Krutwig eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Maiatzeko agiria inoren oharrik gabe onartu da.

E. Knörr jaunak gutun baten bidez jakinerazi du gero, azken hauteskundee-tako txartelak Nafarroan gaztelania hutsez egiteari buruz Euskaltzaindiak maia-tzean Durangon onartutako adierazpena, berak proposatu zuela eta berak aurkez-tutako testua onartu zela, agirian jaso dadin eskatuz.

Goizeko bilkuraren berri

“Lizardi”, haurrentzako ipuien sariketarako eskariaren arabera, J. A. Mugika izendatu da epai-mahaikide.

HABE-ko lanpostu bat betetzeko hautesleen mahairako ordezkari bat eskatu zaionez Euskaltzaindiari, J. L. Goikoetxea izendatu da. Beronek joaterik ez balu P. Goenagak ordezkatuko du edo, bestela, J. Fz. Setien jaunak.

J. Caro Baroja Espainiako Erret Akademian sartzean bertan egon zela, esan du J. San Martin Jagon sailburuak. Euskal Herriko beste ordezkariekin batera agertu zen.

‘Errioxako Adiskideen Elkarteak’ J. B. Merino Urrutia omenduko duen egunerako gomita jaso da eta komenigarri ikusten da Euskaltzaindia han egotea. A. Irigoyen, J. San Martín eta J. L. Lizundia izango dira ordezkariak.

Orotariko Euskal Hiztegia argitaratzeko egin den bileraren berri eman du euskaltzainburuak. Konkurtso irekiaren oinarriak eta baldintzak onartu ziren. Abuztuan ikusiko dira aurkezturiko eskaintzak eta urteazken alderako plazaratu nahi da lehen alea. Gaiari jarraituz J. M. Satrustegik, hiztegi lan hauen finantzia bidean sartzeko gertu legokeela Nafarroako Gobernua, aditzera eman du. Hilabete pare batez partaide guziekin harremanetan egon ondoren, arazoa bideraturik dagoela esan du. Atlasgintza eta beste ekintza nagusietan ere parte hartzeko gertu leudeke Nafarroako agintariak. Atseginez hartu du batzarreak berri hau.

Lafitte zenaren omenez argitaratutako *Iker* liburuan oinarriturik **Euskerarako** prestatu den euskaltzain ohiairen bibliografia zehatza, Baionako Euskal Erakustokiko buletinean argitaratzeko baimena eskatu du J. Haritschelhar jaunak. Zerrenda kronologikoki emango luke eta horrela aurkibide desberdina izan liteke. Donostiako bulegoan Marisa Goikoetxeak egindako lanari esker prestatu dela lan hau, aditzera eman du. Euskaltzaindiaren aldetik ez dago inolako eragozpenik eta baimena eman zaio.

Aurtengo batzar-egutegian irailerako ikusten genuen Etxahunen bigarren mendeurren ospakizuna aurreratzea pentsatu dela, esan du euskaltzain buruordeak. Herriak egingo duen festarekin batera, uztailaren 26an bilduko da Barkoxen Euskaltzaindia eta 27an, igandearekin, emango dute bertakoek Etxahun pastorala. Pergamu-agiri bat eskainiko zaio Udalari, idazki honekin: “Etxahun sortzeko bigarren mendeurrenkari Euskaltzaindiak Barkoxeko herriari. 1986.eko uztailaren 27an”.

Ekainaren 21ean aurkeztu zela Euskaltzaindiaren Iruñeko bulegoan Jimeno Jurio jaunaren Iruñerriko toponimiaren lehen alea, aditzera eman du J. M. Satrustegik. Gasteizen egitekoa zen aurkezpena, ez zen egin. *Onomasticon Vasconiae* argitalpen sail berriaren hasiera da. Batzarrearen amaieran iritsi da E. Knörr jauna eta, sailaren zuzendari denez, J. M. Jimeno Jurioren bigarren liburua Nafarroako Gobernuaren diru laguntzaz argitaratuko bada, zenbait baldintzaren xehetasunak zuzenean jakin nahi dituela bere aldetik, esan du. Liburuaren ardura bere gain uztea erabaki da. Egileari eskerrak emango zaizkio.

Gasteizko Udalari erantzunez, honako itzulpen hauek aipatu dira, azkenean: “Protección ciudadana”, *Hiritartzaingoa*. “Servicio de extinción de incendios”, *Suhiltzaileen zerbitzua*. “Departamento de Centro histórico”, *Hirizahararren saila*.

Lexikologi Erizpideak Finkatzeko IV. Jardunaldia

Ekainaren 26, goizeko bederatzi t’erdietan, L. Villasante euskaltzainburuaren esker onezko hitzekin hasi zen Belloc-eko abatetxean Lexikologi Erizpideak Finkatzeko (LEF) IV. Jardunaldia. M. Azkarate batzordeburuak ezin etorria adierazi zuen eta M. Zalbide batzorde idazkariak egin zuen lanen aurkezpena. Hitzerraketazko baliabide desberdinen aukeraz azalpena egin zuen lehenik, hitzeraketa eta

eratorpena bi mailatan sailkatuz. Erizpideak aipatu ondoren, metodologian sartu zen, terminologia, definizioak eta lan-prozedura finkatuz.

Bigarren txosten mardula, "Hitz elkartuen sailkapenari" zegokion eta egun osorako langaia eman zuen. Elkarketa mota hauek bereizten dira: aditzarena, hitzena, sintetikoak, asmoena, izakerazkoak, ezkonberri modukoak, bahu-vrihi eta elkarrizketan agertu diren beste batzu. Emaiza aberatsa izan da eta lan haundia egin du batzordeak. Hain altxor haundia izanik, ez da harritzekoa sailkapena zehaztu beharko dela esatea.

Bigarren eguna, ekainaren 27, jarraipenaren plangintzari eman zitzaion. Beste biltzura abenduaren 22 eta 23an egingo da. Gaiak zehatz-mehatz mugatu eta azterleak izendatu ziren. Lanak bialtzeko epea azaroaren 18an ipini zen, Euskaltzaindiari 28rako aurkezteko. Talde eragileak hilabetearen behin bialtzeko hitza emana duela, esan zen, eta datorren urtean bi Jardunaldi egin nahi dira, bata udaberrian eta udazkenean bestea. Gastuen aurre-kontua hiru milioi t'erdiren ingurukoa da.

Batzordeen berri

Diruzaintza. E. Knörr diruzainak 1987.urterako aurrekontuen aurrerapena ekarri du. Ordainketen aurrekontu arrunta eta egitasmoak bereizten ditu. Bigarren hauen mailan, hiztegigintza, gramatika, Euskal Herriko hizkuntz atlasa, onomastika eta literatura, sartzen dira. Toponimiari buruz datorren urterako Jardunaldi batzu eskatu ditu. Madrilan izandako elkarrizketaren ondoren urteko ekintzen kopurua eskatu zaio Euskaltzaindiari eta berehala bialduko da.

P. Charritton euskaltzainaren sarrera

Hazparnen, Herriko Etxean, ekainaren 28an eman du P. Charritton euskaltzain berriak sarrera hitzaldia. Goizeko 11tan hasi da batzar-irekia. Mahai buruan jarri dira: L. Villasante euskaltzainburua, Pinatel Hazparneko alkatea, J. Haritchelhar euskaltzain buruordea, Darraidu alkateordea, J. L. Davant eta J. M. Sastrustegi, idazkaria. Alkate jaunaren ondotik euskaltzainburua mintzatu da. Broussain eta Hazparneko beste euskaltzainak aipatu ditu lehenik, gure elkartea zer den eta eskuartearen dituen ekintzak azaltzeko gero.

Arautegiaren arabera, J. Haritchelhar eta J. San Martin atera dira euskaltzain berriaren bila.

Darridu jaunak eman dio ongietorria, Hazparnen elkarrekin lan egin zuten denborako oroitzapenak berrituz. Euskararen alde Charrittonek herrian egindako lana aipatu du ikastolen sorrera inguruan; eta berak sorturiko langileen eskolek ere ematen dutela frutu onik, esan du gero.

Hazparneko euskaltzaleak gogora ekarri hasi du P. Charritton euskaltzain berriak bere hitzaldia, eta P. Lafitte oinarritzat harturik burutu du solasaldia. Lafittek maite zuen historia, esan du, eta maisuaren eskutik joan da eguneroko

biziaren historia guri agertzen, eho behar zuen oihala nola eho duen esanez. Euskara ezagutzen eta maitatzen erakutsi ziola maisu ohiak, aitortu du. Eta iraganarekin batera, edo haren ondotik etorritako berritasunaren historiaz mintzatu da azkenean. Erdararen eraso larria bizi du Hazparnen ere bertako euskara zaharrak. Aldaketa.

J. L. Davant jaunak eman dio erantzuna, P. Charrittonen ikasle izana aitatxi edo ugazaita bezala mintzo zaiola orain, esanez. Historiaz aritu delarik hura, historiaren ildotik jarraitu dio berak, politika arazoa eta Enbata ez direla aipatu, esan du. Kultura ez da edergailu bat bakarrik eta merezi ez duen menspretxua jasaiten omen du. Ipuiez eta leiendaz beterik omen dago gure historia, batez ere Euskal Herriko historia, eta hori apurtu beharra ikusten du. Munduan zehar beste herrialde batzurekin gertatzen ari dena adibidetzat harturik mamitu du bere mezua.

Broussain zenaren sort-etxea ikustera joan dira bazkal aurrean euskaltzainak, eta bazkariarekin amaitu da gero egitaraua.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi
Idazkaria

*Excmo. Sr. Presidente de la Junta Electoral Central
Palacio de las Cortes Generales
Carrera de San Jerónimo
28071 Madrid*

Euskaltzaindiak, gaurko batzarre arruntean, beste zenbait gairen artean zera onartu du, alegia, Hauteskundeekiko Batzorde Nagusira jotzea, beronek euskara baztertzeagatik izan duen jokaera dela eta Euskaltzaindiaren nahigabea azaltzeko.

Aipatu jokaera, kasu honetan, datozen Hauteskunde Orokorretan Nafarroan erabiliko diren hautesxarteletako botu emateaz da. Nafarroako Foru Komunitatean euskararen erabiltzenerako berarizko legerik ez izatea, Euskaltzaindiaren ustez, ezin da jokatu argudio erabakikor legez, alderantziz baizik, zeren ulerkuntza eskuzabalagoz hartu behar bait litzateke, jakinik edozein herritarrek duela eskubidea bere hizkuntza erabili ahal izateko.

Durango, 1986-V-31

La Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, reunida en sesión ordinaria en el día de hoy, tomó entre otros, el acuerdo de dirigirse a la Junta Electoral Central para mostrar una vez más su disgusto por la postergación de la lengua vasca en las papeletas de voto que habrán de utilizarse en Navarra, esta vez en las próximas Elecciones Generales.

La inexistencia de una ley específica del euskara en la Comunidad Foral de Navarra no puede, a juicio de esta Institución académica, ser esgrimida como argumento decisivo. Más bien al contrario, cabía esperar una interpretación generosa teniendo presente el derecho que asiste a todo ciudadano de emplear su lengua.

Durango, 31-V-1986

MEMORANDUM

de la audiencia concedida por el Excmo. Sr. Secretario de Universidades e Investigación al Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y su Comisión Económica.

El día 4 de junio de 1986, el Ilmo. Sr. D. Juan Rojo, Secretario de Estado de Universidades e Investigación, acompañado por el Director de su Gabinete Técnico, Ilmo. Sr. D. Francisco de Asís Blas Aritio, recibe al P. Villasante, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, a quien acompañaban el Tesorero Sr. Enrique Knörr y el Gestor Económico Sr. Juan José Zearreta.

El P. Villasante, tras manifestar su agradecimiento por la audiencia concedida, procede a la lectura de la carta dirigida al Excmo. Sr. Secretario de Estado, donde expone brevemente aspectos de las actividades de la Academia; las relaciones mantenidas anteriormente con el Ministerio de Educación y la solicitud de un aumento en las Subvenciones.

Entre las actividades de la Academia, resalta la celebración en setiembre de 1984 del X Congreso en Pamplona y la publicación de su ponencia central que constituye la gramática de la oración simple; la puesta en marcha de los proyectos del Diccionario General Vasco y el Atlas Lingüístico y algunas de las principales publicaciones, especialmente la Colección "Euskararen Lekukoak" (Testigos del Euskara) en la que se han publicado once títulos.

Asimismo el Presidente de la Academia hace referencia a los contactos mantenidos con las Real Academia Española, Gallega y el Institut d'Estudis Catalans.

El Tesorero, Sr. Knörr expone algunos aspectos tratados en su día en la entrevista mantenida con el Excmo. Sr. Ministro de Educación, como el status jurídico de las Academias, la renovación del Instituto de España, la cuantía de las subvenciones recibidas y a recibir en el futuro.

El Sr. Secretario de Estado manifiesta su satisfacción por la oportunidad de mantener su primera entrevista con los miembros de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y pasa a exponer los criterios de actuación del Ministerio en el proyecto de renovación de las Academias. Es propósito del Ministerio diferenciar los status de las diferentes Academias, cuyo número es amplísimo, distinguiendo claramente las que llevan a cabo una actividad digna de subvencionar, de aquellas otras que sólo poseen un nombre pero cuya actividad es nula. En este aspecto, subraya que el presupuesto para el año 1986 es semejante al del año 1985, y que por tanto, la subvención a percibir rondará el mismo importe. No obstante, tal vez para el año 1987, pero sí en todo caso para el año 1988, desean proceder a la renovación manifestada, ofreciendo la posibilidad de disponer de mayor subvención económica, pero exigiendo a cambio a las Academias un plan detallado de actuación y una efectiva renovación de sus estructuras.

Tras finalizar la entrevista con el Sr. Secretario de Estado, mantene-mos una breve entrevista con el jefe del Gabinete Técnico, Sr. Francisco de Asís Blas Aritio, a quien planteamos una serie de cuestiones jurídico-económicas derivadas de la ambigüedad o lagunas de nuestros Estatutos en algunos puntos, sobre todo en materia económica-fiscal. El Jefe del Gabinete Técnico manifiesta su disposición a realizar las gestiones necesarias en la Asesoría Jurídica del Ministerio de Educación y Ciencia para aclarar esos aspectos, rogándonos se le remita por escrito la consulta oportuna.

El Gestor Económico hace entrega de una copia de la documentación justificativa de los gastos realizados con cargo a las subvenciones recibidas del Ministerio y cuyo original fue presentado en la Delegación de Hacienda de Vizcaya. En este punto consulta la fórmula a emplear, como justificación de gasto, en caso de destinar la subvención a abonar haberes de los empleados de la Academia. El Sr. Jefe del Gabinete Técnico pregunta si la Academia tiene personal fijo de plantilla, ya que en otras Academias su plantilla se compone generalmente de funcionarios públicos en comisión de servicios. Según su opinión no debe haber problema alguno, pero no obstante ruega que este tema aparezca entre los consultandos a la Asesoría Jurídica.

El Tesorero Sr. Knörr plantea la situación en que se encuentra Euskaltzaindia en estos momentos, pues un equipo de Arquitectos está realizando el proyecto de remodelación de la nueva Sede en la Plaza Nueva de Bilbao. Ante esta circunstancia solicita información acerca de la posibilidad de acceder a subvenciones especiales destinadas a sufragar dichos gastos de remodelación.

El Sr. Secretario de Estado pregunta si la R.A.L.V.-Euskaltzaindia ha cumplimentado el Cuestionario remitido a todas las Academias. El Presi-

dente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia manifiesta desconocer la existencia del mencionado Cuestionario. El Sr. Jefe del Gabinete Técnico se compromete a tramitar su envío inmediato.

Excmo. Sr. D. JUAN ROJO
Secretario de Estado de
Universidades e Investigación
MADRID

Excmo. Sr.:

Con motivo de esta audiencia que V.E. ha tenido a bien concedernos, deseo exponerle muy brevemente las preocupaciones principales de esta Real Academia que labora en la prosecución de los fines marcados por el Real Decreto 573/76.

Como V.E. sabe, son de alguna frecuencia los contactos de todo tipo entre el Ministerio y la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. Hay que destacar en primer lugar, la audiencia concedida por el Excmo. Sr. D. José María Maravall, a quien acompañaba el Excmo. Sr. Subsecretario, Sr. Torreblanca, el día 15 de octubre de 1984 a varios representantes de nuestra Institución, audiencia en que se presentó el Presupuesto de 1985 y se solicitó información sobre criterios de ayuda económica y acerca del marco jurídico y de tratamiento presupuestario de las Reales Academias en el futuro.

Gracias a esas relaciones y gracias a los datos aportados en todo momento por nuestra Corporación académica en Memorias y otros escritos, el Ministerio es sabedor de nuestros esfuerzos.

Ese Ministerio conoce igualmente que esta Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia no es atribuible a una sola comunidad Autónoma, dado que estatutariamente su campo de actuación comprende las provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. Que el Gobierno Vasco, el Gobierno de Navarra, las Diputaciones Forales de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, así como otros Organismos públicos o privados provean a la financiación de nuestro Presupuesto, no quiere decir que hayamos de prescindir del amparo del Ministerio. Como Real Academia, deseamos mantener y fortalecer los vínculos con el Ministerio de Educación y Ciencia, debido a que las necesidades son cada día mayores y más abundantes también las exigencias que se dirigen de dentro y fuera a nuestra Institución.

Correríamos el peligro de alargarnos demasiado, amén de parecer inmodestos, si quisiéramos enumerar las actividades de la Academia. Baste decir que en este momento se trabaja en la Gramática, Dialectolo-

gía, Lexicografía, Onomástica, etc. Los estudios vascos conocen un momento esperanzador, en gran parte provocado por las nuevas generaciones de titulados, y la Academia no es ajena a este interés por la investigación.

Pero, además, la Academia está embarcada en una renovación de su Sede Central y Biblioteca en Bilbao, cuya habilitación, en un edificio propiedad de la Diputación Foral de Vizcaya, ha de ser por fuerza muy costosa.

Por todo ello, queremos expresar nuestro agradecimiento por la presente audiencia, juntamente con la esperanza de que nuestra solicitud de un aumento en la asignación económica será favorablemente acogida, mostrando así ese Ministerio, una vez más, su probada sensibilidad hacia esta parte importante del patrimonio cultural de España, cual es la Lengua Vasca que ha de cultivarse por encima de cualquier consideración ideológica y partidista.

Queda de V.E. s.s.s.

Fr. Luis Villasante
Presidente

HERRI-IZENEI BURUZKO ADIERAZPENAK.

Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Toponimia Batzordeko Idazkari denak, ondoko DIKTAMEN hau ematen du:

Elkargo akademiko honek prestatuturiko eta onartutako Euskal Herriko Udalen Izendegian, bere 63 zenbakiaz datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: “Arbacegui y Guerricaiz” deitzen dena, euskal bertsio ofizial akademikoan: MUNITIBAR da.

Bestalde, *MUNITIBAR* elizatearen hirigunea tokiz aldatzetik dator, zeren eta bere enplazamendu edo kokagune zaharra *Arbatzegi* bai zen, hain zuzen gaur *Arbatzei* deitzen dena. Gertatu dena da, euskaldunak kokagunea aldatukeran, herriaren izena ere aldatu zutela, baina ez zutela aldaketa berbera egin historikoki instituzioek.

Bestalde, *Gerrikaitz* hiriaren, alegia Bizkai eta euskal mendebalde guztiko forman, uriaren izena da, nahiz eta kasu honetan ere, *Monditibar*, concejo *Monditibar*, villa de *Monditibar*, iglesia de la Villanueva de *Monditibar* de *Guerricaiz*, etab. agertu. Beraz, orduko *Monditibar* ibarrean, gaur *Munitibar* deitzen denekoan kokatzen zen *Gerrikaitz* uria ere.

Guzti horregatik eta hiru izenok *Munitibar*, *Arbatzegi* eta *Gerrikaitz*, euskal toponomastiko izanik, zilegi da Batzorde honen ustez, hiru izenak gorde nahi izatea, eta Udalak administral tramitapenari hasiera emanaz eta Euskararen Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legearen 10. artikularen arabera legeztapen ofiziala burutzeko. Beraz, *MUNITIBAR/Arbatzegi-Gerrikaitz* izena egokia da Udal horrentzat.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen dut Bilbon mila bederatziehun eta larogeitabostgarreneko Ekainaren bostean.

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca y Secretario de su Comisión de Toponomástica, emite el siguiente

DICTAMEN:

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco, preparado y aprobado por esta Coporación académica, el clasificado con el número 114 y denominado hasta ahora en la versión oficial de la Administración: Baracaldo, es en su versión académica vasca: BARAKALDO.

Que *Barakaldo* es topónimo euskérico, siendo por otra parte dicha anteiglesia de habla vasca hasta el siglo pasado. Véase, entr otros, *Toponimia euskérica en las Encartaciones de Vizcaya*, de Jesús M.^a Sasia, Bilbao 1966, pág. 110; *Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, de principios del siglo XIX*, publicaciones de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País; *Geografía histórica de la lengua vasca*, 2.^a ed., San Sebastián 1960, págs. 44 y ss. Luis Villasante, ahora Presidente de esta Real Academia de la Lengua, trataba la obra del Padre Añibarro (1748-1830), uno de los autores clásicos de la lengua vasca, quien señalaba expresamente en su relación *Pueblos de Vizcaya* que *Barakaldo* era un pueblo vascongado en dichas fechas (entiéndase que vascongado equivale a vascófono o vascoparlante).

Que el topónimo *Barakaldo*, además del nombre de la anteiglesia, aparece también como nombre de caserío en la anteiglesia de Mendata, merindad de Busturia, fogueración de 1704. Hoy el académico de número Alfonso Irigoyen ha localizado en Mendata la existencia de un caserío llamado “Baskaldo”, probablemente contracción y/o evolución del *Barakaldo* anteriormente citado.

Que “Baratzalde” difícilmente puede tener relación alguna con el topónimo *Barakaldo*, no habiendo documentación alguna al respecto que avale la aventurada hipótesis de “Baratzalde”. Por otra parte, el elemento final *-aldo* se da en otros topónimos como: *Arakaldo*, anteiglesia de la merindad de Uribe; *Arakaldo*, monte comunal de la anteiglesia de Garai,

en la merindad de Durango, y otros topónimos y apellidos como: *Basualdo*, *Basaldua* (donde cambia la *o* final en *u* al añadirsele el artículo *a*).

Y para que conste y a los efectos del Decreto 271/1983 del Gobierno Vasco, que desarrolla el artículo 10 de la Ley de Normalización del Uso del Euskara, expido la presente en Bilbao a veinticuatro de septiembre de mil novecientos ochenta y cinco.

V.º B.º

E. Knörr - Presidente de la Comisión.

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y Secretario de su Comisión de Toponomástica, emite el siguiente

DICTAMEN:

Que según el Nomenclátor de los Municipios del País Vasco, preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 437 y denominado hasta ahora en la versión oficial de la Administración: Miravalles, es en su versión académica vasca: UGAO-/MIRABALLES.

Que *UGAO* aparece 12 veces en la carta puebla fundacional de la villa, como un lugar, es decir, como topónimo del emplazamiento de la nueva villa, a la que se le da el nombre de Villanueva de *Miraballes*, lo que aprueba que es el toponomástico primitivo del municipio como lugar o aldea, anterior a la creación de la villa como tal. (No se adjunta copia de la carta puebla por disponerlo ya el propio Ayuntamiento.)

Que, por otra parte, *Miraballes* aparece como denominación euskaldun en textos literarios antiguos, como por ejemplo los famosos versos satíricos de Tolosa de 1619, estudiados entre otros por José María Satrustegui, vocal de esta Comisión y Secretario de esta Institución y publicado en la revista *Príncipe de Viana* n.º 21. Diputación Foral de Navarra, Pamplona 1960, y por el presidente de esta Comisión y Catedrático de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea en su obra *Textos arcaicos vascos*, Ediciones Minotauro, Madrid 1964.

Que Igualmente *Miraballes* aparece en la terminología eclesiástica oficial como nombre euskérico de la villa, tal como se recoge, entre otros —en la antigua ortografía aun no normalizada a primeros del siglo pasado—, en la Doctrina dominical de D. Antonio Francisco de Iturriaga de 1815.

Que asimismo, *Miraballes* y *Mireballes* son las formas de uso tradicional de la población vascófona vizcaína, tal como se desprende del estudio realizado por Alfonso Irigoyen, vocal por Vizcaya de esta Comi-

sión y profesor de la Universidad de Deusto, en su trabajo *Formas de nombres de localidades vizcainas*, revista "Fontes Linguae Vasconum" n.º 11, Consejo de Cultura de Navarra, Pamplona 1972, págs. 207, 218. *Mireballes* es en concreto la forma recogida en la anteiglesia arratiana de Zeanuri.

Que el topónimo *Ugao* o su otra versión *Ubao* se encuentra también en denominaciones de caseríos en la anteiglesia de Arazola, merindad de Durango, y en la merindad de Arratia, según se desprende de estudios realizados por el antes citado Sr. Irigoyen.

Que por todo lo cual esta Corporación ha estimado que ambas denominaciones son compatibles y cabe perfectamente la doble denominación que la Corporación municipal se propone.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao a cinco de junio de mil novecientos ochenta y cinco.

BATZAR TXOSTENAK

BETOLAZAREN “DOCTRINA CHRISTIANA”

Bilbo, 1986-I-31

Jose Antonio Arana Martija

Julien Vinsonen eman zuen liburuxka honen lehendabiziko berria bere *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* delako liburu balio-tsuan (1891), baina liburua ez zuenez ikusi, fitxa bibliografikoa baizik ez zigun eman. Larramendik, 1745an argitara emandako *Diccionario Trilingue del Castellano, Bascuence y Latin* liburu mardularen hitzaurre luzean (XXXIV eta XXXV orrialdeetan), Lavieuxvilleren bi *Dotrinak* (1733), Juan de Beriainena (1626) eta Materrerena (1616) aipatzen ditu. Beste batzu ere ezagutu zituela dirudi, zera esaten bai du: “se han impreso varios cathecismos, así en Bizcaya, como en Guipuzcoa y Navarra; pero con poca atención a la pureza del Bascuence y a su ortografía”. Bizkaian kaleratutakoen artean, Betolazarena ezagutu ote zuen? Ez dakigu. Angel Allendesalazar-ek, bere *Biblioteca del Bascófilo* delakoan ez du Betolazarena aipatzen. Gernikarraren Bibliografia hau, nahiz eta 1887an argitara eman egilea hil ondoren, hamar urte lehenagotik bukatua zen. Gero Karmelo Etxegarai da, hau ere Vinson baino lehen, Euskal-Erria aldizkarian *Bibliografía Euskara* bat ematen diguna (1886); baina ez du Betolazaren Dotrinarik aipatzen, ordena alfabetikoan ematen zigun zerrenda Beriainen bukatu zuelako. Aipatzen ditu, oster, Lavieuxville, Revol, Suarez d'Aulan, Imperadorea, Mazo-Arrue, Belapeyre eta aipatutako Beriain. Gero, 1917an, Euskalerriaren Alde aldizkarian argitara eman zuen *¿Qué se leía en Bilbao a fines del siglo XVI?* iker lanean, orduan bai aipatzen du Betolazarena, Labayruren Historiatik hartuz. Sorarrainek ere (1891) Betolaza kontuan hartzen du, baina Vinsonen aipamenaz baliatuz. Dodgsonen 1893an *Capanagaren Dotrinea* berrargitaratu zuenean, Betolazaren Doctrina aipatu zuen.

Baina gure menderarte egindako hiru aipamen bakarrak (Vinson, Sorarrain, Dodgson) ez dute Betolaza egiletzat ematen, OSTOLAZA baizik (1). Lehen biak Francisco de Zabalburuk zeukan alea aipatzen

(1) Askoz beranduago, Betolazaren izena ezaguna zenean, *Ostalara* deitzen zion egileari Juan Allendesalazar bibliografoak, Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrean irakurri

dute. Eta Dodgsonen Antonio de Trueba eta Berriozabal, Durangoko epaileak, zeuzkaten aleak, 1893an iadanik desagertuak, aipatzen ditu. Zabalburu, Trueba eta Berriozabalenak ez ditu inork ikusi, jaubeek izan ezik. Baina Dodgsonen beste bat ikusi zuela dirudi: *Capanagaren Dotrina* berrargitaratzeko erabili zuen alea, Balbino Garitaonandiak 1891ean emandakoa zen; baina beste ale bat ere ezagutu zuen Dodgsonen, hots, "al fin del exemplar de este libro preciosísimo, que pertenece á D. Eusebio Lopez, editor, de Tolosa, se halla otro catecismo, anonymo, de 16 paginas, sin fecha, ni señal de procedencia, y nunca reeditado, como bien merece serlo. Este librito en la opinion de un sabio Bascofilo Azcoitiano, es más antiguo que la traduccion de Capanaga, y escrito en el dialecto de Arratia, Orozko y Llodio ¿Seria tal vez una edición de Ostolaza?" Beraz, igarotako mendeen Betolazaren lau ale ezagutzen ziren, Zabalburu, Trueba, Berriozabal, eta Lopez jaunena, orain desagertuak. Dena den, Ostolaza zen ordurarte egilea.

Estanislao Jaime de Labayru izan zen, nik dakidanez, Betolaza lehen-dabizi egiletzat aipatu zuena. *Historia General del Señorío de Bizcaya*-ren IV. Tomoan (1900), 593. orrialdean, egilearen izen hori ematen digu, baina ez dut uste Labayruk ere liburua bera ikusi zuenik, izenburua gaizki ematen digu eta; esaterako, Pedro de Ibarra jartzen du inprimatzailatzat, Pedro Cole de Ybarra liburua azalean agertzen denaren orde. Labayruren atzetik datozen bibliografoak, bai, ondo ematen digute egilearen izena (2).

Gure mendearen hasieran, bada, bi lehen euskal Dotrinen testuak ezezagunak ziren: Sancho de Elso (1561) eta Doctor Betolaza (1596). Lehena orain ere ez zaigu inondik agertu, nahiz eta non dagoen, edo zegoen, behintzat, jakin. Betolazarena 1925ean eskuratu zuen Azkuek, ez dakigu nondik; baina argazkiak egin zizkion, orriz orri, eta argazki hauek baditugu Azkueri esker. Julio de Urkijoren liburutegian daude batzu, eta Azkue Bibliotekan beste batzu.

Urkijoren argazkiekin baliatuz, Koldo Mitxelenak egin zuen edizio kritiko bat 1955an (3), orain duela 30 urte. Betolazaren *Doctrina Christiana* delakoaren testua ordutik ezaguna dugu, eta liburuxkaren azala ere bai, faksimilaturik eman zigun Mitxelenak eta. Mitxelenak argitaratutako

zuen *Bibliografian*. Ikus Crónica del Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de trabajos de dicha Asamblea. Bilbao, Rochelt, 1919, p.653.

(2) Data, oster, gaizki agertzen da aipamen batzuetan, nahiz eta moldiztegiak errata izan. Mitxelenak (*Historia de la Literatura Vasca*. Madrid. Minotauro, 1960, 62.orrialdean), 1656 urtea ematen digu, urte hau Kapanagarena delarik. Santi Onaindiak (*Euskal Literatura*, I, 1972, 94. orrialdean) 1566 urtea ematen digu.

(3) BRSVAP, 1955, 1.º 83-100 orr. Urte berberean argitaratzen da (3.º, 4.º, 311-316 orr.) Rene Lafon-en *Le Verbe dans la Doctrina Cristiana de Betolaza*.

azaletik frogatzen dezakegu Urkijorena erabili zuela, Azkueren alean lehen orrialde edo azal horrek paginazioa daramalako eta argitaratutakoak ez. Mitxelenak dio paginazio hori "puesta probablemente por Azkue" izango zela; eta nik ziurtzat ematen dut Azkuek idatzitako zenbakiak direla.

Mitxelenaren birargitalpen hori irakurri nuenean, Alfonso Irigoyenek hari emandako datuen berri jakin nuen, hots, Euskaltzaindiaren liburutegian zeudela lehen aipatutako argazkiak eta Azkueren oharra, eskuizkribuz, 1925.eko Maiatzaren 27an sinatua. Eta Azkue Bibliotekaz arduratu nintzenetik, kezkatuta nengibilen, inondik ere agertzen ez bai ziren argazkiak eta oharra. Baina zorionez, 1985.eko Urriaren 4an, liburutegi zaharreko apalen azpian, beste paper zahar batzuen artean, azaldu ziren dokumentu baliotsu eta baliagarri horiek. Aita Villasanteri eman nion aurkiketaren berri eta faksimilez Euskera agerkarian argitaratzea proposatu nion. Argitalpen honek badu arrazoirik. Ezagutzen den bigarren euskal Doctrina da, zerrenda hau onartzen bada, behintzat:

1561. Sancho de Elso	1656. Martin Ochoa de Capanaga
1596. Doctor Betolaza	1691. Nicolas de Zubia
1616. Esteban Materre	1696. Athanase Belapeyre
1626. Juan de Beriain	1713. Joseph Ochoa de Arin

Nahiz eta Mitxelenaren transkripzioa ezaguna izan, faksimilak beti dauka balio berezia, eta Doctrina honek dituen 16 orrialdeek ez dute argitalpena asko garestitzen. Beraz, Euskera agerkariak ematen du oraingoan Betolazaren edizio faksimila.

Badago beste xehetasun bat ere argi utzi nahi dudana: Mitxelenak diosku Betolazaren liburuxka honek dituela: "portada mas 14 páginas y otra en que van impresas a dos columnas letras sueltas y sílabas". Testu hau irakurtzen duenak uste izango du letra eta silabak agertzen diren orrialdea liburuxkaren azkena dela; eta ez da. Faksimilean ikusten denez, eta Azkueren paginazioa jarraitzen badugu, bigarren orrialdea da, hots, azalaren atzean datorrena. Baina azpimarratu nahi nuena zera da: katoi bat ematen digula hemen Betolazak, orduko irakurle ez trebeentzat egina. Beraz, alfabetatze kanpaina 1596an hasi zuen Betolazak.

Nor zen Betolaza jauna? Bilbotarra zelakoan dago Mitxelena. Bizkai-ko Eleizaren Histori Artxiboan begiratu ditut orduko Parrokien Liburu guztiak eta bakarrik aurkitu dut aipamen hau: 1578an. San Nikolaseko Ezkontza Liburuan, Maria Periz de Betolaza. Frantziskotarren Komentuko prailea ote zen? Jakiterik ere ez dago azterketa sakonago bat egin arte. Edo Dodgsonen esanetara joanez, arratiarra ote zen? Eusebio Lopez-ek zeukan alea ikusiz, zera diosku: "en opinión de un sabio Bascófilo Azcoitiano (Jose Ignacio Arana josulaguna, seguraski) es más antiguo que la traducción de Capanaga y escrito en el dialecto de Arratia, Orozco y Llodio". Bego horretan, oraingoz.

Kapanagaren Dotrina Jeronimo de Ripalda (1536-1618) josulaguna-ren *Doctrina Christiana* delakoaren itzulpena da, hala aitortzen bai du mañariarrak bere liburuaren azalean. Baina nondik itzuli zuen Betolazak bere Dotrina? Ripaldaren Dotrinaren lehen argitalpena 1616koa zela uste zen bitartean, Betolazak ezin izango zuen liburu hau hogeitaz lehenago itzuli. Baina geroztik jakina da 1591ean kaleratu zela lehendabiziko Ripaldaren Dotrina hori (4). Beraz, lehen argitalpen hau izan zitekeen Betolazaren eredua. Eta hala da. Kapanaga eta Betolazak, biak jartzen dute lehen lerroetan Ripaldaren hasiera klasikoa:

Todo fiel christiano
es muy obligado...

Eta gehiago esango nuke: Kapanagak Betolazaren testua erabili zuen bere itzulpena osatzeko, eta askotan hitzez hitz hartu zuen 60 urte lehenagotik itzulita zegoen Dotrina. Hara hemen bizkaierazko lehen bi Dotrinek dakarten *Aita Gurea*:

BETOLAZA
1596

Ayta gurea,
ceruetan çagoçana
sâtificadua içan dila
çure içena.
Etorrividi
gugana çure Ereynua
Eguinvidi çure borondatea,
nolan Ceruan, alan lurrean
emon eguiguçu egunean
eguneango gure oguia
da parcatu
eguiguçuz
gure pecatuac,
guc guere çordunay
parquetan deusteguna leguez.
da echiezeyguçu
jausten tentacinoan,
baya libradu guaiguuçuz
gach gustiric
Amen Iesus.

KAPANAGA
1656

Aita gurea
çeruetan zagoçana
santificadudila
çure içena,
vetor gugana
çure erreñua,
eguinbidi çure vorondatea
çelan çeruan alan lurrean
guere ogui
egunean eguneangoa
egun iguçu;
parcatu eguiguçuz
guere çorrac.
çelan gueuc
parcaetan deustegun
gueure çordunai.
Eçhice eguiguzu iautzen
tentaciñoan,
baea gaguiguz Iauna
gacherean Libradu.
Amen Iesus.

(4) Juan M. Sánchez: *Doctrina Cristiana del P. Jeronimo de Ripalda e intento Bibliográfico de la misma. Años 1591-1900*. Madrid, Imprenta Alemana, 1909.

Gaspar de Astete (1537-1601) dugu beste dotrinegile famatu bat eta berak 1599an argitaratutako testua sarritan izan da euskaratua. Gogora dezagun, esaterako, Bonaparte Printzeak Asteteren testua erabili zuela laguntzaileen artean itzul eredu gisa. Beraz, gure itzultzaileek erabili zituzten testuak XVI. mendeko azkenetan argitaratuak ziren. Zein izan ote zen Sancho de Elsok (1561) erabili zuen eredua? Honen Dotrina agertzen ez den artean ezin izango dugu jakin, baina hipotesis bat jarri bai. Trentoko Kontzilioak (1545-1563) eman zigun testu ofiziala, Elizaren orduko sinismen arauetan ikaskizunak bideratzen zituena. 1546.eko Apirilaren 13an aurkeztu zen Kontzilio horretan Dotrina batu bat egiteko proposamena. Dekretuak urte bereko Maiatzaren 16ko data darama. Baina Dotrina batu hori 1566an agertu zen: *Catechismus ex decreto Concilii Tridentini ad Parochos Pii V iussu editus* (Roma, 1566). Ordurako Sancho de Elsok argitaratua zeukan bere Dotrina eta hemen galdera: nondik itzuli zuen naparrak berea? Pedro Canisiok 1555, 1556 eta 1558 urteetan argitaratutakoak, hirurak edukinez desberdinak, ziren orduan katolikoen artean beste hizkuntzetara itzultzen zirenak. Roberto Belarminok idatzi zuen Dotrina geroagokoa da, Betolazaren garaikoa, 1597an lehen argitarazioa ikusi zuena. Beraz Elsorena Kontzilio aurrekoa da, eta Canisiotik hartutakoa den edo jakiteko ezagutzen den ale bakarra eskuratu beharko dugu.


Badugu hari honetan jarraituz XVI. mendeko literaturan ikerketetan aritu beharra. Nik behintzat Elso eta Betolaza idazleen berri gehiago ematekotan zirikaturata nabil. Ea egia bihurtzen den argi pizka bat garai ilun honetan egitea (5).

(5) Txosten hau irakurri ondoren, Alfonso Irigoyenek esan zuen Andres Mañarikua-ren eskuetan ikusi zuela Betolazaren Dotrina bat. Jaun, maisu eta adiskide honi idazten diot zertan den albiste hau jakiteko.

DOCTRINA CHRISTIANA
 en Romance y Basquense, hecha por man-
 dado de D. Pedro Máo, Obispo de Cala-
 norra, y la Calçada, y del Consejo del Rey
 nuestro señor, para las tierras Bascógadas
 de su Obispado, reducida por el Doctor Be-
 tolaça, à lenguaje mas comun, y mas vsado
 y q̃ con más facilidad se entiende en todas
 ellas, para bien, y vtilidad de sus pbejas de
 aquellas partes, que por largos años las
 apaciente, y gobierne, à gloria, y
 honra de Dios nues-
 tro Señor,
 Amen.



*Impressa con licencia en Bilbao, por Pedro Col de Ybañeta
 Impressor de este muy noble, y muy alto Senor
 de Vizcaya. Año de 1596.*



Principio de la Doctrina Christiana en Romance,
y Basquense.

Todo fiel Christiano
es muy obligado
à tener devocion
de todo coraçon.
con la Santa Cruz
de Christo: nuestra luz:
pues en ella quiso morir,
por nos redimir,
de nuestro pecado,
y del enemigo malo.
Y por tanto,
te has de acostumbrar
à signar y santiguar,
haziendo tres Cruces.
La primera en la frente
porque nos libre Dios
de los malos pensamientos.
La segunda en la boca,
porque nos libre Dios
de las malas palabras.
La tercera en los pechos,
porque nos libre Dios
de las malas obras,
diziendo así.
Por la señal de la Santa Cruz,
de nuestros enemigos,
libranos Sr. Dios nuestro.
En el nombre del Padre,
y del Hijo, y del Espíritu Santo
Amen IESVS.

Christiñau fiel gustia
dago asco obligaduric
etten devocinoea
vioz gustiric Christoen
Cruze Santeagaz
dalaco guetire arguia
gura izanebelaco atan hil
gu redimietarren
gure peccatuen captiverioric
eta arerio deungueaganic.
Onegayti beardoçu
sarri ciginatu, eta santignatu
eguiten dozula yru cruze.
Leleng becoquian
Iaũ goy coac libradugaguzā
pensamentu deunguetaric
Bigarrena agoan.
Iaũ goy coac libradugaguzā
verba deunguetaric.
Yrugarrena balarretan,
Iaũ goy coac libradugaguzā
obra, eta deseo deũ guetaric,
estā endogula alan.
Cruze Santeacē señaleagayti
gueure arerioetaric libradu
gaguzuz Iauna,
Gueure iaũ goy coac
Ayte da Semen,
da Espiritu Santuizenan
Amen IESVS.

Las Oraciones del Christiano

no en Basque.

Voto crezagu beardogu.

Bazquigan oraciones

eta Elexa Santac

biracat demucizanae

inistuciten, eta egulic

eta jaquiten

ingunieran deucena

nondo promincaduric

inisturic eta egulic

etatenogula onelan

El Pater noster en Basque.

A Ytagura

Cereetan cagotan

Santificad la scandila eir

Et orividi

gugana eir eirynua

Eguinvidi cure borondaca

nosan Certan, alai furean

emon egulic eguncan

eguncan gure ogula

da paratu

egungura

gure pecatue

gure gure cordunay

parqueran deucenon

da echiezegura

jausten tentacinoan

bayas bradu gualgura

gaeli gualtic Amen Iesus.

Las Oraciones del Christiano

en Romance.

Vego cezemos

lo que fbecamos

lo que la Yglesia

Romana nos muestra

lo que manda creer

orar, y saber

bien pronunciado

creydo, y orado

y digamos así

El Pater noster en Romance

Padre nuestro

que estas en los Cielos

Santificado sea el tu Nombre

Y venga a nos

tu Reyno

Hagase tu voluntad

así en la tierra

como en el Cielo

El pan nuestro de cada dia

danosle oy

Y perdóna nos

nuestras deudas

así como nosotros

perdonamos

a nuestros deudores

Y no nos dexes

caer en tentacion

Mas libranos de mal

Amen Iesus.

El Ave-Maria en Romance.

Dios te salve María,
 llena de gracia,
 el Señor es contigo,
 bendita tu eres
 entre todas las mujeres,
 y bendito es el Fruto
 de tu vientre IESVS.
 Santa María
 Madre de Dios,
 ruega por nosotros
 pecadores,
 ahora, y en la hora
 de nuestra muerte.
 Amen Iesvs

El Ave-Maria en Basque.

AVe-Maria, gracias betea,
 launa da çugaz,
 bendirea zara çu
 andra gultien artean,
 era bendirea da çure sabelco
 frutua IESVS.
 Santa Maria,
 laun goycoaren Amea,
 erregutu egñatu
 a becararioc gayri,
 orayn, da gueur
 eriozaco horduan,
 Amen IESVS.

El Credo en Romance.

CReo en Dios Padre
 todo poderoso,
 Criador del Cielo, y de la tierra
 Y en Iesu-Christo
 su unico Hijo.
 Señor nuestro.
 Que nre concebido
 por el Espíritu Santo. Y nació
 de Santa María Virgen.
 Padeció debazo del poder
 de Poncio Pilato.
 Fue crucificado,
 muerto, y sepultado.
 Descendió a los infiernos.
 Y al tercero dia resucitó
 de entre los muertos.
 Subió a los Cielos,
 y está asentado
 a la diestra de Dios Padre
 todo poderoso.
 Dende allí ha de venir
 a juzgar
 los vivos, y los muertos.
 Creo en el Espíritu Santo.
 Y la Santa Iglesia Catholica,
 la comunión de los Santos.
 El perdón de los pecados.
 La resurrección de la carne.
 La vida perennable.
 Amen IESVS.

El Canto en Euzkera.

Sinistetan dor laungoyco

Ayta gan,

gustiz poderosoa, Ceruaren,
da lurraren Criadore gan.

Era Iesu-Christogan

vere Seme vnigenigenito
gucure launaga, zeyna izan gan
e oncebida

Espiritu Santuen obrag

da jayogan Maria

Bizineganie, padecidueban

Poncio Pilatosen poderé azpiá

ylan gan crucificadua, hila.

era sepuladua, jalizan

I ternuetan, rugarren

egunean, errelucitadueban

hilaren artetan.

Izoben Ceruetara

eta jarriric dago

laungoyco Ayta gustiz poderose

aldezcoarati, arie etorricon

juzgaetan hilac, eta viciac,

sinistetan dor Espiritu

Santuagan, Elexa-Santa

Catolican, Santuen comunitate

peccaten parcaziuean,

araguen errelurreccinoean,

viziza beticoan.

Amen IESVS.

*La Salve Regina en
Romance.*

Dios te salve Reyna, y Madre
de misericordia,

vida, y dulçura,

esperança nuestra,

Dios te salve.

A ti llamamos

los desterrados; hijos de Eva,

A ti suspiramos,

gimiendo, y llorando

en este valle de lagrimas,

¡Oh pues Señora,

Ahorada nuestra,

huelve a nosotros

estos tus ojos misericordiosos.

Y despues de este destierro,

¡nuestro padre IESVS.

¡Ay madre bendito de tu vientre,

O Clementissima,

O Piadosa.

O Dulce Virgen Maria,

Ruega por nos

Santa Madre de Dios,

porque seamos dignos

de los prometimientos

de Iesu-Christo.

Amen IESVS.



*Salve Regina en
Basque.*

Salve Regina,
 misericordiasco A mea,
 vicizea, eta dulçura. Saive
 esperança guereua, çure gueyez
 gagoz Eva en humie
 desterraduoc, çuri
 emaytendensuguz zizpuruac
 negarr eguitendogula
 erri negarrezco onetan.
 Ea bada Andra Abogada
 guereua, biortu eguizuz
 guengana zeure vegui
 misericordiosoc, eta
 desterru au ygaro ra,
 eracuscucu IESVS
 zeure sabeleco Frutu benditroa,
 O Clementissinca.
 O Piadosca,
 O Birgina Maria Dulçea.
 Erregutu eguicu gu gaytic
 laun goycoaren Ama Santea,
 dignu izangaytean
 Iesu Christo en
 promerimentuen.
 Amen IESVS.



*Los Articulos de la Fe
en Romance.*

Los Articulos de la Fe,
 son catorze.
 Los siete pertencen
 à la Divinidad,
 y los otros siete
 à la Santa Humanidad
 de nuestro S. Iesu-Christo,
 Dios, y Hombre verdadero.

Los que pertenecen
 à la divinidad son estos.

El primero, creer
 en un solo Dios
 todo poderoso.

El segundo, creer
 que es Padre.

El tercero, creer que es Hijo.

El quarto, creer
 que es Espiritu Santo.

El quinto, creer
 que es Criador.

El sexto, creer
 que es Salvador.

El septimo, creer
 que es Glorificador.

Los que pertenecen à la San-
 ta Humanidad son estos.

El primero, creer
 q nuestro S. Iesu-Christo

en quanto hombre
 fue concebido
 por el Espíritu Santo
 El segundo, creer que nació
 de Santa María Virgen,
 siendo ella Virgen,
 antes del parto, y en el parto
 y después del parto.
 El tercero, creer que recibió
 muerte, y pasión por salvar
 à nosotros pecadores.
 El quarto, creer,
 que descendió
 à los Infernos,
 y iacò las Almas
 de los Santos Padres,
 que estavan esperando
 su santo advenimiento.
 El quinto, creer, que resucitó
 al tercero dia
 de entre los muertos.
 El sexto, creer,
 que subió à los Cielos,
 y está asentado
 à la diestra de Dios Padre
 todo poderoso.
 El septimo, creer,
 que vendrá à juzgar
 los vivos, y los muertos.
 Conviene à saber,
 à los buenos

para darles Gloria,
 porque guardaron
 sus Santos Mandamientos
 Y à los malos,
 pena perdurable,
 porque no los guardaron.

*Los Articulos de la Fè en
 Easque.*

Articulu Fedecoac
 dira amalau
 lelengo çazpirac,
 pertenecietan jacaz
 Divinidadeari
 eta beste çazpirac
 Iesu-Christo gueure Iaun
 Iaun goyco dà Guizon
 verdàdernen Humanidade,
 Santissimeari
 pertenecietan jacazanac
 Divinidadeari, dira onec
Lelengoa sinistetea
 laūgoyco gustiz poderoso
 baregan.
 Bigarren sinistetea
 dala Aytea.
 Yrugarrena sinistetea
 dala Semca.
 Laugarrena sinistetea
 dala Espiritu Santua.
 Bosgarrena sinistetea
 dala Criadora.

Seygarrena, sinistetea
dala Salvadoreta.

Zazpigarrena, sinistetea
dala Glorificadoreta.

*Perteneçietan jaca zanac Humanida
de Santeari dirà onec.*

[Elengoa, sinistetea
Iesu-Christo gure launa
Gaizonzan partez
concebida y zangala
Espiritu Santuen obratz.

Bigarrena, sinistetea
Jayoçala Maria Birgineaganic
gueretanzala Birgina
jayo baño lenago,
da jayazean, da jayoazquero.

Yrugarrena, sinistetea
errecibiduebala Pasiñoa,
eta eriozea gu beccatarioc
salvaetarren.

Laugarrena, sinistetea,
jasiçala Infernuctara
da ateracituala Arima
Santac egoçanac bere
etorrunen beguira.

Bostgarrena, sinistetea
errefucitaduebala yrugarren
egunean hilaren arterean.

Seygarrena, sinistetea
igoçebala Ceruetara, da
jesarriric dagoala Ayta

omnipotenten aldezcoatari
Zazpigarrena, sinistetea
etorricodala juzguetan
hilac, eta viclac : onay
emateco Gloria, gordecitue
laco vere Madamentu san-
tuac, eta deungay pena eter-
nea gorde ez cituelaco.

*Los Mandamientos de la
Ley de Dios en Romance.*

[Os Mandamientos
de la Ley de Dios,
son diez.

Los tres primeros
perteneçen
al honor de Dios,
y los otros siete
al provecho
del proximo.

El primero,
amaràs à Dios
sobre todas las cosas.

El segundo,
no juraràs
el Nombre de Dios en vano

El tercero,
santificaràs las Fieças.

El quarto,
honraràs padre, y madre.

El quinto,
no mataràs.

El sexto,
No fornicarás
El septimo,
No hurtarás.
El octavo,
No levantarás
falso testimonio,
ni mentirás.
El noveno,
No desearás
la muger de tu proximo.
El dezimo,
No desearas
las cosas ajenass

Estos diez Mandamientos
se encierran en dos
en servir, y amar à Dios
fobre todas las cosas,
y à tu proximo,
como à ti mismo,
Amen IESVS.



 *Los Mandamientos de la Ley
de Dios en Easquece.*

MAndamentuac
laun goycoarē Legecoac
dirà amarr.
Lelengo yturac
perteneietanjacaz
laun goycoaren honreari,
eta beste zazpirac
proximuaren probechuari.
Lelēgoa dà laūgoycoa amatea
gauza guztiez ganeti.
Bigarrenen juramenturic eguin
ez eytea nececsidade бага.
Yrugarrenen Eguçariac gordetea
Laugarrenen gurafoac honretea
Bostgarrenen inor hitez eytea.
Seygarrenen luxuriazco
peccatuetan jauzi ez eytea.
Zazpigarrenen ecer ostu ez eytea
Zorzigarrenen falso testimo-
nioric eregul ez eytea, eta
ez guzurric vere eslan.
Bederazigarrenen ynoren
emaisteric desleadu
ez eytea.
Amargarrenen
besten ondasunic
codiciadu ez eytea.

Amar Mandamentu onec
 encerretan dirà
 bitan, laun goycoa ametan
 gauça guftiez ganeti,
 • eta proxima gueu leguez.

 *Los Mandamientos de la
 Yglesia en Romance.*

LOs Mandamientos
 de la Santa Madre Yglesia
 son cinco,
 El primero Oyr Miffa entera
 los Domingos,
 y Fieftas de guardar
 El fecondo Confessar
 à lo menos vna vez
 dentro de vn año,
 ò antes fi efpera
 peligro de muerte,
 ò ha de Comulgar.
 El tercero Comulgar
 por Pafqua Florida.
 El quarto Ayunar,
 quando lo manda
 la Santa Madre Yglesia,
 El quinto Pagar
 Diezmos, y Primicias.
 Amen IESVS.

 *Los Mandamientos de la
 Yglesia en Eafquence.*

MAndamintuac
 Eleja Ama Santacoac
 dirà boft.
 Lelengoa,
 Meça offoa ençutea
 Domequetan, da Eguçari
 guardetacoetan.
 Bigarrena,
 Confefsetea
 guichienaz beyn vrtean,
 edo lenago
 efpereetan padan
 eniozaco peligrante.
 Yrugarrena
 Comulguetea Pafqua
 Erefurreceño coetan.
 Laugarrena,
 Baran egutea Eleja
 Ama Santean
 aguinduetan davencaan,
 Bolligarrena,
 paguetea amarrenda,
 eta Primiciac.



Confession genetal en
Romançe.

Confieſſemo a Dios todo podo-
ſo, a la Bienaventurada
ſiempre Virgen Maria, y al
Bienaventurado San Miguel
Arcangel, al Bienaventurado
San Ioan Baptiſta, a los Santos
Apoſtoles San Pedro, y San Pa-
blo, y al Bienaventurado N. y
a todos los Santos, y a vos Pa-
dre, que peque mucho con el
penſamiento, palabra, y obra.
por mi culpa, por mi culpa, por
mi gran culpa. Por tanto ruego
a la Bienaventurada ſiempre
Virgen Maria, al Bienaventu-
rado San Miguel Arcangel, al
Bienaventurado San Ioan Bap-
tiſta, a los Santos Apoſtoles
San Pedro, y San Pablo, y al
Bienaventurado N. y a todos
los Santos, y a vos Padre, que
rogueys por mi a Dios nueſtro
Señor.

Confession general en
Baſqueño.

Ni becatariatu conſeſſetan na-
chaco laungoyco guſtiz podero-
ſoari, An. rane Maria B. gi-
neari, landone Miquel Arcan-
gelcari, landoneanez Baptiſ-
teari, Apoſtolu Santu ay, lan-
done Peruari, eta San Pablori
eta Ceruco Santu guſtiay, eta
ſui Aytta eſpiritualorri, pecatu
aſco eguindodala penſamtu-
tagaz, herbeagaz, eta obra
gaz, neure erruagayti, neure
errua gayti, neure errua andia
gayti. Onegalerren erregutuetā
acufar Andrane Maria B. gi-
neari, landone Miquel Arcan-
gelcari, landoneanez Baptiſ-
teari, Apoſtolu Santuay, lan-
done Peruari, eta San Pablo-
ri, eta Ceruco Santuay, eta
ſui Aytta eſpiritualorri erregutu
diguigula ngayti laungoyco
gu e launari.

Los Sacramentos de la Santa Madre Iglesia, son siete.

Los cinco primeros

son de necesidad,
de hecho, ù de voluntad,
por los quales,
no se puede hombre salvar,
si los dexa
por menosprecio.

Los otros dos son de voluntad

El primero Baptismo.

2. Confirmacion.

3. Penitencia,

4. Comunión.

5. Extrema unción.

6. Orden Sacerdotal.

7. Matrimonio:

Eleja Ama Santearen Sacramentuac dirá Zazpi.

Lelengo bostac dirá

necesidadecoac, edo
errecibiduric, edo deseaduric
ceinzac bagaric ezin
yñor salvadu leytequean,
hechie tan vadituz
menosprecioagayti.

Beste biac dirá

vorondatezcoac.

Lelengoa dà.

Bautismoa,

Bigarren Confirmaciñoa.

Yrugarren Comuniona.

Laugarrena Penitencia.

Bostgarrena

Extrema Unciñoa.

Seygarrena Ordea

Sacerdotala.

Zazpigarren

Matrimonioa.

**Las Obras de Misericordia,
son catorce.**

Las siete Espirituales,

y las siete Corporales.

Las Espirituales son estas.

LA primera, enseñar al que
no sabe.

2. Dar buen consejo al que lo
ha menester.

3. Corregir al que yerra.

4. Perdonar las injurias.

5. Consolar al triste.

6. Sufrir con paciencia las fla-
quezas de nuestros próximos.

7. Rogar a Dios por vivos, y
muertos.

**Obras Misericordiascoac
dirá amalau.**

Zazpi Espiritualac,

eta zazpi corporalac.

Espiritualac dirá onec.

Lelengoa iracitea
estiquianari.

Bigarrenaren kontu ona
emaytea beardabenari.

Yrugarrenaren corrigietea
erratueta dabenari.

Langarrenaren parquetea injuriac.

Bostgarrenaren consoletea tristea

Seygarrenaren lufrietea
paciencia gaz gure
proximoen gachac,
eta flaquezac.

Zazpigarrenaren erre gutuetea
laun goycoari vizlac gayti,
eta hilac gayti.

Las siete Corporales son estas.

La primera visitar los enfer-
mos.

2. Dar de comer al hambriento.

3. Dar de beber al sediento.

4. Vestir al desnudo.

5. Dar posada al Peregrino.

6. Redimir al Cautivo.

7. Enterrar los muertos.

Corporalac dirà onec.

Lelengoa visitetea guejoac.

Bigarrenaren jaten ematea
gofetu danari

Yrugarrenaren jaten ematea
egarri danari

Langarrenaren caudiboa
erreccatetea.

Bostgarrenaren villosa jancitea.

Seygarrenaren peregrinoari
ostatua emaytea

Zazpigarrenaren hilac enterretea.

Los enemigos del alma son tres

El primero, es el Demonio.

El segundo, es el Mundo.

El tercero, es la Carne.

Azeriac Arimacoac dirà yru.

Lelengoa dà Mundua.

Bigarrenaren dà Demonioa.

Yrugarrenaren dà Araguaia.

Los pecados mortales son siete

El primero, Soverbia.

El segundo, Avaricia.

El tercero, Luxuria.

El quarto, Ira.

El quinto, Gula.

El sexto, Invidia.

El setimo, Pereza.

Pecatu Capitalac dirà Zazpi

Lelengoa, Soverbia.

Bigarrenaren, Avaricia.

Yrugarrenaren, Luxuria.

Langarrenaren, Ira.

Bostgarrenaren, Gula.

Seygarrenaren, Imbidia.

Zazpigarrenaren, Nāguitasuna

Las virtudes contrarias.

Contra Soverbia Humildad

Contra Avaricia, Largueza

Contra Luxuria, Castidad.

Contra Ira, Paciencia.
 Contra Gula, Templança.
 Contra Invidia, Caridad.
 Contra Pereza, Diligencia.
Oñen contra dagoz zaz pi virtute
 soverblarē cōtra. Humildadea
 Avariciaren contra Larguezea
 Luxuriaren contra, Castitatea.
 Iren contra, Paciencia.
 Gulen contra, Templança.
 Imbidlaren contra, Caridadea
 Naguitaue contra, Diligencia.

DEL PECADO VENIAL

*El pecado venial se perdona
por nueve cosas.*

1. La primera, por oyr Misa.
2. Por Comulgar.
3. Por Oyr la Palabra de Dios
4. Por Bendicion Episcopal.
5. Por Rezar el Pater noster.
6. Por dezir la Confesiō genera
7. Por tomar Agua bendita.
8. Con el Pan bendito.
9. Con Golpe de pechos.

*Pecatu veniale bederazi
gausagaz parcaetandā.*

Lelengoa, Meça ençunacaz.

2. Comulgueteacaz.
3. Jaugoycoē berbea ençunacaz
4. Obispoen Bendiciñoeacaz.
5. Pater nosteracaz.

6. Confesiñoe generalacaz.

7. Vr bedeincatuacaz.

8. Ogui bedeincatuacaz.

9. Bularretan golpe emonacaz.

Las Virtudes Teologales, son tres.

La primera, es Fe.

La segunda, Esperança.

La tercera, Caridad.

Virtute Teologalac, dirā yru.

Lelengoa, Fedeā.

Bigarrena, Esperanzea.

Yrugarrena, Caridadea.

Las Virtudes Cardinales, sō quatro

La primera, Prudencia.

La segunda, Iusticia.

La tercera, Fortaleza.

La quarta, Templança.

Virtute Cardinalac, dirā lau

Lelengoa, Prudencia.

Bigarrena, Iusticia.

Yrugarrena, Fortaleza.

Languarrena, Templança.

Las Potencias del Alma, son tres.

La primera, Entendimiento.

La segunda, Memoria.

La tercera, Voluntad.

*Arinaco Potenciae,
dirā yru.*

Lelengoa, Zenguna.

Bigarrena, Gogoa.

Yrugarrena, Betondatea.

 Los Sentidos Corporales
son cinco.

El primero Ver con los ojos.

1. Oír con los oídos.
2. Gustar con la boca.
3. Oler con las narices.
4. Tocar con las manos.

 *Sentiduac Gorpuzeoac*
dira bost.

Lelengoa beguacaz ecuslea.
Bigarrena belarracaz enzutea.
Arugarrena agoagaz gusfetea.
Laugarrena turracaz
vlay eguitea.
Bostgarrena escuacaz
vcututea.

 Los Donos del Espiritu
Santo son siete.

El primero, Don de sabiduría.

1. Don de entendimiento.
2. Don de consejo.
3. Don de fortaleza.
4. Don de ciencia.
5. Don de piedad.
6. Don de temor de Dios.

 *Doac Espiritu Santuenac*
dira xaxpi.

Lelengoa Sabiduriazgo Doca.
Bigarrena entendimentuzgo
Doca.
Yregarrena consenuzco Doca.

Laugarrena fortaleazco Doca.
Bostgarrena cienziaco Doca.
Seygarrena piedadeco Doca.
Zazpigarrena laungoycoen
bildurreco Doca.

 Los Frutos del Espiritu
Santo son doze.

El primero, Caridad.

- El segundo, Paz.
- El tercero, Longanimidad.
- El quarto, Benignidad.
- El quinto, Fè.
- El sexto, Continencia.
- El septimo, Gozo.
- El octavo, Paciencia,
- El noveno, Bondad.
- El dezimo, Mansedumbre.
- El onzeno, Modestia.
- El dozeno, Castidad.

 *Frutuac Espiritu Santuenac*
dira amabi.

Lelengoa, Caridadea.
Bigarrena Baquea.
Yregarrena Longanimidadea.
Laugarrena Benignidadea.
Bostgarrena Fedea.
Seygarrena Continencia.
Zazpigarrena Gozua.
Zorzigarrena Paciencia.
Bederazigarrena Bondadea.
Amargarrena Mansedumoreca.
Bostgarrena, Modestia.
Bostgarrena, Castidadea.

HIZTEGIGINTZA-BATZORDEA: 1986RAKO EKINTZA PLANA

Bilbo, 1986-I-31

Mikel Zalbide

I. LEXIKOLOGI ERIZPIDEN FINKAPENA

1985.eko Uztailaren 19an Hiztegitza Batzordeak aurkezturiko txostenean epe luzerako lan-programa eta 1990era arteko eginkizun nagusiak azaldu ziren batetik. Eta, bestetik, epe laburrerako ekintza-planaren norabide nagusiak markatu.

Euskaltzaindiak Miren Azkarateri eman zion enkargua Lexiko Erizpideen Finkapen taldearen lan-diseinu zehatzago bat egiteko. Eta honek, mandatu hori zuzen bete asmoz, txosten bi aurkeztu izan ditu hain aspaldi ez dela: Urriaren 25ean bat, eta bigarrena Abenduaren 20an. Euskaltzaindiak, azken txosten honetan oin-hartuz, 1986rako ekintza-plana eskatu die Miren Azkarateri eta Mikel Zalbideri. Horren ondorioz, Urtarrilaren 2an elkarrekin izandako bileraren arabera, honako ekintza-plan hau proposatzen dugu, 1986rako, Lexikologi Erizpideen Finkapen taldearentzat.

I.1. LEF taldearen osakera

LEF taldeak hurrengo urteetan (1990 ingururarte) izango dituen eginbehar nagusiak kontuan izanik, eta Hiztegitza Batzordearen 1985.eko Uztailaren 19ko txostenak bere IV. 3. eta IV. 4. ataletan dioena garatu asmoz, honako era honetan proposatzen da LEF taldea osatzea:

- a) Lehendakaria: Koldo Mitxelena
- b) Lantaldearen arduraduna: Miren Azkarate
- c) Talde eragilea: Miren Azkaratez gainera hiru lankide, multzo honetatik izendatuak:

Jose Antonio Aduriz
Patxi Altuna

Juan Karlos Odriozola
Andoni Sagarna

Euskaltzaindiaren Donostiako Ordezkaritzak beharrezko oinegitura-zerbitzua eskainiko dio talde eragile honi.

d) Osoko taldea: Lehendakariak eta talde eragilekoez gainera beste hamabost kide gehienik, ondoko multzo honetatik izendatuak:

Xabier Amuriza
 Patxi Goenaga
 Jean Haritschelhar
 Jose Mari Irazola
 Alfonso Irigoien
 Xabier Kintana
 Endrike Knörr
 Jose Mari Larrarte
 Luis Mari Mujika
 Beñat Oiharzabal
 Francisco Ondarra
 Lurdes Otaegi
 Txomin Peillen
 Pello Salaburu
 Juan San Martin
 Ibon Sarasola
 Jose Mari Satrustegi
 Patxi Uribarren
 Tomas Uribe-etxebarria
 Luis Villasante
 Piarres Xarritton
 Mikel Zalbide
 Ambrosio Zatarain

1.2. 1986rako lan-egutegia

I.2.1. Urtarrileko batzarrean Euskaltzaindiak LEF taldearen osakera landuko du, eta Otsailekoan birretsiko. Horretarako, alde aurretik, begiz jotako taldekide guztiei banan banako gonbitea egingo zaie bertan parte hartzeko, eta erantzuna eskatuko.

I.2.2. Martxoan hasiko da talde eragilea lanean. 8 lan-bilera egingo ditu 1986an, bere jardunaren arian (Uztail-Abuztueta ez da bilduko). Bere eginbehar nagusiak, joan den Uztailaren 19ko txosteneko IV.3.1. atalean esandakoaren ildotik, honako hauek izango dira:

- Osoko taldearen jardunaldiak prestatzea
- 1987ko aurrekontu-gaiak prestatzea

I.2.3. Osoko taldeak 2 jardunaldi izango ditu 1986an. Jardunaldiok barnetegi-giroan egingo dira ahal delarik, hiriburuetatik kanpora.

a) Lehenengo jardunaldiak Ekainaren 25 eta 26an egingo dira. Honako gai-zerrenda landuko da jardunaldi horretan:

- LEF programaren azalpena.
- Osoko taldearen aurkezpena.
- Talde eragilearen aurkezpena.
- LEF 2 atalaren aztergai-zerrenda aurkeztu, eztabaidatu eta finkatzea.
- Gabonetako jardunaldiaren lehen finkapena.
- Gabonetako jardunaldirako aztergaiak lantzeko txostengileak izendatzea.
- 1987rako lan-programaren zirriborroa egitea.

b) Bigarren jardunaldia Gabonak inguruan izango da. Abenduaren 22 eta 23a izan litezke egun egokiak. Bertako eginbehar nagusiak honako hauek izango dira:

- Ekainean finkaturiko aztergaiak aurkeztu, eztabaidatu eta emaitzak lantzea.
- 1987ko lan-egitarau xehea finkatzea.
- 1987ko Jardunaldietarako aztergaiak landuko dituzten txostengileak izendatzea.

I.2.4. Ekainean, jardunaldiaren amaieran, 1987rako aurrekontugaiak prestatuko ditu talde eragileak, eta Ekainaren 27an Euskaltzaindiaren hileroko batzarrean aurkeztuko dira.

I.2.5. Gabonetako jardunaldian aurkeztu eta landu beharreko txostenak Azaroaren 14rako eginak izango dira, eta 28rako osoko taldekide guztiei banatuak.

I.2.6. Bestelako lanak

1986.eko Irailean hasita, talde eragileak honako beste bi eginbeharrok bideratuko ditu:

- Hitz-elkarketari buruzko bibliografi bilketa.
- Ikerketa bereziak bideratzea.

I.3. Dirubeharrak

Uztailaren 19ko txostenean 3.288.600 pztako dirubeharrak begiz jo ziren, LEF programarentzat, 1986 urterako.

Ordutik hona emandako pausoen arabera, ekintza-plana xehetuz joan ahala, aldaketa batzuren beharra ikusi da. Honela.

a) Taldearen arduradunak ez du astean 20 orduz lan honetan jardun ahal izango. Bere ordainpidea, ondorioz, beste era batean antolatu beharra dago.

b) Hasieran begiz jo ez zen lanik egin nahi da, bestalde: bai bibliografi bilketarako eta bai ikerketa berezietarako dirubideak segurtatu behar-ko dira. "Estudioak" izenburupean txosten-prestakuntzarako jarritako 200.000 pza ez dira aski lan osagarri horretarako.

Guzti horren ondorioz, kontu zehatzagoak ateratzea hurrengo bate-rako utziaz, zera esan daiteke oraingoz: begiz jotako diu-kopuru osoa aski dela 1986rako; ez dela, alegia, dirubide handiagoen beharrik.

AZKEN OHARRA:

Miren Azkaratek ezin du Irailerarte, lanbidezko eginbeharrengatik, LEF taldearen ardura erabat bere gain hartu. Mikel Zalbide prest agertu da, egoera hori kontuan izanik, Martxotik Ekainerarteko hutsune hori berak betetzeko.

Donostia, 1986.eko Urtarrilak 7.

LEF taldea
Miren Azkarate

Hiztegigintza Batzordea
Mikel Zalbide

II. EGUNGO EUSKARAREN BILKETA-SISTEMATIKOA (EEBS)

SARRERA

1985.eko Uztailaren 19an Hiztegigintza Batzordeak aurkezturiko txosten-ean epe luzerako lan-programa eta 1990era arteko eginkizun nagusiak azaldu ziren batetik. Eta, bestetik, epe laburrerako ekintza-planaren nora-bide nagusiak markatu.

Epe laburra esaten, txostenaren IV. atalean adierazi bezala, 1985.eko Irailetik 1986ko Abendura bitarteko epealdiak osatzen du. Atal horretan bertan azaltzen denez, epealdi horretan egungo euskararen bilketa-lan sistematikoari ekin nahi zaio: EEBS programari alegia.

Txostenean, gai hau aipatzerakoan, EEBSrako lantaldea sortu eta abiarazi egingo dela esaten da (IV.2. pasarteko c) puntua). Aurreraxeago (ikus pasarte bereko e) puntua), 1986ko Uztail-amaierarako EEBs atal osoa izendatua egotea proposatzen da eta, udazkenerako, lantalde osoa martxan hastea.

Eusko Jaurlaritzak eskatu dituen argibideak kontuan izanik, 1986ko Ekainerako aurkeztea pentsatzen zen ekintza-planaren bigarren atala ere orain azaldu nahirik dator honako txosten hau.

II.1. ABIABURU BERRIAK

Goian aipaturiko txostena aurkeztu zenetik (1985.eko Uztailak 19), ekintza berriak sortu dira, orduko prebisioak osatzera eta, neurri batean, aldatzera datozkeenak. Bat da nolanahi ere, berritasun horietan, nagusi. Hona:

Euskal liburugintza bultzatzearen hainbat laguntzabide jarriak dituzte Euskal Autonomi Elkarteke Herri Aginteeke; bai Eusko Jaurlaritzak berak, Hezkuntza eta Kultura Sailetatik, eta bai Foru Aldundiek ere, beren Kultura Sailetatik.

Gauza ezaguna da, bestalde, liburugintzari dagokionez teknologi berrikuntza nabarmena ari dela, atzerrian bezala gure artean ere, gertatzen: liburuen konposizio-lana, horrela, sistema informatikoen bidez egiten da geroz eta sarriago; hots, ordenadore edo "pantaila" bidez egiten da euskal liburuen konposizioa.

Horren ondorioz posible litzateke, itxuraz, urtero-urtero argitaratzen diren liburu (gehien)en testuak, zintaz edo beste nolabaiteko euskarriz jasoak, eskuratu eta biltzea. Eta, bigarren fase batean, bilduma hori osatuz doakeen neurrian, altxor hori era sistematiko batez landu ahal izango litzateke.

Nolabait esateko Orotariko Euskal Hiztegiaren prestakuntzarako lehenik euskal idazlan klasiko asko sartu diren bezala ordenadorean, gero handik jasotako altxor handi eta aberats horren gainean lan egin ahal izateko, posible izan beharko luke egungo prosa idatzian ere, arruntean zein berezian, liburuak konposatzerakoan "zintak" egoki jasoz gero bihar-etzi lanketa sistematiko bat egitea.

Gertaera bi horiek kontuan izanik, eta Euskararen Aholku Batzordearen gomendio espresua entzun ondoan, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak berritasun bat sartzeko gogoaz azaldu du Eusko Jaurlaritzak (eta, hala balegokio, Foru Aldundiek) euskal liburugintza bultzatzeko urtero-urtero egin ohi dituzten laguntza-deialdietan: hemendik aurrera, euskal

liburu batek dirulaguntza jaso ahal izateko, baldintza berri bat jartzea, honelatsu diokeena: liburu horren konposizioa sistema informatikoz egin bada, testu masa osoaren “zinta”-ren kopia bat eskuratu beharko dio kasuan kasuko argitaletxeak Administrazioari. Eta honek, hartarako bideak jarriko balira, Euskaltzaindiari pasa ahal izango lioke “zinta” hori berorri edo beste kopia bat, Euskaltzaindiaren bilketa eta azterketa-lanak erraztearren.

Bide berri horren egingarritasuna neurtzeko lehen harreman bat izana ere du, Hezkuntza Sailak, urtero-urtero EIMA programara biltzen diren argitaletxeekin.

Bistan dago ekintza berri hau ez dagoela oraindik zoritua eta behar bezala mamitua. Lehen pausoak ematen hasi besterik ez da egin, ustez ongarria litzatekeen asmo horren benetako abantailak eta egingarritasunak norainokoak liratekeen jakin nahirik. Duen gordintasun hori kontuan izanik ere bista-bistan dago, ordea, ekintza horren eragina erabatekoa izan daitekeela EEBS programan: 1985.eko Uztailan ikusiabartzen zen lan-moldea aldenik alde eta sustraitik alda dezake honelako ekintza batek, aurrera aterako balitz. Onerako aldatu gainera, besterik ez bada ere arrazoi bi hauengatik.

— Ohizko bideetatik baino askozaz informazio oparoagoaz lan egin ahal izango litzateke bide honetatik.

— Kostuetan asko aurreratu ahal izango litzateke, “zintak” era ego-kian eskuratuz gero.

Bide horrek, dena dela, dexente alda dezake EEBS taldearentzat iaz begiz jotako lan-moldea: bai partaide-kopuruaz, bai antolakeraz eta bai diru-beharrez.

Eusko Jaurlaritzak ekintza horrekin zer egin eta noiz-nola jardun osorik argitzen ez duen artean alferlan hutsa da, ordea, ustezko egitasmoak prestatzen ibiltzea.

II.2. 1986RAKO PROPOSAMENA

Guzti horregatik, eta EEBS programaren on-beharrez, honako era honetan jardutea proposatzen du, 1986ari dagokionez, Hiztegi gintza Batzordearen Idazkariak.

II.2.1. Idazki bat bidaliko zaio Hizkuntz Politikarako Idazkaritzari, Euskaltzaindiak ekintza horretaz duen interesa agertuz eta, posible balitz, aurtan bertan Administrazioak gai horri zein erantzun ematekoa dion azaltzeko eskatuz. Presupostu-kontuen arrazoiagatik Apirilaren amaierarako erantzutea eskatuko lioke HPIri.

II.2.2. Bitartean, Euskaltzaindiak ez du oraingoz EEBS programa martxan jarriko. Zain egongo da, alegia, aurtengoz, beste puntu hori argitu arte.

II.2.3. Beste ekintza hori ezin bidera daitekeela ikusiko balitz, edo espero bezalako fruiturik emango ezbalu, urtebetez atzeratuko da EEBS programa; eta, ondorioz, pentsatuta zegoen eran baina urtebeteko atzerapenez, 1987an ekingo litzaioke programari, herri-erakundeek hartarako dirubiderik segurtatuz gero.

II.2.4. Edozein kasutan, eta aurten bertan Administrazioak ekintza hori martxan jartzea litekeena denez, baiezko kasu horri erantzuteko gutxienezko diru-kopuru bat segurtatuko zaio EEBS programari. Honako hau da, labur zurrean, begiz jotako ditu-beharren azalpena.

a)	Talde eragilearen kostuak (2 lankide, 5na orduko 8 bilera)	
	— Bilera-orduen kostua	Pesetas
	8 x 5 x 1.500 x 2	120.000
	— Joan-etorriak	
	8 x 100 x 23 x 2	36.800
	— Bazkariak	
	2 x 8 x 1.500	24.000
		180.800
b)	Bulego-material xahukorrak	30.000
c)	Komunikazioak (telefonoa, posta...)	50.000
d)	Estudioak (txosten-prestakuntza)	50.000
e)	Informatikazko aholku-zerbitzuak	120.000
	GUZTIRA, BERAZ	430.800

ERATORBIDEA ETA DEKLINABIDEA

Donostia, 1986-II-28

K. Mitxelena

1. Gaizki mintzatzeko makurra, ahoz nahiz letraz, gero eta oparoago ageria omen da, dela euskaraz dela erdaraz, eta nik ez nuke ezetz esango. Euskararen ingurukoak kezkatzen gaitu gu, batez ere: hurbilagotik dagokigulako, bidezko denez, eta sendabideak urriago dituelako. Gaiztoz hastekotan, gainera, esan dezakegu ez dutela eriek, larregitan, sendatzeko gogo sendoegirik azaltzen.

Edonon dira nabari, gurean, hutsak eta huts-gisakotzat har ditzakegunak. Hitz kontuan, aurrenik. Birtute genuen garbizaletasuna inoiz, ez hain aspaldi; orain, berriz, ezin zurituzko bidegabekeria. Badirudi, izan ere, merkeagoak, hutsalagoak, deusezagoak direla guretar frankorentzat, guztira jota, etxeakoak kanpoko inongoak baino.

Ez da hori Euskal-herritik landa ezagutzen ez den ixuria. Aldous Huxley-k, *The Perennial Philosophy*-n, hirugarren kapituluaren lehen buruan esaten digunez, baliokide edo dira ingelesez *maternal* eta *motherly*, *intoxicated* eta *drunk*, *eructation* eta *belch*. Antzeko esanahia dutelarik, ordea, nolako aldea batzuetarik besteetara! *Personality* ez omen lukete hain goi-mailako gogoetaren deituratzat hartuko, herriko jantziz *selfness* baleritza. Alemanek, eta nik eransten dut gehigarri hau, bide erdi, *Persönlichkeit*-ekin gelditu dira.

Gure jendeak ezagutzen du (baldinbaitere!) *begibakar* eta hitz hori horren gauza xumea eta ezkorra izanik ez du artean inork *monophtharmo* esateko zaletasunik agertu, ez behintzat mordoka eta saldoka. Besterik da, haatik, *monolingüe*, gogoeta garai eta goitar baten adierazlea: nola etsi, horrelako “jakiunde” gaietan, *begibakar*-en ereduarekin? Ahoa ez litzai-guke beteko.

Sánchez Carrión-ek, hemen jaioa ez delako behar bada, *elebakar* darabil, *elebidun*-en haritik, lehengo *elebitza* eta orainagoko *elebitasun*-en inguruan. Badakigu *elea* ez dela zeharo hizkuntza, baina aski ohituak gaude hitzen adierekin lasaiki jostatzen. *Laguna* ez da *adiskidea*, esate

baterako, hamar Euskal Telebista sortzen bazaizkigu ere baten orde. Orobat, hemen nahastea zaharragoa eta barreiatuagoa bada ere, *egurra* ez da *zura*, ezta *hanka* ere *oina*. Etxeko ondasunak galtzen eta ondutzen baditugu, noraezeko izango dugu gero eta aldamenekoen eskekoago bihurtzea.

2. Dena den, ingelesez ari direnak eta gu ez gara elkarren antzera portatzen. Haiek, eskuzabalak izanik non-nahikoak hartzeko kontuan, ez dira estuago ematekoan. Kexu da, behinik-behin, hango eta hemengo jendea haiek salgai dutena errazegi erosten duelakoan. Nahikoa dugu iparraldera begiratzea.

Halaz guztiz eta hiztegia hiztegi, larriago gertatzen zaizkigu arazoak istilu orapilatsuagoetan: gramatikakoetan, esaeretan eta beste hainbestetan. Aipa ditzadan zenbait gogoko ez ditudanak, eta nik baino lehenago ere euskaldunik trebeenek higuin zituztenak. Higuin zituzketenak, hobeki esan, sekula entzun nahiz irakurri izan balituzte.

Esate baterako, *bat* usuegi agertzen da, hagitz oker ez banabil, eta *-a* atzizkia bakanegi, erdararen moduan (hemen, *nota bene*, erdara gaztelania da, besterik azaltzen ez denean), kontutan eduki gabe gure “artikulu” hura ez dela erdarazkoa bezain mugatzailea, lasaiago lotzen duela izena edo izen-multzoa. Horrexegatik, hain juxtu, erabiltzen dugu erdarazkoa baino aise usuago.

Mendi bat sar dezakegu, bada, eta sartzen dugu *mendia*-ren orde. Ez, alajaina, *mendia*-ren atzizkia gogoko ez dugulako, *norbait alkatea izendatu* eta *zerbait hautsa bihurtu* nahiz *hutsa gertatu* esateak ez baitigu inolazko minik ematen; ezta idazteak ere. Erdara gorroto izateaz gainera emaztekien aldeko purrkatu garen arren, “txoko” atsegin bat *Aitonena aterpea* dei dezakegu (Pasai Sanjuan-en, adibidez, orain Pasai Donibane bihurtuan), eta hori han amonak ere biltzen direlarik.

Ez da dagoeneko inor etxean, kalean, mendian denik, ezpada harako *Aita* hura, oraindik *zeruetan dena*: hori, gainera, oraintsu arte *zeruetan zegoelarik*. Gainerakoetan, *den* arbuiaurik, *dagoen* baino umilagorekin ez gara kontent gelditzen. Okerragoa da halere beste *izan*, iragankorra delakoarekin, gertatu ohi zaiguna. Hor daude *zure antza zeukan*, *zenbat urte daukazazu?* edota, gramatika “hobeari” etxekirik, *zenbat urte daukazazu?* Atzenduxe dugu aspaldidanikako ezaguera zabaldu hura: *da*, *du* eta gainerantzekoek, *ser* eta *haber*-ek ez bezala, laguntzaile izan daitezkeelarik, badutela bestalde berezko indarra ere.

3. Esanak esan, bi euskal atzizkiz mintzatu behar nuke hemen, *-(r)en* eta *-(e)ko-z*, eta ez naiz oroitzen hala agindu nuelako den edota hala eskatu zidatelako nor direnek. Izan ere, hemen agertzen dira barra-baskeriak gure hizkuntzan, inon agertzekotan.

Joan San Martinek atera ditu nahaste eta lardaskaren agergarriak *Egan*-en azken zenbakian (1985, 3-4, 187-189). Horietarik batzu hurbildik dagozkit Erretereria maitean sortu eta haziak direlako. Horrela, gure plaza nagusiari, Kontzejukoari, *Herriko enparantza* deritza, “La place du Peuple” delako sinestean, “Place de la ville” murrizta baizik ez delarik. Orobat, bere eta besteren jaioterriari izena aldatu nahi diotenek “Orereta gure herriko izena da” aldarrikatzen digute. Hori bederen egia da, inondik ere: Erretereria, gure herria, sortu zen lekuari Orereta zeritzan eta egungo egunean ere bada, oker ez banabil, Orereta deritzan kalea. Bistan denez, ordea, Erretereria da gure herriaren izena eta, “La place du Peuple” eman nahi badugu aditzera, *Herriaren plaza* beharko dugu esan. Beheragokorik, ez.

Eta *plaza* nahi ez duenak *enparantza* erabil dezala. Ohar bat orain, laburra baino premiazkoa. Paperera ditudan adibideak, baita ondoren datorren larriagoa ere, alde edo alderdi baten ume dira. Ez ditut, halaz guztiz, talde horretakoei erasotzeko bildu. Adibideen uztza emankorrago agertzen da alor horretan, agian eta aski segur, bestek baino maizago egiten dutelako euskaraz, batez ere presaka, herriz herri eta harriz harri. Ez dut ikusten, bestalde, inork gaitzesten dituenik horrelakoak eta bost *hizkuntzaren aldetik* eta, alde honetarik, arbuizatzen ez dena onartua eta are onetsia dago.

Honako beste izkribu honek, Erretereriatik urruti ere luze-zabalean hedatu denak, sortu ditu eztabaida saminak, nahi adina eta gehiago, edukiari dagokionez ordea beti, ez azalari begira: *Urlia eta Sandia Galeko kitzikariak*. Honetaz, egia zor dut, zerbait galdatu dit batek baino gehiagok, baina hitzen gainean. Hitz baten gainean, hobe, delako *kitzikari* horren sustraiak jakin nahian.

Aspaldi ez duela, *kitzikari*-rekin nahiz *kitzikari*-rik gabe, ilea lastu zekiokeen euskaldun oso dei zitekeen edozeini. Guztiok badakigu, arteka-marteka ahaztu egiten bazaigu ere, *-(r)en* dela atzizki zuzen bakararra horrelakoetan. Euskalki guztietan, nik uste, labur-surrean ez gabiltzanean elkarte moldez jokatzuz, *artoaren ereilea* esaten da, *kateen birrintzailea*, *kristauen salataria*, eta abar eta abar. (Eta “abar” honek ez du nora ezean “luzea” izan behar. Horrelako ateraldiek badute inoiz gatz eta indar, sortu diren hizkuntzan, jendea entzutez eta irakurtzez aspertu baino lehen, luzaro gabe. Ok eragiten dute bestetan).

Orain artekoetarik ateratzen dudan ondorioa hauxe litzateke: on da euskaraz egitea; ez genuke, haatik, deus galduko ongixko egiten saiatuko bagina bidenabar. Baita beste honakoa ere: bata ala bestea aukeratu beharrak sortzen dituela kezkak eta buru-hausteak behin eta berriro. Gogoan gelditu zitzaidan harako Orixeren argudio hura, *Urte guziko meza-bezperak*, viii: “Bestela ere esan oi da *Sancti Patres Ecclesiae*, eta

oieri, Aita ordez Guraso esaten diet ‘Elizako Guraso’, gure zarrak bezala. Ez ‘Elizaren guraso’, Jesukristo bera baita.” Ez naiz nor teologia aldeko arrazoiak neurtzeko eta pisatzeko. Aski dut, nolanahi ere, “gure zarrak” horrela mintzatu zirela jakitea, aski eta sobera: besterik gabe haien auke-ra aukeratua dut neronek.

4. Bi atzizkiok, baita elkarren etsai agertzen direlako ere, itxura berezia dute. Bai *-ren* eta bai *-ko* (bokal ondoan erakusten duten aldaera aipatuko dut soil-soilik aurrerantzean) deklinabideko bailiran hartu ohi ditu jendeak. Arrazoi aski lirudike horretako *genitibo* izengoitiaz horniturik agertzeak, bata nahiz bestea, zein ere ezberdinak diren. Komeni litzaiguke, halaz guztiz, izenatarik haruntz begiratzea, ea beste arrazoi-biderik ba ote den horretarako, dela alde dela kontra.

Maiztasunaz, dudarik gabe, edozein erakar- edo eratorbidean darabilgun atzizki baino usuago ageri dira: *-kor* baino areago, *-tsu* baino areago, baita *-(k)eria* eta *-(t)asun* berak baino maizago ere. Deklinabideko zenbait atzizkiren paretsuan dabilta maiztasunaren arabera: eman dezagun *-ri*-ren gisako izan daitezkeela.

Nolanahi ere den, nik nahiago nituzke erator-atzizki bezala hartu, eta ez da nik neure baitarik atera dudan burutapen eroa. Iritzi hori Martinet-i irakurri nion lehenbiziko aldiz, bere *Eléments de linguistique générale*-ren oinarri izan ziren irakas-paperetan. Ez da, gainera, bestetan ezezagun den gertaria. Hala nola georgieran eta honen ahaide diren hizkuntzetan, Hans Vogt-ek, *Esquisse d'une grammaire du géorgien moderne*, 1936 (lehen argitaraldiaz baliatu behar izan dut), 47, erakusten digunez:

“Quelques verbes ont apparemment leur sujet grammatical au génitif. C’est en réalité au dérivé possessif au nominatif que nous avons à faire. A côté de *mĭera im kacis sitqva* je crois en la parole de cet homme on a sans *sitqva*: *mĭera im kacisa* je crois en cet homme, où la forme ancienne serait *kacisa-y*.” Gutti gora-behera euskaraz *gizon horren hitza sinesten dut* (gure gramatikak erdizka behintzat onartzen du) esan beharrean *gizon horrena sinesten dut* sartuko bagenu bezalatsu. Gurean, beraz, *génitif* eta *dérivé possessif* berdin lirateke (gehi/ken *-a*).

Kasu baten ezaugarria daraman izena ezin truka daiteke, salbuespenen bat edo beste salbu, atzizkidun gabearekin. Hau ala hori, Hjelmslev-ek irakatsi ohi zuenez: *gizona* ala *gizonak*, *gizonari* ala *gizonaz*, etc. Atzizkia daramanak ez du ametitzen kasu gehigarririk: *gizonari* eta kito, ez baita luzatzerik. Ez du luzatzerik, hobeki esan, *-ko* ez baldin badu ondorengo zenbait atzizkirekin: *gizonagango*, *harrizko*, *herriarekiko*, etc. Hori ere ez du hartuko ez *gizonak*, ez *gizonari*-k. Bestearen gisara, *-rentzat* ere bada, eta *-rendako*. Eratorbide atzizkiduna, berriz, truka daiteke, eta sarritan trukutzen da, atzizkirik ez daramanarekin: *ahariki*, *ahariko*, esaterako, *ahari*-ren ordeztu (*ahari(ki)a jan du*, *ahari(ko)a ikusi du*);

herrikoi, herritar, herri-ren lekuan... Beste horrenbeste gertatzen da, hain zuzen, *—ko* eta *—ren* kasu-markekin. *Etxea ederra da* bezala ditugu *etxe-koa ederra da, etxearena ederra da*; eta hori mugagabea, singularrean eta pluralean (cf. *etxe-ta-ko, etxe-eta-ko* eta gainerako ezin konta ahalak), hitz eratorrietan aurkitzen ez den bezala.

Hitz bitan, *etxea ederra da* eta *etxekoa ederra da* bi gauzaren adierazpide dira, bi gauza aski ezberdinen. Ezberdintasun hori, ordea, hiztegi mailakoa da. Gramatika aldetik, berriz, ez dugu alde handirik ikusten, perpaus horietan behinik-behin.

5. Arazoa horrela delakoan nago ez dut beste gehigarririk azalduko. Auzia bestetan datza: erabileran, alegia. Ez baitago beti argi eta garbi, noiz bata hautatu behar den eta noiz bestea, gorago atera ditudan adibideek zalantzen lekuko ditugularik. Badirudi, horietan bederen, *—ko-ren* aldeko joera agertzen dela: *—ko-ren* aldekoa eta *—ren*—en aurkakoa.

Lehen galdera, ordea, besterik litzateke: zerk batzen ditu, elkarrekin aipatu ohi ditugunez gero, gure ahoan eta gogoan, bi direlarik?

Lehen erantzuna erraza dugu. Kasu baten eta bestearen izena ia beti, edozein hizkuntzatan, berbera da, zein bere emendailuz berezia ager badaiteke ere. Hori aski ez balitz, itzulpen kontua izan badaiteke (itzulpen berdina baldin badute, *de* erdaraz esaterako, nola ez dute zentzu berdina izango?), maiz somatzen ditugun zalantza erabakigaitzak, eta Orixe plazara dugu lekuko, seinale nabari dira elkarren hurbiltasunaz.

Ezin-ukatuzko ezberdintasuna badute, haatik, behar bezala ulertzen badugu: *bizidun/bizigabe*-en artekoa. Lehia horretan *—ren* da *biziduna, markagabea* halere, eta *—ko* *bizigabe* bezain *markaduna*. Gauza bera gertatzen da, *pertsona/ez pertsona*-ri buruz, *haur* eta *ume*-ekin: *ume*, markarik gabea, izan daiteke gizakia eta gizakien haurra; *haurra*, berriz, gizatasun horri lotua agertzen da. Horrexegatik, errazago eta oparoago erabil daiteke *—ren* zein *ume* beste binakoa, *—ko* eta *haur*, baino.

Bestetan azaldu izan dudanez, ondoko lau elkarketa hauetan bat bakarra da duda-mudarik gabe ezinezkoa:

<i>gizonaren etxea</i>	<i>etxeko gizona</i>
<i>etxearen gizona</i>	† <i>gizoneko etxea</i>

Etxearen gizona-k susmo txarra sortzen du, baina aski genuke *gizon*-en ordeztu *jabe* esatea *etxearen jabea* edozein eztarrik irentsiko lukeen mokadu bihurtzeko. Ez, arraioa, *jabe*ko *etxea*.

6. Bereizkuntza arloan, ezin joan naiteke gure Hizkuntz-Batzordeak prestatu duen *Euskal gramatika: lehen urratsak*, 1985, 1.4.3.-tik aurrera. Formaldatze bideek (*tokialdatu, itxuraldatu* eta abar esan daitekeenez

zilegi zaigu *formaldatu* esatea, nahiz erdal aurrizkia atzizki baten bitartez irauli) ez dute auzia osotoro garbitzen. Ez zuen ere garbitzen latinaren kasu errazagoa Benvenistek: azkenik, *Problèmes de linguistique générale*, 1966, 140-148. Zeri lotu behar diren ez dakigun hari albainuak geratzen dira beti, han eta hemen.

Esplikazio modu hori, horratik, ez da inondik ere berria eta are oraingoa. Zaharra da, Azkuek zenbait lekutan zabaldu zuena, eta ez dut uste berak asmatua zenik. Hori nik ahotik belarrira ikasi nuen, entzutez beraz, gure gramatika tradizioaren zati bezala.

Ez nuke honekin, lekua ez baita batere egokia, aurrera jo nahi. Bi genitiboen arteko beste alde batez mintzatu behar baitut.

7. Eutezko delakoak (*eute*, *eun* eta *euko* ikusiak ditut, baina ez dut sekula *edute*-ren azterrenik idoro) badu, hitz oinarri berriak sortzeko ahalmenaz gainera, bere burua hurrenez hurren errepikatzekoa ere. H. Harriet-ek ederki ezagutu zuen hori: ik. *Gramatica escuaraz eta francesez*, 1741, 8 hh. Lehenbiziko bi lerroak aldatuko ditut bakoitzean:

Bakharrac
Aita, Aitac
aitaren

Haiñitçac
Aitac, Aitec
aiten

Atzizkiaren bitartez, oinarri berria sortu dugu jatorrizkotik, hau ere bestea bezala deklina daitekeena:

Bakharrac
Aitarena, aitarenac
Aitarenaren
Haiñitcen bakhgarrac
Aitena, Aitenac
Aitenaren

Bakharren haiñitçac
Aitarenac, Aitarenen
Aitarenen.
Haiñitcen Haiñitçac
Aitenac, aitenec
Aitenen.

—*ko*-rekikoa laburrago eman daiteke:

Bakharrac
Erroma, erromac
Erromaco

Haiñitçac
Indiac, indiec
Indietaco.

Bakharrac
Erromacoa, erromacoac
Erromacoaren
Haiñitcen bakharrac
Indietacoa, indietacoac
Indietacoaren

Bakharren Hainitçac
Erromacoac, erromacoec
Erromacoen.
Haiñitcen Hainitçac
Indietacoac, indietacoec
Indietacoen

8. Hauxe da Harriet-en zerrenda, guri dagokigun aldetik osoa. Ikus daitekeenez, *aitarenaren*, *aitarenen*, *aitenaren* eta *aitenen* dakartzalarik, ez

die *—ko-ren* sailean *Erromacoa*, *Indietacoa* baizik parekatzen. Bestela esan, berehala bukatzen zaio, hasi ere baino lehen, bere buruaren berretura berritzeko modua.

Bestetan esandakora natorrela, euskal kantu ezagun bat honela labur daiteke, gramatikaren kalterik gabe: *Aldapeko sagarrarenarenarenan* ongi 'eratu' dago, nahiz eta ulergaitza ez ezik ia ulertezina izan.

Har dezagun beste aldetik. Burgosen dagoen katedrala *Burgoskoa* da. *Burgosko katedraleko leihoak*, berriz, *Burgosko katedralekoak* dira; ez dut uste, haatik, *Burgoskoko leihoak* itxuran ager daitezkeenik. Edota guk ezagutzen dugun edozein euskara modutan *Burgoskoko* ezinezko da, are gehiago *Burgoskokokoa*. Aitzitik, ez da eragozpenik *Erregearena*, *Erregarenarena*, *Erregearenarenarena...* esateko, nekez esango baldin bada ere horrelakorik.

9. Azken predikua egin behar banu, hauze esango nuke. Bai *—ren* eta bai *—ko* erator-atzizkiak dira areago deklinabidekoak baino. Tasun bat dute azkeneko hauekin: *etxe* soilari erantsi beharrean badutela leku *etxe*, *etxea*, *etxeak* oinarri hartzeko.

Euskalki guztietakoak dira, euskararenak, bada. Berdintsu erabiltzen dira non-nahi, erta berdinago erabiltzen ziren lehen orain baino. Aipatu ditudan bereizgarriez gainera, badute beste bat: beste atzizkiak kupidarik gabe har ditzaketela ondotik. Badirudi, beraz, ondasun horietaz ere baliatu behar genukeela. Etxekoak ez luke mirabe izan behar beti, eta kanpotarrak nagusi.

BIZIDUN ZENTZUZKO IZEN SINTAGMAK ETA -KO GENITI- BO NOMINALIZATZAILEA

Donostia, 1986-III-21

Alfonso Irigoien

Aspalditik ezaguna da gure artean deklinabideari dagokiola egiten den bereizkuntza bizigabeko eta bizidun zentzuzko izen sintagmen artean, izan ere bizidunek leku denborazko kasuak hartzeko hesia aurkitzen baitute. Hala ere hesi hori ez da, kasu bereziren batzuetan eta zenbait kondiziotan, ezin hautsizkoa eta Bergara-ko 1978-garren urteko lanean, **Euskera**, XXIV (1978, 737-759, hori argitzen saiatu nintzen, gure hizkuntzak dituen tolesturen ezagupidean urrats bat eman nahirik. Horrela hurrengo hau esatera ausartu nintzen: “Bizidunen zentzua dutenek absolutuki hartzen ez dutena genitibo leku denborazko pluralarekin ez doan eremu osoa da”. “Horrek ez du esan nahi, ordea, edozein egituratan *-ko* delakoak, gramatikazko kasuak bakarrik alde batera utzirik, jadanik deklinaturikako edozein multzo ezin nominaliza dezakeenik, bizidunen zentzua izan edo ez izan”, 741 orr. Azkenengoa Lafitte-k *surdéclinaison* deitzen duena da. Destinatioaren multzoan sarturiko partitzaileetan, ordea, bizidunak ere sar zitezkeela nion: *amerikanoen hiru gizoneko txinoek bost dituzte armatan*, edo *gizoneko horrenbeste*, baina ez **gizoneko eman dit*, *gizonarentzat* edo *gizonarendako* baizik, eta, zertan esanik ez, *-gan-* ezartzen baldin bazaio, bizidunetarako ohi denez, *gizonaganako*, beste ñabardura bat duela (1).

Egia da, esaten den bezala, *-ko* genitibo nominalizatzailea bizidun zentzua duten izen sintagmetan ezin erabil daitekeela euskaraz, baina hori ez da euskaldunen artean beti horrela gertatzen, eta beste zerbait formulatu beharra dago. Izan ere delako genitiboak batzuetan edutezko zentzua, balio posesiboa hartzen du, eta orduan bai, orduan bizidun zentzuzkoekin ere joan daiteke, hala nola: *bi ugazabako etxea kaltea*, Mallabian esaten den errefaua, hau da, *bi ugazaba dituen etxea*. laz Bergara-koa “Post scriptum” bat ezarririk Deustun berrargitara nuen *De*

(1) Bergara-ko Biltzarra amaitu eta gerora Txillardegi-k *Euskal Gramatika*, Donostia 1979, argitara zuen eta zertxobait sartu zuen honezaz, 2.8, 23 orr.

re philologica linguae uasconicae, 75 bis orr., delakoan Euskal Filologia-koentzat. Eraskin horretan esaten da: “Hain zuzen ere e) epigrafean ikus daitekeenez, *hiru ateko etxea* izen sintagman *-ko* genitiboa eduteari dago-kio, hau da, hiru *atedun etxea* bezalatsukoa da. Halakoetan bizidun zentzuzkoak ere ager daitezke, cfr. *bi etxekoandreko sukaldia, gatzet betetako eltzia* errefaua, Antonio Zavala. *Esaera zaarren bilduma berria*, I, Tolosa 1985, n.º 614, eta Oiartzungo *Iturriotz*, 1985 urtekaria, Iturri Berri Elkarteak argitaratua: “Euskera Bizia, Esaera zaharrak”. Edozein euskaldunen artean arrunta da, izan ere, *ehun ardiko artaldea* eta antzekoak erabiltzea, hau da, *ehun ardi dituen artaldea* bezalatsukoak. Beraz, irudian *-(r)en / -(r)e* delakoaren parean hurrengo hau gaineratzen da: *-ko* (edutezko zentzua hartzen duenean)”. Hau da, halakoetan berdin joan daitekeela bizidunekin zein bizigabekoekin.

Iruñeko lanean adierazi nuenez (2), *-ko* delakoak berbo flexioa bera ere nominaliza dezake: *balizco oleac burdiaric ez*, ‘la erreria de si fuesse no aze fierro’, *RS* 1596, n.º 15, eta hor ez da ez leku denborazko, ez edutezko, eta ez beste, nominalizatzailerik hutsa baizik.

Tovar-ek euskarazko *-ko*, genitibo leku denborazkoa eta zenbait deribatu sortu dituen, indoeuropeoaren eremuan agertzen den *-ko-* elementuarekin konparatzen du (3), eta Mitxelena-k, beste alde batetik, uste du izen propioekin eta bizidun zentzua dutenekin hipokoristikoa eratzeko erabili den berbera dela, eta, horrela, eremu osoan distribuzio berezi bat erakutsirik agertzen dela, eta, izan ere, ikuspegi egokia dela dirudi (4). Baina hala ere genitibo moduan ere bizidunekin joan daitekeela eta distribuzioaren eremua horren garbia ez dela adierazi beharrean aurkitzen gara.

(Euskaltzaindiaren aurreko batzarrean 1986-II-28-an irakurri zen Mitxelena-ren txostenari eginikako oharra).

(2) “Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez”, *Euskera*, XXX (1985), 137 orr., baita gure denboretako *balizko erroteak urunik ez*, Arratian esaten den legez.

(3) *El euskera y sus parientes*, Madrid 1959, 69 orr. eta hurrengoak.

(4) Luis Michelena, “Notas lingüísticas a ‘Colección diplomática de Irache’”, *FLV*, I (1969), 9 eta 40 orr.

Baita ere autore beraren “Etimología y transformación”, *Homenaje a Antonio Tovar*, Madrid 1972, 310 orr., n. 22. Bertan, *-ren* eta *-ko* ikertzen dituela, azkenengo hau markatua izanik, honela dio: “La razón histórica de este hueco en el paradigma es, al parecer, que *-ko* con nombres animados conservó —o adquirió— un valor derivativo, ante todo diminutivo (bien atestiguado ya en inscripciones aquitanas), que le apartó por completo de *-ko* en los paradigmas de flexión nominal. Cf. *FLV* I, 1969, 399 s.”.

“EZKONDU” HITZAREN ETIMOLOGIAZ

Donostia, 1986-III-21

L. Roberto Glz. de Viñaspre

“Ezkundu”ren jatorriaz zenbait hipotesi aditzera eman izan da. Esaterako, M. Löpelmannek (1) eta beronen aurretiko beste batzuk ere “esku” hitza ikusi nahi izan dute. A. Tovarrek (2) ikuspuntu zientifikoago batetik iturria latinean bilatu zuen, “*spondere*”tik eratorriz. Egia esateko, ez dago inolako eragozpen fonetikorik “*spondere*”tik “*ezkundu*”rako bilakaera gerta dadin; hala ere, jatorria beste nonbait bilatu behar dela-koan, hipotesi bat besterik ez dena aurkeztuko dugu.

J. Corominasek dioenez (3), “*spondere*”k gazteleraz zein frantseseraz eman dituen berbak (hala nola “*esposo* eta “*époux*”) ez omen dira sekula ere egiazki herri hitzak izan, eta Elizaren eraginez hedaturiko berba sailean kokatu beharra dago. Euskaraz ere “*esposatu*”, “*esposo*” eta “*esposa*” erlijiozko izaera nabarmenekoak dira. Norbaitek pentsa lezake “*aingeru*”, “*bataio*”, “*bedeinkatu*”, etab. Elizak ekarriak diren bezala “*ezkundu*” ere ekarriko zigula, latinaren “*spondere*” euskaldunen ahotan, alegia; baina Elizak Euskal Herriratu dituen latinismo eta helenismo gehienak kristautasunak zekartzan kontzeptu erlijioso berriei dagozkie. Denaren gainetik, ezkontza, gizatalde guztietan, ekintza soziala dugu eta, dudarik gabe, bazegoen euskaldunen artean kristautasunaren etorrera baino lehenago; uste hau areagotzen da Estrabonen bitartez euskaldunak monogamoak zirela dakigularik. Beraz, “*ezkundu*” ez da kontzeptu berria.

Gainera, euskararen inguruko ezein hizkuntzak ez du “*ezkundu*” ideia adierazteko duen berba “*spondere*”tik hartu, beraz harrigarri samarra litzateke euskarak hartu izana. Gazteleraren “*casar*”, esaterako, “*casa-*

(1) LÖPELMANN, M. *Etymologisches Wörterbuch der baskischen Sprache*. Berlin, 1968. 1968.

(2) TOVAR, A. *El euskera y sus parientes*. Madrid, 1959. 27 orr.: “y en los diccionarios vascos se hallan dobles formas como *eskundu / ezkundu* ‘casar’ (de lat. *spondeo*)”.

(3) COROMINAS, J.; PASCUAL, J. A. *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. II. Madrid, 1980. 904 orr.

”ren eratorkina da eta bere jatorrizko esanahia “poner casa aparte” omen da. Berdin dugu portugesez eta katalanez. Dena den, berau ezin omen daiteke arabieraren kalkotzat har (arabieraz: *bānā* (bi-hā) “ezkondu zen (harekin), izatez “eraiki zuen (etxe bat)”) beste zenbait hizkuntzatan ere gisa honetako semantika dagoelako. Errumanieraz, “*căsător*” eta “*căsnic*” “senarra”, “*căsătorî*” “ezkondu”; ertaroko goi alemanez, “*heimen id*” (“*heim*” “etxe”tik) (4); era berean, magiareraz, familia indoeuropeoari ez dagokion hizkuntza, “*megházasodni*” “ezkondu” (“*ház*” “etxe”tik). Aipatutako ejenpluak semantika honen zabalkundearen adierazgarri nahikoa direla uste dut, eta pentsarazi behar digu “*ezkondu*”ren etimologia semantika honen hildotik aurki dezakegula; gainera, semantika hau euskaraz ez zaigu arrotza Erronkariko “*bordaltu*” ere bait dugu, Schuchardtek aspaldian argitu zuena (BhZRPh. VI, 47) “*borda*” (BN, L, R, S) “caserío” “maison de campagne” hitzetik eratorriz; beraz, aintzineko forma “**bordaratu*” litzateke eta hortik “*bordaltu*” (euskara + dun > *euskaldun* bezalaxe, l/r alternantzia dela medio). “*Ezkondu*” ere semantika honen barruan koka daitekeelakoan lehenik fenomeno bat konstatatu beharra dago.

Izan ere, euskaraz badugu [c] eta [č] afrikariekin kontsonantezko metatesis edo trukaketa interesgarria, zeinen arauera txistukaria leherkariaren aurrera iragaten den. Esaterako, “*arrats + iri*” konposaketatik “*arratsiri*” (L) “*arrastiri*” (BN, L, S) “tardecita” “*déclin du jour*” sortuak dira. Haranederrek lehena erabili zuen eta Duvoisin kapitainak bigarrena. “*Arrastiri*” askoz hedatuago dago. Bizkaiko Arratia, Mundaka eta Txorie-ri aldean “*arrasti*” erabiltzen da, bokale arteko dardakariaren galera eginik. Erronkariko Uztarrotzen, bertan ohizkoa zen sinkopatzeko joerari jarraituz, “*arrastri*” forma erabilia zen.

Halaber, ejenplu argitsua “*arrats + ari*” dugu. Bokale arteko dardakari gogorraren galeraz (era berean, “*atsalde*” (AN-b, B-mond, BN-s, L) < “*arratsalde*” eta “*astiri*” (BN) “*crepúsculo*” “*crépuscule*” < “*arrastiri*”), goi nafarreraren dirauen “*atsari*” “comida de la tarde, merienda” “*goûter*” sortzen da. Azkuek ez dakar hitz hau bere hiztegian, baina Aita Diego J. de Alzok (5) goi nafarreraren eremuan jaso du. “*Atsari*” hone-tatik, kontsonantezko metatesisaren bitartez eta *t-k* permutapena eginik, “*askari*” sortu zen. Holako permutapenak ez dira urriak (ik. “*eguasten*” (B) eta “*asteazken*” (AN, BN, G, L, R)). “*Askari*”ren jatorrizko esanahia “merienda” “*goûter*” dugu, eta erronkarieraz eta saraitzueraz holaxe iraun du; Behenafarroan eta Zuberoan “*hazkari*” txistukari ozendun aldae-ra daukate esanahi berarekin “*askari*”rekin aldaketa semantikoa gertatu

(4) COROMINAS, J.; PASCUAL, J. A. liburu ber.

(5) ALZO, D. J. de. *Estudio sobre el euskera hablado*. San Sebastian, 1961. 10 orr.: “*Atsari* (AN.) = comida de la tarde, merienda”.

baita: "askari" (BN, S, Oih.), "haskari" (BN) "almuerzo" "déjeuner". "Askari"tik "askaldu" (BNC), "askaltu" (R), "askaltü" (S) aditzak sortuak dira, denok "almorzar" "déjeuner" esanahia daukatelarik; baina bizkaiera arkaikoan: "Goffaldu, barazcaldu, afcaldu tá afaldu" "Almorzar, comer, merendar y cenar" (6).

Koldo Mitxelenak dioenez (7), ez dago inolako eragozpenik (rtz > rst > st) bilakaera fonetikoa gerta dadin, eta berau jazoten den kasuak ugari dira. Geografiari dagokionez, —st— soluzioa Zuberoa, Erronkari eta mendebaldean eman ohi da: "ber(t)ze", baina "beste" mendebaldean, Izaba eta Uztarrotzeko erronkarieraz eta zubereraz; "or(t)zegun", "or(t)zirale", "or(t)zilare", baina gipuzkeraz "ostegun", "ostiral", zubereraz "ostegün", "osti(r)ale", Izabako erronkarieraz "ostegun", "ostrale" (Uztarrotzen "orzegun", "orzilare"). Mitxelenaren ustez, r(t)z : st korrespondentzia honen arrazoa konposaketan bilatu beharra dago: "En efecto, tanto "ostegun", "ostiral(e)", "ostadar" (< ortzadar) son compuestos cuyo primer miembro es el antiguo nombre del "cielo" y de "Dios". También "bost" y "beste" entran en compuestos: "bostehun", "bestalde"... En ese supuesto el paso por intervención rtz > st nada tiene de extraño, pues de "ikatz" y "(h)obi" p. ej. resulta "ikaztobi". Fenomeno bera dugu lehen nafar erregearen izenean: Eneko (H)aritz > Enneco Arista. Beste ejemplu bat (H)aritz + ondo > "Ariztondo, Aristondo" deitura da, "—zt—" eta "—st—" soluzioekin. Bilakaera bera dugu A. Irigoienek argitu duen "García" antroponimoan: "*Gartzea" > "Gaztea", "Gastea" (8), beraz [s] eta [š] txistukariekin. Leherkari aurreko egongunean [š] eta [s] arteko nahastea hedatuta dago oso, eta badirudi lehenak bigarrena desplazatzeko joera duela. Nahaste honetaz dauzkagun testimonioak aintzinekoak dira. Landucciren hiztegian (9) "estaldu" "encubrir" dugu, baina jarraian, ordea, "eztalguilea" "encubridor", eta berba biok elkarren ondoan daudenez, suposatzekoa da eskribau berak idatziak direla. 1609an Iruinean sarituriko olerkietan —denak hegoaldeko goi nafarreraz idatziak—, hiru irabazleak ez datoz bat "guzti" idazterakoan; holaxe, Pedro de Ezcurra eta Miguel de Aldazek "guzti" idazten dute, Joan de Eliçaldek "gusti" idazten duelarik (10). Geroago, Lizarraga Elkanokoak zalantza nabarmena erakusten du, "gusti" nahiz "guzti" erabiltzen bait du. Ezaguna da idazle honek txistukari biok ondo bereizten dituela, beraz suposatzekoa da idatzitakoa bizi zen ingu-

(6) URQUIJO, J. de. *Los refranes y sentencias de 1596*. San Sebastian, 1964. 161 zbk.

(7) MICHELENA, L. *Fonética histórica vasca*. San Sebastian, 1985. 18.14.

(8) IRIGOYEN, A. *Sobre el topónimo GASTEIZ y su entorno antroponímico*. Bilbao, 1981.

(9) LANDUCCI, N. *Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*. Manuel Agud eta Luis Michelenak paraturiko argitarapena. San Sebastian, 1958.

(10) MICHELENA, L. *Textos arcaicos vascos*. Madrid, 1964. 3.1.20.

ru hartako ahozkeraren fidela dela. Era berean, “gazte” eta “bazter” orokorren ordez “gaste” eta “baster” idazten du beti.

“(H)ortz”en konposatueta bilakaera hauxe da: *rtz* > *sk*, *zk* gorago aipaturiko kontsonanteen arteko permutapena dela medio (ik. “*atsari*” > “(h)*askari*”, “(h)*azkari*”). Ad. “(h)*oskin*” (BN, L, S) “*dentera*” “*agacement des dents*” (< *(h)ortz + min); konposatu honen bigarren elementua ageri dago erronkariaren “*ozkamin*” “*dentera*” “*agacement des dents*” hitzean. Tolosa aldean “*aginak oskitu*” esaten da, eta Markina, Oñati eta Ubidean “*aginak koskitu*” “*producirse dentera*” “*agacer les dents*”, lapurteraz dirauen esanahi bereko “*hortzkitu*”tik eratorriak. Landucciren hiztegian ere “*aguinā cosquitua*” “*dentera*” “*agacement des dents*”. Azkuek biltzen du “*osk egin*” (AN, G) “*morder*” “*mordre*”, erronkariaraz “*ortzez egin*” esaten zena Azkuek berak dioskunez (11).

“*Atzamar*” > “*atzapar*” > “*astapar*”, “(h)*aztapar*”. Mogel izan zen bizkaieraren “*atzamar*” “(h)*atz*” eta “(h)*amar*”etik eratorri zuena (12). Mitxelenak dioen bezala (13) “*atzapar*” eta “*astapar*”, “(h)*aztapar*”en *p* hori adierazkorra dateke; dena den, *m/b* (*p*) alternantziaren zenbait ejemplu dago, esaterako: “*ipini*” (AN-oy, B-a-l-m, Gc)/“*imini*” (B-g-l-m-o-tx-ub, BN, Sal) “*colocar*, *poner*” “*caser*, *placer*”. Hirugarren pausoa komentatzen dihardugun kontsonantezko metatesisa da: “*astapar*” (BN-s, R) “*garra*” “*griffe*” eta “(h)*aztapar*” (AN-b-est, BNc, R, Sc). Oso inportantea da ikustea hemen ere kontsonanteen arteko permutapena gertatu dela, eta holaxe badugu: “*haztatü*” (Sc) eta “*hazkatü*” (BN-ald-baig, S-li) “*ras-car*” “*gratter*”. “(H)*atz*”en beste eratorri batzu hauek ditugu: “*atzazal*” (B-mu) > “*azkazal*” (AN-est-lar, G) > “*ezkazal*” (AN, L-ain), “*azkazal*”en aldaera disimilapenaz.

Esanda dagoenez, aztertzen ari garen kontsonantezko metatesisaren jatorria konposaketan datza, baina konposatuak ez diren hitzetan ere ager daiteke gezurrezko errestituzio edo itzultzea egin delako: “*haz*” (BN, L) “*rastro*, *vestigio*”, “*trace*, *vestige*”, baina “*aska*” (AN-etx, BN-s, S) esanahi berarekin.

Gogoan izan dezagun oraingoan “*azken*” (B, G, L, AN-est-lar-oy) “*fin*” “*fin*” eta (AN-est-lar, B, BNc, G, L, R, Sc) “*último*” “*dernier*”, Bizkai eta Gipuzkoako “*atzen*” “*fin*, *último*” “*fin*, *dernier*”etik datorrena. Badaude ere “*-asten*” eta “*-azten*” aldaerak bizkaieraz: holaxe, bizkaiera

(11) AZKUE, R. M. de. *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbao, 1905.

(12) MOGUEL, J. A. de. *El doctor Peru Abarca catedrático de la lengua bascongada en la universidad de Basarte ó diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*. Durango, 1881. 54 orr.: “Cetaco emon euscuzan Jangoicuac amar atzac edo atzamarrac?”

(13) MICHELENA, L. *FHV*. 276 orr.

arruntean, “*eguasten*”, Landucciren hiztegiak ere “*eguastena*” dakar; Añibarron, ordea, “*eguaztana*” irakurtzen da, eta gaur egun ere Markina-Etxebarria eta Bolibarren “*eguezten*” entzun daiteke. Bizkaiko beste aldear batzu hauexek ditugu: “*eguesten*”, “*egusten*”.

Ejenpluak aipatzen jarrai liteke, baina [c] eta [č]k konposaketan jasan dezaketen metatesiaz ohar gaitezen aski delakoan gaude. Metatesis hone-tatik sortzen diren ondorenak –st–, –zt–/–sk–, –zk– ditugu: “*haztatü*” eta “*hazkatü*”, “*azten*” eta “*azken*” *t-k* permutapena dela medio.

Fenomeno honen konstatapena eginez gero “*ezkondu*”ren jatorrizko esanahia argiagoa dirudienez dakiguke lan honen hasieran aipaturiko semantika bait darama. Izan ere, “*ezkondu*” < **etse* + *ondu*. Gaurko “*etxe*” ia orokorra “*etse*” zaharragoaren bustidura da. Hain zuzen ere, “*etse*”k Euskal Herriko bi muturretan iraun du gaur arte (B-a-b-m-o-tx, R), eta berau aintzinasan adierazgarri izan ohi da. Landucciren hizte-gian ere “*etse*” dugu. Zenbaitek “*eskondü*” idatzi du. Bizkaiera arkaikoa-ren “*eskondü*”k “*alcanzar*” “*atteindre*” (ik. “Ychadonic choria efcödu ney” R.S. 457.) ez du zerikusirik “*ezkondu*”rekin, baizik eta Leizarragak darabilen “*erskondu*” “*consolidarse*” “*s’affermir*”ekin lotu behar dugula. Aditz hau Behenafarroako “*erskon*” “*gallardo, fuerte, de buena salud*” “*gaillard, vigoureux, de bonne santé*”tik sortua da. Haranederrek ere “*eskon*” “*sólido*” “*solide*” eta “*eskontasun*” “*solidez*” “*solidité*” darabil-tza. “*Erskon*” eta “*eskon*”en parean “*erskor*” “*aglutinante*” “*agglutinant*” eta “*eskor*” “*estíptico, astringente*” “*styptique, astringent*” ere baditugu; dudarik gabe, jatorrizkoa “*erskor*” da (< *(h)erts(i) + kor) eta geroagoko “*erskon*” zein “*eskon*” formetan azken egonguneko *r>n* pausoa ematen da. Berdin jazoten da “(h)azkor” (Bc, R, L-ain, BN-ald) > “*azkon*” (B-a-d-m), biok “*crecedero, propenso a crecer*” “*de belle venue*” esanahiarekin.

“*Ezkondu*”ren bigarren osagaia beste zenbait aditzetan ageri dagoen “*ondu*” aditza da. Esaterako, bizkaiera zaharrean “*gomondü*” “*acomodar*” “*accommoder*”; Aita Larramendiren “Diccionario Trilingüe”aren Gehiga-rrian (14) jatorri ezezaguneko “*izorondü*” hapaxa dugu “*zurrar cueros*” esanahiarekin; Mitxelenak dioenez (15), agian *ondu*”rekin osatua. “*Ondü*” (“*hundü*”, “*hüntü*”), jakina, bera bakarrik ere oso erabilia da; esaterako, guri interesa zaigun “*preparar*” “*préparer*” esanahiarekin “*jakiak ondu*” “*preparar los alimentos*”.

Gaur egun, “*ezkondu*” iragangaitza da Euskal Herri osoan “*ondu*” iragankorra bada ere. Alabaina, “*ezkondu*” jatorriz iragankorra dateke,

(14) LARRAMENDI, M. Aitak bere *Diccionario Trilingüe (1745)*aren bigarren tomoari erantsi zion zortzi orrialdetako gehigarria.

(15) MICHELENA, L. *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Bilbao, 1970. 133 orr.

baina hiztunentzat esanahi etimologikoa ilundurik, eta erdararen “*casar*” iragangaitza izatearen eragina ahaztu gabe, arin iragangaitz bilakatuko zen. Gazteleraz ere, Spitzerren ustez (MLN LXXIV, 142), jatorrizkoa iragankortasuna dateke: (Nork) seme-alabak ezkondu”, “dotarlos de casa” esanahiarekin.

Konposaketan edo eratorketan jazo daitekeen “*etse* > *esk*-, *ezk*-” bilaka era honen beste zenbait ejenplu adierazgarri dago; noski, “*ezkondu*” bakarra izanez gero orain arte esandako guztiak ezer gutxi balioko bait luke.

Baditugu “*eskape*” (Bc) eta “*eskapei*” (B-mond) “Zaguán, portalada” “vestibule, porche”, eta “*eskepe*” (B-g-m-ub) “sotechado, tejavana, atrio” “porche, hangar, atrium”; hirurak < * *etse* + *behe*. Lehenengo bietan elkarketan ager daitekeen “*etsa*-” aldaerarekin. Arrasateko “*eskapei*” horretan aspiraketaren galeraren ondoren disimilapena eginez: *ee* > *ei*. “*Eska-pe*”tik “*eskaperratu*” (B-oñ, F. Seg.) “seducir” “séduire”.

Badugu ere “*eskaratz*” (Bc, G), “*ezkaratz*” (AN-b) eta “*eskaratze*” (AN, BN, L, R-is, S). Bizkai eta Gipuzkoako Goiherren esanahia “cocina” “cuisine” da, beste lekutan “recibidor, sala de visitas” “salle de réception” delarik, eta Baztanen eskuarki “establo, cuadra” “étable, écurie” eta zenbaitentzat “planta baja, entrada” “rezde-chaussée, entrée” ere bai.

Batzuk, esaterako Novia de Salcedok (16), “*esku*” hitza ikusi nahi izan dute hemen. M. Löpelmannek (17) etimologia ilunekoza zaiola aitortu ondoren latinaren **ex-quadrāticum*-etik eratortzea proposatzen du. Nire eritziz, aldiz, “*etse*”ren beste konposatu baten aurrean gaudeke: **etse* + *laratz* > **eska(r)aratz* > “*eskaratz*”, “*ezkaratz*”. “*Eskaratz*”ren azken “*e*” hori lasu inesiboan eransten den lokarri fonetikoa dateke; beraz, “*eskaratzean*”etik “*eskaratze*” nominatiboa sortuko zen. Erdararen “*lar*” (< latinaren “*lar*” “supazter”) zenbait lekutan laster esanahi berria edukitzera iragan zen “cremallera” “crémalleire” (ik. Covarr: “*lares*”: los hierros que están en el hogar, de los cuales cuelgan los calderos para calentar el agua y guisar”). Euskarak hitzaren esanahi berria bereganatu zuen: **lares* > “*laratz*”. Corominasek dioenez (18), -*es* > -*etz* bilakaera bide dago (ik. “*gorputz*” < “*corpus*”, etab...) eta bokalezko asimilapena. Beraz, “*eskaratz*” erdararen “cadenas del hogar” bera dugu, “supazter” esanahiarekin erabilirik; zenbait lekutako “recibidor, sala de visitas” “salle de réception” esanahia Azkueren hitzetan “por ser una misma en las

(16) NOVIA DE SALCEDO, P. *Diccionario etimológico del idioma bascongado*. Tolosa, 1887.

(17) LÖPELMANN, M. liburu ber.

(18) COROMINAS, J.; PASCUAL, J. A. liburu ber. III. 586 orr.

aldeas de Bizkaia la pieza destinada a recibir visitas y aderezar la comida” dateke (19).

Baliteke Aita Larramendiren Gehigarrian agertzen den “*azquina*” “casera, hacendosa” hapaxak ere guzti honekin zerikusirik izatea; geroago ez da beste inon azaltzen, eta Azkuek ere ez dakar bere hiztegian. Bere egitura ez da argia batere, eta Mitxelenak zera proposatzen du: “Por su formación (sobre (h)azi, “crecido”?) recuerda a “auzquin” “pleitista” de R.S. 75: “Oparinac nenguiã bearguin ta alperqueric auzquin” “La necesidad me hizo obrero y la vagamundez pleitista” (20). Agian, berriro ere *etse*-> *esk*-, *ezk*- fenomenoaren aurrean egon gaitezke: **etse* + *gin* (ik. “(h)aurgin” (BN, L, R, S), “*haurkin*” (BN-ald, L) “amante de niños” “qui aime les enfants”, etab...).

Etse-> *esk*-, *ezk*- bilakaera toponimian zein neurritan dagoen jakitea oso interesgarria litzateke, baina beronek tratamendu sakonago eta zabalago eskatzen duenez hurrengo lan baten aztergai izango da.

(19) AZKUE, R. M. de. liburu ber. I. 276 orr.

(20) MICHELENA, L. *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. 70 orr.

UME ERDELDUNEN EUSKARAREN INGURUAN

Donostia, 1986-IV-25

Paki Arregi

Euskalerrian, elebitasuna eskoletan sartu denez geroz batikbat, irakas ereduak eta azterketa ereduak ematen dituzten ondorioak ikusirik, era askotako beharrak nabari dira. Hauetako batzu ebaluaketa sistemari eta hizkuntz ereduari berari dagozkionak dira. Hizkuntzen inguruan dauden teoriak, ondorengo gramatikak eta joera didaktikoak baldintzatzen dituzte, eta azkenik hauek denak dira hizkuntzaren irakaskuntzari eragiten diotenak.

Irakaskuntzako gai gehienen antzera, hizkuntzak ere baditu jomuga eta helburu batzu, baita programa, metodo eta bitarteko zenbait ere. Guzti hauek, aurretik hizkuntzari buruz dagoen ezagutza oinarritzen dira gehienetan; zaila baita adibidez perpausean bukatzen den gramatika batez baliaturik, hizkuntza komunikazioa bezala bultzatzea, horretarako behar diren zenbait erreferentzi, gramatika era horrek eskaintzen ez dituelako. Hizkuntza komunikabide bezala irakasteak, perpausaz gain dauden lokarri, ohitura, legeak eta beste bilatzen eta egokitzen saiatzea eskatzen du.

Azkeneko bi hamarkada hauetan, hizkuntzaren irakaskuntzan egin diren aurrerapenak nabarmenak izan dira. Aurrerapen hauek bi lekutatik etorri dira: Hizkuntza baten irakaskuntzaren inguruan sortutako beharrei erantzunak emanez etorri diren bideak dira batetik, eta, linguistika alorretik ere, hizkuntza zentzu zabalago baten ikusteko egin diren ahalegi- netatik besteak. Bi ikusmira ezberdinetatik, baina hala ere bai batzu baita besteak ere, saiatu dira hizkuntza gizarteko elkar ekintza baten barruan, komunikazioak duen hitzezko konprezio edo zehazte bezala ikusten.

Irakaskuntza, ondorioetatik neurtzen da bestalde, ondorioetatik hasi eta prozedura osoa da errebisagarri. Ebaluaketak, ez du emaitzen neurketak bakarrik zeregintzat, hortik hasiko bada ere, objektua eta bere ezagutza ere kuestionatzea bidezkoa da, kasu honetan hizkuntza komunikazio ikuspegitik.

Lan honetan, bost urteko haur erdeldunek euskararen aprendizaien agertzen duten neurria laburki bederen, ikusi ahal izango da. Ez ohituta gauden neurgailuekin, saiakera gisa, beste era batera ikusten ahaleginduko gara; ikuspegi hau, zati haundiagotan egina azalduko da, testuan eta bere zati diren enuntziatueta jarriko dugu erreparoa. Haur hauek guztiak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eraturako “B” eredua zeramaten zentroetakoak dira. Eskola hauek, ordea, giro aldetik ezberdinak ziren, hau da, ingurugiroa oso euskalduna zuena, ingurugiroan erdara ere sartzen zena, elebiduna; eta azkenik hirugarren motakoak nahiz eskola egun erdian euskaraz eman, inguru giroa erdelduna zutena. Hizkuntza bat irakasteko, inguruak garrantzi handia du eta inguruaren arabera ematen dira normalki ondorioak ere. Dena den, hemen, hizkuntza aldeko alderdi batzuei bakarrik begiratuko zaie.

Haur hauei hizkuntz test baten bidez atera erazi nahi izan zitzairen ze euskara zuten, ze nolako hutsak egiten zituzten, erabiltzen zuten euskarak zerbait komunikatzeko balio zuen, t.a. Probak, zenbait alderdi ezberdin bazituen: Hiztegia, esaldien sintasi egitura, ekintza batzuen adierazpena eta bi kontaketa. Azkeneko hauek irudizko euskarria zuten eta lehenengoa, inkestatzaileak aurrez agertua izan zen; bigarrena bat batean asmatu behar zuen haurrak, baina honek ere irudia zuen euskarri. Hemen, lehenengo zatian, haur baten kontaketa ikusiko da testu ikuspegi, bigarren zatian, beste kontaketa ikusi ahal izango da, baina zenbakitan, hau da, haurrek azaltzen duten neurria, testuan, enuntziatueta eta perpausetan. Bigarren zatian azalduko diren haurren kopurua 63-koa da eta ematen diren neurriak, eskola tipo bakoitzeko, banaz bestekoak eta porzentaiak dira.

1. Testua

Kontaketaren aurkezpena

Kontaketak, esan berria dugun bezala, biak diferenteak ziren, prozeduraz behintzat. Lehenengoa, inkestatzaileak agertu egiten zion haurrari hitzez; ondoren haurrak, entzundako erreferentzia horrekin eta irudiak berari esaten zionarekin, kontaketa osatzen zuen ahoz. Haur txikiak zirenez, guztia kazetaz jasotzen zitzairen. Bitarteko hau, nahiz luze samarra gertatu, gero testuak aztertze beharko ziren xehetasunak eskainiko zituelako egin zen.

Kontaketaren emaitza. Erantzuna (haur batena), hau izan zen:

“Hemen, Nerea bere gelan... hartu du guraizea eta egin du neska, txakurra...

eta gero pentsatu du:

— Zer egingo det?

— Badakit, ilea mozten...

eta gero Nerea amatxo sartu da eta esan du:

— Nerea, zer ari zara egiten?

— Ilea mozten, ari zara, ari da...

eta gero esan du amatxo:

— Etorri nerekin, goazen ispilura ikusten, eta joan da eta ikusi du Nerea, ikusi du oso itxusi.a zegoela eta triste gelditu da.”

Kontaketaren azterketa

Emaizta honen analisisia, gramatika eredu normalez eginez gero, huts nabarmenenak morfologia sailekoak dira:

— Amatxo, Nerea; amatxoK, NereaK-en orde.

— Nerea amatxo; NereaREN amatxo-ren orde.

— Ari zara, ari da; ARI NAIZ-en orde.

Hizkuntza normaletik desbideratze hauek, gure eskoletan oso kon-tuan hartuak izaten dira eta berprogramaketan, hauei ekingo zaie berezi-ki. Ikaslegoari oso txukun erakutsiko zaizkio kasuak, aditzak eta gainera-koak, baina, zatikaturik, hau da, unitate txikietan banaturik, zabalerarik gehiena perpausak bere izen sintagma eta aditz sintagmatekin osatuko du.

Ikuspegi honetaz bakarrik baliatzen bada, gure hizkuntzarekiko ira-kaskuntza mugatuegia egiteko arriskua dago. Honek ez du esan nahi pauso hau beharrezkoa ez denik, errealitate hori zabalagoa eta konple-xoagoa denez, berarengana hurbiltzeko analisi zorrotzago baten atzetik joatea derrigorrezkoa dirudiela bakarrik.

Kontaketa testu ikuspegiz

Ikusitako haurren emaitza hori, bere osotasunean hartu nahi bada, hau da, hizkuntz komunikazioa aztertzeke unitate bezala, ikusitako hiz-kuntz muestra hori, beste era batera irakurri beharko litzateke. Testua

komunikazio oso bat bada (1), kontaketa horretan gogoan izan beharko da hori.

Testu honen azterketan hasi baino lehen kontuan hartu behar da lehen esandakoa: Irudi batean oinarritua dela, irudiaren hitzezko agerpena dela. Bestalde, haurren adin eta hizkuntz bereizgarriak gogoratuz, testu honetan egin diren perdesak ere, neurri batean, irudiak berdintzen dituela. Horregatik, haurrak egindako hutsak, ez dute derrigorrez eragotzen testuaren mezua.

Testuaren tipologia. Testu hau aztertzeko bide bat baino gehiago har daiteke, ez zehatzegiak (2), baina, hala ere, hurbil erazteko gai dira. Testu hau ezaguna da, jakina da aurrez, zer nolakoa den eta zer berezitasun dituen, baina, ezagutzen den hau klasifikatzeko dauden ereduetatik bat aukeratu da. Eredu hau, SANDING, B.-K (1975) (3) proposatua izan zen eta honetaz baliaturik ikusiko da, sarrera gisa, testuaren tipologia.

Eredu hau hogeia adierazleaz osatua dago, eta adierazle bakoitzak hiru aukera ditu: (+), (−) eta (±), gehi, ken eta gehiken ikurren bidez.

Testu honen bereizgarri nagusienak, hauek dira

- | | |
|-------------------|--|
| 1. (+ Ahoz.) | : Testua ahozkoa da. |
| 2. (− Batbat.) | : Ez da bat batekoa, irudizko euskarria duelako eta aurrez agertu zaielako. |
| 3. (+ Bakarizk.) | : Bakarizketa da. |
| 4. (± Elk-bakar.) | : Elkarizketa duen bakarizketa da. |
| 5. (+ Lek-har.) | : Hiztuna eta entzulea leku berberan daude. |
| 6. (+ Den-jak.) | : Denbora jakin batean ematen da komunikazioa, adibidez eskutitza ez da denbora jakinean ematen. |
| 7. (+ Entz-har.) | : Esaten dena entzuten da, hots harreman zuzena dago. |
| 8. (+ Has-jak.) | : Testuak hasera jakina du irudiak agintzen duelako. |
| 9. (+ Buk-jak.) | : Testuak bukaera jakina du. |

(1) LAZARO CARRETER. "Diccionario de términos filológicos" (1974), 391 orr. Ed. Gredos, Madrid.

DUBOIS, J. "Dictionnaire Linguistique" (1974), París.

(2) CICOUREL. Three Models of Discours Analysis: The Role of Social Structure". Discours Processes 3.

ISEMBERG, (1978) eta WERLICH (1976), ikusi BERNARDEZ, E. (1982) "Introducción a la Lingüística del Texto". Ed. Espasa Universitaria, 217-219 orr.

(3) Eredu hau (2), oharrean aipatutako liburuan ikusi, 222. orr. Lan honetan, eredu hori zerbait laburtua eman da, baina oraindik gehiago egokitu eta labur daiteke, testu eta kontestu alderdiak bereziaz.

- 10. (– Egit-ber.) : Testuak ez du konbentziozko egitura be-rezirik.
- 11. (+ Gai-ber.) : Gaia ere irudiak mugatzen du neurri ba-tean.
- 12. (+ 1go-P.) : Interakzio era honetan, aditza hiru pertso-netan erabili da.
- 13. (+ 2.P.) :
- 14. (+ 3.P.) :
- 15. (± Agint.) : Agintekera eman da lehenengo eta bi-garren pertsonetan.
- 16. (± Ad-den-mug.) : Testuak ez du berez aditz denboraren mugarik, baina gaia nolabait emana dagoe-nez, (±) horrela klasifikatu da.
- 17. (+ Labur.) : Testu honetako elipsiak laburdura beza-zala eman dira.
- 18. (+ Errep.) : Ikusi du Nerea, ikusi du... errepikapena bezala hartu da.
- 19. (+ Bes-Adier.) : Beste adierazle batzu. Hitzez aparte, iru-dia erabili da.
- 20. (± Hiz-Berd.) : Hiztunen arteko berdintasuna, honela iku-si da (±), ze, nahiz hizauna eta inkesta-tzailea izan, haien arteko harremana fami-liarra izan baita.

Horrela SANDING-ek adierazgarri hauen konbinaketaren bidez, tes-tua laburtu eta argitu egin nahi du. Hori lortzeko prozedura, konbinazio posible guztiak egitea da, emandako elemento horiekin; ondoren, emai-tza ezberdin bakoitzari tipologian izen bat ematen dio. Eredu honen desarroiloa nahiko zabala gertatzen da, behar bada berreraketa bat behar du, laburtuz, erabilgarriagoa izan dadin.

Adierazgarri horiekin, klasifikapen koadro bat egiten du eta hemen, testu adibide batzu ipintzen ditu: Eskutitza, iragarkia, irratiko berriak eta famili giroko elkarrizketak. Eta hauen ondoan, hona gure testua ere:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
Eskutitza:	–	±	±	–	–	–	–	+	+	–	±	+	+	+	±	±	±	±	+	±
Iragarkia:	±	±	±	±	±	±	±	±	±	–	±	±	±	±	±	±	±	±	±	–
Irrat. ber.:	±	–	+	–	–	+	+	+	+	–	–	–	–	+	–	+	–	+	+	–
Fam. elkar.:	+	+	–	±	+	+	+	±	–	–	–	+	+	+	±	±	±	+	±	±
Testu hau:	+	–	+	±	+	+	+	+	+	–	+	+	+	+	±	±	+	–	+	±

Hemengo testua, beste hauekin konparatuz, famili giroko eta irratiko berrien inguruan agertzen da. Irratiko berriak badute euskarri bat, berria bera batetik eta bestetik irratilariak berak badu halako askatasun bat, berak nahi duen ikuspegia ere sartzeko. Famili giroan berriz, prestaturik ez dago ia ezer, berezitasunik nagusia bat batekoa izatean datza. Testu honek, edukina bera famili girokoa du, testuan azaltzen diren pertsonaiak, tresnak eta gainerakoak. Hala ere, testuak baditu beste bereizgarri batzu, eta hauek famili girotik apartatu egiten dute; hauek prozedurari dagozkionak dira: Testua ez da bat batekoa, eta, neurri estu bat ez badu ere, badu, halako kondizionante bat, irudia. Baldintza honek egiten dio irratiko berrien ereduaren hurbilean ere agertzea.

Bi eredu horien zatiekin egindako testu hau, eskola giroko testua da. Oraingo eskola testua bezela izenda daiteke, baina eskolan testu mota asko izaten dira eta horregatik eredu hau, haserako interesgarria bada ere gehiago landu beharrekoa da, testuak zehatzago erabakitzeko gai izan dadin, testu bakoitzak dituen hizkuntz era ezberdinak azpimarkatuz. Kasu honetan eta kontaketa denez, aditz aldetik hirugarren pertsona dugu gidari, baina beste ikuspuntu batetik, haurren hizkuntzaren ikuspuntutik, aditz pertsonetan lehenengo eta bigarren pertsona erabiltzeak, agintezko edo enfatiko erako hizkuntz elementuak erabiltzeak t.a. haur-hizkuntzara hurbiltzen duela ez dago dudarik. Testuaren egoera, pertsonen arteko interakzioak eta testua egiteko erabili diren prozedurak, elkarrekin zer ikusi haundia badute ere, hemen, testuaren hizkeraren ezaugarri batzu hizkeraren azaltzen adierazten saiatuko gara; lan honek leku eta denbora muga batzu dituelako.

Testuaren komunikazio neurria eta bere egitura

Gaian sartu baino lehen aipatu behar da testutzat zer ulertzen den. Testua, komunikazio osoa duen hizkuntz gorputza da. Komunikazioa bestalde era askotakoa izan daiteke, baina dena den komunikazioa ematen duen hizkuntz zatiari deituko zaio testua. Zentzu honetan, testua izan daiteke, hitz bat, perpausa bat edo perpausaldi bat edo baita eredu normaletik at dauden beste hizkuntz eredu batzu, edo liburu oso bat ere. COSERIU-k, hizketa produktu partikular bezala ikusten du, autore honentzat hizketa produktu bezala, hori izango litzateke testua. Bestalde, linguistikaren historian izan diren hainbat saio, hiru hauen inguruan egon daitezke: Hizkuntzaren unitate adierazgarria perpausa da eta testua, perpausen bildumak egingo luke; hau da, testua perpausen zabalkundean ikusten dute, adibidez, HARRIS, Z.-rena. Beste jarrera bat ere izan da, honen barruan, Testu gramatika sortzen da, hizkuntz elementuak eta semantiko elementuen azterketaren ondorio bezala; hauek testua hizkuntzaren paradigmen eraikitze bat, baina eraikitze hori sintagmatikoa da.

Postura honetan, beste batzuen artean, HJELMSLEV, dago. Hauen ondoan, hirugarren joera bat, hauentzat testua da hizkuntzaren unitateetan adierazgarriak nagusiena, eta honen analisiaren bidez Testu Teoria batera iristen dira, hemen, PETOFI, VAN DIJK, DESSLER, RIESER, ISEMBERG, t.a. izan ziren, hauek testu ikuspegia, perpaus ikuspegia baino osatuagoa bezala ikusten dute.

Azkeneko multzo honetan bertan ere, badira elkarrenganako hainbat ezberdintasun, hala ere, guztiek aitortzen dute testuak duen komunikazioarekiko lokera.

Testu hauekin egin den azterketan saiatu da hirugarren joera horretara hurbiltzea, haurraren testua, bere komunikazio egoeraren ikuspegitik ikusi ahal izateko. Dena den, esan beharrekoa da, komunikazio egoera, hemen agertzen den baino askoz zabalagoa dela; hemen, juxtu-juxtu, irudia? eta bere egoera hartuko da komunikazioaren ezaugarri bezala; baina hau askoz zabalagoa da, elkarren arteko hizketa hori bi pertsonen artean egiten da, leku konkretu eta denbora jakin batean; horregatik, bakoitzaren uste, ezagutza, siniste, ohitura, portaera, eta beste hainbat faktorek osatzen dute egoera hori; hau da hemen ikusiko den egoera horren estalpean, gizaki eta giza talde oso baten kultura dago bere xehetasun guztiekin.

Aurkeztutako testuaren egitura ikusi nahi bada, era honetara deskribatu daiteke:

TESTUA

KOMUNIKAZIO EGOERA

Haurra gela batean mahai ondoan eserita, goraizeak eskuan dituela zenbait irudi mozten azaltzen da.

Esku batean ile mataza bati heldu, bestean goraizeak dituela, ilea mozteko jarrerari dago.

Azkeneko ile zirrizta mozten ari denean, emakume bat atean dago, bere aurpegian arrotz jarrera du.

Ispilu aurrean daude emakumea eta haurra; honek aurpegi tristea du.

HIZKUNTZA GUNEA

“Hemen, Nerea bere gelan... hartu du guraizea eta egin du, neska, txakurra...”

eta gero, pentsatu du:

—Zer egingo det orain?

—Badakit, ilea mozten...

eta gero, Nerea amatxo sartu da eta esan du:

—Nerea, zer ari zara egiten?

—Ilea mozten ari zara, ari da...

eta gero, esan du amatxo:

—Etorri nerekin, goazen ispilura ikusten, eta joan da eta ikusi du Nerea, ikusi du oso itxusi.a zegoela eta triste gelditu da.”

Testu hau bi adarrez osatua dago, testu guztiak bezala. Hizketan hasterakoan emana den egoera (4), kasu honetan gainera irudia, beste kasuetan, hiztunak entzuleaz eta bere egoeraz duen ustea, hau da, hiztunak esango duenaz entzuleak dakiena, hiztunaren ustez. Informazio berria ematerakoan, entzuleak dakienaren edo hiztunak dakiela suposatzen duenaren gain egingo da (5).

Bi adar horien lokera Pragako eskolari zor zaio eta lehenbizi perpaus mailako azterketera aplikatu bazen ere, ondoren testu linguistikak bereganatu du alderdi hau. Testu linguistikan, esan dugun bezala diferentziak eta haundiak daude, baina alderdi honen kontsiderazioa ere guztiak aintzat hartzen dutela dirudi, hiztunaren komunikazio neurriaren adierazle baitira. FOSSESTOL-ek (6) hau dio: "Tema eta rema ez dira beti bereizgarri azaleko egituraren bidez. Tema eta rema sakoneko mailan defini daitezke, banaketa honen bidez, semantiko eta sintaktiko zentzua erabakitzen baitute." Testua aztertzerakoan, egoeraren berri emateak, hizkuntz komunikazioaren maila ulergarriagoa egiten baitu eta era berean baita hizkuntz analisia erreztu ere.

Testu honen lehenengo adarrean, egoera bat agertzen da eta bigarrean hizkuntzaren bidez bere pareko komunikazioa ematen da, hau da zentzu osoago bat ematen zaio. Bi adar horietan erreparoa zorrozten bada, ikus daitezke lehenengo adarrean halako egoera zati batzu, zatiak, baina, egoera orokorraren osagarri direnak. Bigarrean ere berdin gertatzen da, hemen ere aurki daitezke testu zati batzu, egoera zatiekin parekatzen direnak; horiei, enuntziatua deituko zaie.

Testuaren enuntziatuak

Enuntziatua, komunikazioa ematen duen testu zatia bezala kontsideratu da. Enuntziatuak komunikazioa agertzen du beti; perpausak eta hitzek ere, ager dezakete, baina ez derrigorrez. Ezda testua, testuak komunikazio osoa beregan duelako, ez da perpausa ere.

(4) KATZ. "La philosophie du langage". Ed. Payot. Paris 1971, 87-92 orr. JAKOBSON. "Essais de linguistique générale". Ed. Minuit. 1963, 45-49 orr.

LIEBANA, C. "Aportaciones al estudio del lenguaje infantil en Madrid" (1982). Ed. Universidad Complutense. Madrid, 61 orr.

(5) HUSSERL, E. "Ire Recherche logique: Expression et Signification" Collection Ephiméthé" (1961), 32-34 orr.

MERLEAU-PONTY, M. "Phénoménologie de la Perception" (1945). Ed. Gallimard. Paris. "Les relations avec autrui chez l'enfant". (1963), Centre de Documentation Universitaire, 14-15 orr.

(6) FOSSESTOL, (2.) oharrean aipatutako BERNARDEZ-en liburuan, 127 orr.

DUBOIS-ek (7) "Enuntziatu hitzak, hiztun batek edo gehiagok egiten duen hitz segida mugatua agertzen du", "...enuntziatuak perpausa bat edo gehiago izan ditzake bere baitan", "...batzutan enuntziatua proposizio baten edo proposizio kate baten sinifikazioa da".

LAZARO CARRETER-ek (8) "...diskurtsoaren parean ikus daitezkeen zentzu osoko hizkuntz produktua. Horrela, perpaus bat izan daiteke, baita perpaus aldi bat ere".

ROZENTAL-TELENKOVA-k (1978) (9) "Elkarrekin jositako perpausek sortzen duten multzo sintaktiko estilistiko berezia. Perpausak elkarrekin lotzeko bide ezberdinez baliatzen dira: Lesiko, morfologiko, sintaktiko, erritmo-doinuzko, estilozko, t.a.", "...semantiko osotasun bateko komunikazio unitatea, VYSKAZYVANIE, hau da, enuntziatuak perpaus bat edo gehiago izan ditzake, baina izan daiteke konbentzional eskemetatik at dagoen zerbait ere". Azkeneko hauetan sartu beharko lirateke ondorengo esaldi hauek: "Zure hiria ala zikinkeria", "Patxarana, muxu bat bezala", "Euskalerrian euskaraz", t.a.

Beste autore batzuen iritziz, enuntziatuak beste marka hauek ere baditu: hiztunak hitza hartzea, esaldi bat edo gehiagoko katea egitea eta isilunea edo hiztunez aldatzea. Hauen inguruan beste alderdi batzu ere aipatzen dituzte zenbaitek, hala ere, hemen erritmo-doinua izan da testua zatitzeko garaian kontuan izan dena. Testu hau lau zatitan banatu da, lau isilune nabarmen zituelako lehenengo; bigarren, erritmo-doinuzko ikuspegiz ere lau zatitan antzekoa zen. Eta bada hirugarren elementu bat ere, eta hau banaketa marka da.

Testu honetan, testu zati batzu, hau da, enuntziatuen banaketa marka batzu ikus daitezke. Ikus daitezkeenak leku eta denbora kategoriak dira: HEMEN, GERO, GERO, eta GERO. Ikus ez daitezkeenak, berriz, erritmodoinua-isiluneen sailekoak dira. Leku eta denbora kategoria horiek denak, enuntziatuari sarrera ematen diote; hala ere, lehenengo HEMEN horrek, testuaren sarrera orokorra dela dirudi; beste hiztun batzu zuzen zuzen sartu badira ere, testu honen egileak, deisisen partaide den HEMEN hori zuzenki aipatu nahi izan du.

(7) DUBOIS, J. (1go) oharrean aipatutako obran, 192 orr.

DESCLES, J.P. "Description de quelques operations enonciatives. Modeles logiques et niveaux d'analyse linguistique". Paris, 1974. 241 orr.

(8) LAZARO CARRETER. aipatutako obran, 162-163 orr.

(9) Enuntziatuaren inguruko teorietan, ROZENTAL-TELENKOVA, (2.) oharrean aipatutako BERNARDEZ-ek 89 orr. jasoak.

DUBOIS, J. "L. analyse du discours". Langage 13. (1969).

DESCLES, J.P. "Modèles logiques et niveaux d'analyse linguistique". Paris, 1974.

Beste elementuak, GERO hiru bider aipatuz, testuan denbora markatu nahi izan du; denak ETA lokarriaren bidez datoz, haserakoa ezik esan den bezala, haserakoak ez zuen lokarririk behar, aurkezpena baizik. GERO elementuak, testuari denbora sekuentziaren aldaketa adieraziko dio. Ikuspegi honetatik, testuak, denboran, lau aldaketa izan ditu, zer lehenengo enuntziatuan ere, denbora kriterioa hor dago, lehenengo GERO-aren aurrekoa, ze GERO bat baldin badago, lehen ORAIN bat edo LEHEN bat dagoelako baita.

FUCHS, C.-K (1981) (10), enuntziatua tratatzean eta deisisen barruan aurkitzen diren NI, ORAIN eta HEMEN-en funtzioa ikustean, hauek ezartzen dutela enuntziatuaren koordenadetan zero puntua dio. Enuntziatuan agertzen diren beste baloreak, HAN, GERO, ZU; HEMEN, ORAIN, NI erreferentzia hartuaz egiten dira. Markaz gainera, hots-erakera edo geldione nabarmenak egiten ditu enuntziatu batetik bestera.

Esan daiteke, bada, testu honetan haurrak zehaztasunez banatu dituela enuntziatuak, hiru denbora markaz eta bat leku markaren bidez.

Enuntziatuaren barruan komunikazio egoera eta hizkuntz zatiaren parekotasuna

TESTUA

KOMUNIKAZIO EGOERA

1go. egoera:

Haurra gela batean mahai ondoan eserita, goraizeak eskuan dituela, zenbait irudi moztan azaltzen da.

2.egoera:

Esku batean ile mataza bati heldu, bestean goraizeak dituela, ilea mozteko jarreran dago.

HIZKUNTZ GUNEA

1go. hizk. zatia:

“HEMEN, Nerea bere gelan... hartu du guraizea eta egin du, neska, txakurra...

2. hizk. zatia:

pentsatu du:
— Zer egingo det orain?
— Badakit, ilea moztzen...

eta
GERO,

(10) FUCHS, C. “Les problématiques énonciatives: Esquisse d’une présentation historique et critique”. (1981) *Drlav, Revue de Linguistique*, 25. Centre de Recherche de l’Université de Paris VIII.

BENVENISTE-k (1966) ere, “deixis”-en adierazgarri bezala erakusleak, adberbioak eta beste aipatzen ditu sujetoaren inguruan, denbora eta leku erlazio horiek lotzeko. “Problemas de linguística general” Ed. Siglo XXI. Madrid, 315 orr.

COSERIEU-k ere antzeko joera agertzen du aipatutako “Determinación y entorno” lan horretan.

TESTUA

KOMUNIKAZIO EGOERA

3.egoera:

Azkeneko ile zirrizta mozten ari denean, emakume bat atean dago, bere aurpegian arrotz jarrera du.

eta
GERO,

4.egoera:

Ispilu aurrean daude emakumea eta haurra; honek aurpegi tristea du.

eta
GERO,

HIZKUNTZ GUNEA

3. hizk. zatia:

Nerea, amatxo sartu da eta esan du:

— Nerea, zer ari zara egiten?

— Ilea mozten ari zara, ari da...

4. hizk. zatia:

esan du amatxo:

— Etorri nerekin, goazen ispilura ikusten, eta joan da eta ikusi du Nerea, ikusi du oso itxusia zegoela eta triste gelditu da.”

Lehenengo enuntziatuan, haurra ez da bakarrik irudiari lotu, irudiz kanpora atera eta denboran pauso bat atzera eman eta, HARTU DU GURAIKESA dio. Hemen, hiztunak entzuleari egoera hori agertzeko, testutik atera eta errekurso hori bilatu du; zentzu honetan, JAKOBSON, KATZ, HEIDEGGER-ek (11), hiztuna eta entzulearen arteko egokitzea komunikazio guztian ematen dela diote, hiztuna batetik entzulearen mundura egokitzen dela eta entzulea hiztunarenera. Hortaz aparte, lehenengo egoera eta hizkuntz zatiaren artean parekotasuna agertzen da.

Lehenengoa bukatu eta bigarrénean sartzeko, eta GERO hortaz baliatu da, hau da beste denbora batean sartzen da, eta beste denbora horretan bere buruarekiko elkarriketa burutuko du. Bi alderdien arteko koherentzia hemen ere argi ematen da.

Hirugarrenak, ama alaben arteko interakzioa, elkarriketa agertzen du. Bigarren enuntziatuan elkarriketa bere buruarekin baldin bazuen, hirugarrenean elkarriketa beste batekin eratzen du, kasu honetan amarekin. Bestalde, hemen elkarren papalak erabakitzen dira, aginte esaneko jarrerak erabakitzean.

Hirugarrenean aipatu diren papelen erabakitze horrek, laugarrenean indarra hartzen du, agintezko esaldi horrekin. Hizkuntz zatiak esan daite-

(11) KATZ, ikusi (7.) oharrean aipatutako liburuan, 87-92 orr.

JAKOBSON ere berdin, aipatutako liburuan, 93-94 orr.

ke komunikazio egoerari konkrezioa eman eta bestalde osatu ere egin duela.

Enuntziatu motak eta perpausen banaketa

Testu hau, kontaketa bidez egina denez, funtsean deskribapena da, bere aditza hirugarren pertsona duela. Bere luzera, lau enuntziatu deklarati boko osatzen dute. Hori horrela bada ere, zenbait berezitasun ikusten dira: Bigarren enuntziatuan, deklarati bo eraren barruan, galdera erantzuna perpausak agertzen dira. Galdera erantzunaren partaide bezala bi pertsona azaltzen dira, benetakoa bata eta fikziozkoa bestea, eta hau gerta dadin gure burua gauzatu, objetibatu egiten da; orduan bakarrik dira posible horrelako egitura sintaktikoak.

GRESILLON-ek (1981) (12) galdera-erantzunezko egitura horiek, esaldi asertibo batetik ez direla bereizten —edukinari dagokionez behintzat— dio. Autora honek hau esan nahi du: ondorengo bi egitura hauetan ez dagoela edukin aldeko diferentziarik, hau da, “¿Zer egingo det? —Ilea moztu?” (moztuko det) edo zuzenean “ilea moztuko det”-en artean ez dagoela diferentziarik. GRESILLON-en iritziz, galdera-erantzun egitura tipo hauek ez dute sendotasunik esan nahi aldetik, organizatu gabeko masa testual bati ematen zaion taxuketa bezala deskribatzen ditu.

Hirugarrenean azaltzen zaigun galderazko egitura aipatu berria dugun horretatik ezberdina da. Hasteko bi pertsona dira, ama eta alaba eta hemen amaren galdera “¿zer ari zara egiten?”-en orde z, badirudi, alabak egin duena bistan zegoenez, enfatiko edo espresio bizi batez egindako esaldi bat izan zitekeela, adibidez, “ilea moztu duzu!”; baina amaren intentzioa “zergatik egin zuen” galdera bazen, enfatiko esaldi horrek ez zukeen balioko.

Laugarren enuntziatuan, deklarati bo era horren barruan, bi perpaus agintezkoak agertzen dira eta bat konpletiba erakoa. Azkeneko honek, bere barruan, errepikapen bat du, “eta ikusi du Nerea, ikusi du” eta hemen ez da argi agertzen, bigarren errepikapen hori, beste zerbait ote den, agian “ikusi du bere burua”. Testu azterketara joateko bide honetan, ikusten denez, oraindik azaleko elementu batzu besterik ez dago, azterketa egiteko garaian, hala ere bidea ibiliz egiten delako, apal bederen heldu nahi izan zaio lan honi. Bestalde, testuak badu eta beren markak agirian jarriko dituen biderik ez da nabari oraindik, ondoren ipiniko ditugun datu hauek lekuko.

(12) GRESILLON, A. “Interrogation e interlocution”. *Drlav, Revue de Linguistique*, 25, (13.) aipatua, 1981, 61-67 orr.

2. Testua

Kontaketaren aurkezpena

Bigarren kontaketa hau, 2.orrian azaldu den bezala, haurrari lau fitxek osatutako historia eman zitzaion; honek, fitxak ordenatu ondoren kontaketa bat asmatu behar zuen bat batean.

Hona testuetako bat:

“HEMEN, mutila eta txakurra ari da jolasten, eta mutila jo dio txakurrari...

eta GERO, txakurra koska egin dio eta mutila min egin du...

eta mutila GERO, ari da negarra egiten.”

Testu hau lehenengoa baino motzagoa da eta haurrek badirudi denak edo gehienak, bigarren kontaketa hau laburragoa egin dutela. Edukinaren aldetik testu guztiak antzekoak baziren ere, hizkuntz erak desberdinak ziren. Horregatik, haur guztien testuak hartu eta beste batzuren artean ondorengo berezitasun horiek ikusi dira:

Testuaren neurria enuntziatutan

Alfa taldeak, banaz beste $\times 3,7$ enuntziatu egin ditu testuan.

Beta taldeak, banaz beste $\times 3,6$ enuntziatu testuan.

Eta taldeak, banaz beste $\times 3,5$ enuntziatu testuan.

Hiru taldeak, banaz beste $\times 3,6$ enuntziatu testuan.

Enuntziatuetan ez dago alde haundirik zentru batetik bestera, hiru eta erditik laura bitartean ibili dira, banaz besteko neurrian. Baina haurrak hartzen baditugu, beste hau ikus genezake:

Testuaren enuntziatuak haur kopuruz, %

Bi enuntziatutako testuak, % 7 haurrek.

Hiru enuntziatutako testuak, % 26-k.

Lau enuntziatutako testuak, % 65-k.

Bost eta sei enuntziatutako testuak, % 2-k.

Gehienak, hiru eta lau enuntziatutako testuak egin dituzte. Hemen nabari dena, hau da: Irudiaren zatiekiko lokera batetik, eta bestetik,

erabilitako kriterioak ere, nahiz eta beharrezkoak izan, ez dira berdin berdin ematen haur guztiengan, ze azken batean hitzun bakoitzak ezarzen baitu bere berea den marka multzoa.

Testua perpausetan

Alfa taldeak, banaz beste $\bar{x}$ 6,2 perpausa egin ditu testuan.

Beta taldeak, banaz beste $\bar{x}$ 5,56 perpausa testuan.

Eta taldeak, banaz beste $\bar{x}$ 5,04 perpausa testuan.

Hiru taldeak, banaz beste $\bar{x}$ 5,6 perpausa testuan.

Banaz besteko neurria hartuz badirudi ez dagoela halako alderik talde batetik bestera, baina hau ez da egia geroago ikusiko dugunez, enuntziatuak eta perpausak hitz neurritz begiratzat batzuegandik besteen-gana alde handia nabari bait daiteke.

Testuaren perpausen neurria haur kopuruz, %

Bi perpausetako testuak, % 3,2 haurrek.

Hiru perpausetako testuak, % 12,9-k.

Lau perpausetako testuak, % 37-k.

Bost perpausetako testuak, % 19,4-k.

Sei perpausetako testuak, % 11,2-k.

Zazpi perpausetako testuak, % 4,9-k.

Zortzi perpausetako testuak, % 9,7-k.

Bederatzi perpausetako testuak, % 1,7-k.

Testuaren perpausetan, enuntziatuekin gertatu denaren antzekoa ikusten da, gehiengoak, % 37-k lau perpausoko testua egin du; hala ere hemen aurreko koadroan agertzen ez den zerbaitetaz ohar daiteke, bostetik bederatzira bitarteko perpaus neurria % 46,9 haurrek egin dute. Zentruka diferentzia haundirik ikusten ez bada ere, haurrengan bai ikusten dira, 4 eta gehiago perpaus egin dituzten haurrak 83,9 dira.

Perpausen erak enuntziatuetan

Haur hauen testuen erak enuntziatu bakoitzean ikusteko, honako sail hauetan banatu ditugu: Psb. (perpaus simple bakarra); Psd. (perpaus

simple bat baino gehiago); Pmb. (perpaus menpeko bakarra) eta Pma. (perpaus menpeko bat baino gehiago) (13).

Haurren emaitza honelakoa izan da:

Psb.	Psa.	Pmb.	Pma.
% 53,1	% 46,9	% 3,2	—

Ikus daiteke, bada, haur hauen sintasi aldeko konplexotasuna mailarik arruntenean aurkitzen dela.

Banaketa markak, enuntziatueta

Testu honetan marka zehatz bat isiluneak egin du. Testu zati guztietan daude isiluneak, batzu haundiak eta txikiak besteak. Erabili den kriterio bat isilunea izan da, eta honen ondoan enuntziatuaren banaketa agertuko duten beste elementuek zuzpertz dute aurrez genuen intuizioa. Testu hauetan agertu diren elementuak hauek izan dira: Espazial ezaugarria “hemen” eta denbora ezaugarria “gero”; hauen ondoan, “eta” azalduko da eta baita isilune bakarra ere. Enuntziatuaren isilunea, perpaus batetik bestera pasatzerakoan egiten dena baino nabarmenagoa da.

Bestalde, kontaketa haserak ere erabili dira, bigarren taldean behintzat; hasera guztiak “hemen” markarekin azaltzen dira; lehenengoan berriz beste batzuk hasten dute testua. Hona hemen, hurrek erabili dituzten marka hauek talde ikuspegiz:

	Hemen	Gero	Eta	Isilunea	Ba, halako batean, halako batean egun batean, behin batean
Alfa taldeak	—	25,7	8,5	3,2	100
Beta taldeak	100	74,5	25,7	1,5	—
Eta taldeak	—	—	65,8	95,3	—
Guztira	100	100	100	100	100

Hemen agertzen diren elementuak, esan den bezala, enuntziatuak banatzeko eta testuaren sarrerarako erabili dira. Ez dira agertzen, zuzen zuzenean, sarrera izen batekin egiten zutenak, hau da, “Halako batean mutil bat...” esan ordez, “Mutil bat...” edo “Mikel...”-ekin sarrera egiten zutenak. Bostgarren lekuan azaltzen diren elementu horiek denak ikus

(13) GOENAGA, P. eta VILLASANTE, L. *Gramatika bideetan*. Ed. Erein, 1978. *Esta Sintaxis de la oración compuesta*. Editorial Franciscana de Aránzazu. 1976.

daiteke lehenengo taldeari dagozkiola osorik; bestalde hirugarren taldean agertzen dira "eta" elementu horren % 65,8 eta isiluneen % 95,3. Datu hau ere ezagutza mailaren ezaugarri agertzen da.

Isiluneekin batera, ondorengo hau ere ikusten da:

Perpasean isildu edo esan ez diren elementuen kopurua

Alfa taldean, % 1,2 elementuren hutsa agertzen da.

Beta taldean, % 5,2 elementuren hutsa ageri da.

Eta taldean, % 93,6 elementuren hutsa ageri da.

Guztira: 100.

Beste hau ere ikus daiteke:

Testuan, haurrek erabilitako hitzak, banaz beste

Alfa taldeak, banaz beste, $\times 35,42$ hitz erabili ditu testuko.

Beta taldeak, banaz beste, $\times 30,92$ hitz.

Eta taldeak, banaz beste, $\times 11,04$ hitz.

Zer esan, haur hauen euskararen inguruan

Hemen agertu diren datu hauek egoera bat zehazten ez badute ere, joera behintzat ikus erazten dute, hau da, hiru talde horien arteko ezberdintasunak nabarmen agertzen dira. Ezberdintasun horiek, beste arrazoiez aparte eskolako ingurugiroa oso ezberdina zuten, orri hauen haseran agertu den bezala. Ez da momentua, alderdi horri buruzko xehetasunak agertzeko, bai ordea, hizkuntzari eta bereziki haur hizkuntzari buruzko ohar batzu egiteko.

Lehenengo, haurren hizkuntza, bere baitan ikusten saiatu behar da, helduen hizkuntzarekin etengabeko konparaketak egin gabe. Haurren hizkuntza, hauen munduan bakarrik ikus daiteke, mundu hortako espresio bide berezia bezala. Horregatik, helduen hizkuntzarengana pauso bat bada ere, haur hizkuntza garaiko, adineko eta inguruko beste faktore batzuren emaitza denez (14), tratu berezia ematea, didaktikarako helburuetako besterik ez bada ere, bidezkoa dirudi.

(14) ETXEBERRIA, Feli. (1984) "Elebiduntze eta Eskolatze arazoa". "Hizkuntza Minori-tzuen Soziologia" (1986). 104-114 orr.

Haurren hizkuntza bere baitan ikusteko, beste arrazoi batzuren artean (15) ondorengo hauek ere aintzakotzat hartu behar dira. Hizkuntza haurraren aipendizaia prozesuan aurkitzen da eta areago bigarren hizkuntza bezala ikasten ari diren haurraren, gure inguruko kasu askoren gisa. Eta aipendizaian, gorputz-psike-ezagutzaren organiko hedapenez gain, jakina da inguru giroak zer ikusi haundia duela, PIAGET, VIGOTSKY, BERNSTEIN, LABOV, BORDIEU-k t.a. agertzen duten antzera. Inguru giroa eta hemengo haurren harreman sareak dira, haurren hizkuntzan pisu haundia duten elementuak eta hauek kontuan izanik, hizkuntz eredu egoera horretara egokitu behar litzateke, mundu horretan behar beharrezko gauzak komunikatzeko tresna erabilgarria lortzeko.

Bigarren, aipendizaia prozesu honetan, ez dago dudarik, irakaskuntzak ere zer esan haundia duela hizkuntza eguneroko harremanetara hurbiltzen, zuzentzen eta egokitzen. Hau, beste baliabide batzuren ondoan, garrantzietako bat bezala jo daiteke. Baina irakaskuntzan dauden irakasleek ere beren gidak eta laguntzak behar dituzte (16), beren gaia irakasteko. Hizkuntzaren alderdi didaktiko hau, oinarriko faktore bat bezala behintzat, badirudi koloka xamar dagoela, hortarako dauden hizkuntz gidek komunikazioa bultzatzen ez dutelako. Esku artean dauden gramatika, metodo eta gida didaktiko gehienak perpausan bukatzen dira, nahiz eta perpaus hori gramatika sortzailearen ikuspegiz eginga izan eta nahi bezain esaldi luze edo konplikatu egin, hor, perpausa da muga.

Gramatika horien ondorioz, hutsen zuzenketan ezartzen dugu aipendizaia legea, hau da, ongi/gaizki arauan. SAUSSURE-k jasotako hizkuntza/hizkera eta CHOMSKY-k formulatutako konpetentziak ere badu zer esanik gure gramatiken konzeptioan eta baita beren aplikapenean ere.

Azaldu diren testuak, eredu hortaz ikusiz geroz, hutsa hutsaren ondoan agertzen da, eta aitortu beharrekoa da, hau baliagarri bada ere; ikuspegi zabalago batez egiten bada, ohart daiteke, huts batzu egin arren, esaldi batzu eta esaldi kate batzu egiten dituztela, eta, komunikatu egiten dutela, zabalago edo laburrago, aberatsago edo txiroago, jatorrago edo traketsago, baina hizkuntza komunikabide bezala erabiltzen hasiak direla.

Hizkuntza komunikabide bezala erakutsi ahal izateko, bide hori errazteko (17), testu gramatika baten beharra ikusten da, hau da, zerbait besteei komunikatzerakoan, perpausaz kanpo erabiltzen ditugun hainbat

(15) AZURMENDI, M.^a Jose. (1984) "La Educación en el proceso de normalización del Euskera". "Hizkuntza Minorizatuaren Soziologia" (1986). 125-133 orr.

(16) ROTAETXE, Karmele. (1984) "Komunikazio Gaitasunaz". "Hizkuntza Minorizatuaren Soziologia" (1986), 96-101 orr.

(17) IDIAZABAL, Itziar. (1984) "Hizkuntz Minorizatuaren Soziologia" (1986). 167-181 orr.

ezaugarri aztertu eta irakasteko bidean jarriko dituen gramatika bat bitarteko baliagarria izango litzatekeela dirudi.

Testu gramatikak batikbat hizkuntza komunikabide bezala azpimarratuko luke, ez behiaboristek erabiltzen duten “tresna”, ezta estrukturalistek erabiltzen duten zentzuan ere, komunikatzeko baino tresna hutsa bezala, ez baizik hiztunek elkarrekin duten ekintzan, elkarrekiko ekintzan oinarritzen den komunikazioan du esanahi osoa hizkuntzak. Ikuspegi hontaz, hemen aurkeztutako testu horiek ere, bere huts eta guzti, komunikatzen zuten, eta areago, neurriz txiroena eman duen taldeko haurrak ere, bere muga guztiekin, batzuetan sujetuaren hutsa, elipsia edo ez, besteetan aditz laguntzailearena, edo beste edozein ezaugarriren hutsa agertu arren, gure iritziz, komunikazioa eman dute.

Azkenik, orri hauek gaian sarrera bat besterik ez direnez, umeen hizkuntzaren inguruan ezagutzarako abiapuntu bat izan daitezkeelakoan egin dira.

BERRIAK

AMERIKETAKO ESTATU BATUETARA BIDAIA

1985, Abenduak 11-22

Sarrera

Bidaia honen asmoa aspaldikoa zen. 1982an, E. Knörr, Euskal Herriko Unibertsitatearen Erretoreordea zenean, William Douglass-ek gomitatu zuen, Nevadako Unibertsitatea bisitatzeko eta horrela bi Unibertsitateen arteko lokarriak estutzeko. Gomita jaso ondoren, E. Knörr-ek Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari proposatu zion Akademiako zenbaitek ere bidaia hura egitea. Erantzuna garaiz eman ez zenez eta 1983ko Urtarrilean E. Knörr-ek kargua utzi zuenez, bidaia ez zen egin.

1984ko Abuztuan eskari bat egin zitzaion Comité Conjunto Hispano-Americano delakoari. Euskaltzaindiko sei lagunen bidaia diruz babes zezan. Erantzuna hartu zen, baina eman zen diruarekin hiru lagun doi-doi joan zitezkeen. Hori zela-ta, bilkura bat egin zen Gasteizen, Urriaren 16an, eta bertan hiru gertatu ziren izendatuak, hots, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija eta Xabier Gereño. Izendapenaren berri eman zen Euskaltzaindiaren osoko batzarrean, Donostian, Azaroak 29, 1985.

Helburuak

Lau ziren haste hastetik adierazitako helburuak:

1. Estatu Batuetako zenbait liburutegi bisitatzea, Euskaltzaindiarena eratu baino lehen informazioa bilduz. Bide batez, dauden lokarriak estutzea.
2. Fundazioen izaera eta ibilera estudiatzea.
3. Iker-lanak elkarrekin aurrera eramateko partaideak bilatzea.
4. Euskaltzaindiari diru-emaitez egiteko jendea denez, diru hori biltzeko era ikustea.

Lau helburu horiek bete-betean ardietsi dira bidaian, hemen gaika azaltzen den bezala.

Bidaiaren Kronologia

Abenduak 11.—Sondika-Madrid-New York-San Francisco.

Abenduak 12.—San Francisco-Reno.

Abenduak 13.—Reno: University of Nevada. Basque Studies Program.

Abenduak 14.—Virginia, Carson City, Tahoe.

Abenduak 15.—Reno: Joseph Crowley, Erretore jauna.

Abenduak 16.—Reno: Unibertsitat Biblioteka. Basque Studiez Program.

Abenduak 17.—San Francisco: Basque Cultural Center.

Abenduak 18.—Chicago: Newberry Library.

Abenduak 19.—Washington: Library of Congress.

Abenduak 20.—New York: Atsedeen eguna.

Abenduak 21.—New York: Public Library.

Abenduak 22.—New York-Madrid-Sondika.

I. BIBLIOTEKAK

Asko da Ameriketako Biblioteketan ikusi eta ikasi duguna, baina zoritxarrez gehienak ezin ditugu gaur eta hemen finkatu. Bestalde harreman oso interesgarriak hasi ditugu, pertsonalki agurtu eta ezagutu bai ditugu Biblioteketako ardura-dunik gorenengoetakoak. Beraz, bideak zabaldu ditugu harremanetan jarraitzeko eta gauza gogoangarri eta garrantzitsu bat ere frogatu dugu, hots, guk badugula zer ikasirik Ameriketan, baina euskal liburu eta fondoak dauzkaten bertako Biblioteketan badutela gure laguntzaren premia.

I.1. Reno (Nevada)ko Unibertsitatea ikusi genuen lehenengo lau egunetan eta bereziki bertako Unibertsital Biblioteka eta barnean kokatuta dagoen Basque Studies Program delakoaren Euskal Biblioteka. Azken honek 171 mila dolarretako aurrekontua du urtero, hots, 37 milioi pezeta. Dirutza hau langileen soldatak eta erosketak ordaintzeko zuzentzen da. Bertan geundela burutu zuten bibliotekari lanposturako hautaketa eta Maria Otero andrea hautatu zuten, hil batzu barru Euskal Herrira etorriko dena. Lau laguntzaile izango ditu libiruzain honek, orain ere bertan plantilan daudenak: Jill Brener, bibliotekarako lehen laguntzailea, Jeanne L. Harris, administrazio arazoetarako laguntzailea, Linda White, lexikografia lanetarako laguntzailea, eta Mark Ugalde, bibliografoa. Hauetatik aparte, Biblioteka orokorrean, 22 Bibliotekari daude eta 42 tekniko, Unibertsitateko 60/80 ikasle ere lan batzuetarako laguntzaile direlarik. Elkarrizketa interesgarriak izan ginenen jaun guzti hauekin:

Joseph Crowley: Unibertsitateko Erretorea.

Warren Fox: Nevadako Unibertsitateetako Dekanoa.

Harold G. Morehouse: Bibliotekaren zuzendaria.

Nancy J. Broughton: Oral History Saileko arduraduna.

Milton Wolf: Erosketen arduraduna.

Dorothy Rice: Administrazio zerbitzueta arduraduna.

Yoshi Hendricks: Katalogazioa zuzentzen duena.

Carol Parkhurst: Ordenagailuen arduraduna.

Robert Blesse: Bilduma berezien arduraduna.

Steve Zink: Instituzioetako argitalpenen koordinatzailea.

Beraz, sail guzti hauetako arduradunekin izandako elkarrizketetan, 800.000 liburu dituen Biblioteka baten funtzionamendua, gainetik baino ez bada ere, ikusi genuen, eta hainbat ohar eta eredu hartu, gehienbat ordenagailuei dagozkienak, erosketetakoak, bilduma berezienak, eta abar. Bidaiaiko dossierrean geratzen dira bilduak. Ordenagailuak Estatu Batuetako sare batetan finkatuak daude, Washingtoneko Library of Congress delakoak zentralizatuta daukana, katalogazio lanak bereziak direlarik. Sare hau gure euskal biblioteketan jarri arte ezin izango dugu hemen zerbitzu orokor hori erabili. Gure barneko informaziorako bakarrik izango da baliagarri gure ordenagailu sistema.

I.2. Chicagon Newberry Library ikusi genuen, eta Bonaparteren liburutegia, ondo gordeta dagoena, John Aubrey jaunaren eskutik. Jaun hau da "Special Collections" sailaren arduraduna. Bonaparteren Euskal Bibliotekaren katalogoa mikrofilmatzea eskatu genion eta bost-zazpi aste barru hemen izango ditugu mikrofilme guztiak.

I.3. Washingtoneko Library of Congress ikusi genuen goiz oso batetan. Peter de la Garza jaunarekin luzaro mintzatu ginen. Jaun hau Hispanic Acquisition Program delakoaren zuzendaria da. **Euskera** gure agerkaria Puvill banatzailearengandik eskuratzen dute, baina aurrerantzean guk zuzenean igortzea eskatu zigun, beste argitalpen baten trukez, hots, *Handbook of American Studies*. Biblioteka honetan dauden euskal liburuen katalogoa ere bidaliko digu. Euskal liburuekin problemak dituzte katalogazio orduan, eta proposatu ziguten baten bat hara joatea hil batetan edo lehen *Jon Bilbaok* egindako lana jarraitzeko. Bibliotekaren *Annual Report 1984*, edo Memoria eman zigun eta guk gure Memoria igorri beharko diogu. Informatizazioa orain duela bost urte nola egin duten ikusteko *Automation at The Library of Congress* liburua ere erosi genuen. Georgette Magassy Dorn andrearekin ikusi genituen gero euskal fondoak. Bost mila liburu daude gure Euskal Herriari buruzkoak, baina hamar mila dolar edo urtean zehar gastatzeko aukera problemak dituzte. Beraz, hemen ere laguntza eskatzen dute. Sara Castro Klarén andrea da Hispanic Division delakoaren zuzendaria baina ez genuen agurtu bertan ez zegoelako.

I.4. New York Public Library larunbatez ikusi genuen, baina ez nahi genuen beste xehetasunekin. Dena den, han ere interesaturik zeuden gure bisitarekin eta Danilo Figuerido jaunarekin izan beharko ditugu harremanak, berau baita Selection Officer for Spanish, South-America and Basque Materials sailaren arduraduna.

na. Espainiako Kultur Ministeritzak antolatutako erakusketa eder bat ikusi genuen, *Tesoros de España* izenduna. Leonard Bloom jaunak lagundu zigun New York-eko biblioteka hau ikusten. *Treasures from The New-York Public Library* liburu ederra erosi genuen, Biblioteka honen ondarea nolabait hemen azaltzeko.

Biblioteketan eta arduradun batzuren eskuetan utzi genituen opari gisa *Euskaltzaindiak* eta *Euskal Herriko Unibertsitateak* emandako liburuak, baita ere *Jose Antonio Aranaren Basque Music* liburu atera berria.

II. EKONOMI EREMUA

Hasteko, datu harrigarri bat: Nevadako Estatuko aurrekontuetan Kultura eta Heziketari eskaintzen zaiona % 50 da.

Nevadako Unibertsitateak Renon daukan *Basque Studies Program* delakoaren diru sarrerak, hauek izan dira 1985 urtean:

Nevadako Estatutik	125.000 dolar
Bekak	25.000 dolar
Liburuetarako (Estatutik)	11.000 dolar
Donazioak	10.000 dolar

Biblioteca gehiago aberasteko, Nevadako Unibertsitateak, Friends of The University Library erakundea sortu du. Iaz, hortik lortu zituzten ia 10.000 dolarretako eta 30.000 liburutako donazioak. Urtero afari bat egiten dute bazkide horiekin, kontuak emateko eta harremanak sendotzeko. Euskaltzaindiak antzerako zerbeit egin beharko luke bere laguntzaileekin.

Fundazioek gure ustez indar handia dute Estatu Batuetan. Liburuak argitaratzen dira haien zerrendekin. Adibidez *National Data Book* konpendioaren 9garren edizioan 24.000 fundazioen berri eskaintzen da.

Renoko Unibertsitatean Riddell jaunak *The Foundation Directory*-ren 10garren edizioa erakutsi zigun. Hor, 4403 fundazioen zehaztasunak eskaintzen dira. Interresgarria izango litzateke Euskaltzaindiak liburu hau lortzea.

Bidaian zehar, fundazioei buruz gehien zekiena hau iruditu zitzaigun: Steven G. Riddell, Renoko Unibertsitatekoa.

Fundazioen diru laguntzak atzerrira atera ahal izateko, Estatu Batuetan kokaturiko erakundeekin egindako programa konjuntioak aurkeztu behar dira. Oso posible da *Euskaltzaindiak* fundazioetatik dirua lortzea, horrelako programarik aurkezten badu.

Bidaian zehar, *Directory for North American Basque Organizations, Inc (NABO)* delako zerrenda lortu dugu. Oso baliosa izan dakioke Euskaltzaindiari, alde batetik gure diru laguntzaileen zerrendak gehitzeko, eta bestetik fundazioen munduan sartzeko.

Donazioen sistima oso interesgarria da, Estatu Batuetan guztiz erabilia dena. Han donazioak zergetatik libre daude.

Interesgarria izango litzateke hemen hau lortzea:

a) Hemen ordaintzen diren zergetatik donazioak libre geratzea. Hori lortzeko, alderdi politikoekin hitz egin beharko litzateke.

b) Komunikabideetan kanpaina bat egin, Euskaltzaindiari donazioak egitera jendea animatuz, dirutan zein liburu eta artxibo pribatuetan.

III. BESTETZU

Euskaltzaindiaren bi xede, Estatu Batuetarako bidaia honetan, honako hauek ziren:

1. Ameriketan ikerlanak aurrera eramateko bideak ikusi, Euskaltzaindiaren aginduz bakarrik edota bertako erakunderen batekin.

Luzaz mintzatu gara honetaz geure bidaian, Renon batez ere. Aipatu behar dugu, honi dagokiola, *John E. Nellor* jaunarekin izandako elkarrizketa. Jaun hori *Nevadako Unibertsitatean* (Renon) ikerlanaren elkarlotzeaz arduratzen da. Haren ustez, fundazioei aurkeztu behar zaizkie egokiro lan-asmoak. Bideak oso ugariak zirela esan zigun, fundazioen lerrokada-liburua eskuetan zuelarik.

Ikerlan hauek, memento honetan bederen, bi alor izan dezakete: dialektologia eta bertako euskarazko kazetaritza. Lehen gaiaz, *William A. Douglass*-ek aipatu zuen *G. Brettschneider*-en interesa: oraintsu jaso du haren gutuna eta pozik ekingo lioke lanari. Bigarrenari buruz, esan dezagun ehun urte bete berri direla *Escualdun Gazeta* zeritzan aldizkaria lehenbizikoz kaleratu zela Los Angeles-en eta ikerketa bat mereziko lukeela euskaraz lehen kazeta dirudien honek.

Ildo beretik mintzatu zitzaigun Leonard Bloom, Bridgeport Unibertsitateko irakaslea. Haren iritziz, lan asko egin daitezke, gai horietaz eta bestelakoez, horretako dirubabesleak faltako ez direlarik.

Hurrengo hilabeteetan harremanetan jarraituko dugu eta *Euskaltzaindiak* esan beharko luke zein izan daitezkeen lan-asmoak, beti ere, noski, ikerleek garantia guztiak ematen dizkigutela.

Aipatu beharko dugu hemen Renoko Unibertsitatearen diru babesarekin 1987rako kalean izango dela Gorka Aulestiak prestatutako *Hiztegia: Euskara-Ingeles/Ingeles-Euskara*.

2. Euskaltzaindiari diru-laguntzak emateko prest leudekeen gizabanakoak eta elkarteak bilatu.

Puntu honetan ere, aukerek zabalak eta ugariak dirudite. Gaia azaldu dugun guztietan harrera ezin hobea jaso dugu eta asmoa aurrera atera dezagun akuilatu gaituzte denek.

Gogoratu behar da 1980ko zentsoaren arabera 43000-tsu direla Estatu Batuetan bizi diren euskaldunak (ikus *Douglass*-en artikulua, *Ethnic categorization in the 1980 U.S. census: The Basque example*, "Government Publications Review", vol. I, 289-296, 1985). Asko eta asko, inolako zalantzarik gabe, *Euskaltzaindiari* diru-emaitzak egiteko prest daude, zuzenean edo fundazioen bidez, hizkuntza bait da ezaugarriarik nagusia eta euskararekiko atxikimendua handia.

Fundazioak txosten honetako beste atal batean aipatzen direnez gero, goazen orain zuzeneko emaitzetara. Gure iduriz, bertan ikusi ditugunak ikusi ondoren, dirueskari bat egin daiteke, demagun urtean behin, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz inprimaturiko gutun-iragarki batez, Euskaltzainburuak sinatua. Ez da oraingo kontua erabakitzea non inprimatu behar diren iragarkiok, baina iduritzen zaigu, nahiz gutunak handik bidaliko diren (eta Californiatik hobe, gehienenez), papereria guztia *Euskaltzaindiko* bulegoetan egin daitekeela. Hori bai, dirua jasotzeko toki bat izendatu behar da han, eta agian lan horretaz ardura zerbaixka hartuko lukeen amerikar hiritar bat.

Nolanahi ere den, ez zaigu ongi iruditzen han beste Elkartea berri bat eratzea, ezta ere Euskaltzaindiaren lagunak edo izenarekin. Batzu dira jadanik bertako euskaldunen Elkartek, zenbait ere kontrakoak edo, eta *Euskaltzaindia* ezin da, gure ustez, beste batekin plazaratu.

Jakina, erabakiko dena erabakiko dela, hangoen aburua entzun beharko da beti, eta batez ere Martin Minaberri eta Jose Ramon Zengotitarena.

Eskariaren hartzaileen lerrokada, noski, hasiak gara antolatzen, batez ere euskal elkartoki eta antzekoenak. Esan beharrik ez da, bestalde, bisita berriak egiteko premia bada: zerga-aringarri izan edo ez, diru-emaitzok handiak gerta daitezke Euskaltzaindiarentzat eta gutunezko harremanez gainera komeni da buruz buruko elkarrizketak izatea.

* * *

Azkenez, ezin ahortzi han agurtu ditugun euskaldunak: Gregorio Monreal eta Marian Zarraonaindia, Carmelo Urza eta Nicky Laxalt, Gorka Aulestia eta Mertxe Renobales, Jose Mallea, Eugene Azpeitia, Robert Laxalt, Josu Aldekoaitalora, Martin Minaberri, Jose Ramon Zengotitabengoa eta Gema Egaña, eta abar. Denei zor diegu gure eskerrik beroena egin ziguten harrera ona eta eman ziguten laguntzagatik.

Jose Antonio Arana Martija: Euskaltzain urgazlea
Xabier Gereño Arrarte: Euskaltzain urgazlea
Endrike Knörr Borràs: Euskaltzaina

LONDRESERA BIDAIA

Donostia, 1986-IV-25

Jose Antonio Arana Martija

Duela 82 urte, 1904.eko Apirilaren lehen egunetan, Londresera joan zen Azkue jauna British Museumen zeuden euskal fondoak ikustera eta Bonaparte Printzearen eskuizkribuak arakatzen. Antzerako helburuekin izan naiz aurtengo Apirilaren 8tik 10era Londresen eta hara hemen laburki lortutakoak.

Anglo-Basques Studies Society elkartearen burua den Txomin Idigoras eta nere lengusina bat, Carmen Ashman, izan nituen gidari. Elkarkez esan behar euskarazko ikastetarako ematen dituela Londresen irakasketa sare ofizialean txertatuz, hots, Inner London Education Authority (ILEA) hizkuntz eskolan. Eta Bonaparteren etxea aurkitu dutela hirian. Bost urte barru Printzearen heriotzaren mendeurrena ospatzerakoan, 1991 urtean hain zuzen, etxe honen inguruan ospakizun bat egiteko asmoetan ari dira bai elkarrekoak eta bai udaleko agintariak. Bonaparteri dagokionez, Londreseko Kensal auzoan dagoen Saint Mary Cemetery-n, Printzearen hilobia aurkitu genuen eta argazki batzu ere egin nizkion gure artxiborako.

Hamabi urte duela British Museum beste era batera eratu dute eta ordutik hona bertako biblioteka edo British Library izenekoak autonomia lortu du. Great Russell Street delakoan kokatzen dira biak oraingoz. Bertan agurtu nuen Margaret Johnson Head, Hispanic Section delakoaren zuzendaria, Euskaltzaindiaren izenean oparitxo bat emanetz. Gero, Apirilaren 10eko arratsaldean elkarriketa luze bat izan nuen euskal gaietaz arduratzen den Geoffrey West jaunarekin. Euskal eskuizkribu eta liburuen saila ondo taiatu gabe dagoela esan zidan eta hiru urtetan bukatzeko lana hasia zela aitortu. Gure laguntza beharrezkotzat hartzen zuen eta Azkue Bibliotekarekin harremanak oso interesgarriak ikusten zituen. Beraz, Durangoko Azokara etortzeko gonbidatu nuen, Euskal Herriko argitaldarekin harremanak izateko eta bide batez gure biblioteka ere ikusteko. Honi ere oparitxo bat eman nion eta nahi dugun guztia mikrofilmatzeko aukera eskaini zidan. Hasteko, Mikoletaren *Metodo breve...* mikrofilmatzea eskatu nion, eta katalogoa amaitzen dutenean mikrofilmaturik bidaliko digute.

Londreseko almatzenik handienak ere ikusi nituen, Harrods izenekoak hain zuzen, eta gauza harrigarriak ikusi nituen, tartean, salgai zeudelarik, Ortelius-en mapa originalak. Garestiak ziren benetan (ehun mila pezeta bakoitza) eta Mrs. S. D. Paessler andre zuzendariarekin hitz egin ondoren, beste baterako utzi nuen erosketa.

Canterbury-ko Unibertsitatea, eta Katedrala noski, bisitatu nituen. Unibertsitatean Europako mapa zahar bat erosi nuen, XVII. gizaldikoa. Oxfordeko Unibertsitatea eta bertako Bodleian Library ikusteko astirik ez nuen izan, baina lehengusu bati agindu nion harremanak bultzatzea Pierre d'Urte eta beste euskal idazle batzuren eskuizkribuen mikrofilmak lortzeko. Bertan dauden bertso paperak ere mikrofilmaturik lortuko ditugu dudarik gabe.

JULIO CARO BAROJA

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA-KO SARRERA HITZALDIA

Iragan Ekainaren 15ean eman zuen Julio Caro Baroja jaunak, Euskaltzain ohorezkoak, Real Academia Españolan sarrera hitzaldia.

Egun hartan Real Academia Española-ko aretoa jendez bete zen eta han ziren Euskal Herriko zenbait agintari eta erakunderen ordezkari, besteak beste, Eusko Ikaskuntza, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Madrid-eko Euskal-Etxekoak eta Euskaltzaindia.

Julio Caro Baroja “Género biográfico y conocimiento antropológico” gaiaz mintzatu zen bere hitzaldian eta Manuel Alvar López jaunak eman zion erantzuna, Caro jauna pertsona bezala aurkeztuz eta bere lan eta irakaskuntzan merituak goretsiz.

J. San Martín

1986-IX-26

“ONOMASTICON VASCONIAE” SORTAREN LEHEN LIBURUAREN AURKEZPENA IRUÑEAN

Endrike Knörr

Ekainak 21, 1986, Euskaltzaindiaren Iruñeko Ordezkaritzan, egin zen Jimeno Jurío jaunaren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Cizur* liburuaren aurkezpena.

Aurkezleak izan ziren: J.M. Satrustegi, Euskaltzaindiaren Idazkaria eta Nafarroako Ordezkarria; Endrike Knörr, Onomastika Batzorde-burua; Ricardo Cierbide, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, eta José María Jimeno Jurío bera. Entzulego ugaria izen zen, bertan euskaltzain oso eta urgazle batzu. Román Felones Nafarroako Kultur Kontseilariaren izenean Javier Iturbide, “Príncipe de Viana” Erakundearen zuzendaria etorri zen.

Satrustegi jaunaren hitzekin eman zitzaion hasiera aurkezpenari. Liburua goraipatu zuen, eskaintzen zuen informaziogatik eta erabilitako zehaztasunagatik ere. E. Knörr-en ustez, onomastika-alorrean eginkizun asko dira eta liburu hau eredu gertatuko da ondoren datozenentzat. Leku-eta lagun-izenak errespetatu behar zirela, esan zuen, historiak utzitako ondare direlako, eta gaitzetsi zituen kaleak eta hirigintzak bataiatzeko maiz sortzen diren izenak (“Las Gaviotas”, “Los Olmos”, e.a.), azken modaren ispilu.

R. Cierbidek bere poztasuna erakutsi zuen “Onomasticon Vasconiae” sortako lehen ale honengatik eta Jimeno Juríoren ikerketa-lanaren merezimendua laudatu.

Azkenik, egilea mintzatu zen, bere lanean lagundu zioten guztiei eskerrak emanez. Toponimia-bilketan premia azpimarratu zuen, herri asko hustutzen ari bait dira eta zaharrak hiltzen.

Euskaltzainek hala eskaturik, Javier Iturbide jaunak ere hitz egin zuen. Garrantzi handiko proiektua zela, esan zuen “Onomasticon Vasconiae” sortaz, eta Nafarroako Gobernua beste ale batzu diruz babesteko prest legokeela gaineratu.

Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Cizur liburua Eusko Jaur-laritzaren diru-laguntzaz argitaratu da.

“EUSKALTZAINDIAREN X. BILTZARRA” ETA “MAILEGUZKO HITZ BERRIEI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK” LIBURUEN AURKEZPENA

(Donostia, 1986, Otsailak 28)

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak:

Atsegingarri zait benetan Euskaltzaindiaren bi argitalpen berrion aurkezpena egitea. Luze-laburrez ez dira handiak; baina garrantziaz bai, nik uste. Lehenbizikoa **Euskera** da, hots, gure agerkariaren zenbaki berria, baina dena osorik Iruñean orain dela 17 hilabete egin zen Gramatika-Biltzarrari eskainia. Bigarrena, berriz, azken hiru urte honetan Euskaltzaindiak Mailegu berriei buruz eman dituen arauak dauzkan liburuska.

Bakoitzari buruz hitz bana esango dut.

I

Gogoan izango duzue, noski, nola 1984eko Irailean Gramatika-Biltzarra egin zen Nafarroako hiriburuan. Hango lanak eta agiriak datoz, bada, **Euskera**-ren zenbaki honetan.

Agian batek baino gehiagok agertuko du bere harridura. Zer? Hainbeste hots atera zuen Kongresu hark hain emaitza kaskarra, eta hain berandu emana gainera, urte t'erdi igaro delarik?

Goazen zatika galde horiei erantzunez.

Kongresu hartan, goizeko bileretan, guk *Txosten Nagusia* deitzen genuena azaldu eta eztabaidatu zen, hots, Euskaltzaindiaren Gramatika, hartako Batzordeak prestatua. Txosten hau izan zen Biltzar haren bizkar-hezurra. Gramatika honi Euskaltzaindiak behin-behineko onarpena eman zion eta berehala argitaratu zen, eta bai berehala agortu ere, eta bigarren argitalpen bat egin behar izan da.

Esanik dago honez gero Kongresuko Txosten Nagusi hori hemen ez dela azaltzen, liburu berezi gisa salgai dagoenez gero.

Zer da orduan zenbaki honetan datorrena? Txosten hori ez, beste guztia. Lehenik, Kongresuaren kronika laburra, hots, egunean-egunean, goiz-arratsalde egin zirenen kontu emate bat, baita batzar-lekutik kanpora egin ziren ospakizunak ere.

Segituan datoz irekiera-eguneko hitzaldiak: Urralburu Nafarroako Gobernua-ren Lehendakariarena, Euskaltzainburuarena —euskara batuaren Gramatikaren beharraz—, Javier Granja Pascual jaunak Arturo Campionen Gramatikari eskaini ziona eta Rosa Miren Pagola andereak euskarak Nafarroan duen egoeraz egin zuena. Hauek izan ziren Biltzar-irekiera eguneko lanak eta hor daude jasoak.

Bigarren eguna. Arratsaldean. Orotan zazpi hitzaldi. Lehenengoa, Luis Mitxelena-arena, Campionen Gramatikari buruz. Bigarrena, Suzuko Tamura, japoniar anderearena: “Hitzen ordena erabiltzeko faktoreak”, lan aski luzea eta euskara eta japoniar hizkuntzaz konparaketa eginez. Ondoren dator Beñat Oihartçabalena: “Behako bat ezezeko esaldiari”. Gero Georges Rebuschi-rena: “Positions, configurations, et classes syntaxiques, aspects de la construction de la phrase simple en basque” —hitz ordenari buruz honek ere—. Gero Alfonso Irigoienena: “Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez”. Hurrengo Hizpal delakoarena (badakizue sigla bat dela hau: Hizkuntz Puntu Arruntan Lanketa; talde honen izenean J. A. Aduriz-ek presentatu zuen lana): “Zalantzazko hainbat puntu morfosintaktiko”, hots, gaur idazle eta irakasleei azaltzen zaizkien duda eta korapiloen multzo bat; Euskaltzaindiaren Gramatika-batzordeari jakitea interesatzen zaizkion puntuak, noski. Gero Natela Sturua georgiar emakumeak ingelesez presentatu zuen bere lana mugatua eta mugagabeari buruz.

Hirugarren eguna. Arratsalde. Sei txosten. Lehenbizikoa Y. VI. Zytsar jaunarena; errusitarra da berau eta euskaraz aurkeztu zuen bere lana —bera ez zen etorri, ordea, eta beste batek irakurri zuen—: “Euskal deklinabidea”. Bigarren hitzaldia R. Trask jaun ingelesak izan zuen, euskaraz honek ere: “-ko atzizkia euskaraz”. Hurrengoa, J. L. Iturrioz: “La función de *-a* y de *-ta* a la luz de la dimensión de individuación”, hots *-a/-ta* oposaketaz. Gero, Andolin Eguzkitza —bera ez zen etorri eta beste batek irakurri zuen lana—: “Aditz modalak euskaraz”. Gero, Txanturia: hau ere errusitarra eta beste batek irakurri zuen lana, euskaraz egina: “Modu-denborazko euskal sistemaren atal bat (potentzialak)”. Eta azkenik, M.^a Luisa Pikabea: “Expresiones temporales en el habla coloquial del valle de Erro”.

Laugarren eguna. Arratsaldean txangoa egin zuten biltzarkideek Leire, Xabier eta Zangotzara. Horregatik, eta salbuespen bat eginez, goizean, Txosten nagusiaz gainera, hiru hitzaldi sartu ziren, denak zenbaki honetan daudenak. Lehenbizikoa, Angel López García: “La unidad de un modelo topológico para el estudio gramatical vasco”; Valenciano Unibertsitateko irakaslea da egilea. Bigarrena, Patxi Oroz Arizkuren: “Coincidencia formal y excepción gramatical en euskera”. Eta azkena, Gunther Brettschneider jaun alemanak: “Kasoak euskaraz eta beste hizkuntzetan”.

Bosgarren eguna. Amaiera-eguna izan zen. Goizean Euskaltzaindiak bere batzarrea egin zuen, eta gero, biltzarkideak bildurik, dominen banaketa egin zen, eta Euskaltzaindiaren Adierazpena eta Batzar-agiria eta euskaltzainburuaren azken hitzak irakurri ziren. Dokumentu guzti hauek ere zenbaki honetan jasoak daude.

Eta berandu atera delako esanari zer erantzun? Bai. Alde batetik egia da, baina ikus dezagun. Dena batera egiterik ez zegoen, eta lehentasuna eman zitzaion Txosten nagusiari, hots, liburu gisa zabaldu den Gramatikari, eta hau aski goiz atera zen.

Gainera kontuan eduki behar da Txostengile askok ez dituztela Kongresura beren lanak erabat bukatuak ekartzen eta han entzundako elkar hizketa eta eztabaiden eraginez osaketa eta zuzenketak egin nahi izaten dituztela eta horretarako epe bat eman behar izan zitzaiela. Gero, inprimerian konposaketa egin ondoren, froga edo galeradak autoreei bidali behar izan zitzaizkien, eta ikusi duzuen bezala, autoreetarik ez gutxi urrun bizi direnak dira, eta denbora asko joaten da frogak bidali, zuzendu eta berriz hartu arte. Ez da berdin autoreak hemen inguruan bizi edo mundu zabalean barreiaturik egon.

Uste dut bestalde Zientzi Kongresuetako lanekin ateratzen diren beste liburuak ere ez direla hain azkar eta aguro kalera ateratzen eta hori, esan dudana arrazoiengatik erraz konprenitzen da. Beraz, ez dakit gehiegizko atzerapena egon den. Gauza hauek ez dute beren balioa eta gaurkotasuna galtzen urte bateko atzerapenengatik.

Eskerrak eman behar dizkiogu, azkenik, Nafarroako Gobernuari, beronen laguntzaz atera baita liburua, eta —esan beharrik ez dago— argitalpen honetan lan egin duten guztiei.

Edo oker gaude, edo Iruñeko Kongresu hura mugarri antzo, gailen eta nabarmen, alegia, geldituko da Euskaltzaindiak ospatu dituen Kongresu handien herronkan.

I I

Eta goazen beste liburuskara.

Hau guztiz bestelakoa da: “Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak”, hala du titulua.

Zertara dator liburuska hau edo zein da beronen edukina?

Hitz gutiz azalduko dut.

Goizetik gauera, eta ia supituki, ustegabeko ahalbideak eta aukerak gertatu zaizkio euskarari. Ofizialtasun-maila iritsi du, irakaskuntzan sartu da, eta sekulan izan ez dituen bezalako aukerak suertatu zaizkio. Orain bada, eta egoera berri honen ondorioz, XX, mendeko gizarte hiritar batek behar duen bezalako tresna izatera etorri beharra du euskarak.

Eta horretarako, eta besteak beste, bere hitz-ondarea aberastu behar du. Hitz berrien premia gorria du, alegia.

Auzi hau korapilotsua da eta Euskaltzaindiak badaki hori.

Hitz berrien eskasia erremediatzeko hiru bide ditu euskarak: 1) lehena, beste hizkuntzetatik mailegatzea; 2) bigarrena, konposizio edo elkarketa bidez hitz berriak sortzea; eta 3) hirugarrena, deribazio edo eratorpenaren bidez hitzok moldatzea.

Euskaltzaindiak ez du uste hiru bide hauetatik bat ere baztertu behar denik. Hiruak beharko dira baliatu, kasu konkretuetan orain bata eta gero bestea erabiliz, eta halako oreka bat gordez, hizkuntzaren nortasuna arriskutan jar ez dadin.

Baina bego hau garbi: Euskaltzaindiak ez du uste hizkuntza hiritar batek gaur behar dituen hitz guztiak asmatzea edo erabakitzea berari dagokionik. Hau askoren lana da, noski: idazle, irakasle, itzultzaile, hiztegigile, hizlari eta, labur esateko, hizkuntza hau erabiltzen duten guztien lana.

Baina lan guzti hori batasun baten barnean egin dadin, badago hemen Euskaltzaindiari dagokion zerbait. Oinarrizko erizpideak finkatu eta mailegu berrien arazoan konkretuki hitzon idazkera eta itxura edo forma erabaki, hori bai, berari dagokiola uste du.

Euskaltzaindiaren asmoa da, bada, esandako hiru bide horiei buruz arau gidari batzu ematea, eta, hasteko, maileguen bideari heldu dio.

Azken hiru urte honetan hau izan da gure batzarretan akademi-gai nagusia. Gainera, bi Jardunaldi ere egin genituen Uztaritzen, txostenak aginduz eta gero eztabaidatuz. Jardunaldiok eritziak entzuteko, eta hartuko ziren arauak nondik joan beharko zuten antz emateko egin ziren, batez ere. Gero zortzi puntu aukeratu ziren Euskaltzaindiko batzarrean aztertu eta erabakitzeko. Eta lan guzti honen emaitza da liburuska honetan duzuen.

Bada hasieran sarrera bat, ez luzea, baina bai arazo honi buruz dauden korapiloak eta korapilo horien askabideak aski garbi eta hedatuki azaltzen ditue-na. Ondoren dator Uztaritzeko Adierazpena, gai honi buruz Euskaltzaindiak emana. Eta segituan banan-banan Euskaltzaindiak, bere batzarreetan eztabaidatu ondoren, erabaki dituen zortzi Puntuak.

Lehenbizikoa mailegu berrien hasierari buruz. Bigarrena bukaerari buruz. Hirugarrena “G” edo “J” duten hitzei buruz. Laugarrena “X” duten hitzei buruz. Boskarrena “Z” edo “S” kontsonanteek “L”, “N” edo “R” kontsonanteen ondoren gertatzen direnean, ea “T” bat tartekatu behar den, ez den; eta bi sudurkari desberdinen multzoa dagoenean, zer egin behar den. Seigarrena “KT”, “PT”, “DB”, “KN”, “GM”, “DM”, “DJ” multzoetan zer egin behar den. Zazpigarrena, hiru kontsonantezko multzoek ari da. Zortzigarrena, azkenik, “SZ” eta “SK” multzoek.

Gero, berriz, bibliografi apurra dator gaiari buruz, eta, azkenik, laburpen bat gaztelaniaz eta frantsesez.

Maileguzko hitzekin egin duen bezalaxe, heldu diren urteetan Euskaltzaindiak beste hainbeste egiteko asmoa du konposizio eta deribazioari buruz: arau gidari batzu eskaini, alegia, bide horiek ere behar diren hitzak sortzeko egoki erabil daitezen.

Esan dezagun, gainera —eta hori hitzaurrean garbi adierazten da— Euskaltzaindiak ez duela gomendatzen maileguetara jotzea behar denean baizik; eta orduan ere, ahal dela, mailegatu behar den hitza iturritik, hots, latinetik, eta ez gure aldameneko bi erdaretarik har dadila eskatzen du. Bestela, Iparraldekoek frantsesetik eta Hegoaldekoek gaztelaniatik zuzen hartzen badituzte, berriz ere

elkarrengandik bitaratuak egonen gara eta beti erdara horien morroi eta menpeko. Badirudi euskara kultur tresna bihurtu nahi baldin bada, honetan ere bereberea den bidea bilatzen ahalegindu behar dela.

Gainerakoan, Euskaltzaindiak proposatzen duen bidea ez da erabat etimologista eta ez erabat fonetizista ere. Bien artean halako oreka bat egin nahi du.

Arau hauek horixe izan nahi dute: arauak; ez agindu zorrotzak. Ez da pentsatu behar errealtate osoa salbuespenik gabe ingura dezaketenik. Bestela esan: kasu konkretu guztiak legepean sartzeko arau hauek balioko dutela pentsatzea, beroiengandik gehiegitxo itxarotea izango litzateke. Gainera, mailegu zahar eta berrien artean mugak ez dira beti garbi egoten, eta arau hauek mailegu berrientzat soilki balio dute.

Hori gora-behera, muga eta traba guztiak gora-behera, uste dugu arau hauek mesede handia egin dezaketela, mailegu berriak hartzean orobatasunezko ildo bat gorde dadin.

I I I

Dos publicaciones de muy distinta índole, pero que en el fondo responden a una misma preocupación, tiene el gusto de presentar hoy al público la Real Academia de la Lengua Vasca "Euskaltzaindia": la una es el número de su órgano **Euskera** que contiene las actas y trabajos del Congreso de Gramática Vasca celebrado en Pamplona en Septiembre de 1984, y la otra es el opúsculo que reproduce el texto auténtico de las normas emanadas de la Academia; normas que aspiran a regular de algún modo la ortografía y forma de los préstamos nuevos que la lengua se ve precisada a adoptar para hacer frente a las crecientes demandas y urgencias con las que hoy se encara.

Efectivamente, los tiempos corren tan veloces, los cambios se suceden tan vertiginosamente, los nuevos campos para los que el euskara se ve requerido son de tal cúmulo e índole que la Academia misma corre el peligro de verse desbordada por los acontecimientos.

De todos modos, ella procura estar a la altura de los tiempos —en cierto modo únicos para el euskara— en que le ha tocado vivir, y las dos publicaciones son —creemos— una buena prueba de ello.

Una de las grandes necesidades del euskara hoy es la de contar con el instrumento literario unificado y valedero para todo el país de habla vasca. Para esto se hace preciso tener elaborada la Gramática de este vasco literario común. Para este fin se organizó el Congreso de Gramática celebrado en Pamplona en Septiembre de 1984, en el que se discutió y aprobó el esbozo de gramática preparado por la comisión correspondiente de la Academia.

El número de **Euskera** que hoy ve la luz pública contiene, pues, las actas y trabajos de aquel Congreso, pero con una salvedad. Precisamente la ponencia que constituyó la espina dorsal del Congreso, o sea, el esbozo de Gramática vasca que allí se discutió y aprobó, no está aquí por la sencilla razón de que se publicó como libro aparte. Lo que el presente volumen abarca es el grueso del

Congreso: Crónica del mismo. Discursos de Apertura y Clausura y numerosas ponencias, muchas de ellas de personalidades de fuera del país, todas de algún modo relacionadas con Campión y su Gramática —de la que aquel año se celebraba el centenario—, y con la lengua y gramática vascas. Serán unas 20 ponencias las que en total figuran en el volumen; en él aparecen firmas tan prestigiosas como las de Brettschneider, Trask, Rebuschi, Suzuko Tamura, Nate-la Sturua, Zytsar, Txanturia, etc.

Otra de las grandes necesidades del euskara hoy es contar con el vocabulario que una sociedad de tipo urbano precisa en este siglo XX — y en la antesala ya del XXI—. Es evidente que a este respecto el euskara se halla necesitado de voces, si quiere ser vehículo apto hoy. Y no nos referimos, al decir esto, al vocabulario técnico y especializado de las ciencias, sino al de la cultura general que es patrimonio del hombre medio o corriente. El euskara necesita decidir cómo se han de decir tantas cosas que pertenecen al acervo común de esta cultura. Para ello le hacen falta voces que en el tesoro lexical tradicional no se encuentran.

Tres vías se le ofrecen al vasco para remediar esta falla:

1.^a Recurrir a los préstamos; 2.^a Formar voces nuevas por medio de la composición; 3.^a Formarlas por medio de la derivación.

La Academia cree que ninguna de estas vías debe ser descartada, sino que todas deberán ser usadas, en medidas y proporciones que no rompan un justo equilibrio, necesario siempre para no poner en peligro la identidad de la lengua.

No cree la Academia que a ella le competa, al menos hoy por hoy, el resolver ella sola cómo se han de designar tantas cosas que en la cultura moderna tienen su correspondiente nombre. Esto será labor conjunta en que han de participar tanto los escritores como los profesores, oradores y, en general, todos los usuarios del idioma.

Pero sí cree la Academia que a ella le compete la tarea de orientar y guiar de algún modo este proceso, dictando unas normas generales o orientadoras, a fin de que esta labor discurra dentro de unos cauces coherentes y no caóticos.

En estos tres últimos años la Academia se ha ocupado en la labor de estudiar y aprobar unas normas para las voces de préstamos que se hayan de adoptar, bien entendido que estas normas únicamente se refieren a la ortografía y forma que dichos préstamos deberán tener en la lengua vasca. Y esto es lo que ofrecemos en el opúsculo que hoy sale a la calle. Aunque las normas están redactadas en vasco, al final se ofrece también un resumen de ellas en castellano y en francés.

Una vez coronado este trabajo, la Academia se propone estudiar las otras vías que cree necesario incentivar, o sea, las de composición y derivación, y espera que a su debido tiempo podrá ofrecer también sobre ellas algunas directrices similares; pero para ello primeramente habrá que estudiar a fondo el tema y los problemas teóricos y prácticos inherentes al caso. El estudio relativo a la Composición está ya en marcha, aunque todavía en su fase inicial.

Y esto es todo.

**T. Etxebarriaren FLEXIONES VERBALES Y
LEXICON DEL EUSKERA DIALECTAL DE EIBAR
liburuaren aurkezpena**

Durango, 1986-V-29

Juan San Martin

Hogei urte pasatu dira Toribio Etxebarriaren *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* argitaratu zenetik eta badira hamazortzi urte edizioa aitu zenetik. Hitz bakoitzaren erabilerarako jarri zituen kontestuak, euskaraz eta erdaraz, Eibarko historiari eta bereziki gure mende honen bizitzari loturik daude, eta biltzen dituen hitzak hainako interesa sortu zuten kontestu horiek eta laster bukatu ziren lehen argitalpenaren 1.100 aleak. Geroztik ez da gauza erraza liburu horietako bat salgai aurkitzea, edonorrentzat interesgarria delarik, eibartarrontzat bitxi estimagarria.

Hori baino lehenago argitaratu zen *Euskera*-n bertan egileak berak sarreran erantsi zion gramatika. Hobeto esan, aditz laguntzailearen sistema Eibarren erabiltzen denaren arabera.

Orain, birargitaratzean, egileak berak jarri zuen eran dator, Euskaltzaindiaren ekonomia-erentzat orduan ezina eta gaur egun nekeza dena, Bizkaiko Foru Aldundiari esker lortu dugu. Beraz, bijoaz gure eskerrak (1).

Eibartarrok, orain maileguzko hitzak esaten direnak eta zerbait gehiago erdaratik zetozen bezala hartzeko eragozpenik ez dugu izan. Eta, horri esker, industri herri nahiko hazia izanarren, euskaraz erabili ditu, teknikak ez ezik, gizarte eta gogoetazko gai guziak oro.

Herbestekoeek esango dute eibartar arruntez direla: “Manifestaziño tremendua. Alkatia kabezan banda municipalakin eta pueblua masan”, edo “au dok tienpua trigua maduratzeko”. Baina gure hitza da, baita ere, “euskal-gaizto”. Eta horrek ekarri gaitu Durangora, euskal-gaiztoen gehiegikeriak larriturik, euskal ebakera jator baten bila. Zeren, eibartarrontzat, joskera traketsa eta azentu eta doinu erdaldunak erabiltzea bai da “euskal-gaiztoz berba egitea”. Alderantziz, erderatikakoak era jatorrez bereganatzen jakin zuen. Oroitzen naiz Mogelen gorazarrez (1959ko azaroan) Eibarko Udaletxean egin biltzarretan gaur Euskaltzainburu dugun Fr. Luis Villasantek zionaz, erdarazko “papel de lija”, *liz-papel* bihurtzean erakusten genuela eibartarrok euskalduntasunaren indarra. Gaur orain-

(1) Ondotik Eibarko Udalarentzat mila ale egin dira azal bereziarekin.

dik gure lepora datozen irainak ez dira makalak, baina guk badakigu ez dela nahikoa liz-papel gure komunikabideetan entzuten den euskara leuntzeko.

Adizkeraren normaltasuna eta zernahitarako hitzen ugaritasuna dira T. Etxebarrian lan honetan nabarmentzen direnak. Hori baino gehiago eskaintzen duten herrientzat bijoaz gure zorionak. Gurearen lekukotasuna hor datza.

Adibide bat jartzeko, *Lexicón*-aren hasiera hasieran, hara hor bi hitz, *anderruak* eta *aratian*, Mitxelenak bere hiztegitintzarako hain gogoz jaso dituenen artean. Hortik *sits*, “polilla” eta *zeren*, “carcoma” (xilófago) elkarren artean bereiztera arte (2) bide luzea daroa egileak metatutako hitzak kontestuz adieraztean.

Aditzaren kasoan aski dut Sebero Altuberen hitzak gogoratzea: “Eibartarren euskera, gramatikaz, garbi eta jator izan da beti; gaur ere bai; baiña iztegi, mordoillo fama ematen diote askok. Fama ori ere, ezta egiazkoa” (3). Eta horren ondotik eman zituen xehetasunak.

Guzti horren lekuko dugu liburu hau. Euskararentzat baliagarria eta eibartarrontzat zertxobait gehiago.

Obra halakoa bada, egilea bera ez zen gutiago, eta hitzaurretzat prestatu diodan aurkezpenean, liburu hontaz ez ezik, Toribio Etxebarriaren beste lan guztiak aipatzen ditut gizon eredugarriaren naharotasuna erakusteko.

Toribiogan ezer nabarmentzen bazen, bere gizontasuna zen. Zintzotasunean eredu jartzekoa. Bere sozialista ideak beti leial jarraitu zituen, beste era batera pentsatzen zutenei errespetua galdu gabe. Horren adierazgarri da liburuan ezarri dugun argazkia. Toribio, PSOEkoa, beste eibartar biren erdian. Baina nortzuk dira eibartar horiek? Edorta Alberdi eta Luis Ormaetxea, EAJen burukideetakoak.

Pertsonaren leialtasun hori erakusteko Jesus M.^a Leizaola lendakari ohiak kontatu zidana aipatuko dut: abertzale ideak zabaltzen ari zirela, 1923an Eibarren D. Poli Larrañagak antolatu zuen mitin batean ezagutu zuela pertsonalki, Toribio. Saloian aurrenengo filan zegoela eta bukatzean elkarrizketa izan zutela. Eta han bertan aitortu, “zuek predikatzen duzuten autonomia erarekin akort nago”. Neurri batean, uste horren lekuko dugu 1918an eman zuen hitzaldia: “La liga de naciones y el problema vasco”. Geroztik ez omen zuen izan Toribiokin harremanik, elkar exilaturik ikusi arte.

Toribio *Camps*aren ordezkari zen Estatuaren aldetik Errepublikaren azken garaian gerra zibila bukatu arte iraunaz. Baina, halabeharrez, biak Bordelen gertatu ziren alemanak Parisen sartzean. Larri zebiltzan exiliatuak eta Errepublikako buruzagi zen Negrin-ek Nicolas Valverde bidali zuen Jesus M. Leizaolagana adiskidetasuna gordetzen zuen Bordeleko artzapezpikuari dirua gordearazteko eskaria egin zezan. Leizaolari ez zitzaion iduritu eliza holako konpromisoetan nahasterik, baina behar bada A. Mauriac pertsona egokiago zela iduritu zitzaion; baina, alemanak sartzeaz, honek aski problema izango zuen bere buruarekin eta idea hori ere baztertu zuten. Horretan, Leizaolaren idea izan zen zortzi pertsona

(2) Osagarri, ikus *Egan*, 5-6 zenb., 1985.

(3) “Eibartarrak eta euskera”, *Euskera*, V, 1960. 41-45 orr.

zintzo eta leial hautatzea eta bakoitzari miloi bana eta itsasoz irtetzeko pasaia eman, gero, ahal zutenean eta ahal zuten neurrian, Mexico-ko Enbaxadan entregatzeko. Zeren Mexico bai zen Errepublikarekin fermuki jokatu zuena.

Pertsonak hautatzeak bere lanak zituen eta horien arteko Leizaola bera izan zen Toribio Etxebarria proposatu zuenetakoa. Orduan eman zioten Caracas-erako irtera. Beste batzuk aldiz Mexico eta beste zenbait estadutan sakabanatu ziren. Horrela, zentimo bat galdu gabe errekupearu zuten diru guzia, Mexico-ko Enbaxadan.

Sarrerako horretan agertzen dudanaren arabera, Toribiok ez zuen euskalari bezala aritzeko oinarritzko prestaera handirik, baina berez zen zentzu handiko gizona, ideak garatzen ohitua eta batez ere gauzak eraikitzen langile bikaina. Izakera horrek, eta ez bestek, lagundu zion exilio garaian herriminak eraginik, euskaraz eta gazteleraz hainbeste lan eder burutzero eta horien artean puntaren-goetan jartzekoa da gaur aurkeztzen dugun birargitalpen hau: *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar*.

**1986. URTEAN EUSKALATZAINDIKO BATZARRETARA
JOAN ZIREN EUSKALTZAIN OSOAK:**

Altuna P.	7
Charritton P.	9
Davant J.L.	5
Diharce X.	4
Haritschelhar J.	7
Hiriart-Urruty J.	2
Irigoyen A.	11
Knörr E.	9
Krutwig F.	8
Larre E.	7
Mitxelena L.	5
Ondarra F.	10
Salaburu P.	8
San Martin J.	11
Satrustegi J.M. ^a	11
Villasante L.	11
Zavala A.	2

Barandiaran J.M.
Erkiaga E.
Gorostiaga J.
Labayen A.M. ^a
Larzabal P.
Lekuona M.
Intza D.

Ohorezkoak

Leizaola J.M. ^a	1
----------------------------	---

**1986. URTEAN EUSKALTZAINDIKO BATZARRETARA EZIN ETORRIA
ADIERAZI ZUTEN EUSKALTZAIN OSOAK:**

Altuna P.	2
Barandiaran J.M.	1
Haritschelhar J.	2
Charritton P.	1
Davant J.L.	3
Diharce X.	3
Erkiaga E.	1
Gorostiaga	1

Hiriart-Urruty J.	4
Krutwig F.	2
Labaien A.M. ^a	2
Larre E.	1
Larzabal P.	5
Mitxelena L.	3
Salaburu P.	1
Zavala A.	1

**1986. URTEAN EUSKALTZAINDIKO BATZARRETARA
JOAN ZIREN EUSKALTZAIN
URGAZLEEN ZERRENDIA:**

Agirretxe E.	1	Kintana X.	1
Andiazabal P.	1		
Arana J.A.	6	Landart D.	1
Aranalde J.M. ^a	1	Lasarte M. ^a P.	1
Arejita A.	1	Lekuona J.M. ^a	1
Arregi, P.	2	Lizundia J.L.	11
Atxaga M.	7	Loidi J.A.	1
Azurmendi J.	1		
		Mendiguren X.	2
Badiola R.	6	Mugika L.M. ^a	2
Barrenengoa F.	1	Mugika J.A.	1
Bilbao J.	1		
		Oleaga J.	1
Canblong R.	1	Otegi K.	1
Duny-Pètre P.	1		
Etxaide J.	5	Peillen Tx.	1
Etxamendi E.	1	Pujana P.	1
Etxarren J.B.	1		
Etxebarria J.G.	2	Retolaza J.A.	1
Etxebarria J.M. ^a	3	Rotaetxe K.	1
Etxehandi P.	1		
Etxeberri J.		Torrealdai J.M. ^a	1
Fdez. Setien J.	2	Uribarren P.	1
Gereño X.	1	Videgain X.	2
Goenaga P.	1		
Goienetxe M.	1	Zalbide M.	1
Goikoetxea J.L.	2	Zearreta J.J.	8
Idiart R.	1		
Intxausti J.	1		
Itzaina M.	1		

EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA

EGOITZA/SEDE

Arbieto, 3
 48008 BILBO
 Tf. 94-415 81 55
 Arduraduna: Jose Luis Lizundia.

“AZKUE BIBLIOTEKA”

Ribera, 6
 48005 BILBO
 Tf. 94-415 27 45
 Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija.

GORDAILUA/ALMACEN

Carretera Bilbao-San Sebastián, s/n. Km. 4,5
 Edificio Saga - 1.ª planta
 48004 ETXEBARRI (Bizkaia)
 Tf. 94-440 62 58
 Arduraduna: Rosa M.ª Arza.

ORDEZKARITZAK/DELEGACIONES**ARABA/ALAVA**

San Antonio, 41
 01005 VITORIA/GASTEIZ
 Tf. 945-23 36 48
 Ordezkaria: Endrike Knörr.

GIPUZKOA/GUIPUZCOA

Txurruka, 7-2
 20004 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN
 Tf. 943-42 80 50
 Ordezkaria: Juan San Martin.

NAFARROA/NAVARRA

Conde Oliveto, 2-2
 31002 IRUÑEA/PAMPLONA
 Tf. 948-22 34 71
 Ordezkaria: Jose M.ª Satrustegi.

IPARRALDEA/PAYS BASQUE NORD

15 rue Port Neuf

64100 BAIONA

Tf. 07/3359-25 64 26

Ordezkarria: Jean Haritschelhar.

EUSKALTZAINBURUGOA/CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS

Euskaltzainburua/Presidente: Fr. Luis Villasante.

Buruordea/Vicepresidente: Jean Haritschelhar.

Idazkarria/Secretario: Jose M.^a Satrustegi.

Diruzaina/Tesorero: Endrike Knörr.

Iker Sailburua/Presidente Sección Investigación: Luis Mitxelena.*Jagon* Sailburua/Presidente Sección Tutelar: Juan San Martin.

Bibliotekaria/Bibliotecario: Alfonso Irigoyen.

Idazkariordea/Vicesecretario: Jose Luis Lizundia.

Bibliotekariordea/Vicebibliotecario: Jose Antonio Arana Martija.

Ekonomi Eragilea/Gestor Económico: Juan Jose Zearreta.

Argitalpenen Eragilea/Ejecutivo de Publicaciones: Ricardo Badiola Uriarte.

EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN BI URTETARAKO ORGANIGRAMA (*)

I. EGITURAZKO BATZORDEAK/COMISIONES ESTRUCTURALES

I.1. Argitalpenen Batzordea/Comisión de Publicaciones

Euskaltzainburua/Presidente de la R. A. L. V.: Luis Villasante.

Euskaltzainburuordea/Vicepresidente de la R. A. L. V.: Jean Haritschelhar.

Idazkaria/Secretario: Jose M.^a Satrustegi.

Diruzaina/Tesorero: Endrike Knörr.

Bibliotekaria/Bibliotecario: Alfonso Irigoyen.

Iker Sailburua/Presidente Sección Investigación: Luis Mitxelena.

Jagon Sailburua/Presidente Sección Tutelar y Divulgación: Juan San Martin.

Euskaltzainak/Académicos: Patxi Altuna.

Federico Krutwig.

Eragilea/Ejecutivo: Ricardo Badiola Uriarte.

I.2. “Azkue Biblioteka” Batzordea/Comisión “Azkue Biblioteka”

Burua/Presidente: Alfonso Irigoyen.

Bibliotekariordea/Vicebibliotecario: Jose Antonio Arana Martija.

Kideak/Vocales: Xabier Kintana.

Juan San Martin.

Juan Jose Zearreta.

(*) Lekarozko Barne Jardunaldietan 1985-IV-29/30 aurkeztua eta Bilbon, 1985-V-31an birretsia/Presentado en las Jornadas Internas de Lecaroz y ratificado en Bilbao el 31 de Mayo de 1985.

I.3. Ekonomia Batzordea/Comisión de Economía

Burua/Presidente: Endrike Knörr.

Idazkaria/Secretario: Juan Jose Zearreta.

Kideak/Vocales: Xabier Gereño.

Jose M.^a Velez de Mendizabal.

II. IKER SAILA/SECCION DE INVESTIGACION**II.1. Hiztegiatza Batzordea/Comisión de Diccionarios**

Burua/Presidente: Luis Mitxelena.

Buruordea/Vicepresidente: Ibon Sarasola.

Idazkaria/Secretario: Mikel Zalbide.

Idazkariordea/Vicesecretario: Ricardo Badiola Uriarte.

Kideak/Vocales: Xabier Kintana.

Luis M.^a Mujika.

Txomin Peillen.

II.2. Gramatika Batzordea/Comisión de Gramática

Burua/Presidente: Patxi Altuna.

Buruordea/Vicepresidente: Jean Haritschelhar.

Idazkaria/Secretario: Patxi Goenaga.

Idazkariordea/Vicesecretaria: M.^a Pilar Lasarte.

Kideak/Vocales: Lino Akesolo.

Miren Azkarate.

Alan King.

Jose M.^a Larrarte.

Jose A. Mujika.

Beñat Oyartzabal.

Karmele Rotaetxe.

Pello Salaburu.

II.3. Dialektologi Batzordea/Comisión de Dialectología

Burua/Presidente: Frantzisko Ondarra.

Buruordea/Vicepresidente: Jean Haritschelhar.

Idazkaria/Secretario: Jose M.^a Etxebarria.

Kideak/Vocales: Gotzon Aurrekoetxea.

Ana M.^a Echaide
 Alfonso Irigoyen.
 Beñat Oyartzabal.
 Rosa Miren Pagola.
 Karmele Rotaetxe.
 Charles Videgain.

II.4. Onomastika Batzordea/Comisión de Onomástica

Burua/Presidente: Endrike Knörr.
 Buruordea/Vicepresidente: Luis Mitxelena.
 Idazkaria/Secretario: Jose Luis Lizundia.
 Kideak/Vocales: Jean Louis Davant.
 Alfonso Irigoyen.
 Emile Larre.
 Juan San Martin.
 Jose M.^a Satrustegi.
 Pierre Xarritton.

II.5. Maileguzkoen Batzordea/Comisión de Préstamos Lingüísticos

(Batzorde suntsikorra)/(Comisión a extinguir)

- 5.1.VII. Zerrendakoa/VII lista: P. Altuna, F. Ondarra, X. Kintana.
 5.2.VIII. Zerrendakoa/VIII lista: J. Haritschelhar, E. Larre, B. Oihartzabal.

III. JAGON SAILA/SECCION TUTELAR Y DE DIVULGACION

III.1. Literatura Batzordea/Comisión de Literatura

Burua/Presidente: Federico Krutwig.
 Buruordea/Vicepresidente: Alfonso Irigoyen.
 Idazkaria/Secretario: Manu Ertzilla.
 Kideak/Comisionados: Juan Luis Goikoetxea.
 Jesus Lavin.
 Michael Morris.
 Martin Sansinenea eta
 Iparraldeko bat izendatu gabe.

III.2. Herri literatura Batzordea/Comisión de Bersolarismo

Burua/Presidente: Antonio Zavala.

Buruordea/Vicepresidente: Juan San Martin.

Idazkaria/Secretario: Antton Aranburu.

Kideak/Vocales: Jose M.^a Aranalde.

Jesus M.^a Etxezarreta.

Jose Mari Iriondo.

Mitxel Itçaina.

Emile Larre.

Juan M.^a Lekuona.

Abel Muniategi.

III.3. Azterketen Batzordea/Comisión de Exámenes

(Batzorde suntsikorra)/(Comisión a extinguir)

Burua/Presidente: Alfonso Irigoyen.

Buruordea/Vicepresidente: Jose M.^a Satrustegi.

Idazkaria/Secretario: Juan Jose Zearreta.

Kidea/Vocal: Andres Iñigo.

III.4. Oinarrizko Euskararako Batzordea/Comisión de Euskara Básico

(Batzorde suntsikorra)/(Comisión a extinguir)

Burua/Presidente: Juan San Martin.

Idazkaria/Secretario: Imanol Unzueta.

Kideak/Vocales: Norberto Agirre.

Gotzon Aurrekoetxea.

Ricardo Badiola.

Juan Luis Goikoetxea.

Patxi Urizarren.

EUSKALTZAIN OSOAK/ACADEMICOS DE NUMERO

1. Patxi Altuna, E.U.T.G., Mundaiz, Apdo. 1359, 20080 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-273100.
2. Jose Miguel Barandiaran, "Sara", 20211 ATAUN (Gipuzkoa), 943-881252.
3. Jean Louis Davant, Ecole d'Agriculture du Pays Basque, rue de l'Ursuya, 64240 HASPARREN (France), 296020/281414.
4. Xabier Diharce, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64240 HASPARREN (France).
5. Eusebio Erkiaga, Rodríguez Arias, 31-4 ezk., 48011 BILBO, 94-4417206.
6. Juan Gorostiaga, Convento Trinitarios, Avda. San Martín, 6, 48990 GETXO (Bizkaia), 94-4692441.
7. Jean Haritschelhar, "Elorrieta", 24 route de Lamigotte, 64600 ANGLET (France), 590898/038506.
8. Jean Hiriart-Urruty, Vicaire Général, Evêché, 16 rue des Gouverneurs, 64100 BAYONNE (France).
9. Damaso Inza, PP. Capuchinos, Errotazar, 42, 31014 IRUÑEA/PAMPLONA. (†)
10. Alfonso Irigoyen, Trenbideko Etorbidea, 2-5 B, 48013 BILBO, 94-4422770.
11. Endrike Knörr, Mateo Múgica, 8-2 C, 01009 VITORIA/GASTEIZ, 945-223803/233648.
12. Federico Krutwig, Ldo. Poza, 2-3, 48008 BILBO, 94-4154402.
13. Antonio M.^a Labayen, San Francisco, 35-pral., 20400 TOLOSA (Gipuzkoa).
14. Emile Larre, Curé, Irissarry, 64780 OSSES (France), 376067.
15. Pierre Larzabal, Curé de Socoa, 64500 CIBOURE (France).
16. Manuel Lekuona, Sacerdote, 20180 OIARTZUN (Gipuzkoa).
17. Luis Mitxelena, Avda. Madrid, 11 esc. dcha. 1.^o dcha., 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-469563.
18. Francisco Ondarra, Colegio de, 31795 LEKAROS (Baztan) (Nafarroa), 948-580000.
19. Pello Salaburu, Sarriena, 153, 48940 LEIOA (Bizkaia), 94-4642124.
20. Juan San Martin, Bidasoa ibiltokia, 4, 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-641435/428050.
21. Jose M.^a Satrustegi, 31810 URDIAIN (Burunda) (Nafarroa), 948-562906/223471.
22. Luis Villasante, Santuario de Aranzazu, 20560 OÑATI (Gipuzkoa), 943-780951.
23. Pierre Xarriton, 3 impasse Port Neuf, 64100 BAYONNE (France), 598127.
24. Antonio Zavala, PP. Jesuitas, 31411 XABIER (Nafarroa), 948-884000.

EUSKALTZAIN OHOREZKOAK/ACADEMICOS DE HONOR

1. Jacques Allières, 25 route d'Espagne, "L'Orangerie", 31300 TOLOUSE (France).
2. Julio Caro Baroja, "Itzea", B.º Alzate, 31780 BERA (Nafarroa). Alfonso XII, 50-7., 28014 MADRID.
3. Balentin Enbeita, Areatza auzunea, 48392 MUXIKA (Bizkaia). (†)
4. Iñaki Eizmendi "Basarri", Ntra. Sra. del Pilar, 10, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-841537.
5. Justo Garate, Mitre, 574-4.º A. Dpto. 1, 5500 MENDOZA (Argentina), 293672.
6. Nils M. Holmer, Freninge 22:22, S-270 33 VOLLSJÖ, SUEZIA.
7. Bedita Larrakoetxea, Canónigos Regulares, Pio Mortara, 1, 20560 OÑATI (Gipuzkoa), 943-780311.
8. Jesus M.ª Leizaola, Pio Baroja, 2-3, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
9. Gerardo Lopez de Guereñu, San Vicente de Paul, 8, 01001 VITORIA/GASTEIZ, 945-254614.
10. André Martinet, 10 Avenue de la Gare, 92330 SCEAUX (France).
11. Santiago Onaindia, PP. Carmelitas, Larrea, 48340 ZORNOTZA (Bizkaia), 94-6730088.
12. Jorge de Riezu, 31795 LEKAROZ (Baztan) (Nafarroa), 948-580000.
13. Terence Harrison Wilbur, Departement of Germanic Languages, University of California, LOS ANGELES, California 90024 (USA).

EUSKALTZAIN URGAZLEAK/ACADEMICOS CORRESPONDIENTES

- Jesus Acha, Avda. Sancho el Fuerte, 96, "Irrintzi", 31011 IRUÑEA/PAMPLO-
NA, 948-257021.
- Mikel Achaga, DEIA, Carlos I, 3-bajo, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-462488.
- M.^a Dolores Aguirre, Urbietta, 5-2, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-424303.
- Eugenio Agirreche, B.^o Zamalbide, Iglesia, 20100 ERRETERIA (Gipuzkoa),
943-510442.
- Gexan Alfaro, Librairie Zabal, 52 rue Panecau, 64100 BAYONNE (France),
594390.
- Jose Luis Alvarez Enparanza, "Txillardegi", Apdo. 125 Postakutxa, 20150 BILLA-
BONA (Gipuzkoa).
- Xabier Amuriza, Legarreibi, 1-2.^o dcha., 48340 ZORNOTZA (Bizkaia), 94-6732142.
- Pierre Andiazabal, Grand Séminaire, Avenue Darrigrand, 64100 BAYONNE (France).
- Marcelino Andrinua, Abadetxea, 48212 MAÑARIA (Bizkaia).
- Juan Apexetxea, Avda. de Guipúzcoa, 5, "Villa Antonia", 31012 IRUÑEA/PAM-
PLONA, 948-254063.
- Lino Aquesolo, PP. Carmelitas, 48004 BEGOÑA-BILBO, 94-4124343.
- Jose Antonio Arana Martija, Karmelo Etxegarai, 6, 48300 GERNIKA (Bizkaia),
94-4152745.
- Jose M.^a Aranalde, Párroco de Añorga, 20009 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
- Xabier Aranburu, Miracruz, 28-A-4.^o dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBAS-
TIAN, 943/279704.
- Jose Antonio Arcocha, Sorgintxulo, 2-12 C, 20100 ERRETERIA (Gipuzkoa).
- Adolfo Arejita, Doctor Areilza, 47-2.^o dcha., 48010 BILBO, 94-4436209.
- Jesus M.^a Arenaza, Gran Vía, 82-2.^o izda., 48011 BILBO, 94-4414181.
- Begoña Arregi, P.^o Pío Baroja, 8-4 C, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-216206.
- Francisca Arregi, Matia, 58-3, 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-212532.
- Miren Azkarate, Sancho el Sabio, 26-6 D, 20010 DONOSTIA/SAN SEBAS-
TIAN, 943-467585.
- Jose M.^a Azpiroz, Dermitaleria, 3-1.^o dcha, 31011 IRUÑEA/PAMPLONA.
- Jose Azurmendi, Avda. Ategorrieta, 23-2, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-277346.

* * *

- Ricardo Badiola, Bidezabal, 3-2 C, 48990 GETXO (Bizkaia), 94-4600511.
- Gaizka Barandiaran, Col. San Ignacio, Apdo 3059, 20080 DONOSTIA/SAN SEBAS-
TIAN, 943-289500.

Federico de Barrenengoa, Pl. Plácido Careaga, 12-5 izda., 48014 BILBO, 94-4353819.
 Iñaki Barriola, "Isturín", P.º Ayeté, 20009 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-211673.

Serafin Basauri, Txirio kale, 1-3, 20600 EIBAR (Gipuzkoa), 943-713590.

Jose Basterretxea, Sangüesa, 13-1.º izda., 31003 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-236696.

Isidro Baztarrika, PP. Benedictinos, Santuario de, 01193 ESTIBALIZ (Araba), 945-211149.

Juan Jose Beloqui, Villa Nere-Kaiola, Ategorrieta (Intxaurrondo, s/n), 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Alessandro Baussani, Facoltà di Lettere e Filosofia, Università degli Studi di Roma, 000100 ROMA.

Iñaki Beobide, Narrica, 31-3, 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-420982.

Juliana Berrojalbiz, Rodríguez Arias 39, 48011 BILBO, 94-4437943.

Pedro Berrondo, Gral. Lersundi, 6 ent. izda., 20007 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-461857.

Antonio Berrueta, Pío XII, 16-6 B, 01004 VITORIA/GASTEIZ, 945-251284.

Milagros Bidegain, Sancho-enea, 9, 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa).

Antonio Bilbao, Apdo. 28, 48980 SANTURTZI (Bizkaia).

Jon Bilbao, "Osabene", Torrebarria, 5, 48990 GETXO (Bizkaia), 94-4604283.

Felix Bilbao, PP. Franciscanos, 48393 FORUA-GERNIKA (Bizkaia), 94-6852001.

* * *

Joseph Camino, 15, rue de Prébendés, 64100 BAYONNE (France), 59-591782.

Jacinto Carrasquedo, Secundino Esnaola, 7-6, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Junes Casenave-Harigile, Apez Etxia, Presbytère, ALCAY, 64470 TARDETS-SORHOLUS (France).

Jorge Cortes Izal, Monasterio Velate, 5-7, 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-255759.

Jean Pierre Curutchet, 64 HELETTE (France).

* * *

Pedro Diez de Ulzurrun, San Anton, 43, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA.

Jean Baptiste Dirassar, Lotissement arrantzaleak, CIBOURE, 64500 SAINT-JEAN-DE-LUZ (France), 59-260595.

Pierre Duny Pêtre, Maison Héguitoa, 4 Chemin d'Oihonce, 64220 SAINT-JEAN-DE-PIED-DE-PORT (France).

* * *

Kepa Enbeita, Auzo-lana de Abornicano, S. A., 01449 ABORNICANO (Urcabustaiz) (Araba), 945-430032.

Karmele Esnal, Zabaleta, 50-7 D, 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-280915.

Bernardo Estornes, Secundino Esnaola, 13-3.º izda., 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Jose Estornes, Hernani, 1-7, 20014 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-428225.

Eñaut Etchamendy, Professeur Agronome, Saint-Palais, 64120 BEYRIE-SUR-JOYEUSE (France).

Jean Baptiste Etcharren, Chemin Kurutxamendi, 64220 SAINT-JEAN-DE-PIED-DE-PORT (France), 59-371735.

P. Etcheandi, Abbaye Notre Dame de Belloc, 64670 URT (France).
 Jacques Etcheverry, 2 Allées Bouflers, 64100 BAYONNE (France).
 Jean Baptiste Etcheverry, Aumonier, 64100 BAYONNE (France).
 Jose M.^a Etxaburu, Villa Ongi-etorri, B.^o Amute, 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-643002.
 Yon Etxaide, P.^o de Colón, 33-4.^o izda., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-277818.
 Ana M.^a Etxaide, Trav. Bayona, 1-2 G, 31011 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-260880.
 Juan Angel Etxebarria, Carlos Gangoiti, 5-1.^o izda., 48300 GERNIKA (Bizkaia), 94-6854952.
 Jose M.^a Etxebarria, Karmeldegia, Alto de Zorroaga, s/n., 20014 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-463002.
 Peter Etxeberria, Residende 1855, Sierra Lange L., RENO, Nevada (USA).
 Patxi Etxeberria, Sta. Maria Parish, P. O. Box 495, ILOILO CITY (Filipinas).
 Carmelo Etxenagusia, Monasterio del Refugio, Zabalbide, 104, 48006 BILBO, 94-4472500.
 Eustasio Etxezarreta, Urdaneta, 10, Apdo. 59, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-428745.

* * *

Patrik Farell (Darragh), 41 Nutley Lane, DUBLIN (Irlanda), 692641.
 Jaxinto Fernandez Setien, Orkolaga, 12-3, 20120 HERNANI (Gipuzkoa).

* * *

Victoriano Gandiaga, PP. Franciscanos, Santuario de Aránzazu, 20560 OÑATI (Gipuzkoa), 943-781302.
 Marcelino Garde, Presbítero, 31448 RIPODAS (Nafarroa).
 Jose Garmendia, "Instituto Ruiz Gijón", Paseo de la Consolación, s/n, 41710 UTRERA (Sevilla), 954-861620.
 Juan Garmendia Larrañaga, Mayor, 1, 20400 TOLOSA (Gipuzkoa), 943-670929.
 Juan Garmendia "Zeleta", Marqués de Murrieta, 35-4 E, 26005 LOGROÑO, 941-214644.
 Salvador Garmendia, Mugica-enea, 20270 ANOETA (Gipuzkoa), 943-662539.
 Xavier Gereño, Avda. del Ejército, 18-3.^o dcha., 48014 BILBO, 94-4355263.
 Patxi Goenaga, Abendaño, 21-4 C, 01008 VITORIA/GASTEIZ, 945-246771.
 Juan Luis Goikoetxea, Médico Municipal Pedro Cortés, 3-9 A, 48006 BILBO, 94-4247009/4533642.
 Manex Goienetxe, 34 Avenue de Bayonne, 64600 ANGLET (France). 59-634444.
 Bernard Goity, Evêché, rue des Gouverneurs, 64100 BAYONNE (France).
 Paul Gilsou, Abbé, Paroisse du Gros-Caillou, PARIS-7.

* * *

Marcelin Hegiaphal, Pastoralier Cheraute par, 64130 MAULEON (France).

* * *

Mariano Iceta, 31700 ELIZONDO (Nafarroa), 948-580755.
 Roger Idiart, Curé de Sauguis-Saint Etienne, 64470 TARDETS (France), 285165.
 Arantza Idiazabal, Tolarieta, 6-1 dcha. 20180 OIARTZUN (Gipuzkoa).

Joseba Intxausti, Avda. Ategorrieta, 23-2, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-271713.

Jose Angel Irigaray, Aldamar, 9-1 dcha., 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-426489.

Jose M.^a Iriondo, Avda. de Navarra, Eguzki Lore, 2-3 B, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-834351.

Michel Itçaina, Secrétaire de Mairie, 64250 CAMBO (France), 297255.

Fermin Ixurko, 31878 ALDAZ (Nafarroa), 948-504282.

* * *

Ramuntxo Kanblong, Route des Pins, 64600 ANGLET (France), 038369.

Jaime Kerexeta, Presbítero, San Roque, 24, 48230 ELORRIO (Bizkaia), 94-6820012.

Xabier Kintana, Torre Gorostizaga, 4-4 B, 48004 BILBO, 94-4123555.

Jon Kortazar, Elorriaga, 8-3, 48100 MUNGIA (Bizkaia).

* * *

Daniel Landart, Villa "Heleta", 64100 MOUGUERRE (France), 315457.

Mikel Lasa, San Juan, 14-4 E, 20003 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-421557.

Jose Manuel Lasarte, Presbítero, 31840 UHARTE-ARAKIL (Nafarroa), 948-474008.

M.^a Pilar Lasarte, Portuene, 10-3 izda., 20008 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-215015.

Imanol Laspiur, Aldatze, 3-2 izda., 20600 EIBAR (Gipuzkoa), 943-713288.

Juan M.^a Lekuona, Seminario Diocesano, DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-213911.

Gabriel Lertxundi, Abbaye Nôtre Dame de Belloc, URT, 64240 HASPARREN (France), 59-296555.

Anjel Lertxundi, Villa Teresita, s/n., 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa).

Juan Antonio Letamendia, Gabriel Aresti torrea, 3, 20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa), 943-643514.

Xabier Lete, Plaza San Juan, 20, 20130 URNIETA (Gipuzkoa), 943-551849.

Jose Luis Lizundia, Bruno Mauricio Zabala, 22-2 F, 48200 DURANGO (Bizkaia), 94-6814109.

Jose Antonio Loidi, Farmacia, Paseo de Colón, 93, 20300 IRUN (Gipuzkoa), 943-612678.

* * *

Peli Martin Latorre, M. Iradier, 9-4 izda., 01006 VITORIA/GASTEIZ, 945-232959.

Xabier Mendiguren, Doctor Delgado 8-4 C, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-272951.

Fernando Mendizabal, Camino Zarategi, 18-2 B, Intxaurren, 20015 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Marie Jeanne Minaberry, Journaliste, 64480 USTARITZ (France).

Justo Mocoroa, PP. Escolapios, Alda. Recalde, 1, 48009 BILBO.

Luis M.^a Mujika, Zabaleta, 49-4 dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Jose Antonio Mujika, Plaza del Cedro, 3-9 dcha., Bidebieta 1, 20016 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-392528.

Beñat Oyhartzabal, Bordaberria, 1 rue de Hondritz de Haut, 64600 ANGLET (France).

Jesus Oleaga, Elcano 18 ent. dcha. 48008 BILBO, 94-4436957.
 Ignacio Omaechevarria, Franciscanos, Paseo Zorrilla, 27, 47007 VALLADOLID,
 983-233026.
 Josu Oregi, Paseo Urdangarin, 20570 BERGARA (Gipuzkoa), 943-761561.
 Karlos Otegi, Gaztelu, 9-2 D, 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa), 943-834692.
 Txomin Peillen, Ibarburu, Sainte Engrace, 64560 LICQ-ATHEREY (France),
 59-286244.
 Pedro Pujana, Virgen de Begoña, 41, 48006 BILBO.

* * *

Jose Antonio Retolaza, Orueta, 1-3, 48009 BILBO, 94-4234573.
 Rudolf de Rijk, Newtonstraat 69 II, 1098 HA, AMSTERDAM (Holanda), 20-935650.
 Karmele Rotaetxe, Pl. Bombero Echaniz, 4-6 izda., 48010 BILBO, 94-4314033.
 Manuel M.^a Ruiz Urrestarazu, Adriano VI, 22-7 izda., 01008 VITORIA/GAS-
 TEIZ.

* * *

Ramón Saizarbitoria, Peña y Goñi, 1-6 dcha., 20002 DONOSTIA/SAN SEBAS-
 TIAN, 943-287990.
 Jose M.^a Sanchez Carrion, Instituto Español de Portobello, 317 A, PORTOBE-
 LLO, LONDON W-10.
 Pedro Sancristoval, Postas, 41-6, 01004 VITORIA/GASTEIZ, 945-277682.
 Carlos Santamaria, Buen Pastor, 13, 20005 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
 943-415297.
 Ibon Sarasola, P.^o Duque de Mandas, 37-1, 20012 DONOSTIA/SAN SEBAS-
 TIAN, 943-283340.

* * *

Jose Ignacio Tellechea, Usandizaga, 27-5 izda., 20002 DONOSTIA/SAN SEBAS-
 TIAN, 943-280062.
 Francisco Tirapu, Pl. San José, 4, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-227919.
 Juan M.^a Torrealday, Ategorrieta, 23-2, 20013 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
 943-271713.

* * *

Martin Ugalde, Almirante Juan Allondo, Villa Carolina, A-4 dcha., 20280 HON-
 DARRIBIA (Gipuzkoa), 943-641505.
 Patxi Uribarren, Carmelo de Begoña, 10, 48004 BILBO, 94-4124343.
 Miguel Javier Urmaneta, P.^o de Sarasate, 5, 31001 IRUÑEA/PAMPLONA.
 Ignacio Urquijo, 48270 MARKINA-MUNIBE (Bizkaia), 94-6866031.
 Arantza Urretavizcaya, Avda. Madrid, 8-9 A, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.
 Tomas Uthurry, Professeur, Grand Seminaire, Avenue Jean Darrigrand, 64100
 BAYONNE (France), 59-633340.

* * *

Jose M.^a Velez de Mendizabal, Naparroa Etorbidea, 9-3, 20500 ARRASATE
 (Gipuzkoa).
 Charles Videgain, 23 Vieille Boucherie, 64100 BAYONNE (France), 59-591536.

* * *

Pedro Yrizar, Lagasca, 54, 28001 MADRID, 91-2766393.

Julen Yurre, Seminario Menor Capuchino, Avda. de Félix Arano, 3, 31800
ALTSASU (Nafarroa), 948-560026.

* * *

Patxi Zabaleta, Amaia, 2-C-1, 31002 IRUÑEA/PAMPLONA, 948-232976.

Mikel Zalbide, Carlos I, 13-9 D, 20011 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-465462.

Gabriel Zapiain, Padre Larroca, 7, 20001 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN.

Anbrosi Zatarain, Zubieta, 40-2, 20007 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-421236.

Juan Jose Zearreta, Andrandi auzunea, 7-3, 48340 ZORNOTZA (Bizkaia), 94-6731520.

Manuel Ziarsolo, Arabella, 62-3 izda., 48007 BEGOÑA-BILBO.

Agustin Zubikarai, Sabin Arana, 4-4, 48700 ONDARROA (Bizkaia), 94-6830287.

Jose Miguel Zumalabe, Urbietta, 56-1, 20006 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN,
943-459597.

AURKIBIDEA 1986

ADURIZ, Jose Antonio: lexikologi erizpideak finkatzeko IV. Jardu- naldiak. LEF	301-304
ALTUNA, Patxi: Azpeitiko euskal ebakeraz	333-340
ALTZIBAR, Xabier: euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830) .	17-46
ARANA MARTIJA, Jose Antonio:	
Franzisko Xabier Maria Munibe eta Idiakez Peñafloredako IX. Kon- dearen genealogiaz	61-66
Felix Landaburu Madaria (1886-1918)	437-438
Betolazaren "Doctrina Christiana"	505-526
Ameriketako Estatu Batuetara bidaia	573-578
Londresera bidaia	579-580
ARREGI, Paki: Ume ereldunen euskararen inguruan	553-570
ARZA, Rosa M. ^a : argitalpen gordailuaren urteko inbentario	233-238
AURREKOETXEA, Gotzon: Euskal Herriko hizkuntz Atlasa (EHHA): Inkesta metodologia eta ezezeko datuak	413-424
AZKARATE, Miren: euskal konposizioaren inguruan	171-176
BARAIAZARRA, Luis: Markina-Xemeingo euskara aztertzen	143-170
BARRIOLA, Iñaki: Peñafloredaren zenbait asmo	13-16
BASTERRETXEA, Jose "Oskillaso": "euskal azentoa"	349-350
DARRAIDOU, L.: P. Xarritton-en Euskaltzaindian sartzea	217-273
DAVANT, Jean Louis: P. Xarritton-en Euskaltzaindian sartzea	287-294
ETXEBARRIA, Juan Manuel: kontsonante multzoen ahozkerak	361-372

ETXEBARRIA, Jose M. ^a : Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren historiarako	375-412
EUSKALTZAINDIA/Real Academia de la Lengua Vasca:	
Declaración sobre el anteproyecto de ley del euskara en Navarra	105-106
Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak: 1985-VII, IX, X eta XII	107-124
Euskal azentu eta ebakeraz II.Jardunaldiak: Euskaltzaindiaren adierazpena	441-442
Euskaltzaindiari proposamena	443-447
Euskaltzaindiari / A la Academia de la Lengua Vasca	449-450
Gure Akademiaren Akademitasunaz	451-461
Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak: 1986-I, II, III, IV, V eta VI ...	463-486
Real Academia de la Lengua Vasca al Presidente de la Junta Electoral Central	489-490
Memorandum de la audiencia concedida por el Excmo. Sr. Secretario de Universidades e Investigación	491-494
1986. urtean Euskaltzaindiko Batzarretara joan ziren euskaltzain osoak	595
1986. urtean Euskaltzaindiko Batzarretara ezin etorria adierazi zuten euskaltzain osoak	595
1986. urtean Euskaltzaindiko Batzarretara joan ziren euskaltzain urgazleen zerrenda	596
Euskaltzaindiaren aurkitzea	597-598
Egoitza / Sede	599
“Azkue Biblioteca”	599
Gordailua / Almacén	599
Ordezkaritzak / Delegaciones	599
Euskaltzainburugoa / Cargos académicos y ejecutivos	600
Euskaltzaindiko batzordeen bi urtetarako organigrama	601
Euskaltzain osoak / Académicos de número	605
Euskaltzain ohorezkoak / Académicos de honor	605
Euskaltzain urgazleak / Académicos correspondientes	607
Herri-izenei buruzko adierazpenak:	
Munitibar	497-498
Barakaldo	499-500
Ugao/Miraballes	501-502
GARMENDIA ARRUABARRENA, J.: el euskera en el Archivo General de Indias	191-194
GOIKOETXEA, M. ^a Isabel: Piarres Lafitte zenaren lanak	87-102
GEREÑO, Xabier: argitalpen gordailuaren urteko inbentarioa	233-238
GONZALEZ, L. Roberto: “ezkondu” hitzaren etimologiaz	543-549
IBARRA, I.: atlas linguistikoa eta informatika	425-434
IRIGOYEN, Alfonso:	
Nafarroako azterketak	245-246
Hizkuntzaren normalizazioa, kontzientzia linguistikoa eta euskal ebakerak	351-359

Bizidun zentzuzko izen sintagmak eta -ko genitibo nominalizatzailea	543-544
JUARISTI, Jon: el borracho burlado: transizioko komedia bat	47-54
KNÖRR, Endrike:	
Baratzia, Duranako semea	207-214
“Onomasticon Vasconiae” sortaren lehen liburuen aurkezpena Iruñean	583-584
KRUTWIG, Federico: “Prolegomena”	195-206
LIZUNDIA, Jose Luis:	
Gordailu berriko prestakizun lanez	229-232
1986.urterako Euskaltzaindiaren batzar egutegia	239-244
Euskal azentu eta ebakerari buruz jardunaldien batzordearen bilera	307-309
MITXELENA, Koldo:	
Antonio Tovar oroitzapenetan	249-252
Eratorbidea eta deklinabidea	535-541
OMACHEVARRIA, Ignacio: vascuence y romance	177-190
ONEDERRA, Miren Lourdes: hizkuntzen fonologia	327-332
PEILLEN, Txomin: Altzürükü Urrutiako leinuaren eresiak XV. mendeko	69-86
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA (ikus Euskaltzaindia)	
SAN MARTIN, Juan:	
Gabon sariak	55-60
Julio Caro Baroja, Real Academia Española-ko sarrera hitzaldia ..	581-582
T. Etxebarriaren “flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar” liburuaren aurkezpena	591-593
TXILLARDEGI: proposamen bat azentuari buruz	341-348
VALVERDU, Francesc: sobre el estándar oral catalán: el modelo de lengua en TV3	317-326
VIDEGAIN, Xarles: atlas linguistikoa eta informatika	425-434
VILLASANTE, Luis:	
Peñafloridako Kondearen II. mendeurrenean	9-12
Euskaltzaindiaren egoitza berriari buruz hitzarmena sinatu zenean ..	217-220
Lavieuville-Harosteguyren Katixima aurkeztean	221-228
P. Xarriton jaunaren Euskaltzaindian sartzea	265-269
LEF IV. Jardunaldiak	297-300
Euskal azentu eta ebakeraz II. Jardunaldiak	311-315
Euskaltzaindiaren “X. Biltzarra” eta “Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak” liburuen aurkezpena	585-588

XARRITTON, P.: P. Xarritton-en Euskatzaindian sartzea	275-285
ZALBIDE, Mikel:	
Hiztegigintza-Batzordea	127-142
Hiztegigintza-Batzordea: 1986rako ekintza plana	527-533
ZEARRETA, Juan Jose: Nafarroako azterketak	245-246